



ATAUN EGIN ELKARREKIN HERRI-PLANA

AURREDIAGNOSTIKO TEKNIKO* 2023 / 11

Ataungo Hiri Antolamendurako Plan Orokorra


SUSTATZAILEA	TALDE IDAZLEA			
ATAUNGO UDALA	HIRIGINTZA	INGURUMENA	SOZIO-EKONOMIA	PARTE-HARTZEA
 ATAUNGO UDALA	 ASTAZALDI	 ASESORIA AMBIENTAL - INGURUMEN AHOLKULARITZA	 gislan	 [a] aztiker SOZIOLOGIA IKERGUNA



A

[4. orrialde]

**DIAGNOSTIKO
PARTEKATUA**



B

[16. orrialde]

**AURREDIAGNOSTIKO
TEKNIKOA**



ATALA

**DIAGNOSTIKO
PARTEKATUA**

A ATALA AURKIBIDEA

0.	AURREKARIAK	6
1.	METODOLOGIA	7
1.1.	AURREDIAGNOSI TEKNIKOAREN AURKEZPENAK.....	7
1.2.	DELIBERAZIO JARDUNALDIA	12

1. METODOLOGIA

Erabilitako metodologia lerketa-ekintza parte hartzailea deritzon prozesu motan oinarritzen da, eraldaketa une eta proiektuetara erraz egokitzen den metodologia baita. Prozesua aurrera joan ahala, parte hartzaile izango diren subjektuek beraien iritzia erabakiko dute, eta adostasun kolektiboetan oinarritutako proposamenak eraikiko dituzte.

Lehen aurkezpenak eta saio monografikoak herritarrei lekua eta boterea eskaintzeko izango dira, eta proiektuarekiko herritarren ahalduntzea izango dute helburu. Horietan, herritarren interesekin konektatzeko heldulekuak topatzea bilatuko da, ahalduntzeak gora egin dezan, eta benetan herri lanketan norabidera gerturatu dadin.

- Lehen aurkezpen eta saio monografikoek herritarrei lekua eta boterea eskaintzeko izan dira, eta proiektuari buruzko herritarren ahalduntzea izan dute helburu. Horietan, herritarren interesekin konektatzeko heldulekuak topatzeko ahaleginak egin dira, aipatutako ahalduntzeak gora egin dezan, eta benetan herri lanketarako gerturatu dadin.
- Iritzi eta proposamenen bilketa dinamikak eta DELIBERAZIOA. Deliberazioak egungo bizi estilo konplexuari egokitutako erabaki konplexuak hartzeko aukera ematen du, interes ezberdinen batuketa hutsal batetik haratago, eta begirada kolektiboaren paradigmatik, herri begiradaren paradigmatik. Iritzi eta proposamenen bilketatik haratago doa, elkar entzun, elkar ulertu eta kokatu, eta horren ondorioz, interes kolektiboaren begiradaren arabera, elkarrekin sortu kontsentsua: elkarrekin sortu komunitatea.

Informazioa etengabe transmititu da. Espreski prozesurako sortu dira informazio guneak eta euskarriak, hala nola, ekarpenak jasotzeko kanal desberdinak ere.

1.1. AURREDIAGNOSI TEKNIKOAREN AURKEZPENAK

Dokumentuaren haserako eskemak jasotzen duen bezala, Aurre diagnosi Teknika 3 arlo nagusi uztartuz osatu da, ingurumena, sozio-ekonomia eta hirigintza arloak alegia.

Aurre diagnosi Teknika informazio trinkoa eskaintzen du. Sarrera gisa laburpen dokumentua aurki daiteke. Bertan, hiru kapitulutan Ataunen irakurketa jasotzen da, hala nola, arlo bakoitzaren inguruko kezka eta erronka nagusiak.

Aurre diagnosi teknikoaren hiru aurkezpen burutu dira.

HERRITARRAK ETA ONGIZATEA. Aia. (2023/10/04)

Saio honetan Ataungo demografia eta sozio-ekonomiaren argazkiaren laburpena eta datu esanguratsuenak partekatu eta gako zein erronka nagusiak mahai gainean jarri ziren:

Udalerriaren biziberritze demografikorako bi gako nagusi daude:

- Lehenengo: gaur egungo 0-19 urte bitarteko belaunaldi oparoa udalerrian errotzea.
- Bigarrena: orain arte ez bezala, BOL eremuaren hazkundea baliatzea.

Garapen sozio-ekonomikoari dagokionez honako gakoak azaldu ziren:

- Ataunen berezko barne-garapenak potentzialtasun mugatua du eta barne produktu gordina, hau da, aberastasunaren sorkuntza handitzeko aukera kanpo garapenetik etor daiteke
- Ataunek Goierriko dinamismo ekonomiko handiko eremuekiko (BOL) duen menpekotasun harremana agerikoa da, eta udalerriaz gaildiko lurralde ereduaren garapenak ez du mendekotasun hori zuzentzeko joerarik erakusten, handitzekoak baizik.
- Ataungo udalerrriaren garapen endogenoak ez du eskualdeko ekonomia egiturak udalerrian sortzen duen ongizatea ordezkatzeko, epe motz-ertainen behintzat, baina herri-identitate berri baten ardatza izan daiteke, ATAUN markaren sorkuntza bidean.

Edukien aurkezpenaren ondoren, herritarren txanda izan zen. Jarraian, labur, herritarren kezka eta proposamenak:

AURRERA BEGIRA: ERRONKA ETA KEZKA NAGUSIAK DEFINITU

Zeintzuk dira Ataunek dituen erroka nagusiak?

- Zaintza zerbitzuak (bereziki hirugarren adinari lotuta)
- Lehenengo sektorea: iraultza baten beharra
- Nola PRESTIGIATU gurea den hori (hiria Vs landa; lanbideak...)
- Migrazioa eta bizikidetzatza. Herriaren nortasunari heltzeko estrategiak landu behar dira (EUSKARA)
- Generoa. Dagoen errenta arrakalari atentzioa
- Euskara
- NATURAtik abiatu sortu edo sustatu nahi den hori
- Komunitatea, herri proiektua. Datozen errokeni ez zaie aurre egingo instituzioetatik soilik. Herri proiektuak sortu eta landu behar dira.
- Zerbitzuak eta azpiegitura: zer eskaini, jakinda ezin dituela ondoko herrietako zenbaitekin “konpetitu”

Erronka horiei aurre egiteko, zer landu behar dugu herri bezala?

- Zaintza
- Natura
- Lehen sektorea
- Gazteak: bertako bizitza eta bizimoduaren prestigioa
- Generoa
- Euskara
- Herriaren nortasuna
- Komunitatea

Guztiak behar du integrazioa eta proiektu komuna indartu, txapela berdinen azpian!!!

Lotura honetan aurkezpenaren dokumentazioa ikus dezakezu:

[Aurkezpena-1-SAIOA.pdf](#)

Lotura honetan aurkezpen saioaren akta ikus dezakezu:

[Memoria-1.-SAIOA-20231004.pdf](#)



LURRALDEA ETA INGURUMENA. San Gregorio. (2023/10/05)

Saio honetan Ataungo lurralde eta ingurumenaren argazkiaren laburpena eta datu esanguratsuenak partekatu eta gako zein erronka nagusiak mahai gainean jarri ziren:

Gako nagusiak:

- Ataunek duen erronka demografikoari erantzuteko, hau da, biztanleria errotzeko eta erakartzeko hiri-gune nagusi bat izatea ezinbestekoa da.
- Horretarako, Elbarrena eta San Gregorio arteko lurraldea modu bateratuan garatu beharreko hiri-gune gisa ulertzea proposatzen da, eta lurraldea hiri- zein landa-erabileren mosaiko gisa antolatzea
- Hiri-gune nagusi hori “eko-herriaren” irizpideen arabera garatzea eta eremu osoaren konektibitatea oinezko, bizikleta eta garraio publiko bidez bermatzea izan beharko lukete estrategia nagusiak eta hurrengo hamarkadako proiektu estrategikoak, ATAUN markaren sorkuntzarako zutabe gisa.
- Landa eremuak eta barreiatuak (Ergoiena eta Aia auzuneak barne) plangintzaren bigarren lurralde unitatea osatzen du.
- Landa eremuaren eta baserriaren etorkizuna bermatzeko gizarte adostasun zabalak behar dira, hain zuzen ere, ingurumenaren babesa eta lehen sektorearen iraunkortasuna bateragarri egingo dituen ikuspegi orekatuaren inguruan.
- Lehen sektoreak udalerriaren garapen endogenoan eta ATAUN markaren sorkuntzan jokatu behar duen papera, bere izaera jasangarriari eta estentsiboari lotua etorriko da, inolaz ere ez ekoizpen eredu intentsibo edota industrialari.
- Lehen sektorearen garapenak bateragarria izan beharko luke udalerriaren ingurumen- eta paisaia-ondarearen ustiapenarekin, ATAUN marka tradizioan erroto eta etorkizunera proiektatu nahi bada.

Erronkak:

- Nola ikusten da hiri-nukleo nagusi bat sortzearen proposamena? Nola eragin diezaioke auzo bakoitzaren identitateari? Eta udalerriaren identitate/marka sorkuntzari? Nola ulertzen da “eko-hiria” kontzeptua?
- Zein edukiz eta erabileraz osatu beharko litzateke aipatu “mosaikoa”? Nola bermatu hiri-nukleo nagusi horren atal ezberdinen arteko konektibitatea?
- Zein neurri har daitezke baserriaren etorkizuna bermatzeko eta, aldi berean, lehen sektorearen jarduera indartzeko? Nola sustatu onura publikoko eta agrologiako balio altua duten lurren ustiapena?
- Nola egin bateragarri lehen sektorearen sustapena eta ingurumenaren babesa? Nola ustiatu udalerriaren ingurumen- eta paisaia-ondarea?

Edukien aurkezpenaren ondoren, herritarren txanda izan zen. Jarraian, labur, herritarren kezka eta proposamenak:

AURRERA BEGIRA: ERRONKA ETA KEZKA NAGUSIAK DEFINITU

- Auzo batetik bestera oinez edo bizikletaz lasai eta seguru joateko aukera izatea.
- Nola elkartu auzoak?
- Soroak, lurrak, baratzak babestea. Hauetan ezin da eraiki. Lur urbanizable gehiago ez.
- Hainbeste etxe huts egonda berriak ez eraikitzea. Etxe hutsei irtenbide bat eman beharra.
- Nola uztartu balio agroekologikoa duten lurrak babestea eta hirigune nagusi hori sortu/eraikitzea. Zerri emango zaio lehentasuna?
- Kezka hirigune nagusi horrek ez ote dituen Aia eta Ergoien berriro ere baztertzen. Gainbeheran jarraituko ote duten kezka. Aian konektibitate arazo handiak daude. Auzo hauek indartu nahi dira.

Lotura honetan aurkezpenaren dokumentazioa ikus dezakezu:

[Aurkezpena-2-SAIOA.pdf](#)

Lotura honetan aurkezpen saioaren akta ikus dezakezu:

[Memoria-2.-SAIOA-20231005.pdf](#)



ANTOLAMENDUA. San Martin. (2023/10/09)

Saio honetan Ataungo hirigintza eta lurralde antolamenduen argazkiaren laburpena eta datu esanguratsuenak partekatu eta gako zein erronka nagusiak mahai gainean jarri ziren:

Gako nagusiak:

- Etxebizitza: erronka demografikoari erantzuteko, etxebizitza babestua sustatu (alokairua), etxebizitza hutsak merkaturatu, eta bizimodu alternatiboak eskaini beharko lirateke.
- Ekipamenduak eta zerbitzuak: barne zein kanpo eskakizunei erantzuteko, zuzkidura osatu behar da, hiri-nukleo nagusia indartuz eta beronen konektibitatea sustatuz.
- Espazio publikoa eta gunek berdeak: Elbarrenako espazio publiko adierazgarriaren baldintza espazialak hobetu eta (espazio publikoetan oro har) gunek naturalak txertatu behar dira.
- Jarduera ekonomikoak: lurzorua hiri-izaerako jardueretara bideratu behar da (LZP), eta hirugarren adinerako zaintza zerbitzuen alorra estrategikoa izan daiteke.
- Mugikortasuna eta aparkalekua: GI-2120 errepidearen funtzioa eta ezaugarriak berraztertu behar dira, hiri-nukleo nagusiko poloen artean (Elbarrena-San Gregorio) mugikortasun eredu berritzaile eta unibertsala sustatu ahal izateko; lurrazpiko aparkalekuen ereduak krisian jartzea proposatzen da.
- Azpiegiturak: telekomunikazio-zerbitzuen sarbidea puntako estandarretan bermatzea eta energia berriztagarrien instalakuntzak sustatzea dira erronka estrategikoak.

Erronkak:

- Non eta nolako etxebizitzak eskaini beharko lirateke Ataunen hurrengo 10-15 urteetan erronka demografikoari aurre egiteko?
- Zein hutsune sumatzen ditu ataundarrak ekipamenduei edota zerbitzuei dagokienean? Zein ekarpen egin diezaioke alor honek aberastasunaren sorkuntzari?
- Onartzen al da espazio publiko adierazgarri bakarra Elbarrenan egotea? Nolako espazio publikoak nahi ditugu?
- Zer egin behar da Ajarrestako eremuarekin? Zein jardueraren alde egin beharko litzateke apustu? Non?
- Onartzen da hiri-nukleo nagusiko poloen arteko ibilbide berria dela Plan Orokorren indarraldiko helburu garrantzitsuenetakoa? Nola irudikatzen da?
- Zein ekarpen egin dakizkioke alorrez alor “eko-hiriaren” garapenari?

Edukien aurkezpenaren ondoren, herritarren txanda izan zen. Jarraian, labur, herritarren kezka eta proposamenak:

AURRERA BEGIRA: ERRONKA ETA KEZKA NAGUSIAK DEFINITU

- Zer egingo dugu gure ondare naturalarekin? (biodibertsitatea,...). NATURA-k leku garrantzitsua izan behar du hartzen den norabidean
- Energetikoki burujabe izateko urratsak eman: kontzientzian eta bitartekoetan. Elikaduran burujabetza erronka ere bada
- Baserriak. Gainbehera egoeran. Baserriak hustu ahala basoak sasiz betetzen. Ondarea, etxebizitza aukerak... Zailtasunak: eraikina salbatu baina nola eta zer hipotekatu? Ez dago adostasuna baserrien etorkizuna nola. Arriskuak: espekulazioa; etxebizitzetan partitzen bada, jada ez da baserria izango, baserria eraikina bai, baina lurak eta hauen ustiaketa ere bada
- Nola egin gazteak hemen errotu eta bizimodua egin nahi dezaten
- Etxebizitza. Etxe hutsa erabilgarri jartzeaz gain, etxebizitza berriak eraiki behar dira, ez etorkizunean, jada berandu gabiltza
- Herri giroa. Herri giroa sustatu behar da, herria elkartu, ez ekintza berezietan bakarrik, edozein momentutan. Horretarako beharrezkoa ikusten dut plazan TABERNA jartzea, eraikitzea (Botika etxean). Herria sakabanatuta dago, plaza bizi bat behar da, Euskal Herriko edozein herritan ikusten den plaza edo herrigune bizia. Hori osatu edo tabernarekin lortuko da. Goierrik Hitzak duela aste batzuk zekarren artikulua zioen bezala Herriko ostatuak herri txikietako arnas gune dira, herriaren BIHOTZ.
- Gazteak herrian gelditzea nahi baldin badugu, etxebizitza eta herri giroa bermatu behar dira.
- Errepidea desbideratzea beharrezkoa ikusten dut, lasaitasuna eta segurtasuna bermatzeko.
- Kalean, plazan egoteko aterpea behar da, neguan babesteko eta udan itzala izateko.
- Eskolako parkea. Berritzea ezinbestekoa da, lotsagarri dago
- Etxebizitzak bermatu gazteentzat
- Adineko jendearentzat ekipamenduak
- Umeentzako parke egokiak, aterpe edo itzal guneak, ur txoroen parkea
- Herriko ostatua plazan, bizia emateko eta jendea lasai elkartzeko
- Asteburuetan nukleoa peatonalizatu

Lotura honetan aurkezpenaren dokumentazioa ikus dezakezu:

[Aurkezpena-3-SAIOA.pdf](#)

Lotura honetan aurkezpen saioaren akta ikus dezakezu:

[Memoria-3.-SAIOA-20231009.pdf](#)



1.2. DELIBERAZIO JARDUNALDIA

Deliberazio jardunaldiaren diseinurako oinarria dira diagnosi teknikoaren datu eta sintesiak eta aurkezpen saioetan herritarrek mahai gaineratutako kezak. Eduki horiekin diseinatu da egun osoko deliberazio jardunaldia.

Jardunaldiaren lehen zatian diagnosi teknikoaren laburpen bat egin dute Astazaldi, Ekolur eta GISLANeko kideek: datu esanguratsuenak aurkeztu eta erronkak gogoraraziz.

Horrekin batera, hiru aditu/arituk aurkezpen bana egin dute bi helburu aintzat hartuta: landu behar diren gaietarako marko bat sortzeko ekarpen bat egin eta inspiratzailea izan daitekeen esperientziaren bat ekarri.

Marijo Imaz, Urduñako teknikariak, *Elikadura Sistema Herri Antolamenduko Plan Orokorretan* izenburupean Urduñako esperientzia izan du hizpide, zeinean garapen eredu alternatibo eta burujabetza esperientzia aletu du.

Esperientzia honek agroekologikoa duen tokian tokiko elikadura – sistema alternatiboa du oinarri. Prozesuan emandako urratsak azaldu ditu.

Eta elikadura?

Elikadura behar bat da, eskubide bat.

Landa eremuan ekoizpenerako lurra babestu behar dira.

Hirugunean elikagaiak transformatzeko azpiegiturak jasoko dituen espazioak sortu behar dira.

Hirugunean elikagaiak merkaturatzeko espazioak sortu behar dira.

Gaur egun nola elikatzen gara? Non egiten ditugu erosketak? Zein da gure elikaduraren aztarna?

Zenbateko lurzorua azalera behar dugu gure herria elikatzeko? Zenbateko larre azalera gura artaldeak elikatzeko? Non merkaturatzen dira herrian ekoiztutako produktuak?

Non eraldatzen dira lehengaiak?

Urruñako proiektu agroekologikoak galdera hauei guztiei erantzun integrala eman die, horretarako, ezin bestekoak diren sareak, azpiegiturak eta politika publikoak bultzatuz.

Iñigo Cantero, Donostiako Udaleko Partaidetza teknikariak *Gizarte kohesioa* izan du hizpide. Komunitatea indartzearen garrantziaz eta horretarako, hirigintza zein espazio publikoek jokatzuten duten errolaz aritu da. Laburtuta, hauek izan dira bere hitzartzearen gako nagusiak:

- Geroz eta aniztasun handiagoko gizarte honetan, gizarte kohesioa sustatzeko
- Berdintasunaren alde eta bazterkeriaren aurka borroka egiteko
- Gaur egungo erronka konplexuei aurre egiteko,
- Komunitatea sendotu beharra dugu. Ezberdinen arteko harreman sarearen dentsitatea handitu.
- Hirigintzak badu eragina. Eta ondorioak jaso ordez (efektu kolateralak bezala), sustatu nahi dugun hiri eredurantz jotzeko tresna bezala baliatu beharko genuke.
- Lehentasunetako bat harreman errepikakorrak ahalbidetuko dituzten testuinguruak eta aukerak sortzea da.

Ibai Marcosen eskutik Usurbilgo Txirikorda esperientzia aurkeztu da. Etxebizitza modu alternatibo bat, non belaunaldi arteko topaketari garrantzia ematen zaio bai etxebizitzak duen forma eta ekipamenduengatik, baita ere bertako bizilaguna izateko bete behar diren baldintza eta konpromisoengatik. Intentzionalitate argia dago proiektuaren atzean: bizitza komunitarioa sustatzea.

Espazio eta zerbitzu konpartituak:

- terrazak, garbigailu gela, jangela eta erabilera anitzeko gela
- terraza komunitarioa
- erabilera anitzeko espazioa
- txoko-jangela familiarekin, lagunekin erabiltzeko txirikordatar baten presentziarekin
- erabilera anitzeko aretoa harriko jarduera soziokulturalak egiteko. (udal ekipamendua)

Auzotarrak eta konpromisoak:

- 18-30 urte bitarteko gazteak: 5 urtez gehienez eta haien diru sarreren %15 gehienez
- urtero udalarekin lankidetzak ekitaldi edo proiektu herrikoietan antolatzeko
- 65 urtetik gorako herritarrak jabetza etxerik ez dutenak
- Aldi erantez bateratuak: hilean behin, bi hilabete behin...



Lehen parte honen ondoren, bigarren lanketa parteari ekin zaio: deliberazio ariketari. Horretarako, sei gairen inguruan zortzi lan-mahai osatu dira. Hiru gai goizean landu dira, eta beste hirurak arratsaldean. Herritar bakoitzak beren interesen arabera aukeratu du zein lan mahaietan kokatu. Bi plenario egon dira jardunaldian landutako eduki guztiak guztion artean partekatzeko.

ONDARE NATURALA ETA GARAPEN EKONOMIKOA

ONDAREA

- Naturala: paisaia, hezkuntza, turismoa
- Kulturala: Barandiaran Museoa, hizkuntza (euskararen arnasgune), mitologia (jentilbaratza)
- Jarduerak herriratu, herriari begira

LEHENENGO SEKTOREA

- Produkzio lekuak/baratzak behar dira. Hauek non kokatu eta etxebizitzak non aztertu beharko da.
- Lur publikoak eskaini behar dira eta proiektu berritzaileak erraztu eta bultzatu bertan.
- Sektoreko pertsonak elkartu estrategia bateratua egiteko, eta elkarkidetzak hori lagundu, bide laguntza eskaini haiei.
- Modelo aldaketa. Produkzio sare berria sortu. Nekazariak elkarrekin saretu.

- Transformazioak globalki baliatu, eta osatzera jo (ez bikoiztu inguruko herrietan sortzen ari diren baliabideak).

Elikadura: udal jantokia. Balio konpartitua da elikatzea, eta lehen sektorea indartzeko eta eraberritzeko elikadura izan dadila ardatza. Udalak proiektu eta zerbitzu denetan txerta dezala bertako jakien irizpidea. Hortik herritarrengana eta eskualdera....

ZERBITZUA behar da dena lotzeko eta denari koherentzia eta lotura emateko: EKOIZPEN ATAUN bulego zerbitzua. (Orduñaren ereduaren).

ERRONKA DEMOGRAFIKOA

- Gazteak bertan errotzeko aukerak larri sumatzen dira.
- Adinekoak. Hutsunea dago bertan (?), zerbitzuak behar dira
- Auzoen arteko lotura egiteko aukerak: etxebizitzekin eta zerbitzuekin(?) Herri bizia eta bizigarria. JARDUERA EKONOMIKOEKIN

ETXEBIZITZA

- Etxebizitzak non eraiki?: Elbarrena inguruan? San Martin edo San Gregorion?
- Bereizi behar da: Zein lur nekazaritzarako? Zein etxebizitzetarako? Zein ekipamenduak jartzeko?
- Gazteak behar tenporala: Alokairua.
- Familiak salto etxe handiagoetarantz.
- Baserriak zatitzeko traba. Hau erraztu behar da, aukera eman baserriak zatitzeko.
- Merkatu dinamikoa irudikatu eta bultzatu behar da (etapaka: gazteak, familiak, nagusiak...).
- Etxe hutsak (%30) vs berriak: ongi aztertu behar da eta orekatu neurriak.
- Auzoen arteko konexioak landu etxebizitzekin. Auzoen artean egoteko lekuak, parkea... mosaikoa.
- Etxe kopuru handia baino, proiektu txikiak egin pixkanaka (eraiki faseka, beharren arabera eta aukeren arabera).
- Etxebizitza bulegoa. Udal baliabidea.
- Baserri hutsak eta sakabanatuak.
- Baserriak eraiki ziren mendien kontra eta errepidearen kontra, eta hauen artean nekazal lurak izan dira beti. Eskema hori mantendu edo aztertu behintzat



EKO-HERRIA

- Komunitateari begira.
- Burujabea.
- Baliabide naturalak.
- Orekatua, justua, duina.
- Denontzat (ikuspegi feminista)
- Ongi bizitzeko herria.
- Lehen sektoreari lotuta.
- Mugikortasuna. Nola lotu (?)
- Kultura, hezkuntza
- Lur inondagarriak: lanketa egin
- “Ataun egin elkarrekin” baina zein gara Ataun? Hausnarketa inklusiboa behar da. Jatorri aniztasunari lekua egin, aniztasun ekonomikoari, e.a.
- Zaurgarriagoak direnei ze harrera?

ATAUNEN PAPER A BOL EREMUAN


- Berezko ondarea eskaintzen dio BOLI.
- Ataundarroiei begira jarri zerbitzuak. Lehenengo gure beharrei eman erantzuna; gero eskualdeari begira.
- Estrategia: lehen sektorea indartzea.
- Zaintza: espazio partekatuek, transmisioa, kapitala...
- Ajarresta (?), zer egin? Zertarako erabili lur eremua?
- Ataun marka orde, harrotasuna.


- Herri nukleoa: San Gregorio eta Elbarrena lotzeko bidegorria (kaxetaraino?)
- Mugikortasun kultura = kotxea. Irauli behar da, eta zaila da
- Funtzionatuko ote duen zalantza.
- Helburu handien bila jo behar da eta betetzen joan pixkanaka.
- Pizsina: hiri eremuan ekipamendua edo erreka ondoan.
- Elbarrena zeharkatzen duen errepidea (?) desbideratzeko aukera. Erdigunea oinezkoa izan dadila.
- Etxebizitza
- Zergatik ez dira etxeak egiten?
- Besteek eskaini ezin duten eskaintza egin.
- Etxebizitzak bukatu (eskeletoa). Proiektu berritzaileak
- Ez bikoiztu zerbitzuak, osatu.
- Aiako egoera aztertu. Baserri sakabanatuak. Zerbitzuak hobetu.
- Lurrak berreskuratzeko aukera landu (?)



Deliberazio Jardunaldiaren akta

15





B

ATALA

**AURREDIAGNOSTIKO
TEKNIKOA**

MEMORIA · AURKIBIDEA

0. AURREDIAGNOSIAREN LABURPENA	5
1. SARRERA	19
1.1. DIAGNOSTIKO AGIRIAREN IZAERA ETA EDUKIA	21
1.1.1. UDAL PLANGINTZARAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENA	21
1.1.2. HIRI ANTOLAMENDURAKO PLAN OROKORRA	21
1.1.3. DIAGNOSTIKOAREN KOMENIGARRITASUNA ETA EGOKITASUNA	22
1.1.4. DIAGNOSTIKOAREN IRIZPIDE ETA HELBURU OROKORRAK	23
1.1.5. DIAGNOSTIKOAREN METODOLOGIA OROKORRA ETA AURREIKUSITAKO FASEAK	23
1.2. DIAGNOSTIKOAREN AGIRIAREN EGITURA	24
1.3. SUSTATZAILEA ETA TALDE IDAZLEA	24
2. INGURUMEN AZTERKETA	25
2.1. LURRALDEAREN INGURUMEN AZTERKETA	27
2.1.1. PLANAREN JARDUN-ESPARRUA ETA KOKAPENA	27
2.1.2. INGURUNE FISIKOA	27
2.1.3. INGURUNE BIOTIKOA	36
2.1.4. NATURA INTERESEKO EREMUAK	46
2.1.5. PAISAIA	50
2.1.6. KULTURA ONDAREA	52
2.1.7. INGURUMEN ARRISKUAK	54
2.1.8. ARRISKU TEKNOLOGIKOAK	60
2.1.9. HIRIKO METABOLISMOA	62
2.1.10. MUGIKORTASUNA ETA IRISGARRITASUNA	63
2.1.11. INGURUMEN- ETA PAISAIA-UNITATE HOMOGENEOAK	64
2.1.12. INGURUMEN ALDERDI GARRANTZITSUEN LABURPENA	67
2.2. BESTE PLAN EDO PROGRAMA BATZUEKIKO ELKARRERAGINAREN AZTERKETA	69
2.2.1. LURRALDEAREN ANTOLAMENDURAKO GIDALERROAK	69
2.2.2. BEASAIN-ZUMARRAGAKO (GOIERRIKO) LURRALDE PLAN PARTZIALA	70
2.2.3. LURRALDEAREN ARLOKO PLANAK (LAP)	72
3. AZTERKETA SOZIO-EKONOMIKOA	77
3.1. DEMOGRAFIA	79
3.1.1. BILAKAERA	79
3.1.2. ADIN EGITURA	86
3.1.3. BIZTANLERIAREN JATORRIA	91
3.1.4. BIZTANLERIAREN MUGIMENDUAK	94
3.1.5. PROSPEKTIBA	102
3.2. BIZIKIDETZA UNITATEAK	106
3.2.1. BILAKAERA	106
3.2.2. EZAUGARRIAK	106
3.2.3. BIZIKIDETZA UNITATE ZUARGARRIAK	109
3.2.4. PROSPEKTIBA	110

3.3. GIZARTE KOHESIOA	111
3.3.1. ERREALITATE SOZIOKULTURALA	111
3.3.2. ERREALITATE SOZIOLABORALA	114
3.4. EKONOMIA EGITURA	121
3.4.1. EGITURA EKONOMIKOA	121
3.4.2. ESTABLEZIMENDUAK	122
3.5. ETXEBIZITZA PARKEA	126
3.5.1. BILAKAERA	126
3.5.2. EZAUGARRIAK	128
3.5.3. ERABILERA	131
3.5.4. BASERRIAK	133
3.6. ZERBITZUAK ETA MUGIKORTASUNA	135
3.6.1. ZERBITZUAK	135
3.6.2. MUGIKORTASUNA	137
3.7. ONDORIO NAGUSIAK	139
 4. HIRIGINTZA AZTERKETA	 143
4.1. SARRERA	145
4.1.1. ESKUALDEKO ENKOADRAKETA ETA INGURUNE FISIKOAREN AZALPENA	145
4.1.2. UDAL PLANGINTZAREN LEGE ESPARRUA	149
4.1.3. LURRALDE ANTOLAKETA ETA ERAGINA DUTEN HIRIGINTZA TRESNAK	149
4.1.4. INDARREKO UDAL PLANGINTZA ETA ERAGINA DUTEN BESTE PROIEKTUAK	175
4.2. GARAPEN HISTORIKOA ETA EGITURA MORFOLOGIKOA	191
4.2.1. HITZAUURREA	191
4.2.2. HIRIBILDUAREN AURREKO GARAIAK	191
4.2.3. XVII. MENDEA (1615)	192
4.2.4. XX. MENDEA	193
4.2.5. GARAPEN MORFOLOGIKOARI BURUZKO HAUSNARKETAK	194
4.3. EGUNGO HIRIGINTZA EREDUAREN AZTERKETA	196
4.3.1. ESPAZIO PUBLIKOA ETA EKIPAMENDUAK	196
4.3.2. MUGIKORTASUNA ETA GARRAIOA	199
4.3.3. ETXEBIZITZA	203
4.3.4. JARDUERA EKONOMIKOA	204
4.3.5. AZPIEGITURAK ETA ENERGIA	205
4.3.6. ONDAREA	206
PLANOAK	207
A1. UDALERRIAREN MARKO GEOGRAFIKOA	207
A2. UDALERRIAREN MUGAKETA	208
A3. UDALERRIAREN MARKO FISIKOA	209
B1. INDARREKO PLANGINTZA OROKORRA	210
B2. INDARREKO PLANGINTZA: BIZTANLERIA ETA ETXEBIZITZAK	211
B3. INDARREKO PLANGINTZA: EKIPAMENDUAK ETA ESPAZIO PUBLIKOA	212
B4. INDARREKO PLANGINTZA: JARDUERA EKONOMIKOAK	213

*0**

AURREDIAGNOSIAREN LABURPENA

00 AURREDIAGNOSIAREN LABURPENA

Hiri Antolamendurako Plan Orokorra udalerri batean egiten den ariketa kolektibo garrantzitsuenetakoa da, besteak beste, datorrena aurrez ikusi eta egoera berriari bere beharren arabera egokitzen lagundu behar duelako. Etorkizunari begira jarrita, ordea, gogoan izan behar da iraganak adierazten diguna: udalerri baten ezaugarriak oso estu lotuta doazela bere inguruari eta garai bakoitzaren gorabehereri. Udalerrri oro bere inguruari eta garaian garaikoari zor zaio, eta hala eraiki behar genuke geroko ibilbidea.

Hori da, hain zuzen ere, Hiri Antolamendurako Plan Orokorra berritzeko orain hasi dugun prozesuaren erronka. Lehen pausoa, beraz, udalerriaren egungo egoeraren eta une honetara ekarri duten aldagaien diagnostiko zuzena egitea da; batetik, datuen argitara ondorioztatzen den diagnostiko tekniko landuz eta, bestetik, ikuspegi tekniko hori Ataungo herritarren begiradapean osatuz.

Agiri hau, Aurrediagnoztiko tekniko deitu duguna, lehen urrats horri dagokio, sinatzen dugun teknikariok hiru ezagutza lerrotan (ingurumena, sozio-ekonomia eta hirigintza) Ataungo udalerriari ateratako unean uneko argazki ahalik eta sakon eta objektiboena. Ondoren, Aurrediagnoztiko tekniko horren sintesi moduan, Plan Orokorren hausnarketa prozesu partekatuen gidalerroak aurkezten dira, hiru multzo nagusitan:

LEHEN HAUSNARKETA MAILA: LURRALDEA ETA GARAPEN EREDUA

1/1 BALDINTZATZAILEAK: LURRALDE ENKOADRAKETA

- **Udalaz gaindiko lurralde zein arloko plangintzak (LAG, LPS, LZF) Ataungo udalerriari egiten dizkion aipamenak oso urriak eta hondarrekoak dira.**

Goierriko Lurraldearen Zatik Planaren (LZF) lurralde ereduak eskualdeko bi burutzen arteko eremura (Beasain-Zumarraga ardatza) eramaten du eskualdeko garapenaren erdigunea, eta eredu horren baitan Ataun are eta zokoratuago geratzen da.

Edonola, LZFak "lurraldera sartzeko gunetzat" sailkatzen du San Martin herrigunea, eta GI-2120 errepidea bigarren mailako errepideen artean zerrendatzeaz gain, ez dio egiturazko funtziorik aitortzen.

Jarduera ekonomikoak antolatzeak LPSak garapen txikiko udalerri gisa kategorizatzen du Ataun.

Gipuzkoako Bizikleta Bideen LPSak egun Beasaindik abiatzen den bizikleta bidea Ataungo Elbarrena auzuneraino luzatzeko proposamena jasotzen duen arren, ez dago hura burutzeko inolako proiekturik.

Nekazaritza eta Basozaintzako LPSak ez du Ataun espresuki aipatzen, Ataungo udalerriaren ingurumen ondareak potentzialtasun handia duen arren.

- **BOL eremuak Ataundik biztanleria bereganatzen du. Ataunek migrazio saldo negatiboa (69 pertsona) Goierriarekin bakarrik du; hau da, gehiago dira Ataundik Goierriara bizitzera joan diren pertsonak Goierritik Ataunera joan direnak baino. Galera nagusia BOL eremuarekin izan da, Lazkaoarekin, bereziki.**

BOL eremuak, Ataunek ez bezala, biztanleria hazkunde jarraia izan du azken urteetan. Ataunen migrazio saldoari dagokionez, 2014 urtetik aurrera joera erabat aldatzeko izan da, azken urteetako balantzea negatiboa izateraino. Nolanahi ere, 2010-2022 urteen artean 65 pertsona irabazi ditu udalerriak.

Bide horretan, Ataunen kanpo mugimenduen interakzio handiena Goierriarekin eta Gipuzkoarekin badira ere, balantze positibo handiena estatuekin (48 pertsona), baina estatutik kanpo jaiotako pertsonak dira, nagusiki, Amerikarekin (45 pertsona) eta Europarekin (28 pertsona) izan da.

Bestalde, azken hamarkadan Ataunek migrazio saldo negatiboa (69 pertsona) Goierriarekin bakarrik izan du. Galera nagusia BOL eremuarekin izan da: Beasainekin (9 pertsona), Ordiziarekin (4 pertsona) Lazkaoarekin (73 pertsona), bereziki.

Ataunek ez du biztanleria zahartze tasa ez estatutik kanpo jaiotako biztanleria tasa kritikorik. Azken urteetan, ordea, biztanleria hazkundera gelditu egin da eta jaiotza tasak eta migrazio saldoak bere horretan jarraitzen badute hurrengo urteetan biztanleriaren galera eta zahartzea nabarmena izatea espero da.

- **Udalerriak ez du aberastasuna sortzeko gaitasunik, eta biztanleko duen barne produktu gordina ez da Gipuzkoako, Goierriko edo BOL eremuko balioaren herena ere izatera iristen.**

Ataungo BPG per capita Gipuzkoako, Goierriko edo BOL eremuaren herena edo gutxiago da. Udalerriko aberastasunaren sorreran industriak ez du ia presentziarik (%9,4) eta lehen sektoreak (%7,2) beste inon baino balio erlatibo handiagoa badu ere, ez du aberastasuna sortzeko gaitasunik.

Hala eta guztiz ere, Ataunek bere inguruko eremuekin alderatuta batz besteko errenta altuena du (24.835€).

Ataundarren lan errentak eskualdeko industriak behar duen eskulanari eta administrazio lanpostuei esker erdiesten dira: landunen %32,1ak industriaren lan egiten du eta %27,3ak, berriz, administrazio publikoan.

Nolanahi ere, lan merkatu horrek genero desoreka azpimarragarriak eragiten ditu errentan zein lanarekiko harremanean: emakumeek gizonen baino %39,8 gutxiago irabazten dute, emakumeen langabezia tasa (%9,4) gizonena baino ia bost puntu altuagoa da eta lana egiteko adinean dauden emakumeen %54,1 bakarrik da biztanleria aktiboa, gizonak baino 2,4 puntu gutxiago.

- **Ataunek ondasun eta zerbitzuak ekoizten dituzten 108 establezimendu ditu. Horien %31,5a lehen sektoreko establezimenduak dira Goierri %4,5 ere ez diren bitartean. Industria establezimenduak %3,7a bakarrik dira eta Goierri, aldiz, %9,7a.**

Nolanahi ere, establezimenduen enplegatu kopurua oso txikia da, industrian bereziki (establezimendu bakarrik ditu 10-14 langile) eta ez da ezagutzen intentsiboa. Horiek horrela, Ataungo enpresa-ehunak ez du traxzio ekonomikoa eragiteko gaitasunik.

Udalerriko establezimenduen ezaugarriak erreparatuta hainbat ondorio atera daitezke:

- Industria establezimenduek (4 establezimendu) ez dute Goierri edo BOL eremuan duten bezainbesteko pisua. Establezimenduen erdia, gainera, edari eta elikagaien industria azpisektorekoa da.
- Lehen sektoreko enpresak batz bestekoa baino gehiago dira.
- Establezimenduen enplegatu kopurua oso txikia da eta gehienek autonomo izaera dute.
- Ataungo enpresa ehuna ez da ezagutzen intentsiboa eta ez du udalerrian dinamismoa eragiteko gaitasunik.
- Estrategikoak izan daitezkeen azpisektoreetako (energia sorkuntza, turismoa...) establezimenduak ez dira existitzen edo puntualak dira.

Indarreko Arau Subsidiarioetan aurreikusitako jardura ekonomikoetarako eremuak ez dira gauzatu, ezta turismo sektoreari lotutako proiektu estrategikoak ere (Erremedio).

- **Udalerriko kultura ondarea ere, bere aldaera guztietan, oso aberatsa da, eta Ataunek euskararen arnagune izaten jarraitzen du.**

Ataunen ondare kulturala bi alderditan nabarmentzen da batez ere: Aita Barandiaranek utzitako ondarea, batetik. Udalerrian bere jaiotza etxea eta museoa daude. Eta euskararen arnagune izaera, bestetik. Euskararen ezagutza maila %87,7koa da eta bere kale erabilera %93,1koa da.

- **Ataungo udalerraren ingurumen ondareak potentzialtasun handia du.**

Aralarko Parke Naturalaren izendapenak udalerriko azalera osoaren 3/4 baino gehiago hartzen du, jatorrizko baso naturala da nagusi udalerrira osoan, eta balio estrategiko altua duen nekazaritza eremua oso esanguratsua da (37,21 ha.), sare hidrikoa bezalaxe.

- **Energia berriztagarrien sorkuntzarako lege berriak autokontsumora bideratutako sorkuntza errazten du.** Eusko Jaurlaritzaren datuen arabera Ataunek energia hidraulikoaren sorkuntzarako 15-20kWko instalazioa aktibo du. Instalazio txikia da, baina Lareoko urtegiari, Lizarrustiko Aterpetxeari eta Etxarriko baserri bati energia ematen dio. Azken urteetan eguzki plakak udalerrian gero eta gehiago instalatzeko hautua egin da: energia fotovoltaikoa sortzeko 20kW baino gehiagoko instalazioa dago. Bide horretan, energia burujabetzak landa eremuko baserriak zein auzune nagusiak bere osotasunean hartu behar ditu aintzat.

1/2 LAN-ILDOAK: UDALERRIAREN GARAPEN JASANGARRIA

- **Udalerriaren biziberritze demografikoa biztanleria gaztearen errotzetik eta BOL eremuaren hazkunde baliatzetik etorriko da.**

2003-2009 urteen arteko biztanleria hazkundeak (%9,4) biztanleriaren adin egituraren gatzetza eragin zuen; gaur egungo zahartze tasa Goierri zein Gipuzkoaren parekoa da. Bide berean, estatutik kanpo jaiotako biztanleriaren tasak gorakada etengabea izan du eta gaur egun %9,1a da. Nolanahi ere, ehuneko hori ez da Goierriko balioaren bi herenera iristen eta BOL eremuko tasaren erdia da.

Bestalde, udalerrian 20-34 urte bitarteko belaunaldiaren (%11,8) gabezia esanguratsua du. Jaiotza tasaren beharrek eta azken urteetako migrazio saldo negatiboak Ataunek hurrengo hamabost urteetan biztanleria galduko duela iradokitzen dute (%4,4). Bi faktore estrategikoak izango dira egoera hori iraultzeko: gaur egungo 0-19 urte bitarteko belaunaldi oparoa udalerrian errotzea, batetik, horiek bermatuko baitute hurrengo belaunaldien biziberritzea. Bestetik, BOL eremuak espero duen biztanleria hazkundeak Ataungo migrazio saldoan, orain arte ez bezala, eragin positiboa izatea.

- **Ataungo udalerrian berezko barne-garapenak edo garapen endogenoak potentzialtasun mugatua du eta barne produktu gordina, hau da, aberastasunaren sorkuntza handitzeko aukera garapen exogenotik etor daiteke.**

Ataungo BPG per capita Gipuzkoako, Goierriko edo BOL eremuaren herena edo gutxiago da. Udalerriko aberastasunaren sorreran industriak ez du ia presentziarik (%9,4) eta lehen sektoreak (%7,2) beste inon baino balio erlatibo handiagoa badu ere, ez du aberastasuna sortzeko gaitasunik. Horiek horrela, udalerrriaren ekonomia aktibatzeak aukera nagusia eskualdeko garapena baliatu eta honi begira jartzea da zerbitzu eta ekipamendu konkretuak eskainiz: pertsonen zaintza, egoitzak...

- **Ataunek Goierriko dinamismo ekonomiko handiko eremuekiko (BOL) duen menpekotasun harremana agerikoa da, eta udalerriaz gaindiko lurralde ereduaren garapenak ez du mendekotasun hori zuzentzeko joerarik erakusten, handitzekoa baizik.**

Ataunek harreman hori baliatu beharko luke, Goierriko eta BOLeko enpresa zein herritarrei aipatu eremuetan eskaini ezin diren funtzio eta zerbitzu osagarriak garatuz, beti ere, ingurumen baldintza paregabearen oinarrituta; adibidez:

- Industriari lotutako espezializazio altuko ikerkuntza edota hezkuntza baliabideak instalakuntzak-ekipamenduak-egoitzak...
- Hiribartutako sektoreek bilatzen dituzten bizimodu alternatiboak.
- Jendartearen zahartzeak gero eta gehiago galdegingo dituen zerbitzuak eta bizitokiak, belaunaldi arteko harremana sustatuz.
- Eremu hiritartuan eraiki ezin diren kirol- zein aisialdi-ekipamenduak.
- Eta abar...

- **Ataungo udalerrriaren garapen endogenoak ez du eskualdeko ekonomia egiturak udalerrian sortzen duen ongizatea ordezkatzuko, epe motz-ertainen behintzat, baina herri-identitate berritu baten ardatza izan daiteke, markaren sorkuntza bidean.**

Lehen sektoreko establezimenduen kopuru absolutua (34 establezimendu) eta erlatiboa (%31,5) beste eremuetan baino altuagoak dira. Nekazaritza eta abeltzaintzari loturiko ustiaketa aktibitateak dira gehiengoa. Elikagai espezializatuen sorkuntza bertako kontsumoa sustatzeko ez ezik, marka egiteko modua da.

Gainera, bertako basoek udalerriko azalera osoaren %51,6 hartzen dute, eta baso landaketek berriz beste %30,7; datuak nabarmen adierazten du Ataunek basogintzarako eta energia berriztagarrien sorkuntzarako (biomasa) duen aukera.

Bestalde, ondare materialak zein inmaterialak herri identitatean indar handia dute. Landa eremuko baserrien edo garai bateko eraikinen berreskurapenak historia eta tradizio baten errelatoarekin lotuta egon behar du.

Aita Barandiaranen ondareak ere (udalerrian bere etxea eta berari eskainitako museoa daude) horretarako aukera dira. Bide berean, Ataunen euskarak duen presentzia herriaren identitatea ezaugarritzeaz gain inguruko eremuei, arnasmune gisa, eskaintzen dien zerbitzua sistemikoa da.

- **Garapen endogenoa iraunkortasun paradigma oinarri izan behar duen ATAUN markaren sorkuntzari lotua etorriko da, oso aspaldiko sustraian errotutako izaera eta XXI. mendeko abangoardiako nortasuna uztartu behar dituen:**

- Tokiko nekazaritza eta abeltzaintza sustatuz eta elikadura autokontsumoa indartuz.
- Energia burujabetza helburu izango duten tokiko ekoizpen instalazioak bultzatuz: eguzki energia, energia eolikoa, hidroelektrikoa eta, batez ere, biomasa iturri izango dituztenak.
- Hondakinen kudeaketan puntako irizpideak txertatuz.
- Ingurumen eta paisaia baldintzak babestuz.
- Ondare kulturala zainduz eta biziberrituz, eta euskararen arnasmune izaera mantenduz.
- Eta abar...

Aipatu ezaugarri zein ekimen hauek guztiak dira, aldi berean, ATAUN markaren oinarri eta ostalaritza zein turismo sektoreak udalerrian izan dezakeen hazkundearen oinarri. Edonola, herri-nortasunari eta ingurumenari atxikitako hazkunde neurtuaz ari gara etengabe.

- **Herri-nortasunari atxikitako garapen endogeno honek sortuko ditu, hain zuzen ere, garapen exogenoaren arrakastarako baldintza egokiak, eta alderantziz, bi garapen ereduak elkar elikatzen dutelarik.**

Hala ere, arretaz zaindu beharko da garapen exogenoak, hazkundeak, herri nortasunaren kaltetan eragin ditzakeen arriskuak.

- **N-I errepideak beste (nazioarteko) eskala bati erantzuten dio eta Ataun gurutzatzen duen GI-2120 errepideak potentzialtasun handia izan dezake (Nafarroako) eskualdeko komunikazio ardatz gisa (udalerrriaren barne artikulazioan arazoak ere sortzen dituen arren).**

Horretarako, Lizarrustin garatu nahi izan den aisialdirako gunearen proiektuak, edo mugakide diren Nafarroako udalerriekin sustatu daitezkeen beste egitasmo partekatu batzuk garrantzi handia izan dezakete. Modu horretan soilik lor dezake Ataunek Goierri eta BOL eremuekiko duen menpekotasuna orekatzea, neurri apalean bada ere.

BIGARREN HAUSNARKETA MAILA: UDALERRIAREN ANTOLAKETA ETA LURRALDE EREDUA

2/1 BALDINTZATZAILEAK: UDALERRIAREN HIRI-EGITURA

- **Ataungo auzuneen arteko harremana dagoeneko oso hierarkizatua da biztanleriaren bizilekuari edota ekipamenduen kokapenari erreparatuz gero.**

Ataungo populazioa (1.698 bizt._2023ko ekaina) Agauntza ibaiaren eta GI-2120 errepidearen ardatzean kokatzen diren auzuneetan biltzen da batez ere.

Bertan bizi da udalerriko biztanleriaren %76,56 (1.300 bizt.) eta %65,31 Elbarrena (858 bizt.) eta San Gregorio (251 bizt.) auzuneetan pilatzen da. Beste %23,44 (398 bizt.) Aia auzunean (13 bizt.) eta landa guneko barreiatu zabalean (385 bizt.) bizi da.

Ekipamenduei dagokionez, horien kokapena dela-eta, udalerririk San Martin herrigunearekiko duen dependentzia argia da. San Gregorio auzuneko osasun kontsultategia kenduta, oinarritzako zerbitzu guztiak Elbarrena (udaletxea, osasun kontsultategia, kultur etxea eta farmazia) eta Astigarraga (hezkuntza zentroak eta kiroldegia) auzuneetan daude.

Merkataritza establezimendu ia guztiak ere Elbarrena auzunean daude.

- **Agauntza ibaiaren eta GI-2120 errepidearen ardatzean kokatzen diren auzuneek ez dute elkarrekiko jarraitutasunik, oro har hirigune isolatu gisa ageri dira ardatzean zehar, eta ezaugarri oso ezberdinak dituzte:**

- **Elbarrena:** udalerriko auzune nagusia, biztanleriaren erdia (%50,53), etxebizitzaren %45,25, merkataritzako eta ostalaritzako establezimenduen %47,37, eta udalerriko espazio libre hiritarrak eta ekipamendu publiko nagusiak (ez denak) hartzen ditu: Udaletxea eta Herri-antzokia, nagusiki.
- **Astigarraga:** biztanleriaren %4,00 soilik biltzen duen arren, bertan kokatzen dira udalerriko ekipamendu publiko nagusiak: Ikastola eta kiroldegia (frontoia); ez du merkataritzako eta ostalaritzako establezimendurik.
- **Arrondo:** biztanleriaren %4,53 biltzen du eta ez du espazio libre hiritar edota ekipamendu publiko esanguratsurik, ezta merkataritzako eta ostalaritzako establezimendurik ere.
- **Arinberriaga:** landa-gune gisa izendatua dago eta biztanleriaren %1,18 soilik biltzen du; ez du espazio libre hiritar edota ekipamendu publikorik, ezta establezimendurik ere.
- **San Gregorio:** udalerriko bigarren eta azken auzune hiritar esanguratsua, biztanleriaren %14,78, etxebizitzaren %14,43, merkataritzako eta ostalaritzako establezimenduen %21,05, eta tokiko espazio libre hiritarrak eta ekipamendu publikoak hartzen ditu: frontoia, Bikario-etxea eta irakasle-etxea.
- **Ergoiena:** landa-gune gisa izendatua dago; biztanleriaren %1,53 soilik biltzen du, baina etxebizitzaren %3,30, eta espazio libre hiritar txiki bat duen arren, ez du ekipamendu publikorik, ezta merkataritzako eta ostalaritzako establezimendu bakarra (sagardotegia).

- **Ardatzean zehar, Agauntza ibaiaren eta GI-2120 errepidearen ertzetan kokatzen dira udalerririk duen balio agrologiko altuko luraren 14 ha. baino gehiago (142.202 m²) eta kontserbaziorako basoaren eremu zabalak ere.**

- **Gune hauek guztiak GI-2120 errepidearen bidez lotzen dira.**

GI-2120 errepidea GFaren ardurapean dago eta eskualde arteko sarea osatzen du. Hala ere, eskualdeko errepide izaera hori zalantzan jartzeko arrazoiak ere badira, izan ere, 2021. urtean 3 neurketa puntutan erdietsitako EBBI (Eguneroko Bataz Besteko Intentsitatea) delakoak ondorengo datuak ematen baitditu:

- Lazkao = 4.333
- Zubikoeta (Ataun) = 2.917
- Lizarrusti (Ataun-Nafarroako muga) = 254.

Datuek garbi adierazten dute GI-2120 errepideak Lazkakoko saihesbide funtzioa, batik bat, eta Ataungo kanpo zein barne joan etorrien ardatz funtzioa mantentzen duela, baina Goierri eta Sakana (Gipuzkoa-Nafarroa) arteko eskualdeko ardatz funtzioa oso hondarrekoa dela.

Bitartean, errepideak eskualdeko izaeraren ezaugarriak mantentzen ditu eta Ataungo auzuneen hiri-bilbean eragiten duen "zauria" itzela da. Beraz, Ataunek ez du ardatzeko auzuneen arteko barne joan etorriak antolatzen dituen hiri-izaerako biderik, ez ibilgailuentzat, ezta oinezko, bizikleta edo bestelako hiri-mugikortasunarentzat ere.

- **Udalerriko gainontzeko biztanleria Aia auzunean, hiri-egitura txiki bat duena (plaza, ekipamendua eta merkataritzako edo ostalaritzako establezimendu bat), eta landa guneko barreiatu zabalean bizi da.**

Urkillagako gainetik Arrondo eta Kaxeta lotzen dituen eta Aia auzunera iristen den GI-3151 errepidea ez ezik, udalerriko barreiatua zaku-hondoa osatzen duten GI-3152 (Lauztierreka), GI-4151 (Aitzarte) eta GI-4153 (Motasoro) errepideetan oinarrituta artikulatzen da.

- **Udalerriko biztanleen barne mugimenduak ondorengo ezaugarriak ditu.**
 - Aldaketak nagusiki 35-49 urte bitarteko eta horien seme-alaben belaunaldia osatzen duten 0-19 urte bitarteko biztanleenak dira.
 - Herri barruko errola aldaketen %61,6a Ataunen bertan jaiotako pertsona izan da.
 - Aldaketa horien ezaugarriak bat datoz bizi proiektua errotzeko urratsa ematen duten pertsonekin.
 - San Martin herriguneko nukleo nagusiek udalerriko pertsonak erakartzen dituzte gainerako eremuetan dauden auzuneen edo landa-eremuaren kaltetan.
 - Datu horiek Ataunek oraindik ere bere biztanleria errotzeko gaitasuna duela erakusten du, baina bere auzuneen bizigarritasunaren kaltetan.
- **Indarreko plangintzaren lurralde eredua ondorengo helburu orokorrean laburbiltzen da:** “Consolidar las características morfológicas de cada uno de los ámbitos urbanos y mantenerlos claramente diferenciados unos respecto de los otros”.

2/2 LAN-ILDOAK: UDALERRIAREN LURRALDE-EREDUA

- **Indarreko Arau Subsidiarioak udalerria morfologikoki osatzen duten auzune bakoitzarentzat idatzitako plangintza-atalen batuketa bat dira, plangintzaren irizpide eta helburu orokorrek osoko ikuspegia gordetzen badute ere.**

Plangintzak aurreikusitako bizitegi hazkundea auzune ezberdinen artean banatzen da ia proportzionalki, atal bakoitzaren pisu erlatiboa betikotu eta udalerrian ematen ari diren barne mugimendu zein aldaketak orekatu asmoz. Beste horrenbeste gertatzen da ekipamenduen alorrean, hauetako zenbait bikoizteraino.

- **Lan honetan Ataungo udalerriaren eremu hiritarra begiratzeko, aztertze eta proiektatzeko paradigma aldaketa bat proposatzen da.**

Elbarrena eta San Gregorio arteko lurraldea modu bateratuan garatu beharreko hiri-gune gisa ulertzea proposatzen da, Agauntza ibaiaren eta GI-2120 errepidearen ardatzean burutzen diren erabilera eta jardura ezberdin eta anitzen segida gisa:

- Jada hiritartutako auzune zein landa-guneak.
- Udalerriko ekipamendu orokor nagusiak.
- Bizimodu eredu berritzaileak barne har ditzaketen bizitegi zein jardura garapen berriak.

Eta hauekin batera:

- Funtzio hiritarra joka dezaketen eremu naturalak (ibaia, basoak...), parkeak.
- Egungo edo etorkizunean sor litezkeen nekazar jarduerak (baratzak...).
- Nekazaritzako produktuen lehen eraldaketa eta komertzializazioa helburu duten instalakuntzak.
- Eta abar..

Erabilera hauek guztiek, eta herri-ekimenez sor litezkeen beste batzuk, Elbarrena eta San Gregorio arteko lurraldea hiri- zein landa-erabileren **mosaiko** gisa irudikatzea garrantzitsua.

- **Esan bezala, proposamenak ez dakar berarekin aipatu lurraldea bere osotasunean Hiri-Lurzoru gisa sailkatzea, izan ere, proposatzen diren zenbait erabilera ezin baitira mota horretako lurzoruan garatu.**

Baina erabilera hiritarrak eta landatarrak elkarren segidan txertatzeko eta baten zein bestearen funtzioak elkar indartzeko (sinergiak sortzeko) beharrezkoa den ikuspegi bateratua, ez estankoa, da hemen aldarrikatzen dena.

Gainera, proposatzen den ikuspegia ez da guztiz berritzailea Ataunen, izan ere, 1990eko hamarkadan udalerriko ekipamendu orokor nagusiak (pilotalekua eta herri-eskola) Astigarraga auzoan kokatzea erabaki baizen, hau da, hain zuzkidura garrantzitsuak hartzeko oso pisu erlatibo txikia zuen auzunean. Erabaki hori orain berreskuratu nahi den osoko ikuspegitik soilik hartua izan daiteke.

- **Egungo hiri-eremuek (auzune zein landa-gune) euren ezaugarri morfotipologikoak mantendu behar dituzte, indarreko plangintzak xedatzen duen bezala, eta batez ere, euren nortasun historiko-kulturala sendotu behar dute, zalantzarik gabe.**

Zentzu horretan, egun plangintzak aurreikusten dituen zenbait garapen, hiri-guneen trinkotzea helburu dutenak, egokiak izan daitezke aipatu helburua erdiesteko, baina beste zenbait, hiri-guneak ertzetatik zabaltzea proposatzen dutenak, krisian jarri beharko lirateke, egungo hiri-eremuen morfologia desitxuratzeko arriskua dutelako, hain zuzen ere.

- **Horiek horrela, iraunkortasun paradigmak ez du auzuneen arteko harreman horizontal baten eta ekipamenduen deslokalizazioaren aldeko hautua justifikatzen, are gutxiago aurreikusten den egoera demografiko negatiboa kontuan hartuta.**

Iraunkortasunaren izenean, ordea, San Martineko Elbarrena, Astigarraga eta Arrondo auzuneen artean jarraitutasuna erdieste eta San Martin-San Gregorio poloen arteko konektibitatea oinezko, bizikleta eta garraio publiko bidez bermatzea izan beharko lukete estrategia nagusiak eta hurrengo hamarkadako proiektu estrategikoak.

Gainerakoan, biztanleria errotzeko eta erakartzeko gaitasunik duen nukleo nagusi baten faltan oso zaila izango da gainerako auzuneen bizigarritasuna ere bermatzea.

- Udalerriko landa eremuak eta barreiatuak (Ergoiena eta Aia auzuneak barne) bigarren lurralde unitatea osatuko lukete, eta bere problematikak tratamendu berezitua eskatzen du, hurrengo eztabaida mailan berariaz aztertuko dena.

HIRUGARREN HAUSNARKETA MAILA: ARLOZ ARLOKO PLANGINTZA

3/1 BALDINTZATZAILEAK: EGUNGO ADIERAZLEAK

- **Etxebizitza.**

Etxebizitzaren arloan Ataungo udalerrriaren egungo adierazle nagusiak ondorengoak dira:

Udalerrian **873 etxebizitza** daude orotara, horietatik **227 barreiatuan** kokatzen dira (%26,00), hau da, eremu hiritartuetatik kanpo, eta beste 7 ez daude etxebizitza gisa kalifikatuak.

Ondorioz, **hiri-eremuan 639 etxebizitza** leudeke (%73,20), 395 Elbarrenan (%45,25) eta 127 San Gregorion (%14,55).

Ataunen **654 bizikidetza-unitate** zenbatu dira, eta kopuruak hazkunde nabarmena izan du 2001-2023 urteen artean: +112 (+%20,7).

Udalerriko bizikidetza-unitateen batz besteko **tamaina 2,6** kidekoa da (Elbarrena = 2,6; San Gregorio = 2,55; Ergoiena = 2,16; San Martin barreiatua = 2,90), baina gero eta txikiagoak izateko joera dute.

Hurrengo urteetan bizikidetza-unitateen kopuruak behera egingo duela aurreikusten da, baina galera ez da esanguratsua izango, bizikidetza-unitateen batz besteko tamainak behera egingo baitu: 643 unitate 2038an (-%1,68).

Adinaren arabera, haur eta nerabeak dituzten bizikidetza-unitateak 219 dira (%33,49; %37,69 Elbarrenan), eta gazteek (20-34 urte) bakarrik osatutako bizikidetza-unitateen kopurua oso txikia da: 24 soilik udalerriko osoan (%3,67; %4,56 Elbarrenan).

Etxebizitzaren ezaugarri nagusiak **auzunearen arabera** aldatzen dira.

- Tipologia: **familia bakarreko 413** etxebizitza daude (%47,3), eta **familia anitzeko 454** (%52,0); Elbarrenan familia anitzeko bizitegiak %77,72 dira, eta San Gregorion %77,95; aldiz **barreiatuan %93,83** familia bakarreko etxebizitza da.
- Antzinatea: etxebizitza parkearen **%37,92a 1925 urtean edo lehenago** eraiki zen, barreiatuan %67,40; etxebizitza parkearen **%43,53a 1975 urtetik hona** eraiki da, Elbarrenan %61,01 (epealdi horretan udalerrian eraikitakoen %63,42).
- Azalera: 75-100 m² bitarteko etxebizitzak 305 dira orotara (%34,94), Elbarrenan %52,41 eta San Gregorion %46,46; 150 m² baino azalera handiagoa dutenak berriz 299 dira guztira (%34,25), barreiatuan %70,04, Arinberriagan %60 eta Arrondon %57,50.

Etxebizitza hutsen tasa oso altua da. Udalerrian 237 etxebizitza daude hutsik orotara, etxebizitza parkearen %28,6.

Etxebizitza parkeak presio handiagoa jasaten duen auzuneetan etxebizitza hutsen tasa txikiagoa da: Elbarrena (%16,2), Astigarraga (%23,7), Aia (%14,3) edota San Gregorio (%26,8). Barreiatuan aldiz tasa handiagoa da: San Gregorioko barreiatua (%43,2), San Martingo barreiatua (%49,6) edota Ergoiena (%58,6).

Indarreko udal plangintzak (aldaketa puntualak barne) **314 etxebizitzako hazkunde garbia** aurreikusten zuen bere indarraldirako eta horietatik **101 gauzatu** dira gaurdaino, batik bat 2005-2010 epealdian.

Aldiz, Goierriko **LZPak** (2009) **habitat alternatibo**en kokagune eta **jarduera publikoak garatzeko intereseko** udalerririk gisa identifikatzen du Ataun, eta **206 eta 286 artean** kuantifikatzen du bizitegi-eremua 16 urteko epemugan. Beraz, indarreko udal arautegian eraiki gabe geratzen diren 213 etxebizitza berriak aipatu tartean leudeke. Hala ere, Plan Orokor berriak bizitegi-ahalmena 2019ko Lurralde Antolamenduen Gidalerroek (LAG) xedatutakoaren arabera finkatu beharko du.

➤ **Ekipamenduak eta zerbitzuak.**

Ataunek duen zuzkidura maila batz bestekotik gertu dago, baina **auzune ezberdinen artean desoreka** handiak daude.

Elbarrenan administrazioa (udaletxea), herri-antzokia, osasun zentroa, farmazia edota merkataritza establezimendu ia guztiak kokatzen dira, eta Botika(rio)-etxean (Aierdienea) kultur etxea egokitzeko proiektua abian da.

Gainera, Astigarragan hezkuntza zentroak eta kiroldegia (pilotalekua), udalerriko ekipamendu orokor nagusiak, hain zuzen ere.

Aldiz, San Gregorion osasun zentroa eta Bikario-etxea (Lurlab, Ataun irratia, irakurketa/ikasketa gela...) daude, eta bere barreiatuan merkataritza establezimendu bat aurki daiteke.

Horrela, oinarritzko ekipamenduak 1.000 metro baino urrunago dituzten biztanleen kopurua ondorengoa da:

- Udaletxea: 692 (%40,75)
- Osasun zentroa: 431 (%25,38)
- Kultur etxea (herri antzokia): 679 (%39,99)
- Kiroldegia (pilotalekua): 610 (%35,92)
- Hezkuntza zentroa (biztanleria adingabea): 100 (%28,41)

Ostalaritza da udalerrian zehar sakabanatzen den zerbitzu mota bakarra.

Bestalde, Goierriko LZPak eremu funtzionaleko zahartze-maila kontuan hartuta, landa-biztanleriarena batez ere, **hirugarren adinerako zuzkidurak** indartzeko beharra aztertzen du, kokapen zehatzik aurreikusi gabe.

Gainera, eskualde mailako ekipamenduen artean sailkatzen du **Joxe Miel Barandiaran** Euskal Parke Mitologikoa/Interpretazio Zentroa.

Azkenik, LZPak **“lurraldera sartzeko gune”** gisa sailkatzen du San Martin herrigunea, eta ondorioz, **“berrekipamenduko”** eragiketa bereziak hartzeko gune egokitzat jotzen du.

➤ **Espazio publikoak eta gune berdeak.**

Udalerriko espazio publiko esanguratsu bakarra Elbarrenan kokatzen da, Udaletxea eta San Martin elizaren inguruan, eta GI-2120 errepideak gurutzatzen du. Gainontzeko auzuneek tokiko espazio publiko xumeak dituzte, eta San Gregorion pilotalekuari atxikita ageri den plaza soilik nabarmendu daiteke.

Gune berdeei dagokienez, indarreko udal plangintzak Gune Libreen Sistema Orokor gisa (F.10) izendatzen ditu bi gune: Astigarraga auzunean (2.261 m²) eta Iturritza izeneko, San Gregoriotik gertu (33.055 m²).

Bi gune hauek, aurreikusitako bizitegi hazkundearen arabera, Legeak xedatutako gune berdeen zuzkidura justifikatzea beste helbururik ez dute, eta hiri-ereduan betetzen duten funtzioa oso eskasa da.

➤ **Jarduera ekonomikoak.**

Zubikoetako industria guneaz gain, indarreko udal plangintzak B.10 Industria gune arrunta bezala izendatu zuen **2 ha. inguruko eremua** (A.I.U.2) Ajarresta inguruan, gaurdaino garatu ez dena.

Jarduera ekonomikoak antolatzekeo LPSak eta Goierriko LZPak **garapen txikiko udalerri** gisa kategorizatzen dute Ataun, eta ondorioz, “higintza-plangintzak mugatu beharko du ekonomia jardueretarako lurzoruen kalifikazioa **hiri-izaerako jardueretarako** izatea”.

Eskualdeko enkoadraketaren atalean establezimenduez (jarduera ekonomikoez) hitz egin bada ere, udalerriko 108 establezimenduetatik **46** soilik dira **hiri-izaerako establezimenduak**, edo beste modu batera esateko, hiri-eredua artikulatzen lagun dezaketen jarduerak. Eta hauetatik **24** (%52,17) **Elbarrenan** eta 11 (%23,91) **San Gregorion** kokatzen dira. Gainontzeko **62** establezimenduak lehen sektorekoak (34), industrialak (4) edo eraikuntza sektorekoak (14) dira, edo hiri-eremutik kanpo kokatzen dira (10).

➤ **Mugikortasuna eta aparkalekua.**

GI-2120 errepidea da udalerriko ibilgailuen sarrera eta irteera bakarra, baita barne mugikortasunaren **ardatz nagusia** ere, auzune nagusiak lotzen baititu. Nafarrorako igarobide gisa duen erabilera oso murrizta den arren, errepideak eskualdeko izaera du eta horrek “zauriak” eragiten ditu auzuneetako hiri-bilbeetan.

Udalerriko barreiatuaren eta landa eremuaren mugikortasuna ere GI-2120 errepidean oinarritzen da eta GI-3151 (Aia-Urkillagako gaina), GI-3152 (Lauztierreka), GI-4151 (Aitzarte) eta GI-4153 (Motasoro) tokiko errepideen bidez artikulatzen da.

Aparkalekuari dagokionez, indarreko udal plangintzak bizitegi garapen berriei (lurrazpian) eta espazio publikoaren berrantolaketari (azalean) lotua aurreikusten du **zuzkiduraren handitzea**.

Oinezko ibilbideei dagokienez, indarreko udal plangintzak hiri-guneetan ibaiertzak egokitzea proposatzen du, eta bere egiten du udalerriko ardatz nagusia, Kaseta eta Lazkaoko mugaren artean, Agauntza ibaiaren mendebaldetik lotuko duen oinezkoen ibilbidea burutzeko aspaldiko proiektua, atalez atal garatzen doana eta gaurdaino amaitu ez dena.

Hala ere, ibilbide honek ez du hiri-izaerarik eta ez du hiri-eremuko auzune nagusiak mugikortasun eredu berritzaile eta unibertsalen bidez lotzeko gaitasunik: umeen aulkitxoak garraiatzen dituzten familiak, gurgildun aulkian mugitzen diren herritarrak, bizikletak, monopatin elektrikoak, eta abar.

➤ **Azpiegiturak.**

Ur hornidura eta saneamendu sareak berritu eta osatzea da Ataunek azpiegitura mailan dituen erronka nagusiak, izan ere, egungo edateko uraren kalitatea eskasa da, batetik, eta San Gregoriotik gorako ur zikinak Agauntza errekarara isurtzen dira zuzenean, bestetik.

Argindar zein telefonia horniketarako sareak amaitutzat eman daitezke oro har, eta helburua telekomunikazio eta gas hornidurarako sareen hedapena sustatzea da.

➤ **Landa-eremua eta baserria.**

Udalerriak azalera ia osoa (%99,56) lurzoru ez urbanizagarria da. Gainera, azaleraren %76,23 Aralarko Parke Naturalaren barne dago eta beraz, Aralarko Natura Baliabideak Antolatze Planaren menpe dago (Eusko Jaurlaritzaren 168/1994 Dekretua). Ataun da Parke Naturalaren Patronatua bi ordezkari dituen udalerri bakarra.

Ondorioz, Nekazaritza eta Basozaintzako Lurraldearen Arloko Planak ondorengo antolamendu kategoriatan banatzen du udalerriko gainontzeko azalera (hiritartua salbu):

- Basoa: 936,01 ha (%16,04).
- Basoa-Mendi urria: 39,81 ha (%0,68).
- Larre menditarra: 2,59 ha (%0,04).
- Nekazaritza-abeltzaintza eremua. Balio Estrategiko Altua: 37,21 ha (%0,64).
- Nekazaritza-abeltzaintza eremua. Trantsiziozko Landa Paisaia: 326,57 ha (%5,59)
- GUZTIRA: 1.342,19 ha (%22,99).

Gipuzkoako Datu Espazialen Azpiegituraren arabera, Ataunen 165 eraikinek baserri izendapena dute. Hauetatik 146 (%88,5) landa eremuan kokatzen dira: 71 San Martinen, 49 San Gregorion eta 26 Aian. Landa-eremuko 138 baserrik (%94,5) bizitegi erabilera dute, eta hauetatik 44 (%31,9) hutsik daude (udalerrian %28,6).

Landa-eremuko 146 baserrietatik 124 (%84,9) dira nekazaritzara edo abeltzaintzara bideratutako guneren bat dutenak, baina hauetatik 19 baserrik soilik (%13,0) dute lehen sektoreko jarduera. Kopuru hori udalerrian dauden nekazaritzako eta abeltzaintzako 30 establezimenduen ia bi heren dira (%63,33). Landa-eremuan gainera beste jarduera sektoreetako 12 establezimendu daude, gehienak (8) merkataritza, garraioa eta ostalaritza sektorean jarduten direnak.

Orotara, udalerrian lehen sektoreko jarduera burutzen duten 34 establezimenduetatik 21 (%61,76) daude baserriari lotuak, eta 13 beste eraikin mota batean garatzen dira. Izan ere, gaur egungo legediaren arabera oso zaila baita baserri tradizional batean lehen sektoreko jarduera ekonomikoak abiatzea, aintzat hartu behar diren osasun neurriak eta neurri teknikoak direla eta. Gaur egun, lehen sektoreko jarduera ekonomiko berriak berariaz prestatutako eraikinetan garatzen dira.

3/2 LAN-ILDOAK: ESKU-HARTZE IRIZPIDEAK

➤ **Etxebizitza.**

Etxebizitza alorreko plangintzak udalerrian garapen jasangarriaren (1/2) eta lurralde ereduaren (2/2) ataletan ezarritako helburu orokorreari erantzun behar die; hurrenez hurren:

- Gaur egungo **0-19 urte** bitarteko **belaunaldia** udalerrian **errotzea**, horiek bermatuko baitute hurrengo belaunaldien biziberritzea.
- BOL eremurako espero den biztanleria hazkundeak Ataungo **migrazio saldoan**, orain arte ez bezala, **eragin positiboa** izatea.
- Egungo hiri-eremuen ezaugarri morfotipologikoak mantentzea.
- Elbarrena eta San Gregorio arteko lurraldea modu bateratuan garatu beharreko **hiri-gune** gisa ulertzea eta biztanleria errotzeko eta erakartzeko gaitasuna izango duen **nukleo nagusi** bat eratzea.

Goierriko LZP berrikusi arte, Ataungo Plan Orokor berriak bizitegi-ahalmena 2019ko Lurralde Antolamenduarien Gidalerroek (LAG) xedatutakoaren arabera finkatu beharko du, eta bertan jasotako kalkulu sinplifikatuak ematen duen behin behineko hazkunde garbia **160-170 etxebizitza** ingurukoa da.

Beraz, indarreko udal plangintzak aurreikusitako eta garatu gabeko **bizitegi programaren zati** esanguratsu bat **bertan behera** utzi beharko du Plan Orokor berriak.

Edonola, lurralde plangintzak aipatzen duen bezala, belaunaldi **gazteak** udalerrian **errotzeko** erakundeetatik **etxebizitza babestua** sustatzeak berebiziko garrantzia du, batik bat **alokairuko edota** zuzkidurako bizitegiak eskainiz.

Gainera, kanpoko herritar hiritartuak erakartzeko eta migrazio saldoa iraultzeko, bizitegi garapen berriek **bizimodu alternatiboa** eskaini beharko dute eta **jasangarritasun irizpide garaikideak** aintzat hartu, erabilera ezberdinen nahasketa, lurzorua-ren artifizializazioa mugatzea, energia burujabetza, eta antzeko kontzeptuak proiektuaren gidalerro izan daitezten.

Egungo etxebizitza parkearen ezaugarriak laburbilduz, esan daiteke landa-gune zein barreiatuko etxebizitzak familia bakarreko eraikin haundi eta zaharrak direla, eta hiri-eremu nagusietakoak aldiz, familia anitzeko eraikin ertain eta berriagoak (< 50 urte).

Landa-guneko bizitegiek (baserriek) atal berezitua izango dutenez, baieztatu daiteke hiri-eremuetako **etxebizitza parkea birgaitze sakonak** eskatuko dituen adinaldian dagoela, izan irisgarritasuna bermatzeko (igogailuak), izan energia eraginkortasuna handitzeko, edo beste.

Arreta eta ahalegin berezia eskaini behar zaio **etxebizitza hutsen merkaturatzeari**, hirigintza plangintzaren eskumen-eremutik harago doazen neurriak eskatu arren.

Edonola, helburu hau hirigintza plangintza berriaren arrakastari lotua egon daiteke, hau da, ezarritako helburu orokorrak erdiesteari eta Ataun bizitzeko leku erakargarriagoa egiteari.

➤ **Ekipamenduak eta zerbitzuak.**

Ataunek herri-mailako ekipamendu eta zerbitzu **zuzkidura onargarria** du, eta ondorioz, beharrezkoa da proposa daitezkeen ekimen berriek udalerriaren garapen jasangarriaren (1/2) eta lurralde ereduaren (2/2) ataletan ezarritako helburu orokorrei erantzutea; besteren artean:

- Goierriko eta BOLeke herritarrei aipatu eremuetan eskaini ezin diren zerbitzu osagarriak eskaintzea.
- Elbarrena eta San Gregorio arteko lurraldea modu bateratuan garatu beharreko hiri-gune gisa ulertzea.
- San Martin eta San Gregorio hiri-poloen arteko konektibitatea oinezko, bizikleta eta garraio publiko bidez bermatzea.

Zentzu horretan, ez da ahaztu behar Goierriko LZPak lurraldera sartzeko gune gisa sailkatzen duela San Martin herrigunea, eta ondorioz, berrekipamenduko **eragiketa bereziak** hartzeko gune egokitzat jotzen duela.

➤ **Espazio publikoak eta gune berdeak.**

Beharrezko jotzen da Elbarrenan Udaletxeak eta San Martin elizak eratzen duten udalerriko espazio publiko esanguratsu bakarraren **baldintza espazialak** hobetzea.

Horretarako beharrezkoa da HJA-8 eremuaren garapena modu egokian burutzea eta botika-etxearen birgaikuntzarekin asmatzea, baita GI-2120 errepideak egun eragiten dion “zauria” arintzea eta autoak bertatik guztiz erauzte ere.

Hirigintza plangintzak egun aurreikusten dituen edo etorkizunean proposa ditzakeen espazio publiko berriek ez liokete itzalik egin behar Elbarrenakoak Herriko-plaza gisa jokatzeko duen funtzioari, Ataunen eskalako udalerriek **erreferentziako espazio publiko adierazgarri bakarra** edukitzea garrantzitsua baita.

Funtsezkoa da udal plangintzak izendatzen dituen Gune Berdeen Sistema Orokorra **hiri-bilbean txertatuak** egotea eta hiri-ereduan zuzeneko funtzioa betetzea, egungoek ez bezala. Zentzu horretan, espazio publikoen eta gune berdeen arteko **bereizketa baztertu** beharko litzatekeela uste dugu, eta espazio publikoetan gune hiritartuak eta naturalak uztartu, klima-aldaketak hiri-guneetan sortuko dituen erronka berriei aurre egin ahal izateko.

➤ **Jarduera ekonomikoak.**

Indarreko udal plangintzak **jarduera ekonomiko industrialen** alorrean zituen aurreikuspenak ez dira gauzatu eta horrek frogatzen du, beste ataletan azaldu diren datuekin batera, **ez dela hau** udalerriaren garapenerako **alor estrategikoa**.

Aldiz, lurralde plangintzak adierazten duen bezala, ekonomia jardueretarako lurzoruen kalifikazioa **hiri-izaerako jardueretarako** izatea proposatzen da. Adibidez, **hirugarren adinerako zuzkidurak** Ataunen kokatzeko baldintzak sortzea helburu estrategikoa izan daiteke, aldi berean garapen exogenoari (BOLeko biztanleriari zerbitzu osagarriak eskaintzea) eta endogenoari (Ataungo biztanleriaren beraren zahartzeari) erantzungo baliokete.

Onorioz, ez da aurreikusten jarduera ekonomiko industrialetara lurzoru berriak bideratzea. Ajarresta inguruko eremuak bere izaera mantendu dezake edo, aldiz, bertan erabilera berriak proposa daitezke edo, muturrera eramanez, haren sailkapena eta izendapena berrikusi daitezke, hiri-izaerako **jarduera ekonomikoak kokagune egokiagoan** birkokatuz.

Bestalde, **hiri-izaerako establezimenduak** (merkataritza, ostalaritza, jarduera profesionalak, zerbitzuak...) errotzeko eta erakartzeko **hiri-ingurune trinkoa eta mugikortasun-eredu garatuak** behar dira, batik bat.

➤ **Mugikortasuna eta aparkalekua.**

Gipuzkoako Foru Aldundia da **GI-2120** errepidearen arduraduna, eta funtsezkoa da Udala eta bi erakundeen artean ardatz honen inguruko elkarrizketak abiatzea. Izan ere, egun duen eskualde arteko komunikabide funtzioa hondarrekia izanik, Ataungo auzuneen hiri-bilbeetan eragiten duen "zauria" oso handia baita.

Ezinezkotzat jotzen da errepideak egun duen eskualdeko izaera berrikustea, baina behintzat bere **ezaugarriak "leuntzea"** funtsezkoa litzateke udalerriaren garapenerako.

Izan ere, GI-2120 errepidearen egungo ezaugarriek talka egiten baitute proiektu honen indarraldian oinarritzkoa izango den helburuarekin, hau da, Elbarrena eta San Gregorio **hiri-poloen artean** hiri-izaera izango duen **ibilbide berri** baten eraikuntzarekin.

Ibilbide berri honek hiri-eremuko auzune nagusiak **mugikortasun eredu berritzaile eta unibertsalen** bidez lotu beharko lituzke, eta udalerriaren garapen integralaren eta lurralde eredu berrikusiaren funtsezko elementua da. Zentzu horretan, Agauntza ibaiaren mendebaldetik burutzen ari den oinezko ibilbideak, bere egokitasuna zalantzan jarri gabe, ezin du ordezkatu aipatu den hiri-izaerako ibilbide berria.

Aparkalekuari dagokionez, plangintzako proposamenen garapen maila zehatzago aztertu gabe, garrantzitsua da mahai gainean jartzea **lurrazpiko aparkalekuen** inguruko eztabaida, izan ere, lurzorua artifizializatu eta espazio publikoen kalitatea baldintzatzen baitute, baita bizimodu alternatiboak garatzeko ezinbestekoa den erabilera nahasketa ere.

➤ **Azpiegiturak.**

Datorren urteetan ezinbestean ekin beharko zaie edateko uraren kalitatea bermatzera bideratutako eskuhartzeei, arazketa sistema egokia ezarri eta sarea osatzen duen fibrozementuzko hoditeria ordezkatzuz.

Ur zikinen bilketa sarea osatu beharko da halaber, egungo kolektorea luzatuz edota bestelako sistemak (hondakin uren araztegia) ezarri.

Proiektu honetan proposatzen den garapen eredurako funtsezkoa da telekomunikazio-zerbitzuen sarbidea puntako estandarretan bermatzea, eta Plan Orokorren indarraldirako helburu estrategikoa izan beharko luke.

Bestalde, gas hornikuntzaren sarea hedatzeari uko egin gabe, energia berriztagarrien (fotovoltaikoa, eolikoa, hidroelektrikoa, biomasa...) instalakuntzek sor ditzaketen eskakizunak aurreikusi beharko dira, adibidez, auzo berogailu sistema zentralizatuak edo "district heating" deritzonak.

➤ **Landa-eremua eta baserria.**

Esan bezala, udalerriko landa-eremuak eta barreiatu zabalak proiektu honetan proposatutako ereduaren bigarren lurralde-unitatea osatzen du, eta berariazko azterketa eta tratamendua galdegiten ditu. Izan ere, landa-eremuko bizitegiek (baserriek), jarduera ekonomikoek (nekazaritza, abeltzaintza, basogintza, turismoa...) eta ingurumen naturalak osoko ikuspegia aldarrikatzen duen multzoa osatzen baitute, gure iritzi.

Zentzu horretan, klima aldaketak eragin duen zibilizazio-krisiaren eta gizarte bezala sortzen dizkigun erronken aurrean, parez pare kokatzen da lehen sektoreak azken hamarkadetan jasan duen gainbehera sakon eta etengabea, eta ez da erraza bi auziei modu bateragarrian erantzutea, giza-talde ezberdinen ikuspegiak askotan ezin adiskidetzekoak baitira.

Onorioz, landa-eremuaren arazoari erantzuteko, proiektu honen ahalmenetik haratago doazen gizarte-adostasunak eta herri-ekimenak behar dira, zalantzarik gabe. Eta gainera, udal hirigintza plangintzak

lurzoru ez urbanizagarrian eragiteko duen gaitasuna, edo lege-eskumena, nahiko mugatua da, eta alorreko lurralde plangintzak xedatutakoa bere egitera mugatzen da askotan.

Hori esanda, Ataungo baserriek egun oraindik gorpuzten duten ondare kultural aberatsa babestea izan beharko luke hirigintza plangintza berriaren helburu behinena. Eta hori, ahal dela, bizitegi eta inguruko landa-eremuaren ustiategi gisa baserriak historikoki izan duen erabilera edo funtzio bikoitza galdu gabe egin beharko litzateke.

Hala ere, jakitun gara udalerriko baserri gehienetan (%87) ez dela jada lehen sektoreko jarduerarik garatzen, eta asko (%31,9) hutsik daudela. Beraz, ondasun eraikia babesteko eta birgaitzeko behar den inbertsio handiari aurre egiteko modu bat izan liteke baserriari erabilera hiritarragoak esleitzea.

Adibidez, bizitegi erabilera hutserako partzelazioak eta segregazioak baimenduz, horrek ez soilik egungo baizik eta etorkizuneko erabilera nahasketak ere hipotekatuko lituzkeen arren.

Izan ere, lehen sektoreak (nekazaritzak, abeltzaintzak eta basogintzak) udalerrriaren garapen endogenoan jokatu behar duen papera, bere izaera jasangarriari eta estentsiboari lotua etorriko baita, inolaz ere ez ekoizpen eredu intentsibo edota industrialari. Eta egun lehen sektoreak beharrezko dituen azpiegitura berrien eraikuntzak bateragarria izan beharko luke udalerrriaren ingurumen- eta paisaia-ondarearekin, ATAUN marka tradizioan errota eta etorkizunera proiektatu nahi bada.

Beste aukera bat litzateke, aipatu ingurumen- eta paisaia-ondarea baliatuz, baserriak ostalaritza erabileretara bideratzea, beti ere turismo eta aisialdi jardueren jasangarritasuna eta hazkunde orekatua bermatuz.

1*

SARRERA

1.1 DIAGNOSTIKO AGIRIAREN IZAERA ETA EDUKIA

1.1.1. UDAL PLANGINTZARAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENA

Zenbait gorabeheraren ondoren, 2005eko urriaren 18an, Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak behin betiko onartu zuen «Ataungo Hiri Antolaketako Arauen Testu Bategina», eta ondorioz, iragarki berean Hirigintza Arautegiaren testua argitaratu zen, bere osotasunean (2005eko abenduaren 26ko GAO, 243. zenbakia).

Gainera, egungo Arauen indarraldian egin diren Arau Aldaketa Puntualak ondorengoak dira:

- 2006ko urriaren 3an Diputatuen Kontseiluak behin betiko onartutako «Ataungo 7, 8, 20, 21, 23 eta 25. Hirigintzako Esku Hartze Areei, Ergoiene eta Arinberriaga landaguneei eta ekipamendu sistemari dagokien Hiri Antolaketako Arauen Aldaketa», Ergoiene landagunearentzat ezarritako xedapenak etenda geratu ziren arren (2006ko urriaren 26ko GAO, 204. zenbakia).
- 2009ko abenduaren 15ean Diputatuen Kontseiluak behin betiko onartutako «Ergoiene landa herriguneko etenaldia bukatutzat emateko dokumentua (2008ko azarokoa)» (2010eko urtarrilaren 18ko GAO, 10. zenbakia).

Beraz, Ataungo udalerriko egungo hirigintza plangintza orokorra 2005eko abenduan sartu zen indarrean bere osotasunean, hau da, 17 urte bete dira eta bere indarraldia agortua dagoela esan daiteke. Izan ere, Arauen Testu Bateginak berak, berrikuspena egiteko baldintzak finkatzen ditu 0.6. artikuluan, eta honela dio:

0.6. artikulua. Arau Subsidiarioak berrikusteko baldintzak.

Bai legezko arrazoiengatik –legeria-aldaketak, lurralde-antolamendua, etab.–, bai egokitasunagatik/beharragatik, Udaltzatzen Arau Subsidiarioak berrikusteko erabaki ditzakeen ekimenak alde batera utzita, Arau Subsidiarioak ondoko kasu hauetan berrikusiko dira:

a) Ataungo biztanleriak proiektu honetan planteatutako aurreikuspenaren %15 gainditzen duenean.

b) Planifikatutako etxebizitza berrien %75etarako eraikuntza-lizentziak ematen direnean.

c) Etxebizitza hutsen %60tik gora okupatzea. Etxebizitza hutsak proiektu honetan bertan azaldutako irizpideen arabera ebaluatuko dira.

Zentzu horretan, Arauek bere indarraldirako aurreikusten duten gehieneko biztanle kopurua 1.800 pertsonakoa da. Egun, Ataungo biztanle kopurua 1.698 pertsonakoa da, hau da, Arauak onartu zirenean baino 133 biztanle gehiago, baina haien aurreikuspenetik nahiko urruti.

Bestalde, egungo Arauek (aldaketa puntualak barne) aurreikusten zuten bizitegi berrien hazkunde garbia 314 etxebizitzakoa da. Bada, udalerrian 2005etik 2023ra burutu den etxebizitza kopurua 101ekoa da. Horrek esan nahi du plangintzan aurreikusitako hazkunde garbiaren herena baino gutxiago (%32,16) gauzatu dela. Azkenik, 2005. urtean etxebizitza hutsen kopurua 174 ingurukoa bazen, 2023. urtean 250 ingurukoa da (230, Eusko Jaurlaritzaren 149/2021 Dekretuaren irizpideen arabera). Hau da, etxebizitza hutsen kopurua %43,68 hazi da Arauen indarraldian (2005-2023).

Ondorioz, esan genezake ez direla betetzen Arauek aurreikusten dituzten berrikuspenerako baldintza objetiboak. Hala ere, uka ezina da plangintzaren indarraldian egoera sozio-ekonomiko orokorrak jasan duen muturreko bilakaera, eta Ataunek zein bere eremu funtzional zabalagoak aurre egin beharreko erronkak berebizikoak direla, eta beraz, indarrean diren Arauek egungo egoerari erantzuteko duten gaitasuna ezbaian jartzea dagokigu.

Gainera, aintzat hartu behar da Arauen indarraldian lurralde antolaketaren zein hirigintzako arautegi orokorrak aldaketa nabarmenak jasan dituela. Bereziki aipagarria da 2006ko ekainaren 30eko *Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006* Legea, zeinen xedapenetara indarreko plangintza ez dagoen egokitua. Zentzu horretan, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeak, bigarren Xedapen Iragankorrean ondorengoa esaten du: “nolanahi ere, plan orokor eta arau subsidiario guztiak egokitu egin beharko zaizkie lege honen zehaztapenei, eta egokitzapenok behin betiko onartuko dira gehienez ere zortzi urteko epean”, nahiz eta urriaren 2ko 2/2014 Legeak aipatutako atal hori aldatu duen eta zortzi urteko epe hori hamabost izatera pasa den.

Edozein kasutan, Ataungo plangintza orokorra 2/2006 Legea egokitzeko epea iraungi dela baieztatu genezake. Beraz, guztiz beharrezkoa dirudi Ataungo udalerrian hirigintza plangintza orokorraren egokitzapenari ekitea, lurralde, ekonomia, ingurugiro eta kultura errealitateari doitzen dena, egungo gizartearen beharrei erantzuna eman ahal izateko.

Gauzak horrela, Ataungo Udalak, 2022ko urriaren 13ko Alkatetza Dekretu bidez, erabaki zuen “*Ataungo Hirigintza Antolamendurako Plan Orokorren Idazketa-Lana eta Aholkularitza Zerbitzuen kontratua ASTAZALDI ARKITEKTURA ESTUDIOA enpresari esleitzea*”, eta 2022ko abenduaren 15ean sinatu zen bi aldeen arteko lan-kontratua. Ondorioz, lehiaketa fasean aurkeztutako lan-egutegiari jarraituz, plangintza orokorraren berrikuspeneren idazketari ekin aurretik udalerrian egungo egoeraren informazio eta diagnostiko fasea zabaltzea erabaki da.

1.1.2. HIRI ANTOLAMENDURAKO PLAN OROKORRA

Hiri Antolamendurako Plan Orokorra (HAPO) udalerriko lurralde osoaren plangintza integralerako instrumentua da, eta bere funtsezko egitekoa udal barrutia bere osotasunean antolatzea da, hau da, lurraldearen egitura orokorra eta organikoa finkatzea eta zehaztea, udalerrientzat hartzen den lurralde antolaketa ezarriaz, beti ere, bere berezko ezaugarrien eta lurralde antolaketarako instrumentuek ezarritako erreferentziazko markoaren arabera, eta une oro aintzat hartuz, enkoadraketa tekniko eta legal gisa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen xedapen orokorrak eta partikularrak.

Plan Orokorra, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen baitan jasotako plangintza tresna gisa, udalerrri baten antolaketa ezartzeko gaitasuna duen instrumentua da, lurzoruaren hirigintzazko xedapenak antolatuz, bere dimentsio espaziozko zein denborazkoan, harturiko antolaketa integralaren eredia bururaino eramatea lortzeko. Zentzu horretan, hirigintza antolamenduak, gutxienez, ondoko ahalmenak edukiko ditu:

- **a.** Udal-mugartearen azalera osoa hiri-lurzoru, lurzoru urbanizagarri eta lurzoru urbanizaezin modura sailkatzea.
- **b.** Udal-mugartearen kalifikazio orokorra egitea, erabilera nagusi ezberdineko zonetan zatituta.
- **c.** Udal-mugarte osoan egiturazko antolamendua ezartzea, eta hiri-lurzoruan eta lurzoru urbanizagarrian, berriz, antolamendu xehatua.
- **d.** Hiri-lurzoruan eta lurzoru urbanizagarrian, bai gehieneko eta gutxieneko eraikigarritasun fisikoak, bai herritarren ongizaterako egokiak diren zuzkidurak adieraztea. Lurzoru urbanizaezinean, berriz, lurzoru hori zaintzearekin bateragarriak diren erabilerak zehaztea.
- **e.** Zehaztea, kalifikazioaren bidez, plangintzak zein lurzorutan ezarriko dituen zenbait erabilera babestu jakini lotuta dauden eraikuntzak; horien artean, babes publikoko araubide bati atxikitakoak diren etxebizitzak.
- **f.** Lurzoruaren erabilera arautzea, eta orobat lurzoru horren gainean egingo diren obra-mota guztiak baimentzeko baldintzak ere.
- **g.** Hirigintzaren antolamendua egikaritzeko beharrezkoa den programazioa egitea.
- **h.** Berritu edo birgaitu egingo diren eremuak mugatzea, bai eta udalerriko ondare urbanizatu eta eraikia babesteko arauak ere.
- **i.** Hala badagokio, landa-guneak eta lehentasunez erosteko zein atzera eskuratzeko eskubideei atxikitako eremuak mugatzea.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen arabera, planek hirigintza antolaketa ezartzen dute bere bi mailatan, egiturazkoa eta xehatua. Plan Orokorraren eskumena da egiturazko hirigintza antolaketa. Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 61. artikulua arabera, Plan Orokorraren eduki substantiboak ondorengo antolaketa zehaztapenak jaso behar ditu:

- **a.** Gutxienez, udalerrri osoaren egiturazko antolamendua eta plan orokorrak hiri-lurzoru finkatuan sartzen duen hiri-lurzoruaren antolamendu xehatua.
- **b.** Nahi izanez gero, lurzoru urbanizagarri sektorizatuaren eta plan orokorrean hiri-lurzoru finkatuaren kategorian sartu gabeko hiri-lurzoruaren antolamendu xehatua. Antolamendu hori, nolana ere, antolamendu xehatuko plangintzan arautzeko utz daiteke.

Berrikuspen prozesua ingurumen ebaluazioaren agiriez osatuko da fase bakoitzean.

1.1.3. DIAGNOSTIKOAREN KOMENIGARRITASUNA ETA EGOKITASUNA

Plangintza orokorraren berrikuspenean hiru fase aurreikusi daitezke:

- **1.** Lehenengo fasearen xedea egungo egoeraren eta problematikaren ezagutza da, Ataungo hirigintza plangintza orokor berriaren idazketan eta hari batu behar zaizkion proposamenen zehaztapenean eragin zuzena edo zeharkakoa duten gai guztiei dagokienez. Azken batean, egungo egoeraren diagnostiko egokia egitean datza.
- **2.** Bigarren fasearen zeregina plangintzaren irizpide, helburu eta konponbide orokorren zehaztapena da, aipatu plangintza orokor berriaren behin betiko egitasmoa haietara egokitu dadin. Barne biltzen ditu dagokion Aurrerakin agiriaren idazketa eta haren izapidetzea, dagokion jendaurreko erakusketa barne.
- **3.** Azken fasearen xedea aipatu behin betiko egitasmoaren idazketa da, aurreko faseko ondorio diren irizpide eta helburuetatik abiatuta, eta haren ondorengo izapidetzea, dagokion jendaurreko erakusketa ere barne.

Une honetan, agiri hau aipatu faseetako lehenengoaren testuinguruan idazten da. Zentzu horretan, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 86. artikulua dio:

86. ARTIKULUA.– ALDEZ AURREKO AZTERKETAK

- **1.** *Administrazioek eta interesa duten erakunde publikoek azterketak egin ahal izango dituzte, hirigintzako planak idatzi edo arlo horretan egoki diren bestelako egintzak gauzatu aurretik, hirigintzako jarduketak jakin batzuk egitea beharrezkoa eta egokia den antzemateko, jarduketak horien eremua eta ezaugarriak zehazteko, udal-izaera duten edo udalaz gaindiko eragina eta interesa duten zehazteko eta jarduketak antolatze edo proiektuetan jasotzeko tresna egokiak aurkitzeko.*
- **2.** *Aldez aurreko azterketak onartzearen administrazio-eragina barrukoa izango da, kasuan kasuko planak edo proiektuak prestatzekoari begirakoa.*

Diagnostiko hau 2/2006 Legearen 86. artikulua xedatutakoaren baitan txertatzen da.

1.1.4. DIAGNOSTIKOAREN IRIZPIDE ETA HELBURU OROKORRAK

Indarrean diren Arau Subsidiarioak ordezkatzeko egin behar den hirigintza plangintza orokor berriaren xede izango den lurralde eremua Ataungo udal barruti osoak osatzen du. Eta aipatu helburua erdiestera bideratuta dagoen prozesuaren testuinguruan egiten den heinean, udal barruti horrek berak osatzen du diagnostiko agiri honek lehentasunez eragindako lurralde eremua, baina ez da bakarra.

Horrela, Ataun udalaz gaindiko errealitate zehatz batean kokatzen da (eskualdekoa edota bestelakoa), eta horrek errealitate jakin horri eta beronek udalerrian duen eraginari behar besteko arreta eskaintzea arrazoitzen du.

Bestalde, plangintza orokor berriaren eta bere aurreikuspenen erreferentziazko eta etorkizuneko epe muga hurrengo hamar urtekoa dela hartuko da aintzat, eta ondorioz, baita diagnostiko agiri honetan jasotzen diren iradokizun guztiena ere.

Beraz, adierazitakoaren arabera, diagnostikoaren helburu orokorrak ondorengoak dira:

- Batetik, egungo egoeraren ezagutzarako beharrezkoak diren informazio eta datu guztien bilketa, udalerriko hirigintza plangintza orokorrean eragina duten alderdi guztiei dagokienez;
- Bestetik, egoera horren analisia eta diagnostikoa.

Ohikoa izan da plangintza orokorraren idazketa hiritartutako espazioaren antolaketa huts bezala ulertzea, abitatutako eremuen hiritartze ikuspegiaren zentratuz. Beste ikuspegi batetik, berrantolaketa prozesu hau eraikiaren edota eraikigarriaren muga hutsetatik haratago ulertzea proposatzen dugu, lurraldearen "osoko" ikuspegia aintzat hartuz, non harreman guztiak, ingurune fisikoarenak zein gizatiarrarenak, elkarrekiko menpekotasunez ulertzen diren.

Elkarrekiko menpekotasun hau izango da, aurreikusitako zenbait ekintzen bitartez, Ataungo udalerrriaren balio natural eta sozialekiko bateragarriagoa den gizarte garapen mota bateruntz gidatuko gaituena.

Gauzak horrela, diagnostiko agiri hau ondorengo zuzentzaruetan oinarritzen da:

- **1.** Hirigintza plangintza Ataungo udalerrriaren epe ertain-luzeko garapen estrategia zehazteko aukera bezala ulertzea.
- **2.** Prozesua demokrazia parte-hartzaileko estrategia baten baitan barne biltzea, lan egiteko modu irekien eta erabakitze modu deliberatiboen bitartez.
- **3.** Bizi dugun krisi sistemikoak gizarte bezala sortzen dizkigun erronkei plangintzatik erantzun ematen laguntzea, justizia sozialaren eta baliabideen elkarbanatzearen ikuspegitik.
- **4.** Ingurunearen ezagutza sakon batetik lan egitea, lurraldearen mugak aintza hartuz eta haren indarguneak sustatuz.
- **5.** Proposatutako metodologian paisaia faktorea txertatzeko ahalegina, osoko ikuspegitik gizarte balioak eta balio naturalak barneratuz.
- **6.** Prozesuari genero berdintasunetik ekiteko konpromisoa.
- **7.** Irisgarritasun unibertsalaren helburua prozesuaren oinarritzko gidalerro bezala txertatzeko konpromisoa.
- **8.** Prozesuan Ataungo udalerrriaren nortasun kulturala aintzat hartzeko eta Hirigintza plangintzak harekiko eragin ditzakeen arriskuak neurtzeko konpromisoa.

1.1.5. DIAGNOSTIKOAREN METODOLOGIA OROKORRA ETA AURREIKUSITAKO FASEAK

Arestian ezarritako zuzentzaruen arabera, diagnostiko agiriaren idazketa ondorengo gidalerro nagusitan oinarritzen da:

- Herritarren parte-hartzea prozesuaren zati bereiztezina da. Agiri teknikoak ez dira ondorengo parte-hartze prozesuetan balioesten, baizik eta agiriak modu partekatuan idazten dira.
- Modu partekatuan egindako diagnostiko agiria planeamenduaren funtsezko oinarria da, eta ondorioz, behar besteko denbora eta baliabideak eskaini behar zaizkio.
- Diagnostiko prozesua hiru lan ildo nagusiren bidez garatuko da: ingurumena, sozio-ekonomia eta hirigintza.

Aipatu gidalerrotan oinarriturik, diagnostiko prozesua ondorengo faseetan garatzen da:

- **1.** Aurrediagnostiko teknikoak: arestian aipatu hiru ildo nagusitan, diagnostikoa osatuko duten atal ezberdinei lehen urbilketa eta informazio bilketa, ondorengo parte hartze prozesua elikatu eta hausnarketa sustatu asmoz.
- **2.** Parte hartze prozesua: udalerriko zein eskualdeko eragile eta herritarren parte hartzea, ondorengo atalean zehazten den moduan.
- **3.** Diagnostiko partekatuaren idazketa: arestian aipatu hiru lan ildo ezberdinen azterketan sakondu eta, aldi berean, paraleloki garatuko den parte-hartze prozesuan erdietsitako informazioa eta ondorioak barneratuko dira.
- **4.** Diagnostiko partekatuaren balioespena: behin diagnostiko partekatuaren agiria idatzirik, beronen sozializazioa eta ondorioen balioespena sustatuko da, erakusketa edota metodologia ezberdinen bidez.

1.2 AURREDIAGNOSTIKO TEKNIKOAREN EGITURA

Giagnosi agiriak ondorengo atalak izango ditu:

- ATALA 00: AURREDIAGNOSTIKO TEKNIKOAREN SINTESIA
- ATALA 01: SARRERA
- ATALA 02: INGURUMEN AZTERKETA
- ATALA 03: AZTERKETA SOZIO-EKONOMIKOA
- ATALA 04: HIRIGINTZA AZTERKETA

1.3 SUSTATZAILEA ETA TALDE IDAZLEA

Udalerriko hirigintza plangitza orokorraren berrikuspenerako Diagnostiko Agiriaren sustatzailea ATAUNGO UDALA da, N.I.F.: **P2001600B** duena, eta helbidea: Elbarrena auzoa, 44 (20211) ATAUN_GIPUZKOA.

Diagnostiko Agiriaren idazle taldea ondorengoek osatzen dute:


- *Ingurumen atalaren arduraduna: EKOLUR. INGURUMEN AHOLKULARITZA.*
- *Sozio-ekonomia atalaren arduraduna: GISLAN GEOGRAPHIC APPLICATIONS Kooperatiba Elkarte.*
- *Hirigintza atalaren arduraduna: ASTAZALDI ARK S.L.P.*
- *Herritarren parte-hartze prozesuaren zuzendaritza: AZTIKER Kooperatiba Elkarte txikia.*

2*

INGURUMEN AZTERKETA

- Behealde: Agauntza ibaiaren ibarretako eremu estuak, non egoitzetarako eta industriadetako hiri-lur gehienak kokatzen diren, eta baita EAEko Nekazaritza eta Basogintza Antolatze Lurraldearen Arloko Planak balio estrategiko altukotzat hartzen dituen lurak ere.

Udalerriaren orografia hobeto ulertzeko, azalera lurzorua maldaren arabera sailkatu da, eta lurraldearen hedadura malda tarteen arabera kalkulatu da.



2. Irudia Ataun udalerriko maldak.

1. Taula ATAUNGO UDALERRIAREN AZALERA MALDEN ARABERA		
Malda tartea (%)	Azalera (ha)	Udalerriko zenbatekoa (%)
0-10	133,21	2,28
10-20	334,94	5,74
20-30	679,49	11,65
30-50	2.326,36	39,88
50-75	2.115,01	36,26
75<	244,46	4,19
GUZTIRA	5.833,47	100,00%

Nabarmentzekoa da lurzoru lauak, %10 baina malda txikiagoa duten eremuak, oso gutxi direla, hau da, 133 ha inguru, udalerriko azaleraren %2,3 bakarrik. Eremu malkartsuek, aldiz, %50 baina malda handiagoa duten eremuek, 2.359 ha inguruko azalera hartzen dute, udalerriko azaleraren %40.

2.1.2.2 Ezaugarri geologikoak²³

Euskadiko mapa geologikoaren arabera, Ataungo udalerria behe kretazeoko materialen gainean kokatzen da nagusiki, udalerriaren hegoaldea izan ezik, bertan behe-goi kretazeoko materialak agertzen dira.


² Mapa Geológica del País Vasco (1:200.000), 1991. Ente Vasco de Energía (EVE).

³ Geoeuskadi. Euskal Autonomia Erkidegoko Datu Espazialen Azpiegitura (Litologia, Geomorfologia, Interes Geologikoko Lekuak).

2. Taula ATAUNGO UDALERRIAN AURKITZEN DIREN UNITATE GEOLOGIKOAK			
Unitate geologikoak	Iragazkortasuna	Azalera (ha)	Udalerriaren %
038 - Moluskuen eta oolitoen kareharriak	Altua pitzaduragatik	23,57	0,40
041 - Kareharri urgoniar masiboak edo banku metrikoetan, errudistekin eta koralekin. Tokian bertan olistolitoak	Ertaina pitzaduragatik	638,29	10,95
043 - Kareharri urgoniar ezpuruak	Ertaina pitzaduragatik	444,42	7,62
049 - Tokian-tokian estratifikatutako hareharri silizeoak, edo konglomeratikoak edo ferruginosoak. Lutita-iraganaldiak	Ertaina porositateagatik	213,68	3,67
050 - Hareharriak, batzuetan karetsuak, eta lutitak tartekatuak. Oso tokian-tokian, maila bolkaniko edo kong-ekin	Baxua porositateagatik	1034,22	17,74
051 - Arrailak, slump-ak, lutita beltzak. Tokian-tokian megaturbiditak	Ertaina porositateagatik	30,13	0,52
056 - Lutita karetsuak edo silizeoak, ale oso fineko hareharri ilunak. Oso tokian-tokian konglomeratikoak	Baxua porositateagatik	72,80	1,25
087 - Kareharri konglomeratikoak eta hareatsuak	Ertaina pitzaduragatik	14,06	0,24
088 - Kareharri bioklasikoak eta kare-arrakala konglomeratikoak	Altua pitzaduragatik	8,51	0,15
089 - Lutitak, hareharriak, tuparriak. Tokian bertan kareharri hareatsuak, errudistak edo ostreituak	Baxua pitzaduragatik	742,90	12,74
090 - Hareharriak eta lutitak	Baxua porositateagatik	5,46	0,09
091 - Margak, kareharriak, arrailak eta turbiditak. Limolitak eta hareharriak. Kalkarenitak eta margak	Baxua pitzaduragatik	1669,46	28,64
092 - Hareharri silizeoak edo kareharriak, kareharri hareatsuak. Localm. Konglomeratikoak edo lutitekin edo arrakalarekin	Ertaina porositateagatik	2,84	0,05
094 - Kare-arrailak, tuparriak, turbiditak. Errudisten kareharriak tokian-tokian	Ertaina pitzaduragatik	758,34	13,01
095 - Margak, limolita ilun silizeoak eta hareatsuak (Itziarko margak)	Baxua pitzaduragatik	15,02	0,26
184 - Alubioi-metaketak, alubioi-kolubialak	Ertaina porositateagatik	86,86	1,49
185 - Metaketa kolubialak	Altua porositateagatik	69,02	1,18
GUZTIRA		5.829,60	100,00

Ataunen aurki daitezkeen unitate litologiko nagusia margak eta kareharriak dira, hareharriak ere agertzen direlarik. Litologiaren aldetik, udalerrian aurki daitezkeen materialak hurrengo taulan bildu dira:

3. Taula ATAUNEN AURKITZEN DIREN UNITATE LITOLOGIKOAK		
Unitate litologikoak	Azalera (ha)	Udalerriaren %
Gainazaleko metaketak	155,89	2,67
Ale lodiko harri detritikoak (hareharriak)	216,52	3,71
Detritiko txandakatuak	1.885,52	32,34
Karbonogabeko margak	15,02	0,26
Kareharri ezpuruak eta kalkarenitak	1.216,83	20,87
Kareharriak	670,37	11,50
Margokareharriak, kareharritzko margak eta kalkarenitak txandakatzea	1.669,46	28,64
GUZTIRA	5.829,60	100,00



3. Irudia Ataungo unitate litologikoak

Horretaz gain, nabarmentzekoa da udalerriaren ipar-ekialdean EAEko Interes Geologikoko Guneen zerrendan sartutako eremu bat dago:

- “Ataungo domoa”: Kareharri urgondarrez osatuta eta 1.000 metro baino gehiagoko gailurrak dituen domoa da. Interes zientifiko nabarmena du, batez ere balio tektoniko/estruturala eta geomorfologikoa.

Egun duen eraztun itxurak atentzioa deitzen du, orogenia piriniarraren ondoriozko indarrek bertako indar perpendikular batzuekin elkarreaginez, lurrazala gorantz altxatu zen kupula itxurako mendi bat sortuz. Herrian Aitzarte bezala ezagutzen da⁴.

4. Taula ATAUNGO DOMOAREN DATU OROKORRAK			
IZENA	Azalera (ha)	Azalera udalerrian (ha)	Udalerriaren %
Ataungo domoa	2.267,47	1.839,75	31,56

2.1.2.3 Edafologia eta ahalmen agrologikoa

Litologia, orografia, klima, landaretza eta, batzuetan, erabilera historikoa bezalako aldagaiek udalerrian banatzen diren lurzoru motak baldintzatzen dituzte.

Gipuzkoako lurraldean eskala txikian egindako aurretiazko azterketa edafologikoen arabera, Ataunen gehien aurkitzen diren lur-motak kanbisol eutrikkoa, lubisol ortikoa eta akrisol humikoa dira, hiruetatik gehiena kanbisola izanik.

2014an argitaratutako Zoru-baliabidearen munduko oinarri erreferentzialaren arabera, kanbisolak klima guztietan eta lur lau zein menditsuetan aurki daitezke. Ama arrokak meteorizazio arina jasatearen ondorioz eratzen dira eta ez dira ilubiazio bidez eratutako buztin, materia organiko eta Al/Fe konposantuen horizonte nabarmenik agertzen. Hala ere, lurzoru motan honetan bereizketa-horizonte hasiberri baten eraketa azaltzen da.

Lubisolak buztinezko bereizketa edafogenetikoa duten lurzoruak dira, hau da, beheko geruzak goiko geruzak baino buztin eduki gehiago izaten du buztinaren migrazioa dela eta. Akrisoletan ere buztinaren migrazioa ematen da.

Hedadura txikiagoan, udalerrian flubisolak agertzen dira. Lurzoru hauek ibai-metaketetan garatutako lurzoru gazteak dira. Azkenik, litosolak ere agertzen dira, sakonera gutxiak. Hauek ohikoak dira eskualde menditsuetan.


⁴ <https://www.ataunturismoa.eus/eu/ondarea/ondare-naturala/>

5. Taula ATAUNGO UDALERRIAN AURKITZEN DIREN LUR-MOTAK				
Lur-motak		Azalera (ha)		Udalerriaren %
Kanbisol	Kanbisol eutrikoa	1.488,88	2.343,48	40,26
	Kanbisol gleikoa	541,41		
	Kanbisol distrikoa	313,20		
Lubisol	Lubisol ortikoa	1.327,81	2.017,17	34,65
	Lubisol kaltzikoa	584,00		
	Lubisol gleikoa	105,36		
Akrisol	Akrisol humikoa	1.238,05	1.238,05	21,27
Flubisol	Flubisol eutrikoa	36,61	133,82	2,30
	Flubisol kromikoa	97,21		
Litosol		74,05		1,27
Lurzorurik gabe		8,58		0,15
U-ibilgua		5,83		0,10

Horretaz gain, Ataungo udalerrian mota agrologiko ezberdinak agertzen dira.

- Azaleraren gehiengoa baso lanerako baino erabil ezin daitezkeen lurrek estaltzen dute, udalerri osotik zehar banatzen dira udalerriaren %80 hartuz.
- Larre-bokazioa duten lurzoruek, %20-30 arteko maldak dituztenak, udalerri osoan zehar zabaltzen dira, udalerriaren %14 inguru.
- Nekazaritzarako balio ez duten lurrak malda handiko eremuetan aurkitzen dira batez ere, ingurua zaintzeko edo paisaietarako beste erabilpenik ez dutenak. Badira ere zenbait gun e hiritartuak, auzoetako herriguneen inguruan batez ere. Guztira, udalerriaren %4 da mota honetakoa.
- Alubioi estuetan eta pilatutako malda txikiko mendi-hegaletan dauden ahalmen handieneko lurrak Agauntza ibarraren inguruan aurkitzen dira. Guztira, 105 ha inguru dira mota hauetako lurzoruak, udalerriaren %1,8 bakarrik.

6. Taula MOTA AGROLOGIKOEN AZALERA ATAUNEN		
Mota agrologikoak	Azalera (ha)	Udalerriaren %
III. Alubioi estuetan eta pilatutako malda txikiko mendi-hegaletan dauden lurrak	62,13	1,07
IV. Malda txikiko mendi-bizkarretan eta %20 < ko malda duten mendi hegaletan lantzeko lursailen mugan dauden lurrak	43,97	0,76
VI. Lantzeko zailak diren lurrak, iraunkortasunez larretarako edo egurretarako erabiltzen direnak soilik	802,07	13,78
VII. Baso lanerako baino erabil ezin daitezkeen lurrak	4.681,02	80,40
VIII. Nekazaritzarako balio ez duten lurrak, ingurua zaintzeko edo paisaietarako beste erabilpenik ez dutenak	232,88	4,00



4. Irudia Ataungo mota agrologikoak.

1988an Gipuzkoako Mota Agrologikoen Mapa egin zen⁵. Urte horretatik gaur egunera (35 urte) bitartean izandako aldaketak ezin dira oso garrantzitsutzat jo. Nolanahi ere, nabarmendu behar da eremu urbanizatuak handitu egin direla, batez ere ahalmen handieneko (III. eta IV. motak) mota agrologikoetako lursaileri eragin dietenak.


7. Taula MOTA AGROLOGIKOEN BILAKAERA				
Mota agrologikoak	Azalera 1988 (ha)	Azalera 2022 (ha)	Bilakaera (ha)	Bilakaera (%)
III	69,50	62,13	- 7,38	- 10,6
IV	45,78	43,97	- 1,81	- 4,0
VI	803,62	802,07	- 1,55	- 0,2
VIII	4.681,49	4.681,02	- 0,47	0,0
VIII	221,66	232,88	+ 11,21	+ 5,1

Nekazaritza eta Basogintzarako Lurralde Plan Sektorialak (2014ko urriko behin betiko onarpena) soilik udalerrri azaleraren %23 zehazten du landa-lurraldearen antolamendua; izan ere, gainerakoa Babestutako Naturagunea baita, Aralar Parke Natural eta Natura 2000 Sareko Kontserbazio Bereziko Eremua (KBE), eta Sare honetako Agauntza ibaia KBE ere bai. LPSaren arabera, udalerrirako antolamendu kategoria bakoitzak hurrengo azalera hartzen du:

8. Taula BASOGINTZA ETA NEKAZARITZARAKO LPS ANTOLAMENDU-KATEGORIAK UDALERRIAN		
Antolamendu kategoriak	Azalera (ha)	Udalerrriaren %
Nekazaritza-abeltze eremua: Balio Estrategiko Altua	37,21	0,64
Nekazaritza-abeltze eremua: Trantsiziozko Landa Paisaia	326,57	5,61
Basoa	936,01	16,08
Basoa-Mendi Urria	39,81	0,68
Larre Menditarra	2,59	0,04
GUZTIRA	1342,19	23,05

⁵ Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoako Mota Agrologikoen Mapa. 1988.

Azalera gehiena baso eremuak hartzen du, udalerriaren % 16. Balio estrategiko altua duten eremuak Agauntza ibaitik gertu topa daitezke, udalerri azaleraren % 0,64-a bakarrik estaliz.



5. Irudia Nekazaritza eta Basogintzaren LPS antolamendu-kategoriak udalerrian.

2.1.2.4 Hidrologia

Sare hidrografikoa


Onartu berri den Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoaren arabera (2022-2027 zikloa, 35/2023 Errege Dekretuaren bidez onartua) Ataungo udalerria Planaren aplikazio-eremuaren barruan sartzen da. Zehazki, Oriako Unitate Hidrologikoan kokatzen da.

Oria UH-koa bi arro nagusietan banatzen da Ataungo udalerrian: Agauntza eta Zaldibia. Udalerrri-azaleraren % 96,23 Agauntza arroari dagokio, eta gainerako % 3,77 Zaldibikoari.

Udalerrian hiru ur-masa identifikatu dira: Agauntza ibaia I, Agauntza ibaia II, eta Zaldibia ibaia.

Udalerrri azaleraren % 80,97 Agauntza ibaia I-ek hartzen du, 4.690 ha baino gehiagoko azalerarekin. Agauntza ibaia II udalerriaren iparraldeko jasotzen ditu eta honek udalerriaren % 15 hartzen du. Azkenik, Zaldibia ibaia udalerriaren ipar ekialdeko urak jasotzen ditu, eta udalerri azaleraren ia %4 dagokio.

9. Taula UR MASAK ATAUNGO UDALERRIAN			
Arro isurialdea	Kodigoa	Azalera (ha)	Udalerrriaren ehunekoa
Agauntza ibaia I	ES020MAR002560	4692,28	80,97%
Agauntza ibaia II	ES020MAR002540	883,77	15,25%
Zaldibia ibaia	ES020MAR002570	218,72	3,77%



6. Irudia Sare hidrografikoa Ataungo udalerrian.

Uren kalitatea^{6,7}

2022-2027 Plan Hidrologikoan egindako sare hidrografikoaren jarraipen eta egoera ebaluazioaren arabera, Agauntza Ibaia I arro isurialdea osatzen duten ur-masak izaera naturalekoak dira. Gainera, ur-masen egoera ekologikoa zein kimikoa kalitate ona adierazten dute. Hala ere, 2019ko balorazioa, aurretik egindako balorazioetan oinarritzen da presio esanguratsurik ez izateagatik.

10. Taula AGAUNTZA IBAIA I ARRO ISURIALDEAREN UR-MASEN KALITATEA

Escenario PH2			Escenario PH3			Estado Ecológico					Estado Químico					Estado Total				
EE	EQ	E	EE	EQ	E	15	16	17	18	19	15	16	17	18	19	15	16	17	18	19
B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B*	B	B	B	B	B*	B	B	B	B	B*

Era berean, Agauntza Ibaia II arro isurialdea osatzen duten masek ere izaera naturala dute, eta kalitateari dagokionean orokorrean egoera onean aurkitzen dira, hauen egoera ekologiko zein kimikoa ona izanik.

11. Taula AGAUNTZA IBAIA II ARRO ISURIALDEAREN UR-MASEN KALITATEA

Escenario PH2			Escenario PH3			Estado Ecológico					Estado Químico					Estado Total				
EE	EQ	E	EE	EQ	E	15	16	17	18	19	15	16	17	18	19	15	16	17	18	19
B	B	B	B	B	B	Mo	B	B	B	B	B	B	B	B	B	PB	B	B	B	B

Amaitzeko, Zaldibia Ibaia arro isurialdeko ur masen egoera ere ona da.

12. Taula ZALDIBIA IBAIA ARRO ISURIALDEAREN UR-MASEN KALITATEA


Escenario PH2			Escenario PH3			Estado Ecológico					Estado Químico					Estado Total				
EE	EQ	E	EE	EQ	E	15	16	17	18	19	15	16	17	18	19	15	16	17	18	19
B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B

⁶ Anbiotek & Címera, 2020. Ibaien egoera biologikoaren jarraipena egiteko sarea. 2019ko Emaizten txostena. URA.

⁷ Laboratorios Tecnológicos de Levante & Ekolur, 2020. Euskal Autonomia Erkidegoko ibaien egoera kimikoaren jarraipena egiteko sarea. 2019ko Emaizten txostena. URA.

Lurpeko urak

Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoaren arabera (2022-2027 zikloa), Ataungo udalerria Hegoaldeko sinklinorioan (ES017MSBT017-006) eta Aralar (ES017MSBT013-014) lurpeko ur-masen gainean kokatzen da. Hegoaldeko sinklinorioak ia 4.000 ha-ko azalera hartzen du Ataunen udalerrri azaleraren % 67 estaliz. Aralarreko lurazpiko ur-masak ia 2.000 ha-ko azalera du udalerrrian, % 32 estaliz. Aldi berean bi sektoreak kalitate orokor ona aurkezten dute. Horretaz gain, Ataunen lau urpeko ur-masen sektore agertzen dira eta lauak Aralar ur-masaren barruan kokatzen dira. EAEko lurpeko uren kontrol sareko azken datuen arabera, Aralarreko ur-masak Osinberde iturburuko (SC58) kontrol-estazioan egoera kimiko ona du.




7. Irudia Ataungo udalerrian aurkitzen diren lurrazpiko ur-masak eta sektoreak.

Eremu Babestuen Erregistroa (Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrologikoaren Plan Hidrologikoa)⁸

Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrologikoko Plan Hidrologikoko eremu babestuen erregistroak barne hartzen ditu ingurune urtarrarekin zerikusia duten eta Erkidegoko araudia eta beste araudi batzuk aplikatuz babestuta dauden eremuak. Zehazki, Ataungo udalerrriaren barruan eremu hauek aurkitzen dira:

- Hornidurarako ura hartzeko lurrazaleko hartuneak:
 - Agostuzarreta, Albizta, Asinaltza, Remedios eta Soroitxar iturburuak
 - Aiaturrieta iturburua
 - Otsinberde iturburua
- Habitat eta espezieak babesteko eremuak: KBE/ZEC ES2120011 Aralar eta KBE/ZEC ES2120005 Oria Garaia
- Babes berezia duten ibai-tarteak:
 - Agauntza ES017TIME1610100294
 - Zaldibia ES017TIME1610100295
- Bestelako babes figurak: Espezie mehatxatuen interes bereziko eremuak (Ugaztunen babesa *Galemys pyrenaicus*)

⁸ Real Decreto 35/2023, de 24 de enero, por el que se aprueba la revisión de los planes hidrológicos de las demarcaciones hidrográficas del Cantábrico Occidental, Guadalquivir, Ceuta, Melilla, Segura y Júcar, y de la parte española de las demarcaciones hidrográficas del Cantábrico Oriental, Miño-Sil, Duero, Tago, Guadiana y Ebro.



8. Irudia Eremu Babestuen Erregistroan identifikatzen diren elementuak Ataungo udalerrian.

2.1.3. INGURUNE BIOTIKOA


2.1.3.1 Landaretza eta lurzorua erailerak

Oinarritzko erreferentzia gisa, GeoEuskadiko habitaten, egungo landarediaren eta lurzorua eraileraren kartografia (1:10.000) erabili da. Euskadiko Naturari buruzko Informazio Sistema ere kontsultatu da. Ondoren, 2022ko ortoargazkia fotointerpretatuz egun dagoen errealtatea islatzeko egokitzapenak egin dira, landalanaren bidez egiaztatu direnak.

Landaredi potentziala eta lurzorua erailerak

EAEko Landaretza Serieen Maparen arabera, Ataungo udalerrian azalera gehienean harizti azidofiloa eta harizti-baso misto atlantikoa agertzen da, erdialdetik iparraldera hedatuz. Hegoaldean aldiz, azalera handiarekin ere pagadi azidofiloa azaltzen da. Tarteka beste espezie batzuen baso formazioak agertu beharko lirateke, hala nola, artadi kantauriarra, hegoaldera begira eta sakonera txikiko lurzoruetako hegala malkartsuetan batez ere. Era berean, formazio horien artean, ur-ibilguzi lotutako haltzadi kantauriarra egongo litzateke.

13. Taula ATAUNGO LANDAREDI POTENTZIALAREN AZALERAK		
Landaretza	Azalera (ha)	Udalerriaren %
Harizti azidofiloa eta harizti-baso misto atlantikoa	2.167,18	37,23%
Pagadi azidofiloa	2.116,97	36,37%
Artadi kantauriarra	690,90	11,87%
Pagadi kaltzikola edo eutrofikoa	481,54	8,27%
Haltzadi kantauriarra	315,52	5,42%
Karaitzetako komunitate-konplexua	44,94	0,77%
Amezti	3,79	0,07%



9. Irudia Ataungo landaredia potentziala.

Gaur egungo landaredia eta lurzoruen erabilera


Gaur egungo landarediari erreparatuz, nabaria da giza jarduerak eragin duten aldaketa. Pagadien kasuan, ikus daiteke pagadi azidofilo zein basofilo edo neutroaren hedadura nahiko egonkor mantendu dela urteekin, nahiz eta honen azalera murriztua izan den. Era berean, artadi kantauiarrak eremu berdinean jarraitu du eta azalera ere zerbait murriztu da.

Harizti azidofiloa eta harizti-baso misto atlantikoaren kasuan ordea, askoz ere nabariagoa da giza jardueraren eragina. Eremu horretan zehar landaketa ezberdinak eta belardi zein larreak aurki daitezke gaur egun. Aipatzekoa da ere, udalerrri azaleraren gehiengo koniferoen landaketek estaltzen dutela, guztira 1.700 ha baino gehiagoko eremua hartuz.

14. Taula ATAUNGO LANDAREDIA ETA LURZORUAREN ERABILERA		
Habitata	Azalera (ha)	Udalerriaren %
Baratza eta frutarbolak	30,02	0,51
Baratza eta mintegiak	10,15	0,17
Bestelako frutarbolen landaketak	19,88	0,34
Baso landaketak	1793,62	30,73
Bestelako hostozabal hostoerorkorren landaketak	3,27	0,06
Chamaecyparis lawsoniana-landaketak	0,36	0,01
Espezie exotikoen heskaiak	0,16	0,00
Gaztainadiak edo gaztain-landaketa zaharrak	0,82	0,01
Hostozabal eta koniferoen baso-landaketa mistoak	1,32	0,02
Hostozabal hostogalkorren landaketa gazteak	0,61	0,01
Koniferoen baso moztu berriak	31,92	0,55
Koniferoen eta hostozabalen landaketa misto gazteak	23,89	0,41
Koniferoen landaketa gazteak	301,12	5,16
Larix sp.-landaketak	268,02	4,59
Picea sp.-landaketak	4,02	0,07

Pinus nigra-landaketak	287,83	4,93
Pinus radiata-landaketak	568,15	9,73
Pinus sylvestris-landaketak	1,12	0,02
Populus sp.-landaketak	0,20	0,00
Pseudotsuga menziesii-landaketak	242,06	4,15
Quercus rubra-landaketak	53,64	0,92
Robinia pseudoacacia-landaketak	5,11	0,09
Belardi eta larreak	729,39	12,50
Agrostis eta Festuca-ren mendiko larreak	93,85	1,61
Albiztiak eta Mesobromion taldeko larreak	58,28	1,00
Belardi eta larre alpetar, azpialpetar eta oromediterraneo kaltzikolak	60,98	1,04
Belardi larratuak eta manipulatu gabeko larreak	6,24	0,11
Larratu gabeko segabelardi atlantiarrek	510,05	8,74
Bertako basoak	2998,11	51,37
Amezti eurosiberiarra	0,98	0,02
Artadi kantauiarra	298,05	5,11
Bertako espezieen heskaiak	7,31	0,13
Harizti-pagadi azidofilo atlantiarra	57,78	0,99
Hostozabalen baso misto mesotrofoa, atlantiarra	53,95	0,92
Ibaiertzeko haltzadi eurosiberiarra	38,19	0,65
Ibaiertzeko lizardi eurosiberiarra	0,77	0,01
Kararrizko arroiletako baso mistoa	26,56	0,46
Lurzoru ez harritsuetako erreka bazterretako sahastiak	1,09	0,02
Magal hezeetako sahastiak, erreka bazterretakoak ez direnak	1,26	0,02
Pagadi azidofilo atlantiarra	1559,98	26,73
Pagadi basofilo edo neutroa	299,62	5,13
Quercus gr. pubescens-en basoa	68,87	1,18
Quercus robur nagusitzen deneko baso azidofiloa	535,36	9,17
Urkidiak	0,23	0,00
Zuhaitz hostozabalen baso gazteak	48,13	0,82
Eremu artifizialak	38,87	0,66
Bertan behera utzitako erauzketa eremuak	5,66	0,10
Dentsitate baxuko eraikinak	21,80	0,37
Errepide-sareak	0,25	0,00
Herri eta hirietako eraikinak	11,16	0,19
Harkaiztietako landaredia	16,14	0,28
Harkaizti basikoetako landaredia	16,14	0,28
Hezeguneak	0,51	0,01
Juncus effusus eta beste ihi handiak nagusitzen diren ihidiak	0,51	0,01
Sastrakadiak	225,18	3,86
Arantzadi atlantiar kaltzikolak	48,53	0,83
Iratzedi atlantiar eta subatlantiar menditarrek	6,50	0,11
Iratzedi atlantiar eta subatlantiar muinotarrak	7,11	0,12

Lahardi azidofilo atlantiarra, elorriekin (Rubus gr. glandulosus)	15,81	0,27
Txilardi kaltzikola atlantiarra, Genista-rekin	16,23	0,28
Ulex europaeus-en otadi atlantiarra	94,83	1,62
Ulex sp. nagusitzen den txilardi atlantiarra	36,17	0,62
Ur ibilguak	4,38	0,08
Korrontedun ibai eta errekek	4,38	0,08



10. Irudia Landaredia eta lurzoruen erabilera Ataungo udalerrian.

Nekazal Lursailak Identifikatzeko Sistema Geografikoa (SIGPAC) datu hauek berresten ditu. Zehazki lurzoruen erabilpen gehiena basoetara bideratzen da (udalerriaren %80). Honi larreak jarraitzen diote, baina neurri askoz txikiagoan (%14).

15. Taula SIGPAC erabilerak udalerrian		
SIGPAC erabilera	Azalera (ha)	Udalerriaren %
Ur-korronteak eta -azalerak	14,52	0,25
Bideak	29,91	0,51
Eraikinak	1,02	0,02
Basogintza	4744,32	81,31
Fruitu lehorrak	2,54	0,04
Fruta-arbolak	41,10	0,70
Ez-emankorra	49,14	0,84
Negutegiak eta plastiko azpiko laboreak	0,08	0,00
Zuhaiztidun larrea	72,70	1,25
Zuhaixka-larrea	346,94	5,95
Larreak	486,95	8,35


Lur arablea	21,40	0,37
Baratzea	2,17	0,04
Hirigunea	21,83	0,37

Interes bereziko landaredia

Eusko Jaurlaritzaren EAE-ko habitaten kartografiaren arabera, Ataungo udalerrian ondorengo Batasunaren intereseko habitatak agertzen dira:

16. Taula BATASUNAREN INTERESEKO HABITATEN AZALERAK ATAUNGO UDALERRIAN			
Kodea	Batasunaren Intereseko Habitata	Azalera (ha)	Udalerriaren %
9120	Pagadi azidofilo atlantiarra	1.559,98	26,79%
6510	Larratu gabeko segabelardi atlantiarrak	510,05	8,76%
9340	Artadi kantauiarra	298,05	5,12%
6230*	Agrostis eta Festuca-ren mendiko larreak	93,85	1,61%
6170	Belardi eta larre alpetar, azpialpetar eta oromediterraneo kaltzikolak	60,98	1,05%
6210	Albiztiak eta Mesobromion taldeko larreak	58,28	1,00%
91E0*	Haltzadiak eta lizardiak	38,96	0,67%
4030	Ulex sp. nagusitzen den txilardi atlantiarra	36,17	0,62%
9180*	Kararrizko arroiletako baso mistoa	26,56	0,46%
4090	Txilardi kaltzikola atlantiarra, Genista-rekin	16,23	0,28%
8210	Harkaizti basikoetako landaredia	16,14	0,28%
9230	Amezti eurosiberiarra	0,98	0,02%
9260	Gaztainadiak edo gaztain-landaketa zaharrak	0,82	0,01%
GUZTIRA		2.717,05	46,67%

Azalera horietatik %87 Aralarreko KBEan barne daude, BIH asko orokodrrean eremu honen barruan aurkitzen direlarik. Hala ere, txilardi, segabelardi eta haltzadien azaleraren proportzio handi bat, Aralarretik kanpo daude.



11. Irudia Batasuneko intereseko habitatak Ataunen.

Bestalde, Europako Arteztarauak hariztiak eta bestelako hostozabal interesdunak garrantzi komunitarioko habitat gisa hartzen ez baditu ere, balio ekologiko handiko formazioak dira, eta ez dute oso azalera handia Gipuzkoako lurraldean; izatez, asko murriztu dira beste formazio batzuen alde (larreak, baso-berritzeak, e.a.). Euskadiko natura-ondarea kontserbatzeari buruzko 9/2021 Legeak lurraldean dauden bertako baso-masak babesteko interesa nabarmendu du. Hori dela eta, formazio horiek, udalerrian guztira 528,58 ha inguruko azalera hartzen dutelarik, kontserbatzeko interesa duten landaredi eta habitaten artean kontsideratu dira.

17. Taula ESKUALDEKO INTERESEKO HABITATAK ATAUNGO UDALERRIAN			
Kodea	Habitataren izena	Azalera (ha)	Udalerrriaren %
G1.64	Pagadi basofiloa edo neutroa	299,62	%5,13
G1.71	Quercus gr. Pubescens-en erkameztiak	68,87	%1,18
G1.82	Pagadi-harizti azido atlantikoa	57,78	%0,99
G1.86	Quercus robur nagusitzen den baso azidofiloa	535,36	%9,20
G1.91	Urkien basoak	0,23	%0,00
G1.A1	Hostozabalen baso misto mesotrofoa, atlantikoa	53,95	%0,92
G5.61	Hostozabalen baso natural gazteak	48,13	%0,82
GUZTIRA		1.063,95	18,27

Flora espezie mehatxatuak

EAEko Natura Babesteko 16/94 Legeak sortutako Fauna eta flora Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoaren arabera, Ataungo udalerrria barne hartzen dituen 10x10 Km-ko UTM kuadrakuletan (30T WN66, 30T WN76, 30T WN65 eta 30T WN75) agertzen diren landare mehatxatuak ondorengo kategorietan sailkatzen dira. Datuak Euskadiko Naturari buruzko Informazio Sistemaren bidez bildu dira.

18. Taula ATAUNGO UDALERRIA INSKRIBATZEN DEN 30TWN66, 30TWN76, 30TWN65 ETA 30TWN75 (10X10KM) KUADRIKULETAN AGERTZEN DIREN FLORA ESPEZIE MEHATXATUAK. *B: Bakana; K: Kaltebera, GA: Galtzeko arriskuan; IB: Interes Berezia		
Espezieak	Mehatxu kategoria*	Habitat nagusia
<i>Allium victorialis</i>	B	Harkaitz eta larreak
<i>Armeria pubinervis</i> Boiss	B	Itsaslabarrak
<i>Arnica montana</i>	K	Belardi, txillardi eta sastrakadiak
<i>Carlina acaulis</i> subsp. <i>caulescens</i>	B	Belardiak
<i>Crepis pyrenaica</i>	K	Belardiak
<i>Festuca rubra</i>	K	Dunak
<i>Geum pyrenaicum</i>	K	Harkaitz eta dunak
<i>Geum rivale</i>	GA	Harkaitzak
<i>Himantoglossum hircinum</i>	B	Belardiak
<i>Ilex aquifolium</i>	IB	Basoak
<i>Lycopodium clavatum</i>	B	Belardi,txillardi eta sastrakadiak
<i>Narcissus pseudonarcissus</i> subsp. <i>nobilis</i>	IB	Txillardi eta sastrakadiak
<i>Paris quadrifolia</i>	B	Baso eta belardiak
<i>Pedicularis foliosa</i>	B	Harkaitzak
<i>Petrocoptis pyrenaica</i>	B	Harkaitzak
<i>Quercus robur</i>	IB	Basoak
<i>Ranunculus aconitifolius</i>	GA	Hezeguneak
<i>Ribes petraeum</i>	B	Harkaitzak
<i>Ruscus aculeatus</i>	IB	Basoak
<i>Taxus baccata</i>	IB	Basoak
<i>Tofieldia calyculata</i>	K	Orotarikoa
<i>Tozzia alpina</i>	K	Goi-mendiak
<i>Trollius europaeus</i>	K	Baso eta larreak
<i>Veratrum album</i>	IB	Belardiak
<i>Viburnum tinus</i>	IB	Basoak

Intereseko fauna

Espezie mehatxatuen EAEko katalogoaren arabera, Ataungo udalerria aurkitzen den 10 x 10 km-ko UTM laukietan hurrengo espezieen aipamenak egiten dira. Datuak Euskadiko Naturari buruzko Informazio Sistemaren kontsulta bidez bildu dira.

19. Taula ATAUNGO UDALERRIA INSKRIBATZEN DEN 30TWN66, 30TWN76, 30TWN65 ETA 30TWN75 (10X10KM) KUADRIKULETAN IDENTIFIKATZEN DIREN ANIMALIA ESPEZIE MEHATXATUAK. *B: Bakana; K: Kaltebera, GA: Galtzeko arriskuan; IB: Interes Berezia.			
Espeziea	Izen arrunta	Mehatxu kategoria	Habitat nagusia
HEGAZTIAK			
<i>Accipiter gentilis</i>	Aztore arrunta	B	Basoa
<i>Accipiter nisus</i>	Gabirai arrunta	IB	Basoa
<i>Acrocephalus scirpaceus</i>	Lezkari arrunta	B	Hezeguneak

<i>Actitis hypoleucos</i>	Kulixka txikia	B	Ibaiak eta lakuak
<i>Alcedo atthis</i>	Martin arrantzalea	IB	Ibaiak eta lakuak
<i>Anthus campestris</i>	Landa-txirta	IB	Landazabala
<i>Aquila chrysaetos</i>	Arrano beltza	K	Basoa, landazabala
<i>Asio flammeus</i>	Zingira-hontza	B	Orotarikoa
<i>Athene noctua</i>	Mozolua	K	Landazabala
<i>Bubo bubo</i>	Hontza handia	B	Harkaitzak
<i>Burhinus oedicnemus</i>	Atalarra	GA	Landazabala
<i>Caprimulgus europaeus</i>	Zata arrunta	IB	Landazabala, sastrakadia
<i>Certhia familiaris</i>	Baonetako gerri-txoria	B	Basoa
<i>Charadrius dubius</i>	Txirritxo txikia	K	Ibaiak eta lakuak
<i>Ciconia ciconia</i>	Amiamoko zuria	B	Hezeguneak
<i>Ciconia nigra</i>	Amiamoko beltza	B	Hezeguneak
<i>Cinclus cinclus</i>	Ur-zozoa	IB	Ibai-ibilguak
<i>Circaetus gallicus</i>	Arrano sugezalea	B	Basoa, sastrakadia
<i>Circus aeruginosus</i>	Zingira-mirotza	B	Hezeguneak
<i>Circus cyaneus</i>	Mirotz zuria	IB	Landazabala
<i>Coccothraustes coccothraustes</i>	Mokolodia	IB	Basoa
<i>Corvus corax</i>	Erroia	IB	Orotarikoa
<i>Dryobates minor</i>	Okil txikia	IB	Basoa
<i>Dryocopus martius</i>	Okil beltza	B	Basoa
<i>Emberiza hortulana</i>	Miarritza	IB	Landazabala
<i>Emberiza schoeniclus</i>	Zingira-berdantza	B	Hezeguneak
<i>Falco columbarius</i>	Belatz txikia	B	Belardiak
<i>Falco peregrinus</i>	Belatz handia	B	Harkaitzak
<i>Falco subbuteo</i>	Zuhaitz-belatza	B	Basoa
<i>Ficedula hypoleuca</i>	Euli-txori beltza	B	Basoa
<i>Glis glis Linnaeus</i>	Muxar grisa	K	Basoa
<i>Grus grus</i>	Kurrilo arrunta	IB	Hezeguneak
<i>Gypaetus barbatus</i>	Ugatza	GA	Harkaitzak
<i>Gyps fulvus</i>	Sai arrea	IB	Harkaitzak
<i>Hieraaetus pennatus</i>	Arrano txikia	B	Basoa, landazabala
<i>Jynx torquilla</i>	Lepitzulia	IB	Landazabala
<i>Lanius senator</i>	Antzandobi kaskagorria	K	Sastrakadiak
<i>Larus fuscus</i>	Kaio iluna	IB	Kostaldea
<i>Merops apiaster</i>	Erlatxoria	IB	Pitzadura lurzoruak
<i>Milvus milvus</i>	Miru gorria	GA	Basoa, landazabala
<i>Monticola saxatilis</i>	Harkaitz-zozo gorria	IB	Harkaitzak
<i>Monticola solitarius</i>	Harkaitz-zozo urdina	IB	Harkaitzak
<i>Neophron percnopterus</i>	Sai zuria	K	Harkaitzak
<i>Nyctalus leisleri</i>	Gau saguzar txiki	IB	Basoa
<i>Nycticorax nycticorax</i>	Amiltxori arrunta	B	Hezeguneak
<i>Oenanthe hispanica</i>	Buztanzuri horia	IB	Landazabala

<i>Pandion haliaetus</i>	Arrano arrantzalea	K	Baso eta hezeguneak
<i>Pernis apivorus</i>	Zapelaitz liztorjalea	B	Basoa
<i>Phoenicurus phoenicurus</i>	Buztangorri argia	K	Basoa
<i>Phylloscopus trochilus</i>	Txio horia	B	Basoa, sastrakadia
<i>Podiceps cristatus</i>	Murgil handia	IB	Hezeguneak
<i>Prunella collaris</i>	Mendi-tuntuna	IB	Harkaitzak
<i>Pyrrhonorax graculus</i>	Belatxinga mokohoria	IB	Harkaitzak
<i>Pyrrhonorax pyrrhonorax</i>	Belatxinga mokogorria	IB	Harkaitzak
<i>Regulus regulus</i>	Mendi erregetxo	IB	Basoa
<i>Riparia riparia</i>	Uhalde-enara	K	Ibai eta lakuak
<i>Saxicola rubetra</i>	Pitxartxar nabarra	IB	Baso eta sastrakadiak
<i>Spinus spinus</i>	Tarina	IB	Basoa
<i>Streptopelia turtur</i>	Usapala	GA	Landazabala
<i>Sylvia cantillans</i>	Txinbo papargorritza	IB	Baso eta sastrakadiak
<i>Tachybaptus ruficollis</i>	Txilinporta txikia	B	Hezeguneak
<i>Turdus torquatus</i>	Zozo paparzuria	IB	Basoa
<i>Upupa epops</i>	Argi-oilarra	K	Landazabala
UGAZTUNAK			
<i>Eptesicus serotinus</i>	Baratze-saguzarra	IB	Harkaitzak, eraikuntzak
<i>Felis silvestris</i>	Basakatua	IB	Basoa
<i>Martes martes</i>	Lepahoria	B	Basoa
<i>Mustela lutreola</i>	Bisoi europarra	GA	Ibai-ibilguak
<i>Mustela putorius</i>	Ipurtatsa	IB	Ibai-ibilguak
<i>Myotis daubentonii</i>	Ur-saguzarra	IB	Ibaiertzeko basoak
<i>Myotis emarginatus</i>	Geoffroy saguzarra	K	Haitzuloak
<i>Myotis myotis</i>	Arratoi-belarri handia	GA	Haitzuloak
<i>Pipistrellus kuhlii</i>	Khul pipistrela	IB	Orotarikoa
<i>Pipistrellus pipistrellus</i>	Pipistrela txikia	IB	Orotarikoa
<i>Rhinolophus ferrumequinum</i>	Ferra-saguzar handia	K	Haitzuloak
<i>Rhinolophus hipposideros</i>	Ferra-saguzar txikia	IB	Haitzuloak
NARRASTIAK			
<i>Timon lepidus</i>	Gardatxo	IB	Orotarikoa
<i>Zamenis longissimus</i>	Eskulapioren sugea	IB	Basoa
<i>Zamenis scalaris</i>	Eskailera sugea	IB	Orotarikoa
ARRAINAK			
<i>Cobitis calderoni</i>	Mazkar arantzaduna	GA	Ibaiak
INTSEKTUAK ETA BESTELAKO HEXAPODOAK			
<i>Oxygastra curtisii</i>	Burruntzi	K	Ur-ibilguak

Aurreko taulan azaldutakoaren arabera, aipatutako espezieak hurrengo kategoriatan banatzen dira:

- "Galtzeko arriskua": 7 espezie.
- "Kaltebera": 13 espezie.
- "Bakana": 22 espezie.
- "Interes berezia": 38 espezie.


Aipatu beharra dago, Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoan agertzen diren 439 espezie guztien artean, Ataungo udalerria barne hartzen duten 10x10 UTM laukietan 104 fauna zein flora espezie aurkitu direla. Hau da, Katalogoan agertzen diren espezieen ia %25 eremu honetan aurkitzen dira.

Faunarentzat intereseko eremuak

EAEko Ingurumen Esparru Programak lehentasunezko banaketa-eremuak, interes bereziko eremuak eta arriskuan dauden flora- eta fauna-espezieen gune sentikorak babesteko beharra ezartzen du, kudeaketa-plana izan ala ez.

Aralarreko KBEaren eremua bat dator ugatzaren Interes Berezikiko Eremuarekin (IBE). Honekin batera, eremu horren barruan, elur-lursaguaren IBEa aurkitzen da orban txikietan banatuta. Bestalde, udalerriko mugen barruan ipar-mendebaldean Ferra-saguzar handiaren IBE kokatzen da. Azkenik, Agauntza ibaiak eta Zaldibia ibaiak hartzen duten eremuak bat datoz muturluze pirinearraren eta bisoi europarraren IBEekin. Bi espezie hauek onetsitako Kudeaketa-Plana⁹¹⁰ dute beren babesarako Gipuzkoako lurralde historikoan.

Horretaz gain, Euskal Autonomia Erkidegoko Batasunaren intereseko Hegazti Nekrofagoak Kudeatzeko Plan Bateratuaren arabera, Ataungo udalerririaren ekialdeko eta hegoaldeko eremua, Aralarreko KBEarekin bat datorrena, Interes Berezikiko Eremutat eta Elikaduraren Babesguneztan hartzen da espezie nekrofago, ugatza, sai zuria eta sai arrearentzat.



12. Irudia Faunarentzat Interes Berezikiko Eremuak (IBE) Ataungo udalerrian.

2.1.4. NATURA INTERESEKO EREMUAK

⁹ ORDEN FORAL de 12 de mayo de 2004 por la que se aprueba el Plan de Gestión del Desmán del Pirineo *Galemys pyrenaicus* (E. Geoffroy, 1811) en el Territorio Histórico de Gipuzkoa. BOG 28-05-2004.

¹⁰ ORDEN FORAL de 12 de mayo de 2004, por la que se aprueba el Plan de Gestión del Visón Europeo *Mustela lutreola* (Linnaeus, 1761) en el Territorio Histórico de Gipuzkoa. BOG 28-05-2004.

2.1.4.1 Eremu Natural Babestuak

Natura Ondareari eta Bioaniztasunari buruzko *abenduaren 13ko 42/2007 Legeko* 28. Artikuluaren arabera, naturagune babestu izango dira baldintza hauetako bat, gutxienez, betetzen badute eta naturagune babestu deklaratzeko badira:

- a) Bertako natura-sistema edo -elementuak adierazgarriak, apartekoak, hauskorrak edo mehatxatuak izatea edo interes berezikoak izatea ekologia, zientzia, paisaia, geologia edo hezkuntzaren aldetik.
- b) Gunea berariaz izatea dibertsitate biologikoa, geodibertsitatea eta aurrekoei lotutako natura- eta kultura-baliabideak babestu eta iraunarazteko gune izatea.

Abenduaren 13ko 42/2007 Legeak eremu babestuko sistema bat ezartzen du, hiru mailatan sailkatuta:

- Naturagune babestuak
- Natura 2000 Sareko eremu babestuak
- Nazioarteko tresnek babestutako eremuak

Naturagune babestuak honako mailatan sailkatzen dira:

- a) Natur Parkeak
- b) Natura-erreserbak
- c) Itsas inguru babestuak
- d) Natura monumentuak
- e) Paisaia babestuak

Bestalde, 9/2021 Legeak, azaroaren 25ekoak, Euskadiko natura-ondarea kontserbatzeko buruzkoak, 37. artikuluan ezarritakoaren arabera, natura-ondareko gune babestuak kategoria hauetako batean sailkatuko dira:

- a) Naturagune babestuak: parke naturalak, natura-erreserbak, natura-monumentuak eta paisaia natural babestuak
- b) Natura 2000 Sareko naturagune babestuak. Kategoria honetakoak izango dira Batasunaren Garrantzizko Lekuak (BGL), Kontserbazio Bereziko Eremuak (KBE), eta Hegaztientzako Babes Bereziko Eremuak (HBBE).
- c) Gune babestuak nazioarteko tresnak aplikatzearen ondorioz. Kategoria horretakoak dira honako hauek:
 - 1. Biosfera-erreserbak,
 - 2. Nazioarteko Garrantziko Hezeguneei (bereziki Uretako Hegaztien Habitat gisa) buruzko Ramsarko Hitzarmenaren nazioarteko garrantziko hezegunak,
 - 3. Unescok deklaratutako geoparkeak,
 - 4. Oskar hitzarmenak babestutako eremuak,
 - 5. Munduko Ondarearen Zerrendako naturagunak eta
 - 6. Europako Kontseiluaren erreserba biogenetikoak


Abenduaren 13ko 42/2007 Legeko 50. artikuluen arabera, nazioarteko tresnek babestutako eremutzat hartuko dira Espainia partaide izango den nazioarteko Hitzarmen eta Akordioetan xedatutakoaren arabera formalki izendatuko diren natura-eremu guztiak, eta zehazki, ondorengoak:

- a) Nazioartean garrantzia duten hezeguneei buruzko hitzarmenaren arabera, nazioartean garrantzitsuak diren hezegunak, bereziki hegazti urtarren habitat badira.
- b) Munduko Kultura eta Natura Ondarea Babesteko buruzko Konbentzioko Munduko Ondarearen zerrendako naturagunak.
- c) Ipar-ekialdeko Atlantikoko itsas ingurunea babesteko Hitzarmeneko (OSPAR) eremu babestuak.
- d) Mediterraneoarentzat Garrantzizko Babes Bereziko Eremuak (ZEPIM), Mediterraneoeko itsas ingurunea eta kostaldea babesteko hitzarmenakoa.
- e) Geoparkeak, UNESCOk aitortuak.
- f) Biosferako erreserbak, UNESCOk aitortuak.
- g) Europako Kontseiluaren erreserba biogenetikoak.

Eremu horiei babes-irudia duten ibai-erreserba naturalak gehitzen zaizkie, helburu izanik gizakiaren esku-hartze txikia duten edo esku-hartzerik gabe dauden, eta egoera ekologiko ona duten ibai-tarteak zaintzea. Hala aitortzen dira uraren legearen

testu bategina onartzen duen uztailaren 20ko 1/2001 Legegintzako Errege Dekretua betez. Legeak aurreikusten du Estatuaren eskumenekoak diren Plan Hidrologikoetan nahitaez txertatzea ibai-erreserba natural izendatu beharreko eremu horiek.

Ataungo udalerrian bi eremu natural babestu aurki daitezke, zehazki Natura 2000 Sarearen barne diren ES2120011 Aralar Kontserbazio Bereziko Eremua (KBE) eta ES2120005 Oria Garaia KBE. Aralarreko natura gunea Natura Parkea ere izendatua dago.



13. Irudia Ataungo udalerriko Eremu Natural Babestuak.

Aralarreko Natura Parkea eta KBE

Natura Parkea 1994an izendatu zen eta 2004an Batasunaren intereseko leku gisa onetsi zen. Azkenik, 84/2016 dekretuaren bidez Kontserbazio Bereziko eremua izendatu zen eta Natura 2000 Sarearen barne sartu zen, ES2120011 Aralar KBE izendapenarekin.

Aralar KBE eskualde biogeografiko atlantikoan kokatzen da, Gipuzkoako ekialdean, Nafarroarekin mugan, eta bertan jarraipena du izen bereko KBEaren bidez (ES2200020). 10.962 ha-ko azalera du eta Abaltzisketa, Amezketa, Ataun, Lazkao, Tolosa, Zaldibia eta Enirio-Aralar udalerriek osatzen dute, Ataun eta Enirio-Aralarrek azalera osoaren %72a hartuz.

Eremuaren garrantzia, paisaiaren berezitasuna, eta biltzen dituen flora eta faunaren aniztasunarengatik dator. Era berean, aspalditik abeltzaintzak garrantzi handia izandako eremua da, eta interes arkeologikoko monumentu megalitiko ugari kokatzen dira bertan. Baso naturalek eremuaren %55 hartzen dute, hedatuenak pagadia eta baso azidofiloa direlarik. Bestetik, zelai eta larreak azaleraren %36 hartzen dute.

Ataunen Aralarreko KBE 4.453 ha hartzen ditu, udalerriaren mendebaldean eta hegoaldean.

Oria Garaia KBE

ES2120005 Oria Garaia KBE 215/2012 dekretuaren bidez izendatu zen.

Gipuzkoako hego-ekialdean kokatzen da eta Oria ibaiaren bi tarte etenek eta Oria ibaiaren bi ibaiadarren azken zatiek osatzen dute, Agauntza eta Zaldibia ibaiak, Aralar mendilerrotik jaisten direnak. Oria ibaiaren lehen zatia (Zegama-Segura) Otzaurteko portuan hasten da, Aizkorri mendilerroaren azpian. Bigarren zatia aldiz, Legorreta eta Alegia herrien artean dago, Amezketa ibaiarekin bat egiten duen tokiraino. Bestalde, Agauntza ibaiak Oria ibaian isurtzen du Beasain eta Lazkao udalerrien artean. Zaldibia ibaiak ordea, Ordizia eta Arama udalerrietan.


Ataunen Agauntza ibaiaren tarte bat KBEaren barruan sartzen da.

Oria Garaiko KBEaren natura elementu aipagarrienak ibai ekosistemearekin loturiko espezie eta habitatak dira, haltzadi eta lizardiak, bisoi europarra, muturluze piriniarra, igaraba, eta izokina, besteak beste.

2.1.4.2 INTERESEKO BESTE NATURGUNE BATZUK

Naturgune garrantzitsuen katalogo irekia


Ataungo udalerrian aurkitzen diren Lizarrusti basoa eta Aralar Mendilerroa EAEko Naturgune Garrantzitsuen Katalogo Irekian aurkitzen dira.



14. Irudia Intereseko beste eremu naturalak Ataungo udalerrian.

Onura Publikoko Mendia

Ataunen, onura publikoko mendiek 1.756,50 ha-ko azalera hartzen dute udalerriko azalera totalaren %30a estaliz, Gipuzkoako Mendiei buruzko 7/2006 Foru Araua-ren arabera eta Gipuzkoako Onura Publikoko Mendien Katalogoan jasota dauden moduan.




15. Irudia Ataungo udalerriko Onura publikoko mendiak.

Korridore Ekologikoak¹¹

EAEko Korridore Ekologikoen Sarearen Proiektua (Eusko Jaurlaritza, 2005) ezartzearen helburu nagusia Natura 2000 Sarearen lotura eta koherentzia ekologikoa sustatzea da. Sare horren helburu nagusiak dira habitata eskualde-mailan zatitzeko arriskua duen fauna Natura 2000 Sareko espazioen artean mugitzea ahalbidetuko duen sarea mugatzea, eta korridoreen sarea osatzen duten elementuak erabiltzeko eta kudeatzeko neurriak proposatzea.

Ataungo udalerrian Aralar nukleo eremua topatzen da, Aralar KBE eremuarekin bat datorrena. Horrekin batera, udalerriko mugetatik kanpo, hego-mendebaldean, Aizkorri-Aratz eta Aralar lotzen dituen korridore ekologikoa aurkitzen da. Azkenik, Udalerrriaren gainontzeko azalera indargetze eremuaren barruan kokatzen da, herri eremuak izan ezik.

¹¹ Gurrutxaga, M. 2005. Red de Corredores Ecológicos de la Comunidad Autónoma de Euskadi. Eusko Jaurlaritza, IKT S.A.



16. Irudia Korridore ekologikoen sarea.


2.1.5. PAISAIA

EAEko Paisaia Berezien eta Nabarmenen Katalogoaren Aurreproiektuak (Eusko Jaurlaritza, 2005) EAEko ikus-arroen lehen karakterizazio bat egin zuen, lurzorua erabileren eta azpiegituren presentziaren arabera, bai eta arro horietako bakoitzak dituen ikus-inpaktuen arabera ere (positiboak zein negatiboak) eta haien egunerokotasuna, hiri-lurretatik paisaiak ikusgarriak edo oso ikusgarriak izateari dagokionez.

Udalerriaren hegoaldean Pagadi azidofiloaren eremuarekin bat datorren paisaia unitatea ezberdindu daiteke, hau udalerriko handiena izanik. Horretaz gain beste hainbat paisaia unitate identifikatu dira. Hurrengo taulan udalerrian ageri diren paisaia unitateak azaltzen dira.

20. Taula ATAUNGO PAISAIA UNITATEAK		
Paisaia unitateak	Azalera (ha)	Udalerriaren %
Eremu flubialean hosto erorkorreko hostozabalak	1.882	33%
Eremu flubialean baso-landaketak	1.322	23%
Eremu flubialean basoko nekazaritza-mosaikoa	919	16%
Eremu flubialean belardiak eta atlantikoaldeko laborantzak nagusi dituen nekazaritza	517	9%
Eremu karstikoan hosto erorkorreko hostozabalak	254	4%
Eremu karstikoan hosto iraunkorreko hostozabalak	209	4%
Eremu flubialean sastrakadiko baso-mosaikoa	157	3%
Eremu flubialean baso-mosaikoa	108	2%
Eremu karstikoan mendietako larreak	93	2%
Eremu karstikoan sastrakadia	85	1%
Eremu flubialean baso-landaketak dituen nekazaritza-mosaiko	76	1%
Eremu flubialean sastrakadia	53	1%


Eremu karstikoan baso-landaketak	50	1%
Eremu karstikoan harritza	49	1%
Eremu flubialean mosaiko mistoa	48	1%



17. Irudia Ataungo udalerriko paisaia unitateak.

21. Taula ATAUNGO PAISAIA UNITATEAK. *PBNK: Paisaia Berezien eta Nabarmenen Katalogoa.				
Ikus-arroak	Paisaien balioa	Eguneokotasuna	PBNK*	Azalera (ha)
Agauntza	Handia	Egunerokoa	Bai	3005,47
Agauntza Alto	Handia	Egunerokoa	Bai	1408,01
Aitzarte	Ertaina	Egunerokoa	Ez	750,70
Aia	Oso handia	Egunerokoa	Bai	374,75
Asensieta	Oso handia	Ez oso ohikoa	Bai	151,74
Urrustiarren	Oso handia	Ez oso ohikoa	Bai	120,45

Nabarmentzekoa da Aitzarteko ikus-arroa izan ezik besteak katalogatuta daudela duten balio paisajistiko altuarengatik eta espazio naturalen barnean egoteagatik (Aralarreko KBE eta Parke Naturala). Paisaia hauetan inpaktu bisual positiboena dituzten elementu nagusienak harkaitzak dira, eta maila txikiago bateak ibai eta errekek.



18. Irudia Ataungo ikus-arroak.

2014an, Eusko Jaurlaritzak 90/2014 Dekretua onartu zuen, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzeari buruzkoa.

Honetarako, Dekretuak hainbat tresna identifikatzen ditu, hala nola paisaiaren katalogoak, paisaiaren zehaztapenak, paisaiaren ekintza-planak eta paisaia-integrazioari buruzko azterlanak. Helburua EAE osoko Paisaiaren Katalogoak eta Zehaztapenak idaztea da. Hala ere, Beasain-Zumarragako (Goierri) Lurraldearen Zatiko Planak ez du oraindik paisaiaren inguruko zehaztapenik ezarri.

2.1.6. KULTURA ONDAREA

Eusko Jaurlaritzako Euskal Kultura Ondarearen Zentroak eskuragarri duen informazioaren arabera, udalerrian kultura ondarearen intereseko elementuak eta gune ezberdinak jarraian azaltzen dira. Horietako asko, Kultura Ondasun bezala izendaturik daude, eta beste batzuk, lokalki izan dezaketen garrantziarengatik, Euskal Kultura Ondarearen Zentroak babesteko proposatzen ditu, hala nola, udalerriko katalogoan txertatuz.

2.1.6.1 Elementu arkitektonikoak


22. Taula ATAUNGO ONDARE ARKITEKTONIKO BABESTUA ETA INTERESEKOA.		
1. Eraikitako ondarea		
1.1 Monumentu multzoa		
Izena	Babes maila	Data
Errota eta errotatxo erroak	Inbentariatuta	EHAA 2003-09-11
1.2 Intereseko elementuak eta babestuak izateko proposatuak		
- Eskola Zaharra - Angulunea Etxea - Artzubi Etxea - Bidarte Etxea - Udaletxea - Apaizetxea - Bidezainen Etxea - Juane Haundia Jaunaren Etxea - Ataungo Etxea	- Iturralde Baserria - Iturritza Zaharra Baserria - Izaate Haundi Baserria - Lauzti Iturrieta Baserria - Matxitxu Baserria - Tzemoa Baserria - Urrutsu Baserria - Zeberio Enea Baserria - Done Juane Txikia	

- Helbarrena I-Ko Etxea - Helbarrena Ilo Etxea - Etxea Helbarrena Ili Kalean - Helbarrena IV-ko Etxea - Graziña Berri Etxea - Juanikonea Etxea - Lazkaotegi Etxea - Upategi Etxea - Urbitarte Enea Etxea - Aialde Haundi Baserria - Aramburu Enea Baserria - Arratibel Erdikoa Baserria - Bazterrika Baserria - Begiristain Baserria - Erraiondo Zahar Baserria - Goalde Baserria - Insekantzeluz Baserria	- Kalbario Santuaren Ermita - Zelai Pilotalekua - Iturria - San Martin Iturria - Goikoetxea Enea - San Gregorio Handiaren Eliza - Tourseko San Martin Eliza - Andre Mariaren Eliza - Errota Behekoa - Errota Goikoa - Errotatxo Errota - Zubikoeta Jauregia - Querejeta Enea - Sankristaune - Taberna Berri - Zelebear
--	---

2.1.6.2 Elementu arkeologiko babestuak

23. Taula ATAUNGO ONDARE ARKITEKTONIKO BABESTUA ETA INTERESEKOA.		
2. Arkeologia ondarea		
2.1 Balizko Arkeologia Guneak		
Izena	Babes maila	Data
- Agirretxiki baserria - Andresenea baserria - Arin Aundia baserria - Arinetxe baserria - Arrate kobazuloa - Arratinea baserria - Arrizabalaga baserria - Astigarretxea baserria - Azarikobatxo kobazuloa II - Bazterrika baserria - Done Martie eliza (San Martin) - Elizalde errota - Espilla baserria - Etxeberriaundi baserria - Intusaeta kobazuloa II - Kobazar - Larratze baserria - Lauztigaraikoa baserria - Marumendi aztarnategia - Matxintxu baserria - Okarizti baserria - Olea edo Larraunza baserria eta burdinola - Peruenezar baserria - San Gregorio baseliza - Santiago ospitalea - Telleriazpi baserria - Tellerierdi baserria - Ubeigaineko leizea - Urdangarin baserria - Zelaibar baserria - Zubikoeta baserria	Usteko arkeologia-eremua	BOPV nº 220 (17-11-97)
2.2 Monumentu Multzoa		
- Agaotzeko haitzuloa - Allekoaitzeko haitzuloa - Armontaitzeko haitzuloa - Lokatzako haitzuloa - Pikandietako haitzuloa - Sarastarri II-ko haitzuloa - Sarastarri IV-ko haitzuloa - Troskaetako haitzuloa - Usategietako haitzuloa	Inbentariatuta	-

2.3 Monumentu Multzoa. Gipuzkoako Estazio Megalitikoak.		
Ataun-Burundako Estazio Megalitikoak: - Aitxuko trikuharria - Argonitz trikuharria - Atxurbiko trikuharria - Bernoako trikuharria - Igartza Mendebaldeko trikuharria - Intxusburu trikuharria - Larreluzeko trikuharria - Muñaango trikuharria Aralarko Estazio Megalitikoak: - Erremedio trikuharria - Txotxoetako trikuharria	Saillkatua	EHAA 133. zk. (2003-07-08)
2.4 Intereseko elementuak eta babestuak izateko proposatuak		
- Ola mendiko burdinola - Jentilbaratza jauregia		



19. Irudia Ataungo kultura ondareko elementuak.

2.1.7. INGURUMEN ARRISKUAK

2.1.7.1 Uholde arriskua

EAEko uholde-arriskuaren kartografiaren arabera (Goeuskadi), Ataungo hirigunearen zati handi bat 10, 100 eta 500 urteko errepikatze-denboretako urpean gera daitezkeen eremuak eta lehentasunezko fluxu-eremuaren barnean aurkitzen da. Uholde arriskua duten eremuak Agauntza ibaiaren ertzetan agertzen dira.

Uholde arriskuaren ebaluazioari eta kudeaketari buruzko 2007/60/EE Zuzentaraua aplikatuz, Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoak Uholde Arriskuaren Aurretiazko Ebaluazioa (UAAE) egiten du. Horren ondorioz, Uholde Arrisku Handiko Eremuak (UAHE) hautatzen dira, eta, ondoren, Uholde-arriskuaren Mapak egiten dira aipatutako eremuetarako.


Bestalde, Uholde Arriskua Kudeatzeko Planak (UAKP) egingo dira. Plan horiek uholde-arriskua kudeatzeko helburuak finkatuko dituzte UAHE bakoitzerako.

Gainera, EAEko eremuan, lehenespenez ariketa orokor bat egiten da, uholde-arriskuaren atariko ebaluazioan identifikatutako ibaietako eta trantsiziozko UAHEak multzoka sailkatzeko aukera ematen duena.

Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Uholde Arriskua Kudeatzeko 2022-2027 zikloko planaren arabera (martxoaren 21eko 197/2023 Errege Dekretuaren bidez onartua), Agauntza ibaia, Ataungo udalerritik igarotzen den tartean ES017-GIP-13-1 Ataun UAHEaren barruan sartzen da (III.Taldea). Garrantzitsua da aipatzea UAHE eremu hau Natura 2000 Sareko bi elementu barne hartzen dituela; Aralar KBE eta Oria Garaia KBE.

Agauntza ibaia, Ataungo UAHEaren eremuan, gainezka egiten du 10 urtetik beherako erreplikatzeko-denboretan. Gune horiek Astigarraga auzoan eta Ota Mots Aldea kalean daude.

Hala ere, hiri-bilbe osoak ez du eraginik izango 500 urteko erreplikatzeko-denborako uholde-arte. Oro har, gainezkatzearen arrazoia ibilguaren edukiera gaitzitzearekin lotuta dago. Gainera, uholde-xaflaren goraguneak daude, oinezkoentzako zubiak eta pasabideak daudelako.



20. Irudia Uholde arriskua Ataungo udalerrian.

UAKPk Agauntza ibaian intereseko bi buxadura-puntu identifikatzen ditu horiek ezabatzeko.


- A puntua: Agauntza ibaia, Astigarraga auzoko zuba: Oinezkoentzako pasabide batek 1,4 metroko jauzia eragiten du ur-kotan. Egitura kenduz gero, buxadura 0,89 metro murrizten da. Hala ere, 1,03 metroko jauzi berri bat sortzen du ibaian gora dagoen zubian, aldi berean hau ezabatu egingo litzateke hura kendu ondoren.
- B puntua: Agauntza ibaia, hiri-eremuko ubideratzea: Ur-laminaren kotan 1,62 metroko jauzia gertatzen da, eta Elbarrena kaleko zuba kentzean jauzia 0,31 metro baino ez da murrizten. Eragina batez ere, ibaia hirigunean bideratzeak izan du, ibaian behera sekzioa estutu delako.



21. Irudia Ataungo udalerrian Agauntza ibaian aurkitzen diren oztopoak eta gainezka egiten duten puntuak


2.1.7.2 Akuiferoen kutsadurarekiko urrakortasuna

Euskal Autonomia Erkidegoko akuiferoen kutsadurarekiko kalteberatasunaren mapa kontuan hartuta (1: 25.000 eskalan), udalerrriaren ekialdean akuiferoen kutsadurarekiko zaurgarritasun altua eta oso altua duten eremuak identifikatzen dira.



22. Irudia Akuiferoen kutsadurarekiko urrakortasuna Ataungo udalerrian.

Horretaz gain, udalerrian ondorengo interes hidrogeologikoko eremuak topatzen dira.




23. Irudia Interes hidrogeologikoko eremuak Ataungo udalerrian.

2.1.7.3 Higadura arriskua

Higadura-arriskua neurtzeko, Nekazaritza eta Basogintzaren LAPak 'higadura jasateko arriskua duten tokiak' bezala identifikatu dituen eremuak irudikatu dira ondoren. Higadura eremu hauek identifikatzeko, USLE ekuazioan oinarritutako higadura-eredua jarraitu zen, eta hurrengo irizpideak ere kontuan hartu ziren: Uhertasuna, topografia, luraren higagarritasuna, landaredia eta bestelako informazioak. Horretaz gain geomorfologikoki ezegonkorrak izan daitezkeen lurak (%50 baino handiagoko maldak adibidiez) identifikatu dira.

Ageri denez, udalerrriaren orografia malkartsua dela eta lurraldearen azalera gehiena arrisku honen menpe dago.



24. Irudia Eremu higagarriak Ataunen.

2.1.7.4 Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruek

Kutsagarriak izan daitezkeen jarduerak edo instalazioak dituzten edo izan dituzten lurzoruen inbentarioaren arabera (irailaren 30eko 165/2008 Dekretuaren bidez onartu zen) eta inbentario hori eguneratzeko lanen arabera (Geoeuskadin eskuragarri dago inbentario horren informazioa), Ataungo udalerrian kutsatuta egon daitezkeen 14 lursail daude denak industria jarduerekin lotuta, guztira 1,53 ha.

24. Taula INBENTARIATUTAKO PARTZELA KUTSAGARRIAK ATAUNEN.		
Inbentariatutako partzelaren kodea	Mota	Azalera (m²)
20015-00001	Industrialia	2.172,33
20015-00002	Industrialia	448,52
20015-00003	Industrialia	726,49
20015-00004	Industrialia	340,25
20015-00005	Industrialia	186,04
20015-00006	Industrialia	764,73
20015-00007	Industrialia	3.575,15
20015-00009	Industrialia	179,81
20015-00010	Industrialia	308,06

20015-00011	Industriala	143,76
20015-00012	Industriala	1.876,31
20015-00013	Industriala	625,32
20015-00014	Industriala	102,81
20015-00015	Industriala	3.804,42



25. Irudia Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak Ataunen.

2.1.7.5 Arrisku sismikoa


Jaurlaritzaren Kontseiluak 2007ko urriaren 30ean onartu zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Arrisku Sismikorako Larrialdi Planaren arabera, historikoki, Euskal Autonomia Erkidegoko sismikotasuna baxutzat jo daiteke, bai bere lurraldean erregistratutako sismoen kopuruagatik, bai bere ezaugarriengatik, guztiak ere garrantzi txikikotzat jo daitezkeen magnitude eta intentsitateengatik. Hala, ez dago VII.aren pareko edo hortik gorako arrisku sismikoa duen eremurik, eta, beraz, ez dago arrisku sismikoari aurre egiteko larrialdi-planik egin behar duen udalerririk.

Zehazki, Ataungo udalerrria VI. intentsitateko eremuan dago, eta, beraz, ez du Larrialdi Sismikoko Planik egin behar, nekez gerta baitaiteke eraikinak suntsitzeko ahalmena duen sismorik.

2.1.7.6 Baso sute arriskua

Baso-suteen arriskua, funtsean, eremuan eta inguruetan dagoen landaretza motak baldintzatzen du. Beraz, horiek baloratzeko, dauden landaredi-entitateak hartzen dira kontuan, baita landaredi-moten berezko erregaitasuna ere.

Eusko Jaurlaritzaren baso-sutearen arrisku maparen arabera, udalerrriaren erdialdetik iparraldera topa daitezke baso-sute arrisku altua eta oso altua duten eremuak. Bestalde, udalerrriaren gainontzeko azalera arrisku-maila baxuarekin katalogatuta dago.



26. Irudia Baso-sute arriskua Ataungo udalerrian.

2.1.8. ARRISKU TEKNOLOGIKOAK

2.1.8.1 Salerosgai arriskutsuen garraioa intstripuak izateko arriskua

Salerosgai Arriskutsuen Errepideko Nazioarteko Garraioari buruzko Europako Akordioak (ADR 2003) eta Trenbideko Garraioaren Erregelamenduak (RID 2003) ezartzen duten esparruaren barruan, 1996ko martxoaren 1ean 387/1996 Errege Dekretua argitaratu zen Estatuan, salerosgai arriskutsuen errepideko eta trenbideko garraioetan istripuak gertatzeko arriskuari aurre egiteko Babes Zibileko Plangintzaren Oinarrizko Gidalerroa onartzen duena. Euskal Autonomia Erkidegoan, aipatutako Errege Dekretuaren testuinguruan, 1998an egin ziren salerosgai arriskutsuen garraioaren fluxu-mapak, eta azken eguneraketak 2013an egin ziren. Mapa hauek egitearen helburuak hurrengoak dira:

- Istripu posible baten ondorioak arintzeko hartu beharreko esku-hartze neurri eta estrategiak aurreikusteko oinarria izatea
- Garrantzi berezikotzat jo behar diren eremuen mugatzea, kaltetuak izan daitezkeen herritarrak, ondasunak edo ingurumena babesteko neurriak aurreikusteko.

Ataungo udalerrriaren barruan ez da errepide arriskutsurik azaltzen. Era berean, ez dago trenbiderik udalerrri barruan. Ondorioz Ataunen ez da arrisku honekiko zaugarria.

2.1.8.2 Arrisku kimikoa – SEVESO enpresak

840/2015 Errege Dekretuak Espainiako ordenamendu juridikora ekarri du 2012/18/EB Zuzentaraua (SEVESO III Zuzentaraua), istripu larrietan gai arriskutsuak tarteko direnean sortzen diren arriskuak kontrolatzeari buruzkoa. Errege Dekretu honen xedea da istripu larrietan gai arriskutsuak tarteko direnean prebenitzea, eta istripu horiek gizakien osasunean, ondasunetan eta ingurumenean izan ditzaketen ondorioak mugatzea.

Arau horri dagokionez, ez da identifikatu udalerrian arriskutsua izan daitezkeen industria-jarduerekin lotutako industriarik.

2.1.8.3 Zarata

Ataunek ez du zarataren inguruko azterlanik, eta udalerrian ez dira eremu akustiko desberdinak irudikatzen. Hala ere, lurraldearen ezaugarrien arabera, azakelera gehiena landa gunez eta eremu naturalez osaturik egonda, zarata mailak txikiak direla aurreikusten da.

Ataunen, zarata maila altuak sortu ditzaketen enpresa gutxi daude, gehienak GI-2120 errepidearen inguruan. Zehazki, zarata maila altuenak aipatutako errepidetik igarotzen den trafikoak sortuko duela aurreikusten da, puntualki honen inguruan garatzen diren etxebizitzetan eragina izan dezakeena.

2.1.8.4 Airearen kalitatea

EAEko Airearen Kalitatea Kontrolatzeko Sarea kutsadura-mailak kontrolatzeko eta zaintzeko tresna bat da. Sare honek analizatzaileak eta sentsoareak ditu, airearen kalitateari buruzko araudiak ezarritako kutsatzaileak neurtzeko, batez ere sufre dioxidoa (SO₂), nitrogeno oxidoak (NO eta NO₂), ozono troposferikoa, karbono monoxidoa (CO), bentzenoa eta partikula esekiak (PM₁₀ eta PM_{2.5}). Airearen kalitatearen ebaluazioa urtean behin egiten da, kontrol-sarean erregistratutako datuetatik abiatuta.

Sareak 8 unitatetan banatzen du EAEko lurraldea. Aztertutako eremua "Goierri (ES1606)" unitatean sartzen da, 917,9 km²-ko azalarekin eta 143.388 biztanlerekin. Ataunetik gertuen dagoen estazioa Beasaingo estazioa da.

Sare horren 2021. urteko txostenaren datuen arabera, SO₂ balioak egokiak izan dira Beasaingo estazioan. NO₂ balioak, urteko PM₁₀ eta PM_{2.5} balioak eta gainontzeko balio guztiak ere egokiak izan dira Beasaingo estazioan.

Bestalde, Eustateko "EAEko eskualdearen airearen kalitate indizeak eta iraunkortasun adierazlea"-ren arabera, 2021an Goierri unitatean airearen kalitatea oso ona izan zen 202 egunez, ona 134 egunez, hobegarria 20 egunez eta txarra 9 egunez. Ondorioz, Goierriko unitateak 92,05-eko iraunkortasuna adierazten du.

2.1.8.5 Klima aldaketa

Azken urteotan bultzada handia ematen ari zaie egokitzapen-politikei Europan, Klima Aldaketara Egokitzeko Europako Estrategiaren (2013) eta hura hedatzeko tresnen bidez gauzatzen direlarik. Estrategia horrek onartzen du beharrezkoa dela eskualdeek eta tokiko-erakundeek egokitzapen-politika eraginkorrak bultzatzea.

Tokiko-administrazioek, kudeaketa publikoaren arduradun diren aldetik, herritarren osasuna eta bizi-kalitatea bermatu behar dituzte, klima-aldaketaren ondorio kaltegarriak eragindako galerak murriztu behar dituzte, eta ingurumen-baliabideen erabilaren eraginkortasuna hobetu behar dute, horrek natura-ingurunean duen eragin positiboarekin (Udalsarea 21, 2011)

Proiektu eta argitalpen berrienetan garrantzi handiagoa ematen zaio arriskuari, hau da, mehatxuaren, esposizioaren eta kalteberatasunaren konbinazio gisa hartzen da, eta gertaera jakin bat (mehatxu-faktorea) gertatzeko probabilitatearen funtzio gisa adierazten da, ondorio kaltegarriekin biderkatuta (esposizio-faktoreak eta kalteberatasuna). Kalteberatasuna, era berean, bi osagai nagusien arabera da: batetik, klima-mehatxuekiko sentikortasuna, eta, bestetik, horiei aurre egiteko eta egokitzeko egokitzapen-gaitasuna. Horren guztiaren ondorioz, ikuspuntu metodologikotik, klima-aldaketaren aurrean arriskua eta kalteberatasuna aztertzeko moduak birplanteatzen eta birbideratzen ari dira.

Testuinguru horretan, ihobek dokumentu bat argitaratu du 2019ko urtarrilean, EAEko udalerriek klima-aldaketaren aurrean duten kalteberatasuna eta arriskua ebaluatzeko (Euskal udalerriek klima-aldaketaren aurrean duten kalteberatasunaren eta arriskuaren ebaluazioa, 2019).

Ebaluazioa egiteko, EAEko udalerrien kalteberatasunaren eta arriskuaren ebaluazioa mugatzeko eta bideratzeko azterketan lehentasunezko inpaktu-kate kopuru mugatu bat identifikatu eta hautatzen da. Inpaktu-kate horien bidez, klima-mehatxu jakin baten (egungoa edo etorkizuneko) eta sektore, eremu edo hartzaile jakin baten arteko kausa-efektu erlazioak jaso daitezke. EAEko egungo eta etorkizuneko klima-testuinguruari buruzko informazioa eta sektore nagusietako batzuetan eragin ditzaketen mehatxu eta inpaktu klimatiko nagusiak kontuan hartuta, dokumentuak lehentasunezko inpaktu-kateak detektatzen ditu. Hala, EAEko udalerriek klima-aldaketaren aurrean duten kalteberatasunaren eta arriskuaren ebaluazioa honako kate hauek kontuan hartuta egin da:

- Bero-boladek giza osasunean duten eragina
- Ibai-uholdeen inpaktua hiri-ingurunean.
- Itsas mailaren igoeraren ondoriozko uholdeen inpaktua hiri-ingurunean
- Lehorten handieneko aldien hazkundeak jarduera ekonomikoaren gainean izandako eragina, nekazaritza-ingurunean interes berezia jarritz.

Etorkizuneko klima-proiektzioak 2 eszenatokiren (RCP4.5 eta RCP8.5) eta 3 aldiren (2011-2040, 2041-2070, 2071-2100) arabera egiten dira. RCP-ak (Representative Concentration Pathways) indartze erradiatiboagatik eta CO₂ baliokideagatik bereizten dira, eta horiek handiagoak dira RCP8.5 eszenatokian.

Jarraian, Ataungo udalerrirako lortutako balioen laburpena egiten da, Geoeuskadin kontsultatutako datuen arabera.

25. Taula ATAUNGO UDALERRIAK KLIMA-ALDAKETAREN ONDORIOZ SOR DAITEZKEEN INPAKTU-KATEEN AURREAN DUEN ARRISKUA. Iturria: GeoEuskadi.						
Inpaktu-katea	Indizeak	Arriskua				
		Erreferentzia aldia 1971-2000	2011-2040 Denboraldia		2071-2100 Denboraldia	
			RCP4.5	RCP8.5	RCP4.5	RCP8.5
Bero-boladen inpaktu potentziala giza osasunean	Balio normalizatuak (1-2)	1,28	1,38	1,37	1,52	1,60
	EAEko gainerako udalerriekiko jarrera erlatiboa (1-10 dezilak)	9	9	9	9	9
Lehorteen inpaktua nekazaritzaren eta abeltzaintzaren sektorean	Balio normalizatuak (1-2)	1,46	1,48	1,47	1,50	1,55
	EAEko gainerako udalerriekiko jarrera erlatiboa (1-10 dezilak)	6	6	6	6	7
Ibai-uholdeen inpaktua hiri-ingurunean	Balio normalizatuak (1-2)	1,51	1,54	1,52	1,56	1,56
	EAEko gainerako udalerriekiko jarrera erlatiboa (1-10 dezilak)	6	6	6	7	6

26. Taula ALDAGAI KLIMATIKOEN BILAKAEERA ATAUNEN. Iturria. Klima-agertokiak Esukadin eta datu-serieak. Ihobe.			
Aldagai klimatikoa	Año	RCP4.5	RCP8.5
Batez besteko tenperatura (°C)	2024	12,17	12,25
	2040	12,98	13,24
Batez besteko tenperatura minimoa (°C)	2024	7,97	8,02
	2040	8,71	8,94
Batez besteko tenperatura maximoa (°C)	2024	16,22	16,48
	2040	17,25	17,53
Gehieneko tenperatura (°C)	2024	32,04	34,62
	2040	34,06	35,56
Bero-boladak – T ^a >35°C (egunak)	2024	0,08	1,76
	2040	1,21	1,49
Gau tropikalak – T ^a >20°C (gauak)	2024	0,58	2,56
	2040	3,57	2,52
Izozte egunak - T _n < 0°C (egunak)	2024	0,71	0,54
	2040	0,12	0,04
Eguneko prezipitazioa (mm/egun)	2024	3,64	3,65
	2040	3,53	3,43

2.1.9. HIRIKO METABOLISMOA

2.1.9.1 Ur-hornikuntza eta saneamendua

Gipuzkoako lurralde historikoko Udalak Mankomunitate sistemetan biltzen dira udalerriek hornikuntza eta hondakin uren arazketa era eraginkorragoan kudeatzeko. Ataunen Gipuzkoako Ur Kontsortzioak du uraren ziklo osoaren kudeaketa. Hau da, hornidura-zerbitzuak eta hondakin-uren saneamendu eta arazketa zerbitzuak ematen ditu.

Instalazioen aldetik, Lareoko urtegia udalerri mugetatik nahiko gertu aukitzen da, eta bertan bildutako urak Ataungo udalerria hornitzen dute Arriarango urtegia laguntzeaz gain. Sistema Zegamako edateko uren araztegiarekin osatzen da.

Ataungo udalerrian, edateko uraren eskaria 148,08 litrokoa da biztanleko eta eguneko (Udalmap 2019).

Uraren saneamenduari dagokionez, Goierriko urak Legorretan kokatzen den Gaikaoko hondakin uren haraztegira eramaten dira.

2.1.9.2 Hondakinak

Goierriko gainontzeko udalerrietan bezala, Ataun udalerriko hondakinak Sasieta mankomunitateak kudeatzen ditu. Sasieta mankomunitateko web orrian eskuragarri dauden datuen arabera, 2022an ia 400.000 Kg hondakin bildu ziren Ataungo udalerrian. Horietatik %32a biohondakinak izan dira eta %16,6a ontzi arinak.

ATAUN: ETXEO ETA MERKATARITZAKO HONDAKINAK / RESIDUOS DOMICILIARIOS Y COMERCIALES (2022)													
Hondakinak	Urtarrila	Otsaila	Martxo	Apirila	Maiatz	Ekaina	Uztaila	Abuztua	Iraila	Urria	Azaroa	Abendua	GUZTIRA - TOTAL
Residuos	Enero	Febrero	Marzo	Abril	Mayo	Junio	Julio	Agosto	Septiembre	Octubre	Noviembre	Diciembre	kg %
Errefusa / Resto	4.920	5.120	6.700	5.140	5.920	6.040	5.220	6.380	5.300	4.760	5.880	5.600	66.980 15,2%
Etiketresna birziklaezinak / Enseres no reciclables	350	366	361	291	358	341	320	339	453	358	355	320	4.211 1,0%
Beira - Vidrio	0	2.100	11.980	0	2.581	12.105	1.840	7.561	4.649	8.222	991	8.548	60.577 13,8%
Papera eta kartoia / Papel y cartón	5.340	4.320	3.980	4.040	5.360	4.360	5.880	5.220	4.280	5.000	5.380	5.640	58.800 13,4%
Kartoi komertziala / Cartón comercial	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0 0,0%
Ontzi arinak / Envases ligeros	6.020	5.920	6.460	5.840	4.980	6.000	6.400	6.200	6.040	6.360	6.260	6.460	72.940 16,6%
Biohondakina / Bioresiduos	13.700	11.540	11.280	10.900	13.440	10.100	11.420	10.180	12.900	12.140	10.680	12.300	140.580 32,0%
Iñausketa eta lorazaintza / Poda y jardineria	0	2.970	3.240	2.780	0	0	0	0	0	370	0	0	9.360 2,1%
Egurrezko altzariak / Muebles de madera	837	970	953	826	978	1.033	866	902	917	967	973	863	11.086 2,5%
Tresna elektriko eta elektronikoak / RAEES	307	383	449	544	373	443	400	453	551	450	447	416	5.216 1,2%
Arropa zaharrak / Textiles	855	427	528	777	632	888	518	986	689	700	787	647	8.434 1,9%
Pilak / Pilas	45	23	20	20	38	20	21	38	24	25	23	23	323 0,1%
Sukaldeko olioa / Aceite de cocina	175	143	63	0	266	91	0	56	174	0	99	65	1.132 0,3%
	32.549	34.282	46.015	31.157	34.928	41.420	32.885	38.316	35.977	39.350	31.677	40.882	439.639 100%

27. Irudia Ataungo etxeko eta merkataritzako hondakinen datuen laburpena. Iturria: Sasieta mankomunitatea.

Udalmapen eskuragarri dagoen informazioaren arabera, Ataungo udalerrian biztanleko eta urteko hiri-hondakinen sorrera 379,75 kg/bizt./urtekoa izan zen (2009. urtea). Biztanleko hondakin arriskutsuen kudeaketa 31,78 kg/biztanleko/urteko izan zen (2004. urtea).

2.1.9.3 Energia

Udalmapen arabera, 2022an Ataungo udalerriaren urteko kontsumo elektrikoa 2.113,10 Kwh/biztanleko izan da. Urteko kontsumo elektriko ez-industrial 1.822,62 Kwh/biztanleko da, eta industria-sektorekoa 290,49 Kwh/biztanleko.

Udalerrian instalatutako potentzia fotovoltaikoa (2021a. urtea) 127,09 Kw-koa da 10.000 biztanleko; potentzia eolikoa 0 Kw 10.000 biztanleko; potentzia hidraulikoa 107,40 Kw 10.000 biztanleko; eta eguzki-azalera termikoa 131,26 m²-koa 10.000 biztanleko.

2.1.10. MUGIKORTASUNA ETA IRISGARRITASUNA

2.1.10.1 Irisgarritasuna

Irisgarritasunaren aldetik, hauek dira Ataungo udalerriaren iristeko eskuragarri dauden komunikazio-azpiegiturak:

- Motorrik gabeko mugikortasuna: Gipuzkoako bizikleta bideen sareak Gipuzkoako eskualde guztiak zeharkatzeko helburua du, eguneroko zein aisialdirako bizikleta erabilera bultzatzeko. Ataungo udalerrian bertan, hirigunetik ibiltzeko bidegorria San Martin auzoan aurkitzen da. Horretaz gain, Gipuzkoako bizikleta bideen sarearen arabera, Lazkao eta Ataungo udalerriak lotuko dituen bidegorria planifikatua dago.
- Errepide azpiegitura: Errepide azpiegitura GI-21 errepideak soilik osatzen du.
- Garraio publikoa: Atubus zerbitzu ezberdinak topa ditezke udalerrian, esaterako Goierrialdea S.L. La Estellesa S.L. eta Transportes Pesa S.A. Trenet iristeko aukera ere bagado, Beasaingo eta Ordiziako tren geltokiak udalerriatik 5 Km-tara kokatzen dira eta Goierrialdea autobus zerbitzuarekin lotuta daude.

2.1.10.2 Mugikortasuna

Udalmapen eskuragarri dauden azken datuen arabera, nahitaez egin beharreko mugikortasun balioak nahiko altuak dira. Udalerriatik kanpo lan egiten duten 16 urte edo gehiagoko langileak %83,58a dira Gipuzkoa eta EAE balioak baino handiagoa. Aldi berean Udalerriatik kanpo ikasten duten 16 urte edo gehiagoko ikasleak %100a dira udalerrian.

27. Taula NAHITAEZKO MUGIKORTASUNAGATIKO GARRAIO-PREMIAT DITUZTEN BIZTANLEEN EHUNEKOAK			
Jatorria	Ataun	Gipuzkoa	EAE
Udalerriatik kanpo lan egiten duen 16 urte edo gehiagoko langilea (2016) (%)	86,88	60,40	59,31
Udalerriatik kanpo ikasten duen 16 urte edo gehiagoko ikaslea (2011) (%)	99,21	65,49	64,23

2.1.11. INGURUMEN- ETA PAISAIA-UNITATE HOMOGENEOAK

Udalerriko ingurune fisikoaren ezaugarrien, prozesuen ingurumen-arriskuen eta paisaiaren azterketaren ondorioz, lurraldean sei ingurumen unitate homogeneo identifikatu dira. Unitate bakoitzak kalitatearen balorazio nahiko antzekoa du, eta baita erabilera espezifikorako gaitasuna edo bokazioa ere. Ondorengo tauletan ingurumen unitate homogeneoen karakterizazioa biltzen da, bai eta bere ingurumen kalitatearen eta erabilera aukeren balorazioa.

I.U.H. 1	Ibai eremua
DESKRIBAPEN OROKORRA	
Ibai-sistemak, ibai eta errekekin lotutako habitatak, flora eta fauna kontserbatzeko ezinbestekoak diren prozesu hidrogeomorfologiko guztiak hartzen ditu bere barnean. Gainera haranetako paisaiaren elementu egituratzaile eta dibertsifikatzaile garrantzitsuak dira. Unitate honetan, Agauntza ibaiaren lehentasunezko fluxu-eremua kontuan hartu da, hirigunetikan igarotzen den tartean zehar. Beste tartetean ordea, eta beste errekaetara, ibai eta Erreken LPSak ezarritako babes zortasuna kontuan hartu da, bakoitzaren hirigintza-osagaiaren arabera, eta kontuan hartuta ere, landa eremuetatik igarotzen direla. Eremu honen helburua babesa izango litzateke, ingurumen-erregulazioari lotutako zerbitzu ekosistemikoak mantentzen dituelako (lurzorua, klima, ura, etab.) eta biodibertsitatearen gordailu gisa jarduten duelako.	
ERABILPEN GAITASUNA	
Ingurumen kalitate HANDIA	- Ataunen Agauntza ibaiaren behe tarte Oria Garaiko Kontserbazio Bereziko Eremuaren parte da. Ibaiaren goi tarte albiz, Aralarreko Natura Parkea eta Kontserbazio Bereziko Eremuaren parte da. - Batasuneko Intereseke Habitata biltzen ditu, hala nola, ibaiertzeko haltzadi eurosiberiarra (91E0*). - Intereseke animalia espezie ugari bizi diren eremua da, eremu urtarrari bakarrik lotuta egon daitezkenentzan, zein bertara edateko gerturatzan diren animalia lehortarrentzat, edo uretan elikatzen direnentzat. Aipagarria da, Agauntza ibaia eta beste erreka nagusiak bisoi eurroparrarentzako interes bereziko eremuak bezla izendaturik daudela, espezie honen Kudeaketa Planaren arabera. - Zerbitzu ekosistemiko ugari eskaintzen ditu (klimaren erregulazioa, ziklo hidrologikoa, elikagaiak, etab.). - Paisaiari naturaltasuna eta kalitate bisuala eskaintzen dio. - Hiritarrentzako lasaitasunerako eta aisialdirako espazioak eskaintzen ditu.
Zaugarritasun/berezitasun HANDIA	- Uholde arriskua du, batez ere hirigunea zeharkatzen duen tartean. - Presio ugari jasaten ditu. Hirigunea bere ingiruguan garatu da, ibai ertzak mugatuz, landaredia desagertuz, ur emaria kontrolatzeko presa txikiak eraikiz, edota ibilguak zeharkatzeko zubiak.
Ahalmena	Natura eta aisialdi jarduerak
Harrera-gaitasun TXIKIA	Eremu honetan helburuak ibai ibilguen funtzio ekologikoak mantentzea eta sustatzea izango lirateke. Ondorioz, eremuaren antolaketa kontserbaziora eta ingurumen balioa hobetzera bideratu beharko litzateke.

I.U.H. 2		Kontserbaziorako basoa	
DESKRIBAPEN OROKORRA			
Unitate honetan bertako espeziek osatutako basoak barneratzen dira (hariztiak, pagadiak, artadiak, erkameztiak, etab.), heskaiekin batera, eta hauek eratu ditzaketen landaredia antolaketa ezberdinak (txilardiak, iratzediak, arantzadiak, etab.). Bestetik, harkatizitetako landaredia ere sartu da.			
ERABILPEN GAITASUNA		KOKAPENA	
Ingurumen kalitate HANDIA	- Lurraldeko landaredia natural eta potentzialari dagokio. - Batasuneko Intereseko Habitat ugari biltzen ditu, eta baita lurralde mailan interes handia dutenak ere. - Habitat dibertsoak eratzen dituzte, espezie ugariekin, eta animalientzako oso aproposak direnak, elikadura, babes, zein dispertsiorako. - Tokiko korridore ekologikoen sarean eremu nukleoak dira. - Zerbitzu ekosistemiko ugari eskaintzen ditu (klimaren erregulazioa, ziklo hidrologikoa, elikagaiak, etab.). - Herritarren tradizio kulturelekin oso lotuak. - Hiritarrentzako lasaitasunerako eta aisialdirako espazioak eskaintzen ditu.	Baso naturalak mendietako maldetara baztertuak izan dira, leku malkartsuetara eta iristeko zailak. Udallerriaren hegoaldean hedatzen dira batez ere, eta Agauntza ibaiaren ekialdean, Aralarreko Natura Parkearen barruan.	
Zaugarritasun/berezitasun HANDIA	- Presio antropiko ugari jasaten ditu, batez ere hauen ustiapenarekin loturikoak. - Irigarriagoak diren eremuetan bertako espezieak, zuhaitz eta pinu espezie aloktonekin ordezkatu dira.		
Ahalmena	Erabilpen naturalistikoa. Bertako basoa osatzen duten espezieen babesa.		
Harrera-gaitasun TXIKIA	Eremu honetan helburua basoa kontserbatzea izango litzateke, bertako zerbitzu ekosistemikoak mantendu daitezkeen eta biodibertsitatearen gordailo moduan.		

I.U.H. 3		Ustiapenerako basoa	
DESKRIBAPEN OROKORRA			
Unitate honetan ustiapenerako erabiltzen diren basoak barneratzen dira, bertako zein espezie aloktonoez osatuak. Bertatik zurgintza eta papergintza industrietarako lehengaiak lortzen dira batez ere.			
ERABILPEN GAITASUNA			KOKAPENA
Ingurumen kalitate ERTAINA	- Baso landaketen ingurumen kalitatea murriztua da, landaketa monoespezifikokoak direlako, ustiapen epe laburrak dituztenak. Gainera, inguruneke beste elementu batzuk arriskuan jartzen dituzte, hala nola, ur ibilguen eta lurzoruen kalitatea eta higadura prozesuak. - Bestelako landaketak aldiz, bertako espezieak erabiltzen direnak, ez monoespezifikokoak eta mozketak epe luzeagoekin, adibidez, biodibertsitatearen mantenuan ere eragin positiboak izan ditzakete.		Aurretik egoera naturalean bertako basoak egondako eremuetan kokatzen dira, medietako magaletan. Udallerriaren iparraldean hedatzen dira batez ere, baita Agauntza ibaiaren hegoaldean eta Aralarren barruan ere, Ataungo domoan.
Zaugarritasun/berezitasun ERTAINA	Gaur egun, arriskurik handiena lurraldean oso hedatuta dauden espezieei eragin diezaieketen gaixotasun monoespezifikoen hedapenetik dator, Pinus radiata espeziearen kasuan bezala.		
Ahalmena	Erabilpen naturalistikoa, ustiapenekoak eta aisialdirako. Unitate honetako irizpidea baso-ustiategiari zuzenduta egongo da, % 60-70 malda gainditzeko duten zonetan izan ezik. Kasu horietan, komeni da bertan baso autoktonoaren azalera zabaltzea.		
Harrera-gaitasun TXIKIA	Bere bokazioa produktzioa izango da, egurraren ustiapen jasagarria bultzatuz.		

I.U.H. 4	Nekazaritzarako Balio Estrategiko Altuko lurrak	
DESKRIBAPEN OROKORRA		
Unitate honetan Nekazaritza eta Basogintzako Lurralde Plan Sektorialak ‘Balio Estrategiko Altua’ kategorian identifikatutako lurrak barneratzen dira, abereentzako forragea edo bestelako nekazal erabileretarako oso ezaugarri egokiak dituztenak.		
ERABILPEN GAITASUNA		KOKAPENA
Ingurumen kalitate HANDIA	- Eremu hauetan larreak mantentzen dira, duten erabileraren arabera Batasuneko Intereseko 6510 Habitata izan daitezkeenak. - Bertako produktuak haztea ahalbidetzen du, nekazal ekonomia sustatuz. - Beste belardiekin, baso eta eskaiekin mosaikoa eratzen du, haranen hondoko landazabala osatuz, Kantauri isurialdeko landa-paisaia definitzen duen elementu bereizgarria da.	Agauntza eta Lauztierrekaren ertzetan garatzen diren lursain lauaetan hedatzen dira. Udalerrian azalera oso txikia suposatzen dute.
Zaugarritasun/berezitasun HANDIA	Bere kokapena eta orografia lauarengatik, hirigintza garapenerako oso erabilgarriak izan daitezkeen lurrak dira.	
Ahalmena	Abeltzaintza eta nekazaritzarako erabilera.	
Harrera-gaitasun TXIKIA	Hirigintza garapenerako egokiak izan daitezkeen lurrak batzen ditu, dituzten baldintza geoteknikoengatik. Hala ere, hauen babesa eta duten nekazaritzarako erabilera mantentzea lehentasunezkoa kontsideratzen da.	

I.U.H. 5	Nekazaritza eta abeltzaintzako landazabala	
DESKRIBAPEN OROKORRA		
Unitate honek belardi eta larreetarako landatutako bestelako eremuak hartzen ditu bere baitan, bai eta, inguruko eraladatutako eremuak landa-inguruneari lotutako jarduerak burutzeko. Horrela, baserriak, baratzeak, frutagarbolak eta belardiak dira eremu honen ezaugarri nagusiak.		
ERABILPEN GAITASUNA		KOKAPENA
Ingurumen kalitate ERTAINA	- Gainerako eremu natural edo erdinaturalekin batera, sare berdearen parte da. - Intereseko elementu erdinaturalak ditu, ahala nola, zuhaitziak eta larreen arteko heskaiak, konektibitate ekologikoan laguntzen dutenak. - Lursail gehienak batasuneko intereseko habitatekin bat egiten dute, batez ere 6510 larreak. - 6230*, 6170, 6210* habitatak ere identifikatzen dira, ezaugarri naturalagoak dituztenak. - Hirigune inguruan paisaia-kalitatea handitzen du.	Ibai ibilguekin lotutako eremu lauetan hedatzen dira, 'Balio Estrategiko Altuko' lurretaz haratago. Azalera handi bat, Aralarko Parke Naturalaren barnean kokatzen dira.
Zaugarritasun/berezitasun ERTAINA	Arriskurik handiena bere kokapena da. Izan ere, hiriguneen ondoan egonda, hirigintza garapenerako lursail hauek hartu ditzakete.	
Ahalmena	Abeltzaintza eta nekazaritzarako erabilera, hiri garapenak. Erabilpen naturalistikoa eta aisialdirako.	
Harrera-gaitasun ERTAINA	Nekazaritza eta Basogintzaren LAPeko trantsizioko landa-paisaia kategoriaren definizioarekin bat dator. Horregatik, lurzoruen gaitasun agrologikoa, abeltzaintza-jarduerak eta landa-ekosistema eta -isolamendu horien kontserbazioa bermatuko duten bestelako jarduerak bateragarriak mantentzea da irizpidea.	

I.U.H. 6	Hiri lurzoruak edo eraldatuak
DESKRIBAPEN OROKORRA	
Hiriguneko hiri-garapenak, industrialdeak, landa-guneak, garraio-azpiegiturak eta beste azpiegitura batzuk (Jentilbaratzako harrobia) gauzatzearen ondorioz eraldatutako lurzoruek okupatutako lursailei dagokie.	
ERABILPEN GAITASUNA	KOKAPENA
Ingurumen kalitate ERTAINA	Agauntza ibaiaren ibarrean.
- Lurzoru eraldatuak, bere erabilerak eta jendearen presentzia altuak eremuaren ingurumen kalitatea murrizten dute. Zentzu honetan, landaredia naturalaren garapena oso mugatua dago, eta horrekin batera, gerturatu daitezkeen intereseko animalia espezieak. - Herriguneen tamaina txikia, bere kokapen sakabanatua eta ibai ibilguetatik gertu, natura elementuen kontserbazioa ahalbidetzen du.	
Zaugarritasun/berezitasun ERTAINA	
- Hiri lurzoruaren gehiengo uholde arriskua jasan dezake, eta akuiferoen kutsadurak urrakortasun handia duten eremuetan kokatzen da. - Eremu batzuetan kutsatuak egon daitezkeen lurzoruak aurkitzen dira. - Herrigunean Aralar eta Oria Garaia Kontserbazio Bereziko Eremuekin mugatzen dute. - Herriguneak zeharkatzen dituen ur ibilguak galtzeko arriskuan dauden bisoi europarraren eta muturluze pirinearraren interes bereziko eremuak dira. - Kultura intereseko ondarea aurkitzen da.	
Ahalmena	Hirigintzarako erabilera.
Harrera-gaitasun ALTA	Orokorrean hiri garapenak jasotzeko ezaugarri egokiak ditu.

2.1.12. INGURUMEN ALDERDI GARRANTZITSUEN LABURPENA

Ataungo udalerrria Goierriko eskualdean kokatzen da, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren hego-ekialdean. Gutxi gorabehera 58,36 km²-ko azalera du, zati esanguratsu bat (%75) Aralar Parke Naturalaren barruan kokatua dagoelarik.

Orografiari dagokionez, lurraldea oso malkartsua da. Eemu lauak gehienbat Agauntza ibaiaren ibarreratara mugatzen dira, eta hauek oso eremu estuak izanda, lurraldearen hirigintzarako okupazioa baldintzatzen dute. Ondorioz, Ataunen herrigune txiki ugari garatu dira, ibaiaren ibarrean zehar eta honek udalerrian ezaugarri eta elementu naturalak nagusitzea ahalbidetu du, eta baita hauekin loturiko ustiapenak ere.

Litologiari erreparatura harroka detritikoak eta kareharriak dira nagusi, udalerrian ipar-ekialdean interes geologikoko handiko eremu bat eratzen dutelarik, Ataungo Domoa 2.267 ha zabalerarekin. Harroken gainetik Kanbisol eta Lubisol motako lurrak agertzen dira, eta nekazaritzarako baldintza onak izan ditzaketen arren, maldek bere erabilera mugatzen dute, ondorioz, azalera gehiena basoek estaltzen dute.

Ataun Agauntza ibaiak zeharkatzen du, hego-ekialdetik iparralderaino igarotzen dena, Domoa inguratuz. Ibai honek isuri-arro zabala du (50-100 km²), batez ere herriguneetatik igarotzen den tartean, eta bertara, erreka eta erreka ugari isurtzen dute. Aipatu beharra dago, lurraldearen zati nagusitik baztertuta dagoen atauneko eremuan Zaldibia ibaiak igarotzen dela, beste isuri-arro baten parte dena. Atauneko ur masen egoera ekologikoa zein kimikoa kalitate onekoa bezala irudikatzen da azkeneko azterketen arabera.

Atauneko klima atlantikoak, oro har tenperatura epelekin urte osoan zehar eta prezipitazio ugariekin, dauden lurzoru motekin batera, bertan garatzen den landaredia baldintzatzen du. Potentzialki, lurraldea harizti eta pagadiak estaliko luke, haltzadiarekin batera ur ibilguen ertzetan. Hala ere, orain arte lurzoruaren egindako erabilerak, garatzen den landaredia moldatu dute.

Horrela, basoek gutxi gorabehera lurraldearen %80 okupatzen duten arren, hauetatik %50 dira naturalak (pagadiak, hariztiak, eta artadiak), eta beste %30 baso landaketak dira, gehien bat koniferoena. Aipatu beharra dago Ataunen Batasuneko Intereseko Habitat ugari identifikatzen direla, baso eta belardiei totuta batez ere, Aralar barruan zein kanpoan, nagusiena hegoaldean garatzen den pagadi azidofilo atlantiarra izanda, udalerrian azaleraren %27 hartzen duena.

Ezaugarri hauek udalerrian animalia espezien dibertsitatea oso handia izatea ahalbidetzen dute, horietatik batzuk Euskal Autonomia Erkidegoko espezie mehatxatuen katalogoan aurkitzen direnak.

Besteak beste, aipatzekoak dira, harkaitzetara lotuta bizi diren hegazti harrapariak, kobazulo zein basoetara lotutako kiroptero eta hegaztiak, edota ibai ibilguetara lotutako fauna. Zehazki, Agauntza ibaia eta bere erreka nagusiak bisoi europarraren eta muturluze piriniarraren interes bereziko eremuak dira espezie hauen Kudeaketa Planaren arabera, eta Aralar Parke Naturala, Hegazti Nekrofagoentzako interes bereziko eremua da ere, animalia talde honen Kudeaketa Planaren arabera.

Jada aipatu denez, Ataunek natura intereseko ezaugarri ugari biltzen ditu, eta honek udalerriaren gehiengoa biltzen duten babes-figuretan isladatzen da. Agauntza ibaitik ekialdera zabaltzen diren lurrak, udalerriaren hegoaldeko mugarekin barne, Aralar Parke Naturalaren barne kokatzen dira, eta ondorioz, eremu babestu honen erregulazio-irizpideen menpe gelditzen da. Era berean, Aralar Parke Naturalaren mugaketa, Natura 2000 Sarearen parte den Aralarreko Kontserbazio Bereziko Eremuarekin bat egiten du. Azkenik, San Martinetik iparraldera igarotzen den Agauntza ibaiaren tarte Oria Garaiko Kontserbazio Bereziko Eremuaren barne geltditzen da ere. Eremu hauek, funtzio garrantzitsua betetzen dute lurraldearen kontekstibitate ekologikoa mantentzeko animalia eta landare espezien babesgunea izanda, eta paisaiari dagokionez,

Kultura ondareari dagokionez, aipatzekoa da udalerrian arkeologia ondasun izendatu ugari aurkitzen direla, mendi magaletan zein herriguneetan, estazio megalitiko, kobazulo, baserri, eliza eta abarrekin lota. Hauek, elementu geologiko eta naturalekin batera, paisaiaren aldetik, bereziak diren ezaugarriak eratzen dituzte, eta horregatik, Atauneko ikus-arro gehienak katalogatuta daude, EAEko Paisaia Berezien eta Nabarmenen Katalogoaren Aurreproiektuaren arabera.

Azkenik, lurraldearen erabilera eta batez ere hiri eremuen garapena baldintzatu dezaketen ingurumen arriskuei erreparatuta, alde batetik, Agauntza ibaiaeren ibarrean uholdeak jasan ditzaketen eremuak identifikatzen dira, hiri-lurzoruei eraginez, ibai tarte hau arrisku handiko eremua bezala izendatzen delarik. Bestetik, hiri garapenak ere akuiferoen kutsadurak urrakortasun handia duten eremuetan kokatzen dira, eta puntualki kutsatuta egon daitezkeen lurzorua identifikatzen dira. Hala ere, aztertutako bestelako arriskuak, herrigunetan eragin kaltegarri esanguratsurik ez izate espero da.

2.2. BESTE PLAN EDO PROGRAMA BATZUEKIKO ELKARRERAGINAREN AZTERKETA

Atal honetan Ataungo HAPOak antolatutako esparruan eragina duten lurralde-plangintza eta arloko planek identifikatutako eta jasotako irizpide eta ezarpen nagusiak laburbiltzen dira.

2.2.1. LURRALDEAREN ANTOLAMENDURAKO GIDALERROAK

EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (LAG), Eusko Jaurlaritzaren otsailaren 11ko 28/1997 Dekretuaren bidez behin betiko onartu ziren. Hauek, gainerako hirigintza-dokumentuak idazteko erreferentzia-esparrua dira, lurralde-antolamenduari dagokionez oinarritzko irizpideak ezartzen baitituzte. Uztailaren 30eko 128/2019 Dekretuaren bidez, behin betiko onartu zen LAGen berrikuspena, 1997ko lurralde-ereduaren oinarriak eguneratzen eta osatzen dituen.

Antolamendu Kategoriek ingurune fisikorako LAGen Lurralde Ereduaren proposamena osatzen dute. Lurraldea sektore homogeneoetan sailkatzen dute haien harrera-ahalmenaren arabera, eta horietako bakoitzari erabilera-erregulazio espezifiko bat aplikatzen zaio (ingurune fisiko antolatze matrizearen arabera). Kategoriak honako hauek dira:

- Babes berezia
- Ingurumen hobekuntza
- Basoa
- Nekazaritza eta abeltzaintzako gunea eta landazabala
- Mendiko larreak
- Erabilera-bokazio definitu gabea
- Lurrazaleko uren babesa

LAGek adierazten dutenez, garapen-plangintzak (HAPOak) kalifikazio bat ezarri beharko du lurzoru urbanizaezin gisa sailkatutako lurzoruarentzat, LAGetan ezarritako antolamendu-kategorietako izendapenak eta irizpideak erabiliko dituen, eta azpikategoria gehigarriak sartu ahal izango dira, aztertutako eremuaren berezitasunen arabera. Bestalde, gehitzen dute garapen-plangintzak erabileren eta jardueren erregulazio espezifikoagoa ezarri ahal izango duela antolamendu-kategoria bakoitzean, betiere LAG hauetan oro har araututakoa eta dagokion lurralde-eremuko baldintza bereziak kontuan hartuta.

Gainera, antolamendu-kategoriekin batera, baldintzatzaile gainjarri batzuk zehazten dira, zeintzuk ingurune fisikoaren antolamendu-kategoria bakoitzerako ezarritako erabilera-erregimena mugatzen edo baldintzatzen duten.

Arrisku naturalei eta klima-aldaketari buruzkoak ondorengoak dira:

- Akuiferoen kalteberatasuna.
- Arrisku geologikoak.
- Uholde-arriskua.
- Klima-aldaketari lotutako arriskuak.

Azpiegitura berdea:

- Hidrografia sarea: ur-ibilguak, hezeguneak, itsasadarra.
- Ingurune baloreengatik babestutako eremuak: Natura 2000 Sarea, Oriako itsasadarra.
- Natura intereseko beste eremu batzuk.
- Korridore ekologikoak.

LAGek ingurune fisikoan aplikatzeko zehaztutako lotesle hauek ezartzen dituzte:

- Hirigintza-plangintzak, lurzoru urbanizaezinaren erregulazioan, kategorien eta gainjarritako baldintzen mugaketa egokituko du, bai eta lurralde-plangintzan ezarritako erabilera-araubidea ere; eta kategoria, baldintza eta erabilera-erregimen horiek egokitu ahal izango ditu, udalerrri bakoitzaren berezko baldintzetara eta lan-eskalara egokitzeko. Nolanahi ere, kategoria horien eta erabilera-erregimenaren azken mugaketa hirigintza-plangintzaren berezko zeregina da.
- LAGetan adierazitako antolamendu-kategoriez gain, hirigintza-plangintzak bere udalerrian egon daitezkeen sistema orokorrak eta landa-guneak kalifikatuko ditu, EAEko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen esparruan araututakoaren arabera.
- Azpiegitura berdearen eta ekosistema-zerbitzuen arloko gidalerroei dagokienez, hirigintza-plangintzaren kasuan, honako irizpide hauek bete beharko dira:
- Tokiko azpiegitura berdea sortzea, eremu funtzionaleko eta EAEkoarekin lotuz.
- Tokiko azpiegitura berdearen zatitza hartzea sistema orokor gisa kalifikatutako espazioak, eta, aukeran, tokiko sistemak, espazio libreak eta berdeguneak.
- Eremu babestu bakoitza bere ingurumen-balioen, korridore ekologikoen eta bere lurraldean eragina duten funtzio anitzeko beste espazio batzuen arabera mugatzea, erregulazio egokia ezarrit.

Gainera, LAGEk beste zehaztapen batzuk ere ezartzen dituzte, Lurraldeko Plan Partzialak eta Lurralde Plan Sektorialak idazteko erreferentzia direnak. Ildo horretatik, 5. artikuluan Eremu Funtzionalak (EF) EAEn eta udalerrien arteko tarteko plangintza-eskala gisa mugatzen dira.

Ataun, Gipuzkoako beste 21 udalerrirekin eta Enirio-Aralar eta Araba eta Gipuzkoako Partzuergo Nagusiko eremuekin batera Beasain-Zumarragako (Goierrri) Eremu Funtzionalaren barruan dago.

Bestalde, LAGEk gidalerroak ezartzen dituzte hiri-birgaitzearen, hiri-hazkundearen, jarduera ekonomikoetarako eta merkataritza-ekipamenduetarako lurzoruaren eta bizitegi-kuantifikazioaren arloetan, besteak beste. Horietan lehenesten dira, oro har, hiri-birgaitzea, eremu urbanizatuen dentsifikazioa eta eremu degradatu edo gutxiegi erabiliak berrerabiltzea, lurzoruaren okupazio berrien alternatiba gisa.

Aipatutako zehaztapen, irizpide eta orientabide orokorrez gain, LAGEk ez dute beste gidalerro espezifikorik proposatzen Ataunerako.


2.2.2. BEASAIN-ZUMARRAGAKO (GOIERRIKO) LURRALDE PLAN PARTZIALA

2009ko irailaren 29an, Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak 534/2009 Dekretuaren bidez onartu zuen Goierriko Beasain-Zumarragako Eremu Funtzionalako Lurraldearen Plan Partziala (hemendik aurrera LPP). LPPak lurzoruaren lehen eta oinarritzko egituraketa ezartzen du, lurralde-jardueren euskarri gisa. Lurzorua bi multzo handietan bereizten du, alde batetik ingurune fisikoari dagozkion lurzoruak eta, bestetik, hiri-garapenerako lurzoruak. Zehazki, ingurune fisikoaren kasurako ondorengo kategoria hauek sistematizatzen dira:

- Garrantzi handiagoko eremuak:
 - o Babestu beharreko eremuak:
 - Interes Naturaleko Eremuak
 - Interes zientifiko-kulturaleko eremu eta puntuak
 - Nekazaritza- edo ingurumen-interesa duten eremuak
 - Interes hidrologikoa duten eremuak
 - o Hobetu edo leheneratu beharreko eremuak:
 - Ekosistemak hobetzeko eremuak
 - Baso-kontserbazioko eremuak
 - Erabiltzen ez diren Meatzeak, Harrobiak eta Hondakindegia
 - o EAEko Korridore Ekologikoen Sarea
- Ingurune fisikoaren kategorizazio orokorra: LAGEk definitzen dituzten kategoriak naiz baldintzatzaile gainjarriak sartzen dira.


Jarraian LPPak Ataun udalerrirako zehazten dituen alderdiak jasotzen dira:

- **Ingurune fisikoaren antolamenduari** dagokionez, udalerrian Aralarko Parke Naturala eta Natura 2000 sarean sartzen diren eremuak identifikatzen ditu, eta baita interes geologikoko, arkeologikoko, eta hidrologikoko eremuak. Bestetik, lurraldeko ipar-hegoaldean hainbat eremu identifikatzen ditu ekosistema hobekuntzara zein basoen babesera bideratutakoak. Era berean, aurrekoen artean produkzioarako baso-eremuak eta ohiko nekazaritza eta abeltzaintzarako eremuak ere identifikatzen dira.
- **Bide sareari** dagokionez, Ataun zeharkatzen duen GI-2120a Ergoienaraino Gipuzkoako bizikleta-bideen oinarritzko sarearen parte bezala irudikatzen da.
- **Zerbitzu azpiegituri** dagokionez, udalerria transformazioko eta banaketako azpiestazioa (TBA) eta 380 eta 220 KV-ko energia elektrikoaren garraio sareak zeharkatzen dute. Ur hornidurarako sarea gutxi gorabehera Aiatik abiatzen da, eta GI-2120 errepidea jarraitzen du Beasaineraino. Azkenik, saneamenduko oinarritzko sarea (EDAR) San Martineko auzotik abiatzen da, baita ere GI-2120 errepidea jarraituz Beasaineraino.



28. Irudia Goierriko LPParen 02.2 planoaren zatia. Zerbitzuen oinarritzko azpiegiturak.

- Atauneko **asentamendu sistemari** dagokionez, San Martin hiri-izaerako herrigunea bezala identifikatzen da, eta honen inguruan bizitegi garapen berriko lehentasuneko eremuak irudikatzen dira, eta baita hirigunea babesteko eta eraberritzeko aktuzioak ere. Arrondo, San Gregorio, Ergoiena eta Aia, berriz, landa-izaerako herriguneak bezala identifikatzen dira, eta bertan ere hazkuntzak proposatzen dira, "ordezko habitata" bezala izendatuta, guztira 60 etxebizitzekin 16 urteko eperako. Etxebizitza eskaintza globalari dagokionez, Ataunen 16 urteko epean 286 etxebizitza kopuru maximo eta 206 minimo aurreikusten dira, eta bigarren bizilekua ere indartzea proposatzen da. Jarduera ekonomikoei dagokionez, hauetarako lurzoruen kalifikazioa hiri-jardueretara mugatzea ezartzen du, udalerrria, zentzu honetan, garapen baxukoa bezala deskribatzen baitu. Bestetik, Atauneko San Martin auzoa "lurraldean sartzeko gunea" bezala izendatzen da, eta ondorioz, ekipamendu berriak jasotzeko egokia.



29. Irudia Goierriko LPParen 03 planoaren zatia. Asentamendu-sistema, espazio-betetzearen ezaugarri orokorrak, bizitegi, industria eta hornidurarako lurzoruen.

2.2.3. LURRALDEAREN ARLOKO PLANAK (LAP)

2.2.3.1 EAEko ibaien eta erreken ertzak antolatzeko Lurralde Arloko Plana


Ibai eta erreken ertzak antolatzeko LAP isurialde kantaurreari dagokionez abenduaren 22ko 415/1998 Dekretuaren bitartez jaso zuen behin betiko onarpena, azaroaren 19ko 449/2013 Dekretuak aldatua izan delarik. Antolamendu esparrua, Kantaurre isurialdeko eremuan, ur-ibilguen bi aldeetan 100 metroko zabalerako lurzoru-zerrendek osatzen dute, iturburutik bokaleraino. LAP honek antolamendu arauak ezartzen ditu hiru osagaitan oinarrituta: ingurumen, hidrauliko eta hirigintza arloko osagaiak.

Ingurumen-osagaiari dagokionez, Ataunen bi kategoriako ertzak aurki daitezke:

- Ondo kontserbatutako landaredia duten eremuak: kategoria honetan Altzuaran erreken ezker ertza, Inbidiaerreken erdiko tarte, Larrainsoroeta erreken amaierako atala, Lauztierrekaren ertz tarte bat eta Agauntza ibaiaren Arrondo inguruko ertz tarte bat identifikatzen dira. Eremu hauetan LPSaren arabera *“gaur egun dagoen landaredia zaindu nahi da, ekosistema egoera klimazikotik hurbil dagoenean”*.
- Lehentasunezko interes naturalistikoak duten eremuak: kategoria honetan Aralarreko Parke Naturala eta Natura 2000 Sarearen barnean txertatzen diren ibai tarteak sailkatzen dira, hala nola, Agauntza ibaiaren goi-tarte, eta bere adarrak (Muntegiberriko erreka, Maizegierreka, Irabelzko erreka, Alaiturrieta, Altzuaran, Larrainsoroetako erreka, Kobatxoerreka eta Artzate). Araudiaren arabera, ertz hauetan *“Ibilgua Babesteko Eremu bat ezartzean datza babeserako irizpide orokorra. Babes-eremu horretan, ingurunea aldatzea eragingo duen jardun oro debekatuko da”*.

Osagai hidraulikoari dagokionez, Agauntza erreka San Gregoriotik gora I mailakoa da, 10-50 km²-ko ibai arroarekin. San Gregoriotik behera aldis, II mailakoa bezala identifikatzen da, 50-100 km²-ko arroarekin. Bertara isurtzen duten errekaak aldiz 0 mailakoak dira 1-10 km²-ko arroarekin, eta hauek baino ibai arro txikiagoa dutenek (<1 km²), 00 mailakoak izango lirateke.

Ibai tarte hauei eraikinen ondorengo atzerapena ezartzen da:



30. Irudia EAEko ibai eta erreken LAPak ezarritako Ataungo ibai ibilguen sailkapena.

Hirigintza osagaiaren arabera, berriz, LAPak ibai ibilgu gehienek ertzak 'landa-eremuetako ertzak' bezala identifikatzen ditu, eta puntu batzuetan 'eremu garatuetako ertzak', 'azpiegiturak okupaturiko ertzak', eta 'garapen berriak hartzeko ahalmena duten eremuetako ertzak' ere bereizten ditu. Kategoria bakoitzarentzat honako gutxieneko erretiro hauek ezartzen ditu:

28. Taula LAPAK EZARRITAKO GUTXIENKO ERRETIROAK (METROTAN) HIRIGINTZA- ETA HIDRAULIKA-OSAGAIEN ARABERAKO KATEGORIETAN						
Ibai tarteen maila	Arro isurlearen azalera (km ²)	Eremu garatuetako ertzak		Hirigintza garapen berriak izan ditzaketen ertzak		Landa eremuko ertzak
		Mugatze-lerro definitua	Mugatze-lerro ez definitua	Eraikuntza	Urbanizazio plataforma	
II	50 – 100	10	14	16	6 (8)	30
I	10 – 50	10	12	12	2 (4)	30
0	1 – 10	10	12	12	2 (4)	15

Uholdeen prebentziorako, LAP-k lurzoruen erabilerak eta uholde lautadaren eremu ezberdinetan ('urpean gera daitekeen zona' eta 'lehentasunezko fluxu-eremua') jardura hidrauliko eta hirigintzako esku-hartzeak ezartzen ditu. Irizpide orokor gisa, landa-eremuetan eta gaur egun hiritartuta ez dauden eremuetan berezko urperagarritasunarekin bateragarriak diren erabilerak baino ez dira jorratuko eta ez da onartuko "bideratze-lan berririk", ez eta hirigintzako erabilera intentsibo, eraikuntza-okupazio eta egitura-barneko elementurik, ibai-inguruneari dagozkion erabilerak salbu.

Dagoeneko urbanizatutako edota hirigintza aldetik neurri batean garatuetako eremuetan "ahalegina egingo da lehendik dauden eraikinak eta hirigintzako erabilerak mantentzeko, eta neurri zuzentzaileak hartuko dira, uholde arriskuaren gainean jardun ahal izatearren".

2.2.3.2 Hezeguneen Lurralde Arloko Plana

Uztailaren 27ko 160/2004 Dekretuaren bidez behin betiko onartutako eta urriaren 30eko 231/2012 Dekretuaren bidez aldatutako Hezeguneen LAPak Lurraldearen Antolamendurako Artezpideen zehaztapenak garatzen ditu, EAEko hezeguneen inbentarioaren eta sailkapenaren bidez, eta berariazko antolamenduen xede diren hezeguneetan duten harrera-ahalmenaren arabera erabilerak eta jarduerak arautzen ditu.

LAPak EAEko hezeguneak identifikatzen ditu, tipologiaren arabera sailkatu, eta hiru taldetan banatzen ditu, LAPean bertan ezarritako erregulazio motaren arabera. LAPak II. taldea osatzen duten esparruetarako bakarrik ezartzen du erregulazioa. I. eta III. taldeak hezeguneen zerrenda bat dira, eta horiei lotutako zenbait informazio dute (kodea eta kokapena).


Ataungo udalerrian ez da Hezeguneen LAPean inbentariatutako hezegunerik aurkitzen.

2.2.3.3 Nekazaritza eta Basozaintzako Lurraldearen Arloko Plana

Nekazaritza eta Basozaintzako LAPak behin-betiko onespina dauka 2014ko irailaz geroztik (irailaren 16ko 177/2014 Dekretua) eta lurzoru hiritarrezinaren nekazaritza eta basogintza erabilerak erregulatzen ditu, LAGean oinarritutako antolamendu kategoria eta baldintzatzaile gainjarri jakin batzuk ezarriz. Hiri-lurzoru eta lurzoru hiritargarriak LAP honen antolamendutik kanpo geratzen dira, eta Europako Natura 2000 Sarea osatzen duten eremuetan (Aralarreko KBE barne) eta Ibai eta Erreken LAPak xehetasunez antolatutako ur-ibilguen ertzetan, LAP honek dagokien araudiak ezarritakoa bereganatuko du.

Lurraldearen gehiengoa (udalerrien azaleraren %76, 4.455 ha) KBE eta Aralarreko Parke Naturalaren parte da, eta neurri askoz ere txikiago batean ibai-ibilguena (udalerrien azaleraren %0,10, 6 ha) edota hiri lurzoru bezala klasifikatua (udalerrien azaleraren %0,41, 24ha). Hortaz, Ataungo udalerrian LAP honek hurrengo irudien azaltzen diren antolamendu kategoriak ezartzen ditu.

29. Taula EAEKO NEKAZARITZA ETA BASOZAINZAKO LAPAREN ANTOLAMENDU KATEGORIAK ATAUNEN.		
Kategoria	Azalera (ha)	Udalerrien %
Basoa	936,01	16,04
Basoa-Mendi Urria	39,81	0,68
Larre Menditarra	2,59	0,04
Nekazaritza-abeltze eremua: Balio Estrategiko Altua	37,21	0,64
Nekazaritza-abeltze eremua: Trantsiziozko Landa Paisaia	326,57	5,59
Guztira	1.342,19	22,99



31. Irudia EAEko nekazaritza eta Basozaintzako LAPak ezarritako zonabanatzea Ataungo udalerrian.

Kategoria bakoitzeko, aplikazio arau-espezifikoak garatu dira, erabilera eta jarduerak erregulatzeko matrize batean jasotzen direnak. Usurbilen identifikatutako kategoriak soilik kontuan hartuz, matrizea honela eratuko litzateke:

30. Taula ERABILERA ETA JARDUERAK ERREGULATZEKO MATRIZEA. EAEKO NEKAZARITZA ETA BASOZAINZAKO LURRALDE ARLOKO PLANA.				
Erabilerak	Antolamendu kategoriak			
	Nekaz., abeltz. eta landazabala		Mendia	Ingurumen hobekuntza
	Estrategikoa	Trantsiziozko Paisaia	Basoa	
Ingurumenaren babesa				
Ingurumenaren hobekuntza	2	2	2	1*
Aisia				
Aisia estentsiboa	2	2	2	2
Aisia intentsiboko eremuen egokitzapena eta erabilera	2a	2a	2a	2a
Aisia intentsiboari lotutako eraikinak eta instalazio handiak	3a	2a	2a	3a
Ehiza- eta arrantza-jarduerak	2	2	2	2
Lehen mailako baliabideen aprobetxamendua				
Nekazaritzako praktikak	1	1*	2a*	3
Nekazaritzako ustiapenarekin zerikusia duten eraikinak	2a	2a*	3a*	3
Abeltzaintzako praktikak	2	2	2*	2*
Abeltzaintza-ustiapenarekin zerikusia duten eraikinak	2a*	2a*	3a*	3
Basozaintzako praktikak	2a*	2*	1*	1*
Basozaintzako ustiapenarekin zerikusia duten eraikinak	3a	2a	2a	3

30. Taula ERABILERA ETA JARDUERAK ERREGULATZEKO MATRIZEA. EAEKO NEKAZARITZA ETA BASOZAINZAKO LURRALDE ARLOKO PLANA.				
Erabilerak	Antolamendu kategoriak			
	Nekaz., abeltz. eta landazabala		Mendia	Ingurumen hobekuntza
	Estrategikoa	Trantsiziozko Paisaia	Basoa	
Nekazaritzako industriak	3a	2a	3a	3
Erauzteko jarduerak	-	-	-	-
Azpiegiturak				
Garraiobideak	-	-	-	-
Landa-bideak eta pistak	2a	2a	2a	2a
Aireko lineak	2a	2a	2a	2a
Lurpeko lineak	2a	2a	2a	2a
A motako zerbitzuetako instalazio termikoak	3a	2a	3a	3
B motako zerbitzuetako instalazio termikoak	2a	2a	2a	2a
Obra-hondakindegia eta hondakin solidoen zaborteak	3a	2a	2a	2a
Eraikuntza-erabilerak				
Aurretik zeuden guneeetan oinarritutako hazkundeak	2b	2b	2b	2b
Aurretik zeuden guneeetan oinarritu gabeko hazkundeak	3	3	3	3
Onura publikoko edo gizarte-intereseko eraikinak	3a	2a	3a	2a
Ustiaguneari lotutako egoitza isolatua	2a*	2a*	3a	3
Ustiaguneari lotuta ez dagoen egoitza isolatua	2a*	3	3	3
Instalazio arriskutsuak	3a	2a	2a	2a
1: Egokia. 2: Onargarria. 2a: Nekazaritza- eta basozaintza-jardueran izandako eraginaren azterketa egingo da, eta neurri zuzentzaileak jasoko dira sektore-eragina ebaluatzeke protokoloan adierazitako moduan. 2b: LPPko lehentasunezko interes-guneeetan egon gabe Udal-plangintzak planteatzen badu lehenagotik badauden gune batzuk oinarri hartuta, nekazaritza-inguruneen inpaktuaren balioztatze espezifikoak jasoko du plangintzak aukeren azterketan. 3: Debeaketa. 3a: Erabilera ez egokia, salbuespena nekazaritza-arloan eskumena duen organoaren txosten batek bermatzen badu. *: LPS honetan zehaztasunak dituzten edo foru-antolamenduak zehaztu beharreko nekazaritzako eta abeltzaintzako erabilerak. - : Plangintzako beste agiri batzuetan arautu beharreko erabilerak.				

2.2.3.4 Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua sortzeko eta Saltoki Handiak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana

LAP honek behin-betiko onespina jaso zuen abenduaren 21eko 262/2004 Dekretuaren bitartez, jarduera ekonomikoetarako lurzoru publikoa sortzeko eragiketak zein kokapenetan gauzatuko diren identifikatu eta adierazitako jarduketan kuantifikazioa eta bete-beharreko ezaugarriak zehazteko xedearekin.

Saltoki handien arautzeari dagokionez, Auzitegi Gorenaren 2015eko irailaren 3ko epaiak indargabetu zuen LAP-k saltoki handietarako gehieneko azalerari buruzko ezarritakoa. Horren ostean ekainaren 27ko 10/2019 Legea onartu da, establezimendu komertzial handien lurralde antolamenduari buruzkoa. LAPak ez du Ataun jarduera ekonomikoak garatzeko lehentasunezko eremu bezala identifikatzen, eta ez du proposamenik egiten udalerrirako.

2.2.3.5 Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurraldearen Arloko Plana

Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurraldearen Arloko Plana ekainaren 10eko 2/2013 Foru Arauak onartu zuen. Gipuzkoan bizikleta bideen oinarritzko sare bat sortzea proposatzen du, gaur egun hein handi baten gauzatuta dagoena. Helburu nagusia bizikletaren erabilera hiri barruko eta hiriarteko eguneroko garraioan integratzea da, horrela, motorrik gabeko mugikortasuna indartuz eta indartuz. Izaera egituratzailea du, Lurralde Historikoko eskualde, eremu funtzional eta hiri-eremu nagusi guztiak igaro eta lotzen baititu. 439 kilometroko luzera du eta bederatzi ardatz nagusi osatzen dute.

Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurraldearen Arloko Planak bereizi egiten ditu Oinarrizko Foru Sarea (oinarrizko sarea osatzen duten hiriarteko tartea) eta Bizikleta Bideen Oinarrizko Sare Lokala (oinarrizko sarea integratzeko asmoa duten tartea). Foru Sareko bideetarako kudeaketa eta titulartasuna foru-administrazioa izatea proposatzen du, eta loteslea da etorkizuneko Foru Sareko zati, adar eta elementu funtzionaletara soilik.

Era berean, ezartzen du udalerriek nahitaez egokitu behar dituztela beren plangintzak, bizikleta-bide horiek lurzorua kalifikazio honetan sartuta: Txirrindularitzaren Komunikaziorako Sistema Orokorra, bizikleta-azpiegitura eraginkortasunez gauzatzeko lurzoruaren erreserba eta zuzkidura egokia bermatzeko. Definizio horrek, kalifikazio horri dagokionez, hirigintza-antolamenduko tresna guztiak lotzen ditu.

Zehazki, Ataunen I-3 Donostia-Beasain ibilbidearen adar bat irudikatzen da (I-3.9 Beasain – Ataun), Beasaindik abiatuta, Lazkao zeharkatu eta Ataunen bukatzen dena, San Martin auzoan. Ibilbide hau Oinarrizko Foru Sarearen baitan egongo litzateke, eta GI-2120 eta Agauntza ibaiaren ertzetatik dijoazen bideetatik igarotzen da. LAParen arabera planeatutako ibilbide bat da, gauzatzeko alternatiba ezberdinak aztertu beharko litzatekeen tartea, hain zuzen ere.

3*

AZTERKETA SOZIO-EKONOMIKOA


3.1 DEMOGRAFIA

3.1.1. BILAKAERA

3.1.1.1. Biztanleria

Ataunek XVII. mendean eskuratu zuen herri izaera, baina lehenengo datu demografikoak XIX. mende erdialdekoak dira. Udalerriak 1860 urtean izan zuen biztanleria kopuru handiena (2.919 biztanle). Hurrengo hamarkadetan herritarren kopuruak gorabeherak izan zituen. 40ko hamarkadan eta 50eko hamarkadan Ataunek biztanleria hazkunde berri bat izan zuen 1960 urtean 2.807 biztanle izatera iritsi arte. Hortik aurrera eta XXI. mendera bitarte, ordea, biztanle galera nabarmena izan zen. 2003 urtean erregistratu zen udalerriko biztanle kopuru txikiena (1.514 biztanle) (ikus 1. Grafikoa).

Aipagarria da 60ko hamarkadako eta 70eko hamarkadako biztanleria beherakadak ez duela Gipuzkoak urte horietan izan zuen joerarekin bat egiten. Izan ere, herrialdearentzat, industrializazio prozesu betean murgilduta, biztanleria hazkunde handieneko urteak izan ziren. Beraz, pentsa daiteke inguruko udalerriek industrializazioaren ondorioz Ataundik biztanleria bereganatzeko gaitasuna izan zutela.




INE.

Iturria:

1. Grafikoa: Biztanleria bilakaera. Ataun, 1842-2022.

Milurteko berriarekin batera Ataunek biztanleria hazkunde fase berri bati ekin zion. 2003-2009 urteen bitartean udalerriak %9,4ko hazkunde izan zuen eta 1.671 biztanle izatera iritsi zen. Biztanleria hazkunde hori BOL eremuko hazkundearen (%8,0) oso parekoa izan zen, baina Goierriko (%5,4) eta Gipuzkoako hazkundearen (%3,0) baino handiagoa. 2008an lehertutako krisi ekonomikoaren urteetan, ordea, Ataunek biztanle kopurua nahiko egonkor mantendu du, Goierri bezalaxe. BOL eremuak ere biztanle kopurua egonkortu bazuen ere, 2017tik aurrera hazkunde aldi berri bat izan zuen. Azken datu estatistikoaren arabera Ataunek 1.660 biztanle ditu gaur egun (2. Grafikoa).




Iturria:

INE.

2. Grafikoa: Biztanleria hazkundeak. Ataun eta bere testuingurua, 2003-2022.

3.1.1.2. Adin egitura

Biztanleria hazkundeak aldaketa nabarmenak eragin ditu Ataungo adin egiturari. 2003 urtean 20-34 urteko (%22,1) eta 35-49 urteko belaunaldiak (%20,2) ziren nagusi. Ia bi hamarkada beranduago 0-19 urtekoak (%22,9) eta 35-49 urtekoak (%23,7) dira nagusi. Hau da, 2003 inguruan 20-34 urteko pertsonak udalerrian erroto dira eta adin egituraren biziberritzea eragin dute (ikus 3. Grafikoa eta 1. Taula).



Iturria:

INE.


3. Grafikoa: Piramide demografikoa. Ataun, 2003-2022.

Urtea	0-19 urte	20-34 urte	35-49 urte	50-64 urte	65-79 urte	≥80 urte	Orotara
2003	204	335	307	303	270	95	1.514
2008	282	349	352	301	244	126	1.654
2013	353	232	425	306	238	127	1.681
2018	401	165	421	303	259	120	1.669
2022	380	190	393	322	254	121	1.660

Iturria: INE.

1. Taula: Biztanleriaren bilakaera adin tartearen eta urtearen arabera. Ataun, 2003-2022.

0-19 urteko biztanleriaren tasak biztanleriaren biziberritzea argi eta garbi erakusten du. 2003 urtean haur eta nerabeen portzentajea %13,5ekoa zen, BOL eremukoa (%18,4) edota Goierrikoa baino (%17,4) ia bost eta lau puntu txikiagoa zen, hurrenez hurren. Hogei urte geroago Ataungo 0-19 urteko pertsonen tasa (%22,9) bere inguruko eremuetako ratioa baino handiagoa da (ikus 4. Grafikoa).




Iturria:

INE.

4. Grafikoa: 0-19 urteko biztanleriaren tasaren bilakaera. Ataun eta bere testuingurua, 2003-2022.

Zahartze eta gain-zahartze tasen bilakaerek ere Ataungo adin egiturak azken hamarkadetan izan duen gaztetzea erakusten dute. 2003 urtean udalerriko zahartze tasa %24,1ekoa zen; BOL eremuko, Goierriko eta Gipuzkoako portzentajeak, ordea, ez ziren %20ra iristen. Modu berean, Ataungo gain-zahartze tasa %6,7koa zen bere inguruko eremuek %4,5 gainditzen ez zuten bitartean (ikus 5. Grafikoa eta 6. Grafikoa).


2022ko azken datu estatistikoekin alderatuta Ataungo zahartze tasa %22,6ra jaitsi dela ikusi daiteke. Portzentaje hori Goierrikoarekin (%22,2) eta Gipuzkoakoarekin (%23,1) parekatu da. BOL eremuko zahartze tasa (%20,1) bakarrik dago azpitik. Udalerriko gain-zahartze tasa ere Goierriko eta Gipuzkoako portzentajearekin parekatu da: %7,0 eta %7,3aren inguruko balioak dituzte hiru eremuek. Kasu honetan ere Beasain, Ordizia eta Lazkao osatzen duten eremuak gain-zahartze tasa txikiagoa du (%6,2) (ikus 5. Grafikoa eta 6. Grafikoa).



Iturria:

INE.

5. Grafikoa: Zahartze tasaren bilakaera. Ataun eta bere testuingurua, 2003-2022.



Iturria:


INE.

6. Grafikoa: Gain-zahartze tasaren bilakaera. Ataun eta bere testuingurua, 2003-2022.

3.1.1.3. Jaiotzak eta heriotzak

Biztanleria hazkundearen eta adin egituraren gatzetzearen arrazoi nagusienetako bat 2002-2016 epealdiko jaiotza tasa altua izan zen. Urte horietan zehar Ataungo jaiotza tasa %1,5 ingurukoa izan zen; hau da, udalerrian zeuden ehun pertsonako 1,5 haur jaiotzen ziren. Ratio hori BOL eremukoa, Goierrikoa zein Gipuzkoakoa baino handiagoa izan zen. 2017tik aurrera, ordea, jaiotza tasak beherakada nabarmena izan zuen, bere inguruko eremuena baino handiagoa, eta %0,5 ingurura jaitsi zen (ikus 7. Grafikoa).


Bide berean, azpimarratu behar da udalerriko hazkunde begetatiboa (jaiotza eta heriotzen arteko diferentzia) positiboa izan zela 2003-2016 urteen bitartean: guztira 75 pertsona irabazi zituen udalerriak. Alabaina, joera hori azken urteetan aldatu egin da: 2017tik gaur egun arte jaiotzak baino 37 heriotza gehiago izan ditu Ataunek. Datu honek eragin zuzena izango du udalerriko biztanleriaren prospektiban (ikus 8. Grafikoa).



Iturria:

INE.

7. Grafikoa: Jaiotza tasaren bilakaera. Ataun eta bere testuingurua, 2002-2021.



Iturria:


Eustat..

8. Grafikoa: Hazkunde begetatiboaren bilakaera. Ataun, 2002-2021.

3.1.1.4. Biztanleriaren jatorria


Ataungo biztanleriaren jatorriaren arabera egiturak ere aldaketa nabariak izan ditu azken bi hamarkadetan. 2003 urtean Ataunen jaiotako herritarrak ziren nagusi (%73,6), Gipuzkoan jaiotakoak %21,2 ziren eta estatuan jaiotakoak, berriz, %4,4. Gainerako eremuetan jaiotako biztanleriaren presentzia oso urria zen. Urteek aurrera egin ahala egitura hori modu progresiboan aldatuz joan da: Goierriin zein estatutik kanpo jaiotako biztanleriaren ehunekoak egin du gora, batik bat, eta Ataunen bertan jaiotako herritarrenak behera. Horiek horrela, 2022 urtean Ataunen jaiotakoak %59,3a, ziren, Gipuzkoan jaiotakoak %27,7a, estatuan jaiotakoak %4,6a eta estatutik kanpo jaiotakoak %7,3a (9. Grafikoa).

Bide horretan, azken hogeitaz urteetan Ataunen estatutik kanpo jaiotako biztanleriaren tasa (%7,3) ia zazpi puntu igo bada ere, portzentaje hori ez da iristen Goierri (%11,9), Gipuzkoa (%11,6) eta bereziki BOL eremuko (%15,5) portzentajeetara (ikus 10. Grafikoa).



1.
Iturria: INE.

9. Grafikoa: Biztanleriaren banaketa jatorriaren arabera, 2003-2022.




INE.

Iturria:

10. Grafikoa: Estatutik kanpo jaiotako biztanleriaren tasa, 2003-2022.

Migrazio saldoa


Ataungo biztanleria hazkundearen beste arrazoietakoa bat 2002-2013 epealdiko migrazio saldo positiboa izan zen (udalerrira bizitzera etorritakoen eta bertatik joandakoen arteko diferentzia): urte horietan zehar udalerrriak 100 pertsona irabazi zituen. Hala ere, 2014 urtetik aurrera migrazio saldoaren joera erabat aldatu da azken urteetako balantzea negatiboa izateraino. Faktore honek udalerriko biztanleria prospektibean eragina izango du. Biztanleriaren mugimenduak atalean xehetasun gehiagorekin aztertuko dira udalerriko alta eta baje ezaugarriak (ikus 11. Grafikoa eta 12. Grafikoa).



Iturria:

INE.

11. Grafikoa: Migrazioen alta eta baje bilakaera. Ataun, 2002-2021.



Iturria:

INE.

12. Grafikoa: Migrazio saldoaren bilakaera. Ataun, 2002-2021.

3.1.2. ADIN EGITURA


Azken erroldako datuen¹² arabera Ataunek gaur egun 1.698 biztanle ditu. Piramide demografikoak udalerriko biztanleriaren adin egiturak hainbat ezaugarri bereizgarri dituela erakusten du.

Batetik, 35-49 urteko belaunaldiak (%22,3) eta horien seme-alabak diren 0-19 urteko belaunaldiak (%23,3) udalerrian presentzia nabarmenena duten adin taldeak dira.

Bestetik, 20-34 urte bitarteko gazteen kopuruari erreparatuta (%11,8) aurreko eta ondoko adin taldeak baino urriagoa dela antzeman daiteke. 90eko hamarkadako jaiotza tasaren beherakadak belaunaldi horrek gaur egun duen presentzia txikia izatea eragin du Ataunen zein bere inguruko eremuetan.

Azkenik, azpimarratu behar da zahartzaroan dauden belaunaldien portzentajea oso altua ez bada ere, hurrengo urteetan gora egingo duela 50-64 urteko biztanleriaren kopurua ere nabarmena baita (%19,8).

Nolanahi ere, agerikoa da biztanleriaren biziberritzea dagoeneko ziklo erregresibo batean sartu dela, duela bost urte belaunaldi hauen portzentajeen arteko diferentzia askoz ere handiagoa baitzen (ikus 13. Grafikoa eta 2. Taula).



Iturria:

Errolda

13. Grafikoa: Piramide demografikoa. Ataun, 2023.

Aia (81 biztanle), San Gregorio (394 biztanle) eta San Martin (1.223 biztanle) herriguneetako biztanle kopuruan alde handia dago.

San Martin herrigunearen nagusitasuna Elbarrena auzuneko (858 biztanle) eta bere inguruko (200 biztanle), biztanle kopuruaren ondorio da. Elbarrena auzuneak bakarrik udalerriko biztanleriaren %50,5a biltzen du.

San Gregorio herrigunean ere izen bera duen auzuneak edo nukleoak (251 biztanle) du biztanle kopuru handiena, baina bere eremu barreiatuan ere (117 biztanle), nagusiki nukleoaren inguruan, jende ugari bizi da.


Bestalde, Aia nukleoa (13 biztanle) osatzen duen eremua oso txikia da eta, ondorioz, bertan bizi den biztanle kopurua urria da. Aiako eremu barreiatuan (68 biztanle), ordea, nukleoan baino jende gehiago bizi da, eta aipatzekoa da hauen sakabanaketa handia (ikus 1. Taula eta 1. Irudia).

¹² Gaur egungo datuak Ataungo 2023ko udal erroldatik ustiatu dira.

Herrigunea	Auzunea	0-19 urte	20-34 urte	35-49 urte	50-64 urte	65-79 urte	>80 urte	Orotara
Aia	Aia	2	4	0	5	1	1	13
	Aia (bar.)	5	7	9	21	19	7	68
San Gregorio	Ergoiena	5	2	4	5	7	3	26
	San Gregorio	60	36	62	41	33	19	251
	San G. (bar.)	11	14	16	32	27	17	117
San Martin	Arinberriaga	6	2	4	2	4	2	20
	Arrondo	21	6	19	17	6	8	77
	Astigarraga	8	15	9	21	6	9	68
	Elbarrena	232	97	214	148	127	40	858
	San M. (bar.)	45	18	41	44	37	15	200
Ataun	-	395	201	378	336	267	121	1.698

Iturria: Errola.

2. Taula: Biztanleria adin tartearen, sexuaren eta auzunearen arabera. Ataun, 2023.



Iturria: Errola


1. Irudia: Biztanleriaren bero mapa. Ataun, 2023.

Adin egitura eremu desberdinen arabera aztertuz gero auzuneen artean adinaren arabera segregazio handia dagoela antzeman daiteke.

0-19 urteko biztanleriaren tasari dagokionez, Arinberriaga (%30,0), Elbarrena (%27,1), Arrondo (%25,3) eta San Gregorio (%23,9) auzuneek Ataungo (%23,3) portzentajea gainditzen dute.

Bestalde, Astigarraga auzunea (%11,8), San Gregorioko eremu barreiatua (%8,9) eta Aiako eremu barreiatua (%7,4) dira hogei urtetik beherako biztanlerian ehuneko txikiena dutenak.


Datu horietatik ondorioztatu daiteke nukleo populatuenetan kontzentratzen direla umeak eta nerabeak eta, aldiz, landa eremuan hauen gabezia handia dela (ikus 14. Grafikoa).



Iturria: Errolda.

14. Grafikoa: 0-19 urteko biztanleriaren tasa auzunearen arabera. Ataun, 2023.


Adineko pertsonen banaketak ere desoreka handiak ditu. Ataungo zahartze tasa (%22,9) diferentzia handiz gaintitzen dute San Gregorioko eremu barreiatuak (%39,3), Aiako barreiatuak (%38,2), Ergoienak (%32,3) edota Arinberriaga auzuneak. Bestalde, Aia (%15,4) eta Elbarrena (%19,5) auzuneak dira portzentaje txikiena dutenak. Modu berean, udalerriko gain-zahartze tasaren (%7,1) bi auzune bakarrik daude: Elbarrena (%4,6) eta San Martin barreiatua (%6,5). Gainerako auzuneetan 80 urtetik gorako pertsonen ehunekoa udalerriko balioetik gora dago: San Gregorio barreiatua (%15,2), Astigarraga (%13,2) eta Arrondo (%12,6) auzuneak dira gain-zahartze tasa handia izateagatik nabarmentzen direnak. Beraz, landa eremuan eta biztanle kopuru txikiko auzuneetan adineko pertsonen presentzia handia da eta hori bakardade arriskuaren adierazle izan daiteke. Nolanahi ere, adin egituraren azterketan kontu handiz hartu behar dira Aia, Ergoiena edota Arinberriaga auzuneetako datu erlatiboak bertako biztanle kopurua oso txikia baita (ikus 15. Grafikoa eta 16. Grafikoa).



Iturria:

Errolda.

15. Grafikoa: Zahartze tasa auzunearen arabera. Ataun, 2023.



Iturria:

Errolda.


16. Grafikoa: Gain-zahartze tasa auzunearen arabera. Ataun, 2023.

Biztanleriaren datuak sexuaren arabera aztertuta, azpimarratu behar Ataunen ez dela adin tartearen edo auzunearen arabera feminizazio egoerarik antzematen. Udalerriko biztanleriaren %48,2a emakumeak dira (818 biztanle) eta soilik Arinberriaga auzunean (%55) nagusitzen dira emakumeak (kontuan izan behar da auzune honetan 20 biztanle bakarrik bizi direla). Adin tarteari dagokionez, ordea, 65-79 urteko (%52,1) eta 80 urtetik gorako pertsonen artean (%54,5) bakarrik daude gizonak baino emakume gehiago. Azpimarratu behar da ehuneko hauek oso txikiak direla, izan ere, emakumeen bizi itxaropen handiagoaren ondorioz, zahartzaroaren feminizazioa ohikoa da (ikus 3. Taula, 17. Grafikoa eta 18. Grafikoa).

	0-19 urte		20-34 urte		35-49 urte		50-64 urte		65-79 urte		>=80 urte		Orotara	
	E.	G.	E.	G.	E.	G.	E.	G.	E.	G.	E.	G.	E.	G.
Aia	1	1	2	2	0	0	1	4	0	1	0	1	4	9
Aia (bar.)	4	1	3	4	3	6	7	14	6	13	4	3	27	41
Ergoiena	1	4	1	1	2	2	3	2	3	4	2	1	12	14
San G.	28	32	20	16	34	28	18	23	20	13	9	10	129	122
San G. (bar.)	5	6	8	6	7	9	16	16	12	15	6	11	54	63
Arinberriaga	3	3	1	1	2	2	2	0	2	2	1	1	11	9
Arrondo	14	7	2	4	8	11	7	10	3	3	5	3	39	38
Astigarraga	5	3	5	10	4	5	10	11	2	4	6	3	32	36
Elbarrena	102	130	43	54	106	108	72	76	69	58	24	16	416	442
San M. (bar.)	20	25	5	13	19	22	19	25	22	15	9	6	94	106
Ataun	183	212	90	111	185	193	155	181	139	128	66	55	818	880


Iturria: Errolda.

3. Taula: Biztanleria adin tartearen, sexuaren eta auzunearen arabera Ataun, 2023.



Iturria: Errola.

17. Grafikoa: Emakumeen ehunekoa auzunearen arabera. Ataun, 2023.



Iturria: Errola.

18. Grafikoa: Emakumeen ehunekoa adin tartearen arabera. Ataun, 2023.

3.1.3. BIZTANLERIAREN JATORRIA

Ataungo bizilagunen %57,6a (978 biztanle) udalerrian bertan jaio da. Gainontzeko Gipuzkoako herrietan jaiotakoen ehunekoa (%27,6) ere altua da eta horietatik %53,8 goierritarrek (252 biztanle) eta % 22,0a donostiarrek (103 biztanle) dira. Aipatu behar da goierritarren artean beasaindarrek (83 biztanle), lazkaotarrek (53 biztanle) eta ordiziarrek (32 biztanle) osatzen dutela gehiengoa eta, eskualdetik kanpo, Tolosan jaiotakoen kopurua (29 biztanle) esanguratsua dela. Gainerako Gipuzkoako udalerrietan jaiotako herritarren kopuruak ez dira esanguratsuak. Halaber, Hego Euskal Herrian jaiotako pertsonak %3,1a bakarrik dira: Nafarroan 33 pertsona, Bizkaian 15 eta Araban 4 (ikus 4. Taula).

Bestalde, estatutik kanpo jaiotako biztanleriaren tasak gora egin du azken urteetan: azken erroldako datuen arabera %9,1a da. Herritar horien jatorri nagusiak Europa (43 biztanle), Ipar Afrika (37 biztanle), Hego Amerika (35 biztanle) eta Ertain Amerika (25 biztanle). Europarren artean errumaniarrak (22 biztanle) eta moldaviarrak (9 biztanle) nabarmentzen dira, batik bat. Ipar Afrikan jaiotakoen artean, ordea, marokoarrak (30 biztanle) dira gehiengo nagusia. Hego Amerikarren artean bi jatorri aipagarri daude: Argentina (11 biztanle) eta Ekuador (11 biztanle). Baita Ertain Amerikan ere: Honduras (10 biztanle) eta Nikaragua (7 biztanle) (ikus 5. Taula eta 6. Taula).

Herrigunea	Auzunea	Ataun	Gipuzkoa	Hego EH	Estatua	Estatutik at	Orotara
Aia	Aia	8	5	0	0	0	13
	Aia (bar.)	46	14	2	2	4	68
San Gregorio	Ergoiena	19	5	1	0	1	26
	San Gregorio	143	58	8	5	37	251
	San Gregorio (bar.)	76	29	3	2	7	117
San Martin	Arinberriaga	13	5	0	0	2	20
	Arrondo	39	24	3	6	5	77
	Astigarraga	31	21	5	4	7	68
	Elbarrena	492	242	22	25	77	858
	San Martin (bar.)	111	65	8	2	14	200
Ataun	-	978	468	52	46	154	1.698

Iturria: Errolda.

- 4. Taula:
Biztanleria jatorriaren eta auzunearen arabera. Ataun, 2023.

Atzeritarrak bi adin tarte nagusitan banatzen dira: 20-34 urte (%31,2) eta 35-49 urte (%34,4). Patroi hori, gainera, aztertu diren jatorri guztietan errepikatzen da. Genero ikuspegitik, ordea, gizonezkoak (%55,8) dira pertsona immigranteen gehiengoa. Bide horretan, Ertain Amerikan jaiotako biztanleen artean izan ezik gizonezkoak gehien dira talde guztietan (Ipar Amerikako kasua ez da adierazgarria pertsona kopurua txikia delako). Ertain Amerikan jaiotako biztanleen artean %68,0a emakumeak dira. Kolektibo honen feminizazioa azpimarragarria da, eta baliteke udalerriko eta inguruko herrietako zaintza lanen aukerak erakarri izana (ikus 5. Taula eta 6. Taula).

Jatorria	0-19 urte	20-34 urte	35-49 urte	50-64 urte	65-79 urte	>=80 urte	Orotara
Europa	6	12	12	9	4	0	43
Ipar Afrika	2	14	11	5	4	1	37
Gainerako Afrika	0	1	1	0	0	0	2
Ipar Amerika	1	0	2	0	0	0	3
Ertain Amerika	5	6	11	3	0	0	25
Hego Amerika	2	12	12	6	1	2	35
Asia	1	4	4	0	0	0	9
Orotara	17	49	53	23	9	3	154


Iturria: Errolda.

5. Taula: Estatutik kanpo jaiotako biztanleria jaiolekuaren eta adin tartearen arabera. Ataun, 2023.

Jatorria	Emakumeak	Gizonak	Orotara
Europa	15	28	43
Ipar Afrika	15	22	37
Gainerako Afrika	0	2	2
Ipar Amerika	2	1	3
Ertain Amerika	17	8	25
Hego Amerika	17	18	35
Asia	2	7	9
Orotara	68	86	154

Iturria: Errolda.


6. Taula: Estatutik kanpo jaiotako biztanleria jaiolekuaren eta sexuaren arabera. Ataun, 2023.



Iturria: Errolda.


19. Grafikoa: Estatutik kanpo jaiotako biztanleriaren emakumeen ehunekoa jaiolekuaren arabera. Ataun, 2023.

Estatutik kanpo jaiotako herritarren gehiengoak Elbarrena (77 biztanle) eta San Gregorio (37 biztanle) auzuneetan bizi da. Joera hau bat dator biztanleriaren kontzentrazio patroiekin, baina San Gregorioko estatutik kanpo jaiotako biztanleriaren tasa (%14,7) udalerrikoa baino 5,6 puntu handiagoa da; aintzat hartu beharreko datua. Nolanahi ere, estatutik kanpo jaiotako biztanleria udalerriko bi nukleo nagusietan kontzentratzen da argi eta garbi (ikus 4. Taula, 20. Grafikoa eta 2. Irudia).



Iturria: Errolda.

20. Grafikoa: Estatutik kanpo jaiotako biztanleriaren tasa auzoaren arabera. Ataun, 2023.



Errolda.

Iturria:

2. Irudia: Estatutik kanpo jaiotako biztanleriaren bero mapa. Ataun, 2023.

3.1.4. BIZTANLERIAREN MUGIMENDUAK


3.1.4.1. Kanpo mugimenduak

Ataungo Udaleko datu zehatzen arabera, udalerrian 2010-2022 epealdian 891 pertsonen eman dute alta. Adin tarteari dagokionez, %35,5a 20-34 urte bitarteko pertsonak dira (316 pertsona) eta %22,2a, berriz, 35-49 urte bitartekoak (198 pertsona). Nagusiki, emantzipazio zein bizi proiektu egonkor bat ezartzeko adinarekin iritsi da biztanleria berria udalerrira.

Bestalde, sexuari dagokionez, udalerriko alta datuetan gizonezkoak %46,0a dira eta emakumeak, berriz, %42,5a. Gizonezkoak gehiengo izan badira ere, ez da fenomeno bereziki maskulinizatu bat. Kontu egin behar da ezin izan dela alden %11,4aren inongo ezaugarriak identifikatu; izan ere, pertsona hauek urte berean eman dute alta eta baja eta, ondorioz, ez dira azken urteetako erroldetan ageri (ikus 21. Grafikoa eta 22. Grafikoa).

Udalerrian alta izan direnen jaiotzekuari dagokionez, azpimarratu behar da %36,1a estatutik kanpo jaio dela. Zehatzago esanda, amerikarrak (%13,4), europarrak (%9,9) eta afrikarrak (%9,4) dira gehiengo eta jaiotza herrialde nagusiak bat datoz biztanleriaren jatorria atalean zehaztu diren herrialde nagusiekin.


Bestalde, Gipuzkoan jaiotakoak %15,7a dira eta Goierriin jaiotakoak, berriz, %15,4. Goierriren kasuan, BOL eremutik bereganatu dira pertsona gehien: Beasain (35 pertsona), Ordizia (15 pertsona) eta Lazkao (37 pertsona). Aintzat hartu behar da gainera urte hauetan zehar 86 ataundar udalerrira bizitzera itzuli direla (ikus 23. Grafikoa).



Iturria:

Errolda.


21. Grafikoa: Biztanleriaren altak adin tartearen arabera. Ataun, 2010-2022.



Iturria:

Errolda.

22. Grafikoa: Biztanleriaren altak sexuaren arabera. Ataun, 2010-2022.



Iturria:

Errolda.


23. Grafikoa: Biztanleriaren altak jaiolekuaren arabera. Ataun, 2010-2022.

Udalerriko erroldan egon diren baja guztiak 852 izan dira. Adin tartearen arabera 20-34 urteko (259 pertsona) eta 35-49 urteko (211 pertsona) belaunaldiak dira Ataunen baja gehien eragin dituzten adin multzoak. Datu horiek berresten dute bi adin tarte horietan gauzatzen direla bizilekuari lotutako mugikortasun gehienak.

Sexuari dagokionez, %40,7 emakumeak dira eta %46,3, berriz, gizonak. Generoaren arabera diferentzia handiagoa da udalerriko bajetan altetan baino. Kasu honetan ere ezin izan dira udalerrian baja izan diren pertsonen %12,9aren ezaugarriak zehaztu (ikus 24. Grafikoa eta 25. Grafikoa).

Ataun utzi duten pertsonen jaiolekua, bertara etorri direnarekin alderatzen bada, ezberdintasun handiak antzematen dira. Kasu honetan, ataundarrak dira (%23,8a) udalerria utzi duten pertsonen gehiengoa eta horien segidan datoz goierritarrak (%13,9) eta gainontzeko gipuzkoarrak (%13,6).


Gainerako jaiolekuen artean amerikarrak (hego eta ertain amerikarrak) (83 pertsona) eta europarrak (72 pertsona) dira bajen ehuneko esanguratsu bat. Datu horiek erakusten dute bi kolektibo horien artean udalerrian modu ez egonkor batean ezartzeko joera handiagoa dela (ikus 26. Grafikoa).



Iturria:

Errolda.


24. Grafikoa: Biztanleriaren baja adin tartearen arabera. Ataun, 2010-2022.



Iturria:

Errolda.

25. Grafikoa: Biztanleriaren bajak sexuaren arabera. Ataun, 2010-2022.



Iturria:

Errola.

26. Grafikoa: Biztanleriaren bajak jaiolekuaren arabera. Ataun, 2010-2022.

Ataungo kanpo mugimenduak (alta eta baja) nondik eta nora joan diren ere aztertu da: interakzio gehienak Goierriarekin (330 alta eta 399 baja), Gipuzkoarekin (229 alta eta 226 baja) eta estatuekin (105 alta eta 57 baja) izan dira.

Hala ere, migrazio saldoan balantze positibo handiena eragin duten eremuak estatua (48 pertsona), Amerika (34 pertsona) eta Europa (28 pertsona) izan dira.

Oso esanguratsua da migrazio saldo positibo handiena estatuekin izana; izan ere, alta eta baje azterketan ikusi da estatuan jaioetako pertsonen kopurua ez dela esanguratsua.


Datu horrek adierazten du Ataunera iritsi diren pertsona asko lehenago estatuko beste lurralde batean erroldatuak egon direla, nahiz eta estatutik kanpo jaio.

Bestalde, Ataunek migrazio saldo negatiboa (69 pertsona) Goierriarekin bakarrik duela konprobatu da; hau da, gehiago dira Ataundik Goierriara bizitzera joan diren pertsonak Goierritik Ataunera etorri direnak baino. Galera nagusia BOL eremuarekin izan da, Lazkaorekin, bereziki. Gipuzkoarekin migrazio saldoa hutsala da (ikus 7. Taula eta 3. Irudia).

Eremua	Altak	Bajak	Saldoa
Afrika	8	1	7
Amerika	45	11	34
Asia	3	1	2
Estatua	105	57	48
Europa	38	10	28
Gipuzkoa	229	226	3
Goierri	330	399	-69
Hego Euskal Herria	92	80	12
Orotara	850	785	65

Iturria: Errola.

7. Taula: Biztanleriaren kanpo mugimenduen migrazio saldoa eremuaren arabera. Ataun, 2010-2022.



Errolda.

Iturria:

3. Irudia: Kanpo mugimenduen fluxua. Ataun, 2010-2022.


Azaldu diren datuetan ondorengo fenomenoak ere identifikatu da: 2010-2022 epealdian egon diren alden %12a (110 pertsona inguru) udalerrian urte bat baino gutxiago egon dira erroldatuta. Kasu horiek (arrazoi askoren ondorio izan daitezke) aldi baterako migrazioaren adierazgarri dira, gero eta fenomeno zabaldugoa.

Barne mugimenduak

Azken urteotako errolden konparaketatik udalerri barruan egon diren barne mugimenduak aztertu dira, guztira 372 pertsonen bizileku aldaketa izan dira. Kanpo mugimenduekin alderatuta pertsona horien ezaugarriak desberdinak direla ikusi daitezke. Ataun barruan mugitu diren pertsonen %28,0 35-49 urte bitarteko pertsonak dira eta %29,0, ordea, 0-19 urte bitartekoa. Datu horiek harreman zuzena dute eta bizileku aldatu diren pertsonen gehiengoak seme-alabak dituzten bizikidetzak unitateak osatzen dituzte. Sexuari dagokionez ez dago desorekarik: %49,5 emakumeak dira eta %50,5 gizonak (ikus 27. Grafikoa eta 28. Grafikoa).


Beste desberdintasun nagusi bat udalerri barruan mugitu diren pertsonen jaiotekua da: pertsonen %61,6a Ataunen bertan jaio dira. Barne mugimenduek, beraz, izaera oso endogenoa dute. Aztertu diren gainerako jaiotekuen artean ez dago ehuneko esanguratsurik duen eremurik (ikus

29. Grafikoa).




Iturria: Errolda.

27. Grafikoa: Biztanleriaren barne mugimenduak adin tartearen arabera. Ataun, 2010-2022.



Iturria: Errolda.

28. Grafikoa: Biztanleriaren barne mugimenduak sexuaren arabera. Ataun, 2010-2022.



Iturria:

Errolda.

29. Grafikoa: Biztanleriaren barne mugimenduak jaiolekuaren arabera. Ataun, 2010-2022.

Barne mugimenduek auzune desberdinen artean eragin duten interakzioari dagokionez, azpimarratu behar da San Martin herriguneko Elbarrena (26 pertsona) eta Arrondo (10 pertsona) direla Ataungo biztanleria bereganatzeko gaitasuna duten eremuak. Kontrako kasua bizi dute San Gregorio eta Aia herriguneei: San Gregorioko eremu barreiatuak (18 pertsona), Aiako eremu barreiatuak (15 pertsona) eta San Gregorio auzuneak berak (9 pertsona) galdu dute biztanle gehien (ikus 8. Taula, 9. Taula eta 4. Irudia).

Helburua												
		Aia		San Gregorio			San Martin					Orotara
		Aia	Aia (bar.)	Ergo.	San Greg.	S. G. (bar.)	Arin.	Arron.	Astig.	Elbar.	S. M. (bar.)	-
Jatorria	Aia	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
	Aia (bar.)	6	1	0	2	0	0	0	0	11	1	21
	Ergo.	0	0	0	0	0	0	1	0	3	0	4
	San Greg.	0	1	0	25	1	2	4	0	33	23	89
	S. G. (bar.)	0	0	0	15	20	0	2	0	3	0	40
	Arin.	0	0	0	0	0	0	1	0	0	0	1
	Arron.	0	0	0	0	1	0	1	0	1	2	5
	Astig.	0	0	1	2	0	0	0	3	5	0	11
	Elbar.	0	4	2	21	0	1	4	0	114	15	161
	S. M. (bar.)	0	0	0	15	0	0	2	4	17	2	40
	Guztira	6	6	3	80	22	3	15	7	187	43	372


Iturria: Errolda.

8. Taula: Biztanleriaren barne mugimenduak auzunearen arabera. Ataun, 2010-2022.

Herrigunea	Auzunea	Altak (Helburua)	Bajak (jatorria)	Migrazio saldoa
Aia	Aia	6	0	6
	Aia (bar.)	6	21	-15
San Gregorio	Ergoiena	3	4	-1
	San Gregorio	80	89	-9
	San Gregorio (bar.)	22	40	-18
San Martin	Arinberriaga	3	1	2
	Arrondo	15	5	10
	Astigarraga	7	11	-4
	Elbarrena	187	161	26
	San Martin (bar.)	43	40	3

Iturria: Errola.

9. Taula: Biztanleriaren barne mugimenduen migrazio saldoa auzuneen arabera. Ataun, 2010-2022.



Errola.

Iturria:

4. Irudia: Barne mugimenduen fluxua. Ataun, 2010-2022.


3.1.5. PROSPEKTIBA

Azken urteetako datuak aintzat hartuta hurrengo 15 urteetarako Ataungo biztanleriaren prospektiba egin da. Prospektiba egiteko hainbat agertoki desberdin landu dira:

- Prospektiba estandarra: azken urteetako migrazio saldoaren ratioa baliatu da.
- Prospektiba naturala: migrazio saldoa nulua baliatu da.
- Prospektiba positiboa: migrazio saldo positiboa baliatu da.
- Prospektiba negatiboa: migrazio saldo negatiboa baliatu da.

Eszenatoki hauetatik ateratzen den ondorio nagusiak bi dira: batetik, azken urteetako migrazio saldoa ia nulua izan da eta, ondorioz, prospektiba estandarrek eta prospektiba naturalak joera bera erakusten dute. Bestetik, jaiotza tasa txikiaren ondorioz hazkunde begetatiboa negatiboa izango da (jaiotza baino hildako gehiago) eta Ataun urtez urte biztanleria galtzen joango da. Hurrengo urteetan udalerriko baja kopuruak alena gaitutuko balu biztanleriaren galera areagotuko litzateke. Migrazio saldo positibo batek bakarrik lortu dezake biztanle kopurua mantentzea edo handitzea (ikus 30. Grafikoa).

Prospektiba estandarri erreparatuta, Ataunek 2038 urterako biztanleriaren %4,4 galduko duela aurreikusten da eta biztanle kopurua 1.580 inguru izango da. Bi faktore nagusik eragingo dute biztanle galera hau: hazkunde begetatibo negatiboak, batetik, eta migrazio saldo ia nuluak, bestetik (ikus 30. Grafikoa).




Iturria:

Errola eta INE. Ekoizpen propioa.

30. Grafikoa: Biztanleria prospektiba. Ataun, 2003-2038.

Biztanleriaren galerarekin batera Ataungo biztanleriaren adin egitura zahartzen joango da. 2038 urterako udalerriko belaunaldi nagusiak 20-34 urteko (%24,8) eta 50-64 urteko (%22,3) pertsonak izango dira. Beste aldaketa estruktural bat zahartze tasaren (%27,8) igoera izango da: 15 urte barru zahartze tasak bost puntu egingon ditu gora eta udalerrian 440 adineko pertsona egongo dira; horietatik 150 pertsona inguruk, gainera, 80 urte baino gehiago izango ditu. Kontrako joera izango du 0-19 urteko biztanleriaren tasak: gaur egun %23,3a izatetik 2038 urtean %12,4 izatea espero baita (ikus 10. Taula, 31. Grafikoa, 32. Grafikoa, 33. Grafikoa eta 34. Grafikoa).

Horiek horrela, Ataunek etorkizun hurbilean biztanleriaren zahartzeak eragindako erronkei aurre egin beharko die ezinbestean. Bide horretan, udalerriko demografia biziberritzeari begira etorkizuneko 20-34 urteko belaunaldiaren errotzea estrategikoa izango da. Izan ere, pertsona horiek Ataunen bizitzen geldituz gero presentzia handia izango duen belaunaldia izango da eta 2038tik aurrera jaiotza tasaren igoera eragin dezakete.



Iturria:


Errola eta INE. Ekoizpen propioa.

31. Grafikoa: Biztanleria piramidearen prospektiba. Ataun, 2023-2038.

Urtea	0-19 urte	20-34 urte	35-49 urte	50-64 urte	65-79 urte	≥80 urte	Orotara
2023	395	201	378	337	266	121	1.698
2028	324	288	252	402	270	128	1.664
2033	244	352	202	405	274	143	1.620
2038	196	392	199	353	291	149	1.580

Iturria: Errola eta INE. Ekoizpen propioa.


10. Taula: Biztanleriaren prospektiba adin tartearen eta urtearen arabera. Ataun, 2022-2038.



Iturria:

Errola eta INE. Ekoizpen propioa.


32. Grafikoa: 0-19 urteko biztanleria tasaren prospektiba. Ataun, 2003-2038.



Iturria:

Errolda eta INE. Ekoizpen propioa.


33. Grafikoa: Zahartze tasaren prospektiba. Ataun, 2003-2038.



Iturria: Errolda eta INE. Ekoizpen propioa.

34. Grafikoa: Gain-zahartze tasaren prospektiba. Ataun, 2003-2038.

Ataungo biztanleria galeraren aurreikuspenak kontra egiten du BOL eremuan espero den biztanleria hazkundearekin. Hurrengo 15 urteetan BOL eremuan biztanle kopuruak %6,3 gora egingo duela estimatu da; hau da, ia 2.000 pertsona gehiago. Igoera honen arrazoia Lazkaoren eta Ordiziaren biztanleria hazkundea izango da Beasainek, azken urteetako jaiotza tasaren eta migrazio saldoaren baitan, biztanle gutxi batzuk galduko baititu. Testuinguru horretan Ataunek BOL eremuaren erakarpen indarragatik biztanleria galera areagotuko duen edo honen hazkundeaz baliatuko den ikusi beharko da (ikus 35. Grafikoa).



Iturria:


Errolda eta INE. Ekoizpen propioa.

35. Grafikoa: Biztanleria prospektiba. Ataun eta bere testuingurua, 2003-2038.

3.2 BIZIKIDETZA-UNITATEAK

3.2.1. BILAKAERA

Bizikidetza-unitateen bilakaerak hazkunde nabarmena izan du 2001-2023 urteen artean (%20,7): 542 bizikidetza-unitate izatetik 654 bizikidetza-unitate izatera igaro da. Igoera horren arrazoia biztanleria hazkundera, batetik, eta bizikidetza-unitateetan batz besteko tamainaren jaitsiera izan da. Bizikidetza-unitateen igoera horrek etxebizitza parkearen gaineko presioa eragin du ezinbestean (ikus 36. Grafikoa).



Iturria:

INE.

36. Grafikoa: Bizikidetza-unitateen bilakaera. Ataun, 2001-2023.


3.2.2. EZAUGARRIAK

Biztanleriaren kokapen patroia bera jarraituz, 654 bizikidetza-unitateetatik gehienak Elbarrena auzunean (331 bizikidetza-unitate) eta San Gregorio auzunean (98 bizikidetza-unitate) kokatzen dira. Bizikidetza-unitateen kide kopuruari dagokionez tamaina txikikoak nagusitzen dira: kide bakarrez osatutakoa %28,6 (187 bizikidetza-unitate) eta bi kidez osatutakoak, berriz, %26,6 (174 bizikidetza-unitate). Aintzat hartu behar da zahartze tasa handienak dauden auzuneetan tamaina txikiko bizikidetza-unitateen ehunekoak handiagoak direla: horren adibide dira San Gregorioko auzune barreiatua eta Aiako auzune barreiatua. Bakardade ez desiratu egoerak adineko pertsonen artean areagotu ohi dira (ikus 11. Taula eta 37. Grafikoa).

Herrigunea	Auzunea	1 kide	2 kide	3 kide	4 kide	5 kide	≥6 kide	Orotara
Aia	Aia	1	2	1	0	1	0	5
	Aia (bar.)	11	5	4	5	3	0	28
San Gregorio	Ergoienea	5	4	0	2	1	0	12
	S. Gregorio	28	26	13	26	3	2	98
	S.G. (bar.)	19	14	8	4	3	2	50
San Martin	Arinberriaga	1	2	0	1	1	1	6
	Arrondo	9	7	6	5	2	1	30
	Astigarraga	7	10	3	5	0	2	27
	Elbarrena	91	83	58	64	30	3	329
	S.M. (bar.)	15	21	14	10	3	6	69
Ataun	-	187	174	107	122	47	17	654


Iturria: Errolda.

11. Taula: Bizikidetza-unitateak tamainaren eta auzunearen arabera. Ataun, 2023.



Iturria: Errola.

37. Grafikoa: Bizikidetza-unitateak tamainaren eta auzunearen arabera. Ataun, 2023.



Iturria:

Errola.

38. Grafikoa: Bizikidetza-unitateen batz besteko tamaina auzunearen arabera. Ataun, 2023.

Bizikidetza-unitateak adinaren arabera aztertuz gero, haur eta nerabeak dituzten bizikidetza-unitateak (219 bizikidetza-unitate) dira gehiengoa. Ez da datu arraroa gaur egungo biztanleriaren adin egituran 0-19 urteko belaunaldia nagusitzen dela aintzat hartuta.


Bestalde, gazteek bakarrik osatutako bizikidetza-unitateen (20-34 urte) kopurua oso txikia da: 24 bakarrik udalerrri osoan. Hainbat gaztek seme-alabak izanagatik haur eta nerabedunen bizikidetza-unitate bezala sailkatu badira ere, emantzipatutako gazteen kopurua oso txikia da. Bi dira arrazoiak: gaur egungo gazteen kopuru txikia, batetik, eta talde honek etxebizitza eskuratzeko duen zailtasuna, bestetik.

Adinaren arabera gainerako tipologiak oso parekatuta daude kopuruari dagokionez: helduen 129 bizikidetza-unitate (35-59 urteko pertsonen bakarrik osatutako bizikidetza-unitateak), adinekoen 144 bizikidetza-unitate (65 urtetik gorako pertsonen bakarrik osatutako bizikidetza-unitateak) eta gainerako 138 bizikidetza-unitate (gazteak, helduek edota adineko pertsonal ekar nahastuz osatutako bizikidetza-unitateak) (ikus 12. Taula eta 39. Grafikoa).

Herrigunea	Auzunea	Haur eta nerabedunak	Gazteak	Helduak	Adinekoak	Gainerakoak	Orotara
Aia	Aia	2	0	0	1	2	5
	Aia (bar.)	4	0	9	4	11	28
San Gregorio	Ergoiena	2	0	1	5	4	12
	S. Gregorio	37	3	20	22	16	98
	S.G. (bar.)	7	1	11	16	15	50
San Martin	Arinberriaga	3	0	0	2	1	6
	Arrondo	10	1	8	5	6	30
	Astigarraga	6	2	6	4	9	27
	Elbarrena	124	15	63	73	54	329
	S.M. (bar.)	24	2	11	12	20	69
Ataun	-	219	24	129	144	138	654

Iturria: Errola.

12. Taula: Bizikidetza-unitateak adinaren eta auzunearen arabera. Ataun, 2023.



Iturria: Errola.


39. Grafikoa: Bizikidetza-unitateak adinaren eta auzunearen arabera. Ataun, 2023.

Azkenik, bizikidetza-unitateak osatzen duten pertsonen jaiolekuaren arabera aztertuta, bizikidetza-unitateen %86,9a estatuan jaiotako pertsonen bakarrik osatuta dago. Ataunen 28 bizikidetza-unitate bakarrik daude atzerriko pertsonen soilik osatuta eta beste 58 bizikidetza-unitatek gutxienez atzerriko pertsona bat dute bertan errolatuta. Bi kasu hauetan, bizikidetza-unitateen gehiengo Elbarrena auzunean eta San Gregorio auzunean daude.

Herrigunea	Auzunea	Estatuan jaiotakoak	Mistoa	Atzerriarrak	Orotara
Aia	Aia	5	0	0	5
	Aia (bar.)	24	4	0	28
San Martin	Ergoiena	11	1	0	12
	S. Gregorio	79	11	8	98
	S.G. (bar.)	45	4	1	50
San Martin	Arinberriaga	4	2	0	6
	Arrondo	26	4	0	30
	Astigarraga	23	4	0	27
	Elbarrena	292	21	16	329
	S.M. (bar.)	59	7	3	69
Ataun	-	568	58	28	654

Iturria: Errola.

13. Taula: Bizikidetza-unitateak jaiolekuaren eta auzunearen arabera. Ataun, 2023.



Iturria:

Errola.

40. Grafikoa: Bizikidetza-unitateak jaiolekuaren eta auzunearen arabera. Ataun, 2023.

3.2.3. BIZIKIDETZA UNITATE ZAURGARRIAK

Bizikidetza-unitateen tamaina xehetasunez aztertuta tamaina oso handia duten kasu gutxi batzuk identifikatu dira: bi bizikidetza-unitate hamar pertsonen osatuta daude, beste bi bederatzi pertsonen eta beste batetan zortzi pertsona daude etxebizitza berean errolatuta. Ezaugarri hau duten bizikidetza-unitateek sakabanaketa espazial handia dute: Elbarrenan bat, San Gregorioko barreiatuan beste bat eta gainerako hiruak San Martineko eremu barreiatuko puntu desberdinetan aurkitzen dira. Jaiolekuaren arabera tipologiari dagokionez bizikidetza-unitate bakarra dago atzerriko pertsonen bakarrak osatuta; gainerako bizikidetza-unitateak estatuan jaiotako pertsonen osatzen dute. Nolanahi ere, etxebizitzan pertsona kopuru asko errolatuta egotea ez da pilaketa egoeraren adierazgarri.

Bizikidetza-unitateen tamaina etxebizitzaren azalerarekin gurutzatuz gero (ikus etxebizitza parkearen atala) pilaketa egoerak identifikatu daitezke: Ataungo 15 bizikidetza-unitatetan (%2,3) pertsonako duten azalera 15m² baino gutxiago da. Bi egoera antzeman daitezke bertan: tamaina tradizionalako familiak (3-4 kide) etxebizitza txikietan (≤50m²), batetik, eta tamaina handiko familiak (6 kide) tamaina estandarreko etxebizitzetan (75-100m²), bestetik.

Azpimarratu behar da egoera honetan atzerrian jaiotako sei bizikidetz-unitate daudela eta gainerakoak estatuan jaiotako bizikidetz-unitateak direla (ikus 14. Taula).

Bizikidetz-unitateak	≤50m ²	50-75m ²	75-100m ²	100-125m ²	125-150m ²	>150m ²	Orotara
2 kide	1	0	0	0	0	0	1
3 kide	4	0	0	0	0	0	4
4 kide	2	0	0	0	0	0	2
5 kide	0	3	0	0	0	0	3
6 kide	0	1	4	0	0	0	5
Orotara	7	4	4	0	0	0	15

Iturria: Errolda.


14. Taula: Pilaketa egoeran dauden bizikidetz-unitateak kide kopuruaren eta azaleraren arabera. Ataun, 2023.

Bestalde, jatorriaren arabera segregazio espazialik dagoen identifikatzeko bizikidetz-unitateetan kale mailako azterketa egin da. Kasu honetan, ez da atzeritarrez bakarrik osatutako edo mistoak diren bizikidetz-unitate mota hauen kontzentrazio berezirik antzeman: Elbarrena auzoko hego-ekialdean, Agauntza errearen ezkerrean, esaterako, 15 bizikidetz-unitate biltzen dira, baina bertako bizikidetz-unitateen %12a besterik ez dira, udalerrri osoko proportzioa baino txikiagoa.

Azkenik, azpimarratu behar da ez estatutik kanpo jaiotako pertsonen etxebizitzetan ez eta pilaketa egoera bizi duten pertsonen kasuan ez dela etxebizitzaren antzinasunaren arabera patroia deigarrikerik antzeman. Etxebizitzaren antzinasunaren banaketa auzuneen etxebizitza parkearen ezaugarriek baldintzatzen dute (ikus 13. Taula eta 40. Grafikoa).

3.2.4. PROSPEKTIBA

Bizikidetz-unitateen prospektibaren arabera hurrengo urteetan kopuruak behera egitea espero da. Jaitsiera hori (10 bizikidetz-unitate gutxiago), ordea, ez da handia izango eta 2038 urtean Ataunen 643 bizikidetz-unitate inguru egongo dira. Biztanle kopuruak behera egingo duela aurreikusten bada ere, bizikidetz-unitateen batz beteko tamaina gero eta txikiagoa izango da eta, horrek, kopurua nahiko egonkorra izatea ahalbidetuko du. Bizikidetz-unitateen batz besteko tamaina gaur egun 2,6 pertsonakoa izatetik 15 urte barru 2,4 inguruko izatera igaroko da. Beraz, aurreikuspenak bere horretan mantendu gero etxebizitza parkeak ez du presio gehigarrikerik jasango (ikus 41. Grafikoa eta 15. Taula).



Iturria: Errolda eta INE. Ekoizpen propioa.

41. Grafikoa: Bizikidetz-unitatearen hazkundearen prospektiba. Ataun, 2001-2038.

Urtea	1 kide	2 kide	3 kide	4 kide	5 kide	≥6 kide	Orotara
2023	187	174	107	122	47	17	654
2028	190	181	107	115	42	18	653
2033	192	196	105	102	36	17	648
2038	192	208	100	94	33	16	643

Iturria: Errola eta INE. Ekoizpen propioa.


15. Taula: Bizikidetzaren unitateen prospektiba tamainaren arabera. Ataun, 2023-2038.

3.3 GIZARTE KOHESIOA

3.3.1. ERREALITATE SOZIOKULTURALA

3.3.1.1. Herritarren formazioa

Ataungo herritarren formazio mailak gora egin du azken urteetan. 2010-2021 urteen bitartean lehen mailako ikasketak zituen biztanleen ehunekoa %49,9tik %34,3ra jaitsi da. Lanbide heziketak ikasketak dituzten ehunekoak (%22,5) ia bost puntu egin ditu gora, bigarren mailako ikasketena (%19,3) 3,6 puntu igo da eta goi-mailako ikasketen portzentajeak ere (%16,0). Erdi-mailako ikasketen ratioa (%7,25) ia bere horretan mantendu da. Udalerriko formakuntza mailak Goierriko izaera bera du; Gipuzkoan, ordea, goi-mailako tituludunen ehunekoa altuagoa da (%19,5) eta lehen mailako formazioa dutenena (%29,1) baxuagoa. Datu hauen atzean eskualdeak duen lan-merkatuaren eragina nabari da: industrian lan egiteko ingeniariaren eta lanpostu teknikoaren profilak indarra hartu du (42. Grafikoa).




Iturria: Eustat.

42. Grafikoa: Eskolatzeko mailaren bilakaera. Ataun eta bere testuingurua, 2010-2021.

3.3.1.2. Euskararen presentzia


Ataun Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko (UEMA) kidea da eta bere biztanleen euskara ezagutzaren maila dela-eta, ia Goierriko udalerri gehienak bezalaxe, euskararen arnasmune bezala identifikatuta dago. Azken urteetan eremu euskaldunetatik kanpoko migrazioaren ondorioz biztanleria euskaldunaren tasak behera egin badu ere, 2021eko datuen arabera bere balioa %87,7koa zen, Goierrikoa (%64,0) eta Gipuzkoakoa (%57,5) baino 23,7 eta 30,2 puntu handiagoa, hurrenez hurren (ikus 43. Grafikoa).



Iturria: Eustat.

43. Grafikoa: Euskara mailaren bilakaera. Ataun eta bere testuingurua, 2001-2021.


Lehen hizkuntzari edo ama hizkuntzari dagokionez, ataundarren ama hizkuntza nagusia euskara da (%74,2) eta portzentaje txiki batek euskaraz zein gaztelera jaso ditu txikitatik (%4,5). Euskara ama hizkuntzatzat zutenen ehunekoak behera egin du azken urteetan eremu ez euskaldunetatik etorritako biztanleengatik, bereziki. Horiek horrela, lehen hizkuntza gaztelania (%17,0) edo beste hizkuntza bat izan dutenen tasak (%4,4) gero eta presentzia handiagoa du (ikus 44. Grafikoa).




Iturria: Eustat.

44. Grafikoa: Lehen hizkuntzaren bilakaera. Ataun eta bere testuingurua, 2001-2021.

Etxeko hizkuntza erabilera datuak ama hizkuntzaren parekoak dira: udalerriko %66,0aren etxeko hizkuntza euskara da eta %10,5ak euskaraz zein gaztelera egiten du. Eskualde mailan etxeko hizkuntza euskara bakarrik duten ehunekoa ez da %31ra iristen eta Gipuzkoan %25,1a da (ikus 45. Grafikoa).





Iturria: Eustat.

45. Grafikoa: Etxeko hizkuntzaren bilakaera. Ataun eta bere testuingurua, 2001-2021.

Euskararen nagusitasuna ez da soilik etxe barruko kontua. Soziolinguistika Klusterraren azken hizkuntzen erabileraren kale neurketaren arabera Ataungo elkarrizketen %93,1 euskaraz dira, %6,6a gazteleraz eta gainerako hizkuntzen presentzia oso txikia da (%0,3). Kale neurketaren ibilbidea Elbarrena, Astigarraga eta San Gregorio auzuneetatik zein San Martineko eremu barreiatutik igarotzen da (Soziolinguistika Klusterra, 2021). Gainera, azpimarratu behar da aurreko kale neurketekin alderatua (2017) euskararen erabilerak 1,6 puntu gora egin duela (Soziolinguistika Klusterra, 2017).


3.3.2. ERREALITATE SOZIOLABORALA

3.3.2.1. Lanarekiko harremana eta errenta

Ataungo biztanleriak lanarekiko duen harremanean hainbat adierazle neurtu dira. Lehenik udalerriko biztanleria ez-produktiboaren tasa neurtu da (%54,8), hau da, udalerri osoan lanarekiko harremanik ez duen biztanleriaren ehunekoa.


Laburbilduz, 2021ean Ataunen 935 pertsonak ez zuten lan merkatuarekiko inongo harremanik, izan adingabeak zirelako, lanik bilatzen ez zutelako edo pentsiodunak zirelako.

Bere inguruko eremuekin alderatuta Ataungo ratioa gutxienez bi puntu altuagoa da. Adierazle honek sexuaren arabera desoreka du. Urteek aurrera egin ahala diferentzia murriztuz joan bada ere, lan produktiboarekin harremanik ez duten emakumeen tasa (%56,5) gizonena baino 3,4 puntu altuagoa da (ikus 46. Grafikoa eta 47. Grafikoa).



Iturria: Eustat.

46. Grafikoa: Biztanleria ez-produktiboaren tasaren bilakaera. Ataun eta bere testuingurua, 2010-2021.




Iturria:

Eustat.

47. Grafikoa: Biztanleria ez-produktiboaren tasaren bilakaera sexuaren arabera. Ataun, 2010-2021.


Bestalde, biztanleria aktiboaren tasari dagokionez Ataungo balioa (%56,6) BOL eremuaren, Goierrikoaren edota Gipuzkoakoaren parekoa da. Adierazle honetan ere sexuaren arabera diferentziak ageri dira, izan ere, lana egiteko adinean dauden emakumeen %54,1 bakarrik da biztanleria aktiboa (landuna edo aktiboki lan bila dabilena, alegia) eta gizonena, berriz, %56,5ekoa da (48. Grafikoa eta 49. Grafikoa).



Iturria:

Eustat.

48. Grafikoa: Biztanleria aktiboaren tasaren bilakaera. Ataun eta bere testuingurua, 2010-2021.




Iturria:

Eustat.

49. Grafikoa: Biztanleria aktiboaren tasaren bilakaera sexuaren arabera. Ataun, 2010-2021.

Langabezia tasaren bilakaera aztertuta Ataunek bere eskualdeka zein herrialdeak baino datu hobeak dituela eta izan dituela berresten da. 2016 urtean udalerriko langabezia tasa %9,4a izatera iritsi zen. Urte horretan nabaritu zen 2008ko krisi ekonomikoaren eragin handiena. Hortik aurrera, ordea, langabezia tasak behera egin zuen eta gaur egun %6,9an kokatzen da.


Langabezia tasak ere emakumeen eta gizonen arteko desoreka argia erakusten du: emakumeen langabezia tasa (%9,4) gizonena baino ia bost puntu altuagoa da. Gainera, azken urtean (2021), Covidak eragindako osasun krisiaren ondorioz, seguruenik, gizon eta emakumeen langabezia tasaren diferentzia handitu da. Lan harremanarekiko datuek adierazten dute Ataungo herritarrek gizonen presentzia handiagoa duten lan-merkatu bati ematen diotela zerbitzua (ikus 50. Grafikoa eta 51. Grafikoa).



Iturria:

Eustat.

50. Grafikoa: Langabezia tasaren bilakaera. Ataun eta bere testuingurua, 2010-2021.



Iturria:

Eustat.


51. Grafikoa: Langabezia tasaren bilakaera sexuaren arabera. Ataun, 2010-2021.


3.3.2.2. Biztanleria landuna

2001-2021 epealdian Ataungo biztanleek lan egiten duten sektoreen egitura aldatuz joan da. Bi izan dira urte hauetan zehar langileak modu erlatiboan galdu dituzten sektoreak: lehen sektorea eta industria. Langileak nabarmen irabazi dituen sektorea herri administrazio, hezkuntza eta osasunarena izan da. Nolanahi ere, udalerriko langileen %32,1ak industrian lan egiten du (231 langile), %27,3ak herri administrazio, hezkuntza eta osasunean (196 langile) eta %17,0ak merkataritza, garraioan edo ostalaritzan. Udalerriko datuak Goierriarekin eta Gipuzkoarekin alderatuta ondorengo ondorioak atera daitezke:

- Ataunen industrian lan egiten duten langileen ehunekoa Goierrikoa baino hiru puntu txikiagoa da.
- Merkataritza sektoreko langileen tasa Goierrikoa baino hiru puntu txikiagoa da eta Gipuzkoakoaren balioetik hamar puntu azpitik dago.
- Herri administrazioan, hezkuntzan edo osasunean lan egiten duten ataundarren ehunekoa Goierrikoa baino 5,5 puntu eta Gipuzkoakoa baino lau puntu altuagoa da.

Gainerako eremuetan ez bezala, lehen sektoreko langileen (%5,2) presentzia esanguratsua da. Azaldutako datuak ez daude sexuaren arabera eskuragarri (ikus 52. Grafikoa eta 16. Taula).





Iturria: Eustat.

52. Grafikoa: Biztanleria landunaren bilakaera sektorearen arabera. Ataun eta bere testuingurua, 2001-2021.

Sektorea	Kopurua
Lehen sektorea	37
Industria	231
Eraikuntza	40
Merkataritza, garraioa eta ostalaritza	122
Finantzak	6
Jarduerak higiezinak	42
Herri Administrazioa, Hezkuntza eta Osasuna	196
Jarduera profesional eta laguntzaileak	27
Arteetako eta bestelako jarduerak	18
Orotara	719

Iturria: Eustat.

16. Taula: Biztanleria landuna sektorearen arabera. Ataun, 2021.


3.3.2.3. Errenta

Eustateko datuen arabera Ataungo errenta pertsonalaren batz bestekoa %100 baino gehiago hazi da 2001 eta 2020 urteen bitartean. Gaur egungo errenta pertsonala 24.835€koa da, BOL eremuaren parekoa da (24.317€) (esan beharra dago Beasaingo eta Lazkaoiko errenta pertsonalaren batz bestekoa Ordiziako baino altuagoa dela), baina Goierrikoaren (23.826€) eta Gipuzkoakoaren (23.512€) gainetik dago.

Azpiratu behar da Ataungo emakumeek (18.460€) gizonek baino %39,8 gutxiago irabazten dutela. Desberdintasun hori, gainera, ez da azken urteetan murriztu.

Bi ideia azpiratu behar dira: administrazio soldadak eta industriakoak altuak direla, batetik, eta industria, bereziki, sektore oso maskulinizatu izanik errentan genero arrakala oso handia eragiten duela.


Gogoan hartu familia nuklearraren eredu lanaldi murrizketak eta aldi bateko lanaldiak oso erabiliak direla emakumeen aldetik zaintza ardurei erantzun ahal izateko (ikus 53. Grafikoa eta 54. Grafikoa).



Iturria:

Eustat.

53. Grafikoa: Errenta pertsonalaren bilakaera. Ataun eta bere testuingurua, 2001-2020.




Iturria:

Eustat.

54. Grafikoa: Errenta pertsonalaren bilakaera sexuaren arabera. Ataun, 2001-2020.


Familia-errentaren datuek ere Ataungo familien batz besteko errenta (52.200€) bere inguruko eremuena baino hobea dela berresten dute. Kasu honetan ere, sexuaren arabeko diferentzia handia da nahiz eta ez den errenta pertsonalaren desorekaren parekoa: errenta nagusia emakumearena duten familien errenta (44.765€) gizonena nagusi dutenak baino %19,5 txikiagoa da (ikus 55. Grafikoa eta 56. Grafikoa).



Iturria:

Eustat.

55. Grafikoa: Familia-errentaren bilakaera. Ataun eta bere testuingurua, 2001-2020.



Iturria:

Eustat.


56. Grafikoa: Familia-errentaren bilakaera hartzaille nagusiaren sexuaren arabera. Ataun, 2001-2020.

3.4 EKONOMIA EGITURA

3.4.1. EGITURA EKONOMIKOA

Errenta zein lan harremanarekiko datuek Ataunek bere inguruko eremuekin alderatuta antzeko egoera edo hobea zuela adierazten bazuten ere, ez da berdina gertatzen udalerriak aberastasuna sortzeko duen gaitasunarekin. 2020ko datuen arabera udalerriko biztanleko barne produktua 11.314€koa da, balio hori ez da Gipuzkoako, Goierriko edo BOL eremuko balioaren herena izatera iristen (ikus 57. Grafikoa).


Bide horretan, ekonomiaren balio erantsi gordinak Ataungo aberastasunaren sorreran industriak duen pisua txikia dela erakusten du: %9,4koa bakarrik. Goierri eta Gipuzkoan ehunekoa %54,6koa eta %27,6koa da, hurrenez hurren. Horiek horrela, Ataungo ekonomiaren %70,6a zerbitzuetan oinarritzen da. Bestalde, Goierri eta Gipuzkoan ez bezala, lehen sektoreak ekonomian presentzia du eta balio erantsiaren %7,2a. Nolanahi ere, nekazaritzari eta abeltzaintzari lotutako aktibitateek ez dute udalerriko aberastasunaren sorreran traktore izateko gaitasunik (ikus 58. Grafikoa).




Iturria:

Eustat.

57. Grafikoa: Barne produktu gordin per capiten bilakaera. Ataun eta bere testuingurua, 2000-2020.






Iturria: Eustat.

58. Grafikoa: Balio erantsi gordinaren bilakaera. Ataun eta bere testuingurua, 2000-2020.


3.4.2. ESTABLEZIMENDUAK

Establezimenduen bilakaerak ere joera negatiboa izan du, 2014tik aurrera bereziki. Urte horretan udalerriak aktibitate ekonomikoarekin lotutako 130 establezimendu zituen, baina gaur egun 108 besterik ez ditu, %16,9ko jaitsiera. Dena den, beherakada hori ohikoa izan da gainerako eremuetan ere eta azpimarratu behar da biztanleko dentsitatea (65,1 establezimendu mila biztanleko) BOL eremukoaren eta Goierrikoaren oso parekoa dela. Gipuzkoako establezimendu dentsitatea (78,5 establezimendu mila biztanleko), ordea, altuagoa da (ikus 59. Grafikoa eta 60. Grafikoa).



Iturria: Eustat.

59. Grafikoa: Establezimendu kopuruaren bilakaera. Ataun, 2012-2022.



Iturria:


Eustat.


60. Grafikoa: Establezimendu dentsitatearen bilakaera. Ataun eta bere testuingurua, 2012-2022.

Establezimenduaren dentsitate datuak establezimenduen sektoreka duten pisuarekin gurutzatuta hainbat ondorio atera daitezke: lehenik, Ataungo industria establezimenduek ez dute Goierri edo BOL eremuan duten bezainbesteko pisua.

Establezimendu mota horiek, gainera, pertsona asko enplegatzeko gaitasuna izan ohi dute. Hori dela eta, establezimendu dentsitatea parekoa izanagatik ere aberastasuna sortzeko gaitasuna ez da alderagarria. Bestetik, Gipuzkoako ekonomiaren tertziarizazioa handitzen ari da eta horrek sektore horretako establezimenduen sorrera eragin du.

Azkenik, Ataungo establezimendu ekonomikoen %31,5 lehen sektorekoak dira, baina sektore honek ez du beste sektoreen pareko aberastasuna eta enplegua sortzeko gaitasunik gaur egun (ikus 61. Grafikoa).





Iturria: Eustat.

61. Grafikoa: Establezimenduen sektorearen ehunekoaren bilakaera. Ataun eta bere testuingurua, 2012-2022.


Establezimenduak xehetasunez aztertuta, Ataunen lehen sektoreko 34 establezimendu daude: 30 nekazaritza eta abeltzaintzara bideratuta eta lau basogintzara. Bestalde, eraikuntza alorreko 14 establezimendu daude eta Industriakoak lau besterik ez, azpisektore desberdinetakoak, gainera. Gainerako establezimenduak zerbitzuetako azpisektore desberdinetan banatzen dira: txikizkako merkataritzako bederatzi establezimenduek eta bidaiariekin eta salgaiekin lotutako zazpi establezimenduak dira garrantzitsuenak (ikus 17. Taula).

Sektorea	Mota	Kop.
Lehen sektorea	Nekazaritza eta abeltzaintza	30
	Basogintza eta baso ustiaketa	4
Industria	Elikagaien industria	1
	Edarien fabrikazioa	1
	Produktu metalikoen fabrikazioa	1
	Altzarien fabrikazioa	1
Eraikuntza	Eraikinen eraikuntza	6
	Eraikuntza espezializatuko jarduerak	8
Merkataritza, garraioa eta ostalaritza	Ibilgailu motordunen salmenta eta konponketa	1
	Txikizkako merkataritza	9
	Bidaiarien eta salgaien garraioa	7
	Itsas eta bide nabigagarrietatik eginiko garraioa	1
	Biltegiratzea eta garraioarekin uztartutako jarduerak	1
	Ostatu zerbitzuak	3
	Jaki eta edari zerbitzuak	4
Informazioa eta komunikazioa	Programazioa, aholkularitza eta informatikarekin uztarturiko jarduerak	1
Finantzak	Finantza zerbitzuak	1
Jarduerak higiezinekin	Jarduerak higiezinekin	0
Jarduera profesional eta laguntzaileak	Jarduera juridikoak eta kontabilitatekoak	2
	Beste jarduera profesional, zientifiko eta tekniko batzuk	5
Herri Administrazioa, Hezkuntza eta Osasuna	Herri Administrazioa	2
	Hezkuntza	5
	Osasun jarduera	5
Arteetako eta bestelako jarduerak	Sormen, arte eta ekitaldi jarduerak	2
	Liburutegi, museo eta beste kultur jarduera batzuk	2
	Beste zerbitzu pertsonal batzuk	5
Orotara	-	108

Iturria: Eustat.

17. Taula: Establezimenduak sektorearen eta motaren arabera. Ataun, 2022.

Establezimenduen kokapenari dagokionez, establezimenduen gehiengoa Elbarrena (37 establezimendu) eta San Gregorio auzuneetan (13 establezimendu) kontzentratzen dira, zerbitzu sektorekoak nagusiki. Eremu barreiatuetan ere establezimendu kopuru handia dago, hala nola, 21 establezimendu San Martineko barreiatuan, 10 San Gregorioko barreiatuan eta 13 Aiako barreiatuan. Establezimendu hauek, ordea, oso sakabanatuta daude eta lehen sektorekoak dira, nagusiki (ikus 5. Irudia eta 18. Taula).



Iturria:

Eustat.

5. Irudia: Establezimenduen kokapenaren mapa sektorearen arabera. Ataun, 2022.

Herrigunea	Auzunea	Kopurua
Aia	Aia	3
	Aia (bar.)	13
San Gregorio	Ergoiena	4
	S. Gregorio	13
	S.G. (bar.)	10
San Martin	Arinberriaga	1
	Arrondo	3
	Astigarraga	3
	Elbarrena	37
	S.M. (bar.)	21
Ataun	-	108

Iturria: Eustat.

18. Taula: Establezimenduak auzunearen arabera. Ataun, 2022.

Udalerrian dauden 108 establezimenduek ezaugarri argiak dituzte enplegatu kopuruari eta lege nortasunari dagokionez: establezimenduen %84,3ak bi enplegatu edo gutxiago ditu eta %66,7a pertsona fisikoak dira, hau da, autonomoak. Establezimenduen tamaina xeheago aztertuz gero, bakarrak du 20-49 langileko tamaina eta herri administrazioarekin lotuta dago. Gainerako sektoreei dagokionez industriako eta eraikuntza sektoreko establezimendu banak bakarrik dute 10-14 langile arteko tamaina. Horiek horrela, argi ikusten da Ataunen udalerriko ekonomiaren traktore izateko establezimendurik ez dagoela (ikus 19. Taula eta 20. Taula).

Sektorea	≤2 langile	3-5 langile	6-9 langile	10-14 langile	15-19 langile	20-49 langile	Orotara
Lehen sektorea	31	3	0	0	0	0	34
Industria, energia eta saneamendua	2	1	0	1	0	0	4
Eraikuntza	11	1	1	1	0	0	14
Merkataritza, garraioa eta ostalaritza	22	2	2	0	0	0	26
Informazioa eta komunikazioak	1	0	0	0	0	0	1
Finantza jarduerak eta aseguruak	1	0	0	0	0	0	1
Jarduerak higiezinekin	0	0	0	0	0	0	0
Jarduera profesional eta laguntzaileak	7	0	0	0	0	0	7
Herri Administrazioa, Hezkuntza eta Osasuna	7	3	0	1	0	1	12
Arteetako eta bestelako jarduerak	9	0	0	0	0	0	9
Ataun	91	10	3	3	0	1	108

Iturria: Eustat.

19. Taula: Establezimenduak tamainaren eta sektorearen arabera. Ataun, 2022.

Sektorea	Pertsona fisikoa	Akziokako elkartea	Elkarte mugatua	Bestelako elkartea	Bestelako lege-formak	Orotara
Lehen sektorea	29	0	1	4	0	34
Industria, energia eta saneamendua	1	1	1	1	0	4
Eraikuntza	8	0	5	1	0	14
Merkataritza, garraioa eta ostalaritza	17	1	4	4	0	26
Informazioa eta komunikazioak	1	0	0	0	0	1
Finantza jarduerak eta aseguruak	0	1	0	0	0	1
Jarduerak higiezinekin	0	0	0	0	0	0
Jarduera profesional eta laguntzaileak	6	0	1	0	0	7
Herri Administrazioa, Hezkuntza eta Osasuna	5	0	0	1	6	12
Arteetako eta bestelako jarduerak	5	0	0	3	1	9
Ataun	72	3	12	14	7	108

Iturria: Eustat.

20. Taula: Establezimenduak lege nortasunaren eta sektorearen arabera. Ataun, 2022.

3.5 ETXEBIZITZA PARKEA


3.5.1. BILAKAERA

2010-2021 urteetako datuek Ataungo etxebizitza parkearen hazkundera (%1,4) txikia izan dela adierazten dute. Datu horrekin batera kontuan hartzekoa da datuek aldakortasun handia erakusten dutela, eta biztanleria hazkunde handiena izan zen ondorengo urteetakoak direla.

Nolanahi ere, BOL eremuko etxebizitza parkearen hazkundeak (%9,2), Gipuzkoakoak (%6,5) eta Goierrikoak (%5,3) Ataungoa gainditu dute (ikus 62. Grafikoa).

Bestalde, etxebizitza ez nagusien tasak, hau da, lehen etxebizitza ez direnak (bigarren etxebizitzak, etxebizitza hutsak, etxebizitza turistikoak...), %28,9koa da. Balio hori Goierri %17,5koa da eta BOL eremuan eta Gipuzkoan %15aren ingurukoa.


Datu honek Ataungo etxebizitza parkearen gainerako presioa gainerako eremuetakoa baino txikiagoa dela iradokitzen du (ikus 63. Grafikoa).



Iturria:

Eustat.

62. Grafikoa: Etxebizitza parkearen hazkundera. Ataun eta bere testuingurua, 2010-2021.



Iturria:

Eustat.

63. Grafikoa: Etxebizitza ez nagusien tasaren bilakaera. Ataun eta bere testuingurua, 2010-2021.

3.5.2. EZAUGARRIAK


Etxebizitza parkearen azterketan 873 etxebizitza identifikatu dira. Biztanleria eta bizikidetzak-unitateak bezalaxe, etxebizitza gehienak Elbarrena (395 etxebizitza) eta San Gregorio auzunean (127 etxebizitza), batetik, eta San Martineko barreiatuan (113 etxebizitza) eta San Gregorioko barreiatuan (74 etxebizitza) daude. Hauen ezaugarriak tipologia nagusiaren, antzintasunaren eta azaleraren arabera aztertu dira (ikus 21. Taula eta 9. Irudia).

Etxebizitzaren tipologiari dagokionez, horien %47,3 familia bakarrekokoak dira eta %52,0 familia anitzekoak dira. Halaber, sei etxebizitza identifikatu dira etxebizitza erabilera nagusia ez duten eraikinetan: erlijiosoak, ostalaritza, kirola edo bulegoak. Kasu honetan, etxebizitzaren tipologiaren desberdintasun handia dago auzunearen arabera: Elbarrena eta San Gregorioko nukleoetan, esaterako, familia anitzeko etxebizitzak nagusitzen dira; landa eremuan zehar, ordea, familia bakarrekokoak (ikus 21. Taula eta 6. Irudia).

Herrigunea	Auzunea	Familia bakarrekokoak	Familia anitzekoak	Beste erabilerak	Orotara
Aia	Aia	2	4	1	7
	Aia (bar.)	38	0	2	40
San Gregorio	Ergoiena	24	5	0	29
	S. Gregorio	25	99	3	127
	S.G. (bar.)	70	4	0	74
San Martin	Arinberriaga	10	0	0	10
	Arrondo	29	11	0	40
	Astigarraga	22	16	0	38
	Elbarrena	88	307	0	395
	S.M. (bar.)	105	8	0	113
Ataun	-	413	454	6	873

Iturria: Katastroa eta etxebizitza errolda.

21. Taula: Etxebizitza parkea tipologia nagusiaren arabera. Ataun, 2023.



Iturria: Katastroa eta etxebizitza errolda.


6. Irudia: Elbarrenako etxebizitza parkea tipologia nagusiaren arabera. Ataun, 2023.

Antzinatasunari dagokionez Ataungo etxebizitza parkearen %37,9a 1925 urtean edo lehenago eraiki zen, %21,9a 1975-2000 bitartean eta beste horrenbeste 2000 urtetik hona. Nolanahi ere, etxebizitzaren antzinatasuna Ataungo urbanizazio prozesu desberdinen adierazgarri da. San Gregorio auzunean, esaterako, etxebizitza gehienak 1950-1975 edota 2000 urtetik aurrera eraiki ziren. Elbarrena auzunean etxebizitzaren antzinatasuna banatuagoa da. Gainerako eremuetan etxebizitza zaharrak dira gehiengo (ikus 22. Taula eta 7. Irudia).

Herrigunea	Auzunea	≤1925	1925-1950	1950-1975	1975-2000	>2000	Orotara
Aia	Aia	6	0	0	1	0	7
	Aia (bar.)	29	0	0	6	5	40
San Gregorio	Ergoiena	19	5	0	4	1	29
	S. Gregorio	24	8	40	18	37	127
	S.G. (bar.)	52	1	3	15	3	74
San Martin	Arinberriaga	4	0	3	0	3	10
	Arrondo	23	1	0	1	15	40
	Astigarraga	35	0	1	0	2	38
	Elbarrena	67	17	70	128	113	395
	S.M. (bar.)	72	9	4	18	10	113
Ataun	-	331	41	121	191	189	873

Iturria: Katastroa eta etxebizitza errolda.

22. Taula: Etxebizitza parkea antzinatasunaren arabera. Ataun, 2023.



Iturria: Katastroa eta etxebizitza errolda.


7. Irudia: Elbarrenako etxebizitza parkea antzinatasunaren arabera. Ataun, 2023.

Azkenik, etxebizitza parkearen azaleraren azterketak bi etxebizitza talde nagusi daudela erakusten ditu: 75-100m² bitarteko etxebizitzak %34,9a dira eta 150m² baino gehiago dutenak, berriz, %34,2a. Datu hori familia bakarreko edo familia anitzeko etxebizitzaren tipologiari lotuta dago (ikus 23. Taula eta 8. Irudia).

Herrigunea	Auzunea	≤50m ²	50-75 m ²	75-100 m ²	100-125 m ²	125-150 m ²	>150 m ²	Orotara
Aia	Aia	0	0	4	0	2	1	7
	Aia (bar.)	0	1	2	2	5	30	40
San Gregorio	Ergoiena	2	0	10	5	2	10	29
	S. Gregorio	2	11	59	14	9	32	127
	S.G. (bar.)	3	3	9	5	2	52	74
San Martin	Arinberriaga	0	3	1	0	0	6	10
	Arrondo	9	0	3	0	5	23	40
	Astigarraga	6	15	3	5	1	8	38
	Elbarrena	7	47	207	47	27	60	395
	S.M. (bar.)	1	9	7	6	13	77	113
Ataun	-	30	89	305	84	66	299	873


Iturria: Katastroa eta etxebizitza errolda.

23. Taula: Etxebizitza parkea azaleraren arabera. Ataun, 2023.



Iturria: Katastroa eta etxebizitza errolda.

8. Irudia: Elbarrenako etxebizitza parkea azaleraren arabera. Ataun, 2023.



9. Irudia: Etxebizitza parkearen bero mapa. Ataun, 2023.

3.5.3. ERABILERA

Etxebizitza parkearen erabilera maila aztertzeko Eusko Jaurlaritzaren ekainaren 8ko 149/2021 dekretua baliatu da. Dekretu honetan jenderik gabeko etxebizitzetako eta etxebizitzaren funtzio soziala betetzeko neurriak zehazten dira. Etxebizitza bat hutsik bezala definitzeko nahikoa da honek ur, gas edo elektrizitate erregistrorik ez izatea edo hauetako baten kontsumoa bi urtez jarraian udalerriko pertsona bati besteko kontsumoaren herena baino gutxiago izatea. Diagnostiko honetan ur kontsumoen arabera azterketa egin da eta ondorengo erabilera sailkapena zehaztu da:

- Egonkorra: etxebizitzan pertsonak erroldatuta daude eta ur kontsumoak minimoa gainditu du.
- Ez egonkorra: etxebizitzan ez dago inor erroldatuta baina ur kontsumoak minimoa gainditu du.
- Urte bat hutsik: etxebizitzan pertsonak erroldatuta edo ez, azken urtean ez da ur kontsumo minimoa gainditu.
- Bi urte edo gehiago hutsik: etxebizitzan pertsonak erroldatuta edo ez, gutxienez azken bi urteetan ez da ur kontsumo minimoa gainditu edo ez du ur kontsumo erregistrorik.
- Beste erabilerak: Udalaren zerrendan etxebizitza bezala identifikatuta dago, baina ez du pertsonarik erroldatuta eta bere erabilera nagusia ez da etxebizitzarena.

Aipatu behar da San Martineko eremu barreiatuko (Ota-Mots Aldea eta Aitzarte Aldean) eta San Gregorio eremu barreiatuko (Lautierreka eta Urrutxu Mendi aldea) gune nagusietan etxebizitza bakar batek ere ez duela ur kontsumo daturik. Baliteke eremu horietan ur kontsumorako bertako iturriren bat baliatzea. Eremu horietan etxebizitzaren erabilera maila erroldaren arabera bakarrik kalkulatu da.

Horiek horrela, Ataungo etxebizitza parkeko 873 etxebizitzetatik %64,3ak (561 etxebizitza) erabilera egonkorra du, %6,3ak (55 etxebizitza) erabilera ez egonkorra du, %2,3ak (20 etxebizitza) urte bete bakarrik darama hutsik eta %26,3ak (230 etxebizitza) bi urte edo gehiago daramatza hutsik. Horrez gain, inor erroldatuta ez duten eta etxebizitza erabilera nagusia ez duten 7 etxebizitza identifikatu dira (ikus 24. Taula).

Datu horiek aintzat hartuta, udalerrian 237 etxebizitza daude hutsik orotara, etxebizitza parkearen %28,6a konkrituki. Etxebizitza hutsen tasa oso altua da eta aintzat hartu beharreko arazo bat da. Hala ere, aintzat hartu behar da etxebizitza hutsen tasa ez dela homogeneoa udalerriko auzune guztietan.


Alde batetik, etxebizitza parkeak presio handiagoa jasaten duen auzuneak identifikatu daitezke; horietan etxebizitza hutsen tasa udalerrikoa baino txikiagoa da: Elbarrena (%16,2), Astigarraga (%23,7), Aia (%14,3) edota San Gregorio (%26,8).

Bestetik, auzune batzuetan eta herriguneetako eremu barreiatuan, bereziki, etxebizitza hutsen tasa handiagoa da, kasu batzuetan balioa bikoizteraino: San Gregorioko barreiatua (%43,2), San Martineko barreiatua (%49,6) edota Ergoiena (%58,6). San Martineko eta San Gregorioko nukleoetatik zenbat eta gehiago urrundu etxebizitza hutsen tasak gora egiten du (ikus 64. Grafikoa eta 10. Irudia).

Herrigunea	Auzunea	Egonkorra	Ez egonkorra	Urte bat hutsik	Bi urte edo gehiago hutsik	Beste erabilerak	Orotara
Aia	Aia	6	0	0	1	0	7
	Aia (bar.)	19	3	2	16	0	40
San Gregorio	Ergoiena	11	1	1	16	0	29
	S. Gregorio	82	9	3	31	2	127
	S.G. (bar.)	37	5	2	30	0	74
San Martin	Arinberriaga	5	1	2	2	0	10
	Arrondo	23	2	0	15	0	40
	Astigarraga	24	4	1	8	1	38
	Elbarrena	306	24	6	58	1	395
	S.M. (bar.)	48	6	3	53	3	113
Ataun	-	561	55	20	230	7	873


Iturria: Katastroa, etxebizitza errolda, errolda eta Gipuzkoako Urak. Ekoizpen propioa.

24. Taula: Etxebizitzak erabileraren arabera. Ataun, 2023.



Iturria: Katastroa, etxebizitza errolda, errolda eta Gipuzkoako Urak. Ekoizpen propioa.

64. Grafikoa: Etxebizitza hutsen tasa auzunearen arabera. Ataun, 2023.



Iturria: Katastroa, etxebizitza errolda, errolda eta Gipuzkoako Urak. Ekoizpen propioa.

10. Irudia: Etxebizitza hutsen bero mapa. Ataun, 2023.

3.5.4. BASERRIAK

Gipuzkoako Datu Espazialen Azpiegituratik eskuratutako datuen arabera Ataunen 165 eraikinek baserri izendapena dute. Horrek ez du esan nahi eraikin guzti horiek baserri izaera mantentzen dutenik edo beste edozein eraikinek baserri izaera ez duenik, baina baserrien egoera aztertzeke zehaztu daitekeen unibertso bakarra da. Kokapenari dagokionez baserrien %88,5a landa eremuan kokatzen da: 71 baserri San Martineko eremu barreiatuan, 49 baserri San Gregorioko eremu barreiatuan eta 26 baserri Aiako eremu barreiatuan (ikus 25. Taula eta 11. Irudia).

Eraikin hauen %83,0ak, katastroko ezaugarrien arabera, nekazaritzara edo abeltzaintzara bideratutako guneren bat du, baina horrek ez du esan nahi lehen sektoreko aktibitate burutzen denik bertan. Izan ere, baserri guztietatik %12,7k (21 baserri) bakarrik dute lehen sektoreko aktibitate ekonomiko bat lotuta.

Azpimarragarria da udalerrian dauden nekazaritza eta abeltzaintzara bideratutako establezimenduen ia bi heren baserri batekin dutela harremana. Gainerako 13 establezimenduek aktibitatea garatzeko beste eraikin mota bat dute. Nolanahi ere, gaur egungo legediaren baitan oso zaila da baserri tradizional batean lehen sektoreko aktibitate ekonomikoak abiatzea aintzat hartu behar diren osasun neurriak eta neurri teknikoak direla eta. Gaur egun, lehen sektoreko aktibitate ekonomiko berriak berariaz prestatutako eraikinetan garatzen dira (ikus 25. Taula).

Bestalde, baserrien %95,2ak (157 baserri) bizilekua du. Hau da, azterlan honetan etxebizitza azterketan sartu dira. Aipagarria da bizilekua duten baserrien %74,5ak pertsonaren bat erroldatuta izatea eta erabilerari dagokionez %30,6a (48 baserri) hutsik egotea. Kasu honetan 17 baserri identifikatu dira biztanleria erroldatuta izanda erabilerarik ez izatea. Baliteke kasuren batean baserriek ur kontsumo etxetiarra ez izatea eta, informazio horren faltan, hutsik bezala sailkatu izana (ikus 25. Taula).

Beraz, auzune guztietan etxebizitza diren baserrien erabilera maila aztertzeak zentzurik ez badu ere (nukleo izaera duten auzuneetan oso kopuru txikia dira) landa eremuan zein udalerrian bere osotasunean bizilekua duten baserrien erabilera maila Ataungo etxebizitza parkearen parekoa dela baieztatu da.


Hutsik dauden baserrien tasa %30,6koa da, etxebizitza parke osoan hutsik dauden etxebizitzaren tasa baino bi puntu handiagoa bakarrik. Aintzat hartu behar da azterketa honetan eraikinen erabilera maila aztertu dela eraikinean egon daitezkeen etxebizitza kopuru anitzari erreparatu gabe.

Nolanahi ere, baserri izendapena duten eraikinen erabilera maila ez da landa eremuan etxebizitza parkeak duen egoera bezain kritikoa (ikus 25. Taula).

Herrigunea	Auzunea	Kopurua	Nekazaritzarako gunea	Lehen sektoreko aktibitatea	Etxebizitza	Hutsik
Aia	Aia	0	0	0	0	0
	Aia (bar.)	26	22	5	25	9
San Gregorio	Ergoiena	6	6	0	6	1
	S. Gregorio	1	0	0	1	0
	S.G. (bar.)	49	40	3	46	15
San Martin	Arinberriaga	3	2	0	3	1
	Arrondo	3	2	1	3	1
	Astigarraga	1	1	0	1	0
	Elbarrena	5	2	1	5	1
	S.M. (bar.)	71	62	11	67	20
Ataun	-	165	137	21	157	48

Iturria: GFA, katastroa eta errolda.

25. Taula: Baserriak eta bere ezaugarriak auzunearen arabera. Ataun, 2023.



Iturria: GFA, katastroa eta errolda.

11. Irudia: Baserrien mapa. Ataun, 2023.

3.6 ZERBITZUAK ETA MUGIKORTASUNA


3.6.1. ZERBITZUAK

Ataunek tamaina txikiko udalerriek izan ohi dituzten ekipamendu berak ditu. Ekipamenduen geoerreferentziazioak, ordea, zerbitzuen banaketan desoreka handia dagoela erakusten du.

San Martin herriguneak bereganatzen ditu oinarrizko ekipamendu eta zerbitzu ia guztiak: Elbarrena auzunean, esaterako, administrazioa, kultur etxea, osasun zentroa, farmazia edota merkataritza establezimendu ia guztiak kokatzen dira eta Astigarraga auzunean, berriz, hezkuntza zentroak eta kiroldegia daude.

Gainerakoan, San Gregorioko auzunean osasun zentroak zerbitzua ematen du eta San Gregorioko barreiatuan merkataritza establezimendu bat aurki daiteke, harategi bat konkretuki.

Ostalaritza da udalerrian zehar sakabanatzen den zerbitzu mota bakarra (ikus 12. Irudia).



Iturria: Eustat.

12. Irudia: Ekipamenduen mapa. Ataun, 2023.

Udalerrian dauden ekipamenduek irisgarritasun ona dute Elbarrena auzunean bizi diren pertsonentzat. Zorionez bertan bizi da Ataungo biztanleen erdia baino gehiago.

Astigarraga auzuneak ere Elbarrenarekiko gertutasuna baliatzen du irisgarritasun maila aproposa izateko, are gehiago hezkuntza zentroa eta kiroldegia bertan kokatuta daudela kontuan izanda.

Gainerako auzuneetan bizi diren pertsonak, ordea, ez dute oinarrizko ekipamendurik oinezko distantzia onargarri batean. San Gregorioko osasun zentroa da salbuespen bakarra (ikus 26. Taula, 27. Taula, 28. Taula, 29. Taula eta 30. Taula).

Herrigunea	Auzunea	<=250m	250-500m	500-750m	750-1000m	>1000m	Orotara
Aia	Aia	0	0	0	0	13	13
	Aia (bar.)	0	0	0	0	68	68
San Gregorio	Ergoiena	0	0	0	0	26	26
	S. Gregorio	0	0	0	0	251	251
	S.G. (bar.)	0	0	0	0	117	117
San Martin	Arinberriaga	0	0	0	0	20	20
	Arrondo	0	0	0	0	77	77
	Astigarraga	0	0	8	58	2	68
	Elbarrena	650	208	0	0	0	858
	S.M. (bar.)	8	32	21	21	118	200
Ataun	-	658	240	29	79	692	1.698

Iturria: Errolda eta Eustat.

26. Taula: Biztanleriaren distantzia Udaletxera auzunearen arabera. Ataun, 2023.

Herrigunea	Auzunea	<=250m	250-500m	500-750m	750-1000m	>1000m	Orotara
Aia	Aia	0	0	0	0	13	13
	Aia (bar.)	0	0	0	2	66	68
San Gregorio	Ergoiena	0	0	0	0	26	26
	S. Gregorio	251	0	0	0	0	251
	S.G. (bar.)	0	17	16	16	68	117
San Martin	Arinberriaga	0	0	0	0	20	20
	Arrondo	0	0	0	0	77	77
	Astigarraga	0	0	8	19	41	68
	Elbarrena	281	551	26	0	0	858
	S.M. (bar.)	9	38	28	5	120	200
Ataun	-	541	606	78	42	431	1.698

Iturria: Errolda eta Eustat.

27. Taula: Biztanleriaren distantzia osasun zentrora auzunearen arabera. Ataun, 2023.

Herrigunea	Auzunea	<=250m	250-500m	500-750m	750-1000m	>1000m	Orotara
Aia	Aia	0	0	0	0	13	13
	Aia (bar.)	0	0	0	0	68	68
San Gregorio	Ergoiena	0	0	0	0	26	26
	S. Gregorio	0	0	0	0	251	251
	S.G. (bar.)	0	0	0	0	117	117
San Martin	Arinberriaga	0	0	0	0	20	20
	Arrondo	0	0	0	5	72	77
	Astigarraga	0	8	19	41	0	68
	Elbarrena	745	113	0	0	0	858
	S.M. (bar.)	13	16	29	30	112	200
Ataun	-	758	137	48	76	679	1.698

Iturria: Errolda eta Eustat.

28. Taula: Biztanleriaren distantzia kultur etxera auzunearen arabera. Ataun, 2023.

Herrigunea	Auzunea	<=250m	250-500m	500-750m	750-1000m	>1000m	Orotara
Aia	Aia	0	0	0	0	13	13
	Aia (bar.)	0	0	0	0	68	68
San Gregorio	Ergoiena	0	0	0	0	26	26
	S. Gregorio	0	0	0	0	251	251
	S.G. (bar.)	0	0	0	0	117	117
San Martin	Arinberriaga	0	0	0	0	20	20
	Arrondo	0	5	45	27	0	77
	Astigarraga	20	48	0	0	0	68
	Elbarrena	12	407	325	114	0	858
	S.M. (bar.)	5	23	26	31	115	200
Ataun	-	37	483	396	172	610	1.698

Iturria: Errola eta Eustat.

29. Taula: Biztanleriaren distantzia kiroldegira auzunearen arabera . Ataun, 2023.

Herrigunea	Auzunea	<=250m	250-500m	500-750m	750-1000m	>1000m	Orotara
Aia	Aia	0	0	0	0	2	2
	Aia (bar.)	0	0	0	0	4	4
San Gregorio	Ergoiena	0	0	0	0	4	4
	S. Gregorio	0	0	0	0	53	53
	S.G. (bar.)	0	0	0	0	9	9
San Martin	Arinberriaga	0	0	0	0	6	6
	Arrondo	0	2	10	5	0	17
	Astigarraga	3	5	0	0	0	8
	Elbarrena	0	126	62	25	0	213
	S.M. (bar.)	0	6	6	2	22	36
Ataun	-	3	139	78	32	100	352


Iturria: Errola eta Eustat.

30. Taula: Biztanleria adingabearen distantzia hezkuntza zentroetara auzunearen arabera. Ataun, 2023.

3.6.2. MUGIKORTASUNA

Elbarrena auzunea erreferentziatzen hartuta, San Martin herriguneko auzuneek, baita bere eremu barreiatuko hainbat zonalde ere oinez 30 minututik beherako distantzia dauka. Distantzia hau egunerokotasunean egiteko modukoa da, are gehiago bizikleta baliatuta.


Bestalde, udalerriko bi auzuneen arteko oinezko denbora 50 minututik gorakoa da; baita, Elbarrenatik Lazkaoko zentrorako dagoen distantzia ere. Distantzia horrek ez du oinezko konektibitatea laguntzen. Dena den, auzuneen arteko bideak ez daude oinezkoentzat behar bezala egokituta eta horrek praktika hau mugatzen du (ikus 12. Taula).



Iturria: Eusko Jaurlaritzia.


13. Irudia: Oinezko mugikortasunaren isokronak. Ataun, 2023.

Garraio publikoari dagokionez, Lurraldebusen GO04 linea Ataunera iristen dela azpimarratu behar da. Autobus linea horrek, ordea, Ataungo Elbarrena eta San Gregorio auzunean du zerbitzu egonkorra, ordutegiaren arabera 20-40 minutuko maiztasunarekin. Gainerako auzuneetara iristen den autobus zerbitzua oso mugatuta dago, Aia herrigunean, bereziki. Udalerriatik igarotzen den autobusak Lazkao, Ordizia eta Beasainekin du lotura zuzena; ordutegi konkretu batzuetan baita Itasasondo eta Legorretarekin ere. Gainerako, eremuetara iristeko ezinbestekoa da Beasainen edo Ordizian transbordo egitea. Renfeko aldiriak eta Lurraldebusen beste zenbait linea dira aukera bakarra, baina udalerrri nagusietara iristeak ordubetetik gorako kostua du. Horiek horrela, garraio publikoak ezin du ibilgailu pribatuak duen irisgarritasunarekin lehiatu (ikus 14. Irudia eta 15. Irudia).



Iturria: Eusko Jaurlaritzia.

14. Irudia: Garraio publikoaren isokronak. Ataun, 2023.



15. Irudia: Ibaigailu pribatuaren isokronak. Ataun, 2023.

3.7 ONDORIO NAGUSIAK

Biztanleria hazkundera eten da eta beherako joera hasi da.

Ataunek biztanleria hazkunde esanguratsua izan zuen 2003-2009 urteen bitartean: udalerria %9,4ko hazkundera izan zuen eta 1.700 biztanleren langara hurbildu zen. Hazkunde hori epealdi horretako migrazio saldo positiboaren eta jaiotza tasa altuaren ondorioz izan zen.

Epealdi horretan udalerriko adin egitura gaztetuz joan zen bere inguruko eremuen ratioetara hurbiltzeraino. Azken urteetan, ordea, biztanleria kopurua nahiko egonkortu da: migrazio saldoa ia nulua da eta jaiotza tasa asko jaitsi da. Datu horiek biztanle kopuruaren zein adin egituraren joera aldaketa bat ekarri dute: hurrengo urteetan biztanleriaren zahartzea eta galera aurreikusten dira.

Biztanleriaren adin egitura ez da zaharra, baina 20-34 urteko pertsonen gabezia handia da.

Ataunek gaur egun 1.698 biztanle ditu. 35-49 urteko belaunaldiak (%22,3) eta horien seme-alabak diren 0-19 urteko belaunaldiak (%23,3) udalerrian presentzia nabarmenena duten adin taldeak dira. 20-34 urte bitarteko gazteen tasa (%11,8), aldiz, oso baxua da 80ko hamarkadako krisi ekonomikoaren eta ondorengo jaiotze tasaren ondorioz, seguruenik.

Bestalde, azpimarratu behar da zahartzaroan dauden belaunaldien portzentajea ez dela altua: BOL eremuko, Goierriko zein Gipuzkoako tasen parekoa da. Nolanahi ere, 50-64 urteko biztanleriaren kopurua ere handia da (%19,8) eta hurrengo urteetan zahartzaro adinean dauden pertsona kopurua asko igoko da. Halaber, Ataunek adin egiturari lotutako segregazioa du: landa-eremuak ditu adineko pertsonen portzentaje handiena eta auzune nagusiek, aldiz, gazteena.

Atzerritarren proportzioa inguruko eremuena baino askoz ere txikiagoa da.

Azken bi hamarkadetan Ataungo biztanleriaren jatorria aldatuz joan da: udalerrian bertan jaiotako pertsonen ehunekoa txikituz joan da Gipuzkoan eta estatutik kanpo jaio diren pertsonen mesedetan. Gaur egungo biztanleriaren %57,6 Ataunen jaio da, %27,6a Gipuzkoan (horietatik heren bat BOL eremukoak dira) eta %9,1a estatutik kanpo jaio da. Atzerritarren tasak igoera nabarmena izan badu ere ezin da bere inguruko eremuekin alderatu: BOL eremuko tasa baino zortzi puntu txikiagoa eta Goierriko zein Gipuzkoako tasatik lau puntu behera dago.

Estatutik kanpo jaiotako biztanleriari dagokionez, jatorri nagusiak oso banatuta daude: Europa (%27,9), Ipar Afrika (%24,0), Hego Amerika (%22,7) eta Ertain Amerika (%16,2). Europarren artean errumaniarrak (22 biztanle) eta moldaviarrak (9 biztanle) nabarmentzen dira, batik bat. Ipar Afrikan jaiotakoen artean, ordea, marokoiarrak (30 biztanle) dira talde nagusia. Hego Amerikarren artean bi jatorri aipagarri daude: Argentina (11 biztanle) eta Ekuador (11 biztanle). Baita Ertain Amerikan ere: Honduras (10 biztanle) eta Nikaragua (7 biztanle).

Udalerrian, oro har, ez dago feminizatutako kolektiborik.

Oro har, gizonak (%51,8) biztanleriaren gehiengoa dira udalerrian: patroï hori ia adin tarte guztietan eta pertsonen jatorri guztietan errepikatzen da. Emakumeen presentzia 65-79 urteko (%52,1) eta 80 urtetik gorako pertsonen artean (%54,5) bakarrik nagusitzen da. Azpimarratu behar da ehuneko hauek oso txikiak direla, izan ere, emakumeen bizi itxaropen handiagoaren ondorioz, zahartzaroaren feminizazioa ohikoa da. Faktore ekonomikoek (lehenengo sektorearen presentzia eta inguruko industriaren garrantzia) zein historikoek (garai batean udalerriak neskame joandako emakumeak) eragin dute gizonen eta emakumeen kopuruaren arteko diferentzia.

Atzerriko pertsonen artean Ertain Amerika da feminizatuta dagoen talde bakarra: %68,0a emakumeak dira. Kolektibo honen feminizazioa azpimarragarria da, eta baliteke udalerriko eta inguruko herrietako zaintza lanen aukerak erakarri izana.

BOL eremuak Ataundik biztanleria bereganatzen du. Barne mailan Elbarrena auzuneak biztanleria xurgatzen du..

2010-2022 urteen artean 891 pertsonak eman dute alta udalerrian eta 852, ordea, baja eman dute. Adin tartearen arabera 20-34 urteko eta 35-49 urteko pertsonak dira eroldan mugimendu handiena eragin duten pertsonak. Sexuari dagokionez, gizonenak dira gehiengoa, baina ez da fenomeno bereziki maskulinizatua. Datu hauen balantzea eginda migrazio saldoa positibo handiena eragin duten eremuak estatua (48 pertsona), Amerika (34 pertsona) eta Europa (28 pertsona) izan dira.

Oso esanguratsua da migrazio saldo positibo handiena estatuarekin izana; izan ere, alta eta baje azterketan ikusi da estatuan jaiotako pertsonen kopurua ez dela esanguratsua. Datu horrek adierazten du Ataunera iritsi diren pertsona asko lehenago estatuan errolatuak egon direla, nahiz eta estatutik kanpo jaio. Bestalde, Ataunek migrazio saldo negatiboa (69 pertsona) Goierriarekin bakarrik duela konprobatu da; hau da, gehiago dira Ataundik Goierriara bizitzera joan diren pertsonak Goierriatik Ataunera joan direnak baino. Galera nagusia BOL eremuarekin izan da, Lazkaoarekin, bereziki.

Udalerri barruko barne mugimenduei dagokionez, azpimarragarria da aldaketak nagusiki 35-49 urte eta horien seme-alaben belaunaldia osatzen duten 0-19 urte bitarteko pertsonena izatea. Kasu honetan herri barruko errolda aldaketen %61,6a Ataunen bertan jaiotako pertsonena izan da. Aldaketa horien ezaugarriak bat datoz bizi proiektua errotzeko urratsa ematen duten pertsonekin. Mugimendu horiek, gainera, patroï espazial argi bat erakusten dute: San Martin herriguneko nukleo nagusiek udalerriko pertsonak erakartzen dituzte gainerako eremuetan dauden auzuneen edo landa-eremuaren kaltetan. Datu horiek Ataunek oraindik ere bere biztanleria errotzeko gaitasuna duela erakusten du, baina bere auzuneen bizigarritasunaren kaltetan.

Hurrengo urteetan udalerriak biztanleak galduko ditu.

Ataunek 2038 urterako biztanleriaren %4,4 galduko duela aurreikusi da; biztanle kopurua 1.580 inguru izango da. Bi faktore nagusik eragingo dute biztanle galera hau: hazkunde begetatibo negatiboak, batetik, eta migrazio saldo ia nuluak, bestetik. Horrekin batera, udalerriko biztanleriaren adin egitura zahartzen joango da: zahartze tasa %27,8raino igoko da eta 0-19 urte bitarteko pertsonen tasa %12,4ra jaitsiko da. Udalerriko demografia biziberritzeko gaitasuna kritikoa izango dela aurreikusten da.

Bide horretan, etorkizuneko 20-34 urteko belaunaldiaren errotzea estrategikoa izango da. Izan ere, pertsona horiek Ataunen bizitzeko gero presentzia handia izango duen belaunaldia izango da eta 2038tik aurrera jaiotza tasaren igoera eragin dezakete. Bestalde, hurrengo urteetako biztanleriaren bilakaeran BOL eremuaren hazkundeak udalerriko pertsonak erakartzeko gaitasuna handituko duen edo, orain arte bezala, biztanle galera areagotuko duen ikusi beharko da.

Bizikidetzak-unitateek gero eta txikiagoak izateko joera dute.

Ataungo bizikidetzak-unitateen kopuruak (654 bizikidetzak-unitate) hazkunde nabarmena izan du 2001-2023 urteen artean. Bi arrazoi nagusik eragin dute igoera hori: biztanleria hazkundeak, batetik, eta bizikidetzak-unitateetan batz besteko tamainaren jaitsierak, bestetik. Hurrengo urteei begira bizikidetzak-unitateen kopuruak behera egingo duela aurreikusten bada ere galera hau ez da esanguratsua izango. Izan ere, bizikidetzak-unitateen batz besteko tamaina txikituz joango da biztanle galeraren eragina konpentsatuz.

Familia horien ezaugarriak dagokionez aipatu gehiengo nagusia Elbarrena eta San Gregorio auzuneetan kokatzen direla, batz besteko tamaina 2,6 kidekoa dela eta estatutik kanpo jaiotako gutxienez pertsonaren bat duten 86 bizikidetzak-unitate daudela. Bizikidetzak-unitate zaurgarrien zantzuak ez dira handiak: zortzi edo kide gehiagok osatutako bost kasu bakarrik identifikatu dira eta pertsonako 15m² baino gutxiago dituzten beste 15 kasu. Bestalde, atzerriko pertsonen bizikidetzak-unitateen kontzentrazioan ez da patroï espazialik antzeman.

Formazio mailak gora egin du eskualdeko lan-merkatuaren beharrei erantzunez.

Ataungo herritarren formazio mailak gora egin du azken urteetan: lanbide heziketako ikasketak dituzten ehunekoak ia bost puntu egin ditu gora, bigarren mailako ikasketena 3,6 puntu eta goi-mailako ikasketen portzentajeak beste horrenbeste. Udalerriko formakuntza mailak Goierriko izaera bera du eta datu hauen atzean eskualdeko duen lan-merkatuaren eragina nabari da: industrian lan egiteko ingeniariaren eta lanpostu teknikoaren profilak indarra hartu du.

Udalerriak euskararen arnagune izaten jarraitzen du.

Udalerriak gaur egun azken hamarkadetakoa euskararen arnagune izaera bere horretan mantentzen du. Euskararen ezagutza tasa oso altua den harren eta ama zein etxeko hizkuntza bezala euskarak nagusi izaten jarraitzen badu ere, eremu euskaldunetatik bereganatu den biztanleriaren ondorioz adierazle horien balioak bera egin du ezinbestean.

Hala ere, bilakaera horrek ez du Ataungo paisaia linguistikoan eragin: 2021 azken hizkuntzen erabilaren kale neurketaren arabera euskara gehien erabiltzen den hizkuntza izateaz gain (%93,1) gora egin du. Edonola ere, oraindik ez dira zehaztasunez ezagutzen pertsona etorri berrien patroia linguistikoa. Pentsatzekoa da udalerrri euskaldunetan bezala Ataunen ere aldaketak euskararen kalterako izango direla.

Lanarekiko harremanak inguruko eremuen egitura bera du. Sexuaren arabera desoreka, ordea, handia da.

Ataungo biztanleria ez-produktiboaren eta biztanleria aktiboaren tasak BOL eremukoaren, Goierrikoaren eta Gipuzkoakoaren parekoak dira. Ataungo langabezia tasak, ordea, inguruko eremuena baino apalagoa da. Nolanahi ere, adierazle horiek biztanleriak lanarekiko duen harremanean genero desoreka dagoela antzematen da, langabezia tasan, bereziki.

Emakumeen langabezia tasa, esaterako, gizonena baino ia bost puntu altuagoa da. Gainera, azken datuen arabera (2021), Covidak eragindako osasun krisiaren ondorioz, seguruenik, gizon eta emakumeen langabezia tasaren diferentzia handitu egin da. Ataungo herritarrek gizonen presentzia nagusi den lan-merkatuarekin lotuta daude.

Ataunek Gipuzkoako batz besteko errenta baino altuagoa du, baina genero arrakala oso handia da.

Bide berean, errenta pertsonalaren zein familia-errentaren datuen Ataunek bere inguruko udalerrien egoera bezain ona edo hobea duela berresten dute. Zoritxarrez, kasu honetan ere sexuaren arabera arrakala handia dagoela ikusi daiteke, errenta pertsonalaren kasuan bereziki: emakumeen errenta pertsonala gizonena baino ia %40 txikiagoa da. Desberdintasun hori, gainera, ez da azken urteetan murriztu. Bi ideia azpimarratu behar dira ataudarrek nagusiki lan egiten duten sektoreari erreparatuta: administrazioko soldadak eta industriakoak altuak direla, batetik, eta industria, bereziki, sektore oso maskulinizatua izanik errentan genero arrakala oso handia eragiten duela.

Udalerrriak ez du aberastasuna sortzeko gaitasunik.

Udalerrriak biztanleko duen barne produktua ez da Gipuzkoako, Goierriko edo BOL eremuko balioaren herena izatera ere iristen. Balio erantsi gordinari erreparatuta Ataungo aberastasunaren sorreran industriak duen pisua txikia dela erakusten du (%9,4); ekonomiaren %70,6a zerbitzuetan oinarritzen da.

Bestalde, Goierri eta Gipuzkoan baino presentzia indartsuagoa du ekonomian lehen sektoreak, balio erantsiaren %7,2a iristeraino. Nolanahi ere, nekazaritzari eta abeltzaintzari lotutako aktibitateek ez dute udalerriko aberastasunaren sorreran traktore izateko gaitasunik. Udalerrriak aktibitate ekonomikoa sortzeko eta horri eusteko gabezia argia du.

Lehen sektoreko establezimenduak gehiengoak dira.

Establezimenduen bilakaerak joera negatiboa izan du, 2014tik aurrera, bereziki. Urte horretan udalerrriak aktibitate ekonomikorekin lotutako 130 establezimendu zituen, baina gaur egun 108 besterik ez ditu, %16,9ko jaitsiera. Dena den, behar bada hori ohikoa izan da gainerako eremuetan ere eta azpimarratu behar da biztanleko establezimenduen dentsitatea BOL eremukoaren eta Goierrikoaren parekoa dela.

Udalerriko establezimenduen ezaugarriak erreparatuta hainbat ondorio atera daitezke:

- Industria establezimenduek ez dute Goierri eta BOL eremuan duten bezainbesteko pisua.
- Lehen sektoreko enpresak ohikoa baino gehiago dira.
- Establezimenduen enplegatu kopurua oso txikia da eta gehienek autonomo izaera dute.

Oro har, Ataungo enpresa ehuna ez da ezagutzen intentsiboa eta ez du udalerrian dinamismoa eragiteko gaitasunik.

Etxebizitzak ezaugarri nagusiak auzunearen arabera aldatzen dira.

Azken hamarkadan Ataungo etxebizitza parkea %1,4a bakarrik hazi da, bere inguruko eremuetan baino askoz ere gutxiago. Bestalde, etxebizitza ez nagusien tasak, hau da, lehen etxebizitza ez direnak (bigarren etxebizitzak, etxebizitza hutsak, etxebizitza turistikoak...), %28,9koa da, BOL eremuan, Goierri eta Gipuzkoan baino handiagoa. Datu honek Ataungo etxebizitza parkearen gaineko presioa gainerako eremuetakoa baino txikiagoa dela iradokitzen du, izan etxebizitza beharragatik edo bigarren etxebizitza eskaeragatik.

Etxebizitza parkearen ezaugarriak dagokionez, familia anitzeko etxebizitzak Elbarrena eta San Gregorio auzuneetan kokatzen dira, bereziki. Gainerako eremuetan familia bakarreko etxebizitzak edo baserriak dira gehiengoak. Bi auzune hauetan etxebizitzak antzintasuna oso ugaria da: prozesu urbanistiko edo eraikuntza fase desberdinak argi bereizita daude. Landa-eremuan ordea 100 urte baino gehiago dituzten etxebizitzak nagusitzen dira. Azaleraren ikuspegitik tamaina ertaineko etxeak (75-100m²) eta etxebizitza handiak (>150m²) dira ohikoenak.

Etxebizitza hutsen tasa oso altua da.

Ataungo etxebizitzak ia hirutik bat (%28,6) hutsik dago. Datu hau udalerriko auzune guztietan homogeneoa ez bada ere (nukleo nagusietan etxebizitza parkeak landa eremuan baino erabilera maila altuagoa du) problema argi baten erakuslea da. Auzune konkretu batzuek biztanleria galtzeaz gain herriko ondare materiala zein immateriala galtzeko arriskua presente dago. Udalerriko nukleo nagusietako etxebizitza parkeak duen presioa, ordea, handia da eta barne mailako biztanleria fluxuek hurrengo urteetan presioa handituko dutela iradokitzen dute.

Ekipamenduek San Martinen bakarrik bermatzen dute irisgarritasuna.

Ataunek bere tamainako udalerriek dituzten berezko ekipamenduak ditu. Herriaren morfologiaren eta biztanleriaren banaketaren ondorioz, ordea, ekipamendu nagusi ia guztiak San Martin herrigunean kokatzen dira, Elbarrena eta Astigarraga auzuneetan, bereziki. Bertan bizi da biztanleen gehiengoa eta, beraz, zerbitzuen irisgarritasuna bermatuta dute. Bestalde, San Martineko herrigunetatik kanpo dauden auzuneek, San Gregorioko osasun zentroa izan ezik, ez dute oinarritzko zerbitzurik eskuragarri. Ezaugarri horrek Aiako edota San Gregorioko auzuneen bizigarritasuna kaltetzen du.

Oinezkoentzako bide aproposen gabeziak eta garraio publikoaren zerbitzu mugatuak ibilgailu pribatuaren erabilera sustatzen dute.

Elbarrena auzunea udalerriko dinamismoaren gune nagusia da eta gertutasun handia du inguruko auzuneekin. Gainerako herriguneekiko distantziak, ordea, handiegiak dira. Distantzia hori eta oinezko edo bizikletentzako bide apropos eza auzuneen arteko lotura oinez edo bizikletaz egiteko muga dira. Bestalde, aipatu behar da udalerritik Lurraldebusko autobusa pasatzen dela.

Linea horren zerbitzu nagusia Ataun BOL eremuko udalerriekin konektatzea da; udalerri barruko loturek maiztasun oso mugatua dute. Horiek horrela, Beasain, Ordizia edo Lazkao ez den beste eremu batera iristeko transbordo ezinbestekoa da. Ohitura hori indartzea beharrezkoa den arren, hainbat hiri nagusietara iristeko behar den denborak ibilgailu pribatuaren erabilera indartzen du.

ERREFERENTZIAK

Soziolinguistika Klusterra (2017). *Hizkuntzen Erabileraren Kale-Neurketa UEMako udalerriak eta Tolosaldea, 2017.*

Soziolinguistika Klusterra (2021). *Hizkuntzen Erabileraren Kale-Neurketa UEMako udalerriak eta Tolosaldea, 2021.*

4*

HIRIGINTZA AZKERKETA

4.1 SARRERA

4.1.1 ESKUALDEKO ENKOADRAKETA ETA INGURUNE FISIKOAREN AZALPENA

Ataungo udalerria Gipuzkoako hego-ekialdean kokatzen da, *Goierri* eskualdean eta muga egiten du Nafarroako Foru Erkideagorekin. Udalerriak 58,36 km² inguruko azalera du (5.836 Ha), Gipuzkoako 5. udalerri handiena da, eta 10x10 km-ko UTM lau lauki hauen artean aurkitzen da: 30T WN66, 30T WN 76, 30T WN65 eta 30T WN 75.

Iparraldean Lazkao eta Zaldibiako udalerriekin partekatzen ditu mugak Ataunek; mendebaldean Idiazabalekin egiten du muga; ekialdean Enirio-Aralarrekin; hego-mendebaldean Gipuzkoako Partzuergo Txikiarekin; eta hegoaldean, berriz, Nafarroako Foru Erkidegoko udalerrri hauekin: Alsasua, Urdiain, Iturmendi, Bakaiku eta Etxarri Aranatz.

Ataun Agauntza ibaiak sortutako ibarrean kokatzen da, Aralar mendikatearen altzoan, eta haren lehen arro isurlea osatzen du, iturburutik Lazkaoaraino. Agauntza ibaia da udalerriaren ardatz nagusia, hari paralelo doan GI-2120 errepidearekin batera, eta udalerriko giza egonleku nagusiak haien ertzetan kokatzen dira: Ergoiena, San Gregorio, Arinberriaga, Arrondo, Astigarraga eta Elbarrena dira, goitik behera, eta biztanleriaren %76,56 hartzen dute egun.

Udalerriko beste auzune esanguratsua Aia da, bertan erroldatutako 13 biztanleek duten pisu demografikoaz haratago, udalerria osatzen duten 3 barruti edo herriguneetako baten "erdigunea" delako.

Izan ere, udalerriaren lurraldea ondorengo 3 barruti edo herriguneetan banatua izan baita historikoki:

- San Martin: iparraldean kokatzen da, 15,64 km² inguruko azalera du, eta Elbarrena, Astigarraga, Arrondo eta Arinberriaga auzuneak hartzen ditu, hau da, biztanleriaren %60,25, barreiatua aintzat hartu gabe;
- San Gregorio: hego-mendebaldean kokatzen da, 18,38 km² inguruko azalera du, eta San Gregorio eta Ergoiena auzuneak hartzen ditu, hau da, biztanleriaren %16,31, barreiatua aintzat hartu gabe;
- Aia: hego-ekialdean kokatzen da, 23,51 km² inguruko azalera du, eta izen bereko auzunea da hiri-bilbe izaera duen bakarra, esan bezala, 13 biztanle soilik dituen arren, barreiatua aintzat hartu gabe.

Edonola, datuetatik nabarmen ondorioztatzen da udalerriak duen barreiatu zabala, biztanleriaren ia laurdena (%23,44) landaguneko baserri zein bizitegietan bizi baita; landagunean nabarmendu daitezkeen eremu nagusiak ondorengoak dira: San Martinen, Aitzarte; San Gregorion, Motasoro eta Lauzti(erreka); eta Aia, osotasunean barreiatu bezala har daitezkeena.

Azaldur berri den egitura orokorrarekin, Ataungo udalerria Oria bailararen albo batera kokatzen da, 5 km inguru hegoaldera. Lazkao gurutzatu ondoren, Agauntza ibaiak Oria ibaira isurtzen du Beasainen, eta GI-2120 errepidea ere bertan lotzen da Oria bailara zeharkatzen duten azpiegitura ardatz garrantzitsuekin: N-I errepidea eta RENFERen Madrid-Irun trenbidea, baita abiadura handiko trenbidea ere.

Izan ere, GI-2120 errepidea baita Ataunek duen kanpo-komunikabide bakarra, udalerria iparraldetik hego-ekialderaino zeharkatu ondoren, Lizarrustiko gainetik Etxarri Aranatzera doan eskualdeko errepidea (sare berdea).

Beti GI-2120 errepidetik abiatuta, Ataunen aurki daitezkeen gainontzeko errepideak (sare grisekoak denak) udalerrri barnean hasi eta bukatzen dira, eta tokiko mugikortasuna bermatzen dute: GI-3151, Arrondon hasi eta, Urkillagako gaina eta Aia auzoa igaro ondoren, Ergoiena auzotik gora GI-2120 errepidera itzultzen dena; eta zaku-hondo izaera duten GI-4151 (Aitzarte aldera), GI-4153 (Motasorora) eta GI-3152 (Lauztierreka auzora).

Lurraldearen morfologiaren ikuspegitik bi eremu ezberdin bereizi daitezke:

- Mendialdea: Agauntza ibarretik bi alboetara zabaltzen den mendi malkartsuak, Aralarko Parke Naturalaren mugapeko altitude handieneko lurrak barneratzen dituen udalerriaren ekialdean. Gehienetan eremu hauek basogintzara zuzendutako erabilera dute, orografia lagungarri den tokietan baserrietako jardueri lotutako larreak eta laborantzak tartekatzen direlarik, eta Enirio-Aralarren goi-larreetako eremu zabalak Aralarreko kota altuetan.
- Behealdea: Agauntza ibaiaren ibarretako eremu estuak, non egoitzetarako eta industriadetako hiri-lur gehienak kokatzen diren, eta baita EAEko Nekazaritza eta Basogintza Antolatze Lurraldearen Arloko Planak balio estrategiko altukotzat hartzen dituen lurrak ere.

Ataungo udalerrri osoa Oria Unitate Hidrologikoan kokatzen da. EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatze Lurraldearen Arloko Planak 'I' mailan sailkatzen du Agauntza ibaia, goiburutik Lauztierreka batzen den punturaino, osagai hidraulikoaren arabera, 10-50 km²-ko arro isurleko tarteen artean alegia, eta 'II' mailan handik behera, hau da, 50-100 km²-ko arro isurleko tarteen artean.

Ataungo sare hidrografikoa osatzen duten zenbait erreka, aldiz, 'O' mailan sailkatzen ditu, 1-10 km²-ko arro isurleko tarteen artean alegia: Artzaterreka, Lauztierreka, Inbidiaerreka edota Altzuaran erreka. Gainontzeko erreka txikiagoak '00' mailan sailkatzen ditu, <1 km²-ko arro isurleko tarteen artean.

Sarastarri mendia da udalerriko gailurra (994 m), baina ugariak dira Agauntza ibaiaren ibarra zedarritzen duten mendi tontorrak, doi doi 1.000 metrotik beherakoak guztiak: *Zelatamuño* (953 m), *Irumugata* (962 m), *Intsusburu* (943 m), edota *Aietsu* (973 m), besteren artean.

Dena den, Ataunen ezin aipatu gabe uzi "domoa" edo, herrian ezaguna den bezala, Aitzarte egitura geologiko berezia; *Jentilbaratza*, *Aizkoate*, *Aizkorrandi*, *Arastortz*, *Agautz*, *Leizadi*, *Asundi*, *Loibideko Mailoak* eta *Ikarandiet*a mendiek osatzen dute garai batean kupula itxurako mendia zen eta egun erraztun gisa ageri den mailartea.

Aparteko ezaugarri hauekin, Ataungo udalerriko azaleraren %76,23 (44,49 km²) Aralarko Parke Naturalaren barnean aurkitzen da, baina balio naturalistiko handiko elementu eta eremu ugariak beste zenbait babes-figura ere ezagutzen dituzte, hala nola:

- Parke Naturala Natura 2000 Sarearen parte den Kontserbazio Bereziko Eremua izendatuta dago (ES2120011), eta 44,54 km² inguruko azalera hartzen du, Parkeak berak baino 0,05 km² (5 Ha.) gehiago.
- Natura 2000 Sare berean, 'Oria Garaia' ibai eremua ere KBE izendatuta dago (ES2120005); eremu honek Agauntza ibaiaren tarte bat hartzen du, zehazki San Martin auzotik Lazkaoko mugaraino doana, eta kasu honetan babestutako eremuaren azalera askoz txikiagoa da, 10 ha inguru.
- Aipatu bii eremuak EAE-ko Korridore Ekologikoen Sareko elementuak dira; bata, Aralar, sarearen nukleoetako bat da, eta bestea, Agauntza, ibai konektore garrantzitsua.
- 92/43/CEE Habitat Arteztarauak identifikatzen eta babesten dituen mota ezberdinetako larreek (6170, 6210, 6230, eta 6510 kodeez identifikatzen dituen Batasunaren Intereseko Habitategen, esaterako), Ataunen garrantzi handia dute; aipatzekoak dira halaber, Europa mailan interesekoak diren harkaizti basikoetako landaredia (8210), pagadiak (9120), harkaitzetako basoak (9180* -lehentasunezko habitata-), haltzadiak (91E0* -lehentasunezko habitata-) eta artadi kantauriarrak (9340); horiez gain, Euskal Herri mailan babestu beharreko bertako basoen azalerak ere ageri dira.

Gauzak horrela, udalerriko azalera zabalaren erabilera ondorengo koadroaren arabera banatzen da egun:

Unitatea	Azalera (ha)	Udalerriaren %
Ur-ibilguak eta ihitokiak	4,89	0,1%
Bertako basoak	3.012,74	51,6%
Mendiko larreak	154,82	2,7%
Belardiak eta larreak	574,57	9,8%
Fruitarbolak	19,88	0,3%
Sastrakadiak	227,52	3,9%
Hostozabalen landaketak	88,03	1,5%
Koniferoen landaketak	1.704,76	29,2%
Baratzak eta laboreak	10,15	0,2%
Eraldatutako eremuak	38,87	0,7%
Udalerria	5.836,23	100,0%

Azkenik, larre eta basoen mosaikoa den landazabalak biodibertsitatearen aldetik duen balioari, paisaiaren aldetik duena gehitu behar zaio, izan ere, baserria baita paisaia egitura horren eragilea eta herriari landa-nortasuna ematen diona.

4.1.2. UDAL PLANGINTZAREN LEGE ESPARRUA

Udal plangintza orokorra, funtsean eta besteren artean, ondorengo xedapenek osatutako lege esparruan kokatzen da:

a. Lurralde eta hirigintza arautegia

- Ley de Ordenación del Territorio, de 31 de mayo de 1990.
- Real Decreto Legislativo 7/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Suelo y Rehabilitación Urbana.
- Real Decreto 1492/2011 de 24 de octubre, por el que se aprueba el Reglamento de valoraciones de la ley del Suelo.
- Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo de 30 de junio de 2006, con las modificaciones derivadas de:
 - Ley de 28 de noviembre de 2008, por la que se modifica la participación de la comunidad en las plusvalías generadas por la acción urbanística (Ley 11/2008);
 - Ley 17/2008, de 23 de diciembre, de Política Agraria y Alimentaria;
 - Ley 2/2014, de 2 de octubre, de modificación de la Ley 2/2006, de Suelo y Urbanismo.

- Ley de Vivienda, de 18 de junio de 2015 (Ley 3/2015).
- Decreto 105/2008 de Medidas Urgentes, parcialmente derogado por el Decreto 123/2012.
- Decreto 123/2012 de 3 de julio de estándares urbanísticos.
- Ley 3/2015, de 18 de junio, de vivienda.
- Decreto Foral 82/1998, de 24 de noviembre, de coordinación de actuaciones en materia de autorizaciones y licencias en suelo no urbanizable.
- Decreto 46/2020, de 24 de marzo, de regulación de los procedimientos de aprobación de los planes de ordenación del territorio y de los instrumentos de ordenación urbanística.

b. Beste qai batzuetan indarrean daqoen arautegia

- Disposiciones vigentes en materia de carreteras, incluidas, entre otras, la Ley de 30 de mayo de 1989, reguladora del Plan General de Carreteras del País Vasco, modificada y/o complementada con posterioridad en sucesivas ocasiones, y la Norma Foral de Carreteras de Gipuzkoa, de 6 de junio de 2006.
- Disposiciones vigentes en materia de conservación del patrimonio natural:
 - Ley 42/2007, de 13 de diciembre, del Patrimonio Natural y de la Biodiversidad.
 - Ley 9/2021, de 25 de noviembre, de conservación del patrimonio natural de Euskadi.
- Ley para la promoción de la accesibilidad, de 4 de diciembre de 1997, y disposiciones promovidas en su desarrollo.
- Disposiciones vigentes en materia de medio ambiente y evaluación ambiental del planeamiento urbanístico:
 - Ley 21/2013 de 9 de diciembre de evaluación ambiental, modificada por la Ley 9/2018, de 5 de diciembre, el Real Decreto-ley 23/2020, de 23 de junio, por el que se aprueban medidas en materia de energía y en otros ámbitos para la reactivación económica y el Real Decreto-ley 36/2020, de 30 de diciembre, por el que se aprueban medidas urgentes para la modernización de la Administración Pública y para la ejecución del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia.
 - Ley 10/2021, de 9 de diciembre, de Administración Ambiental de Euskadi.
 - Decreto 211/2012 de 16 de octubre por el que se regula el procedimiento de evaluación ambiental estratégica de planes y programas.
- Disposiciones vigentes en materia de ruido:
 - Ley del Ruido, de 17 de noviembre de 2003.
 - Reales Decreto de 16 de diciembre de 2005 y 19 de octubre de 2007, de desarrollo de la Ley en lo referente a evaluación y gestión del ruido ambiental (el primero) y zonificación acústica, objetivos de calidad y emisiones acústicas (el segundo).
 - Decreto 213/2012 de 16 de octubre de contaminación acústica de la Comunidad Autónoma del País Vasco.
- Ley 38/2015, de 29 de septiembre, del sector ferroviario y su Reglamento (R.D. 2387/2000).
- Disposiciones vigentes en materia de contaminación del suelo:
 - Ley 4/2015, de 25 de junio, para la prevención y corrección de la contaminación del suelo
 - Decreto 165/2008 de 30 de septiembre, de inventario de suelos que soportan o han soportado actividades o instalaciones potencialmente contaminantes del suelo.
- Norma Foral 7/2006 de 20 de octubre, de Montes de Gipuzkoa.
- Ley para la igualdad de mujeres y hombres, de 18 de febrero de 2005 (Ley 4/2005) y Ley de 22 de marzo de 2007, para la igualdad efectiva de mujeres y hombres (Ley 3/2007). La primera de esas Leyes ha sido modificada mediante la Ley 2/2012 y la Ley 1/2022.
- Disposiciones vigentes en materia de agua y planes hidrológicos:
 - Real Decreto Legislativo 1/2001, de 20 de julio, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Aguas
 - Ley 1/2006, de 23 de junio, de Aguas.
 - Real Decreto 849/1986, de 11 de abril, por el que se aprueba el Reglamento del Dominio Público Hidráulico, que desarrolla los títulos preliminar I, IV, V, VI y VII de la Ley 29/1985, de 2 de agosto, de Aguas.

- Real Decreto 1/2016, de 8 de enero, por el que se aprueba la revisión de los Planes Hidrológicos de las demarcaciones hidrográficas del Cantábrico Occidental, Guadalquivir, Ceuta, Melilla, Segura y Júcar, y de la parte española de las demarcaciones hidrográficas del Cantábrico Oriental, Miño-Sil, Duero, Tajo, Guadiana y Ebro.
- Disposiciones vigentes en materia de seguridad, servidumbres aéreas y ordenación de aeropuertos:
 - Ley 13/1996, de 30 de diciembre, de Medidas Fiscales, Administrativas y de Orden Social (BOE nº 315, de 31 de diciembre; art. 166)
 - Ley 48/60 de 21 de julio (BOE nº176 de 23 de julio) sobre Navegación Aérea que establece las Servidumbres Aeronáuticas, modificada por Ley 55/99 sobre Medidas Fiscales, Administrativas y de Orden Social, de 29 de diciembre (BOE nº 132 de 30 de diciembre).
 - Ley 21/2003 de 7 de julio, de Seguridad Aérea (BOE nº 162, de 8 de julio).
 - Decreto 584/72 de 24 de febrero, de Servidumbres Aeronáuticas (BOE nº 69, de 21 de marzo).
 - Real Decreto 2591/1998 de 4 de diciembre de Ordenación de los Aeropuertos de Interés General y su Zona de Servicio (BOE nº 292 de 7 de diciembre).
- Disposiciones vigentes en materia agraria:
 - Ley para el desarrollo sostenible del medio rural, de 13 de diciembre de 2007 (Ley 16/2007).
 - Ley 17/2008 de 23 de diciembre de Política Agraria y Alimentaria
 - Decreto por el que se establecen las normas técnicas, higiénico-sanitarias y medioambientales de las explotaciones ganaderas, de 22 de setiembre de 2009 (Decreto 515/2009).
 - Decreto 248/2006, de 28 de noviembre, por el que se regulan los requisitos mínimos materiales y funcionales de los alojamientos para el personal temporero, así como la autorización, registro y acreditación de los mismos.
- Decreto 49/2009 de 24 de febrero por el que se regula la eliminación de residuos mediante depósito en vertedero y la ejecución de rellenos.
- Disposiciones vigentes en materia de servicios y comercio:
 - Ley 17/2009, de 23 de noviembre, sobre el libre acceso a las actividades de servicios y su ejercicio.
 - Ley 25/2009, de 22 de diciembre, de modificación de diversas leyes para su adaptación a la Ley sobre el libre acceso a las actividades de servicios y su ejercicio.
 - Ley 12/2012, de 26 de diciembre, de medidas urgentes de liberalización del comercio y de determinados servicios
 - Ley 7/2008, de 25 de junio, de segunda modificación de la ley de la actividad comercial (Ley 7/1994, de 27 de mayo, de la Actividad Comercial).
 - Ley 7/2012, de 23 de abril, de modificación de diversas leyes para su adaptación a la Directiva 2006/123/CE, de 12 de diciembre, del Parlamento Europeo y del Consejo, relativa a los servicios en el mercado interior.
 - Real Decreto-ley 8/2014, de 4 de julio, de aprobación de medidas urgentes para el crecimiento, la competitividad y la eficiencia.
- Legislación vigente en materia de puertos:
 - Ley 2/2018, de 28 de junio, de Puertos y Transporte Marítimo del País Vasco; etc.
- Ley 11/2022, de 28 de junio, General de Telecomunicaciones y disposiciones convalidadas por ella o promovidas en su desarrollo.
- La Ley 10/2015, de 23 de diciembre, de Espectáculos Públicos y Actividades Recreativas y su Reglamento (Decreto 17/2019).
- Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, desarrollada mediante el Decreto 179/ 2019, de 19 de noviembre, sobre normalización del uso institucional y administrativo de las lenguas oficiales en las instituciones locales de Euskadi.
- Disposiciones vigentes en materia de turismo:
 - Ley 13/2016, de 28 de julio, de Turismo; Decreto 101/2018, de 3 de julio, de viviendas y habitaciones de viviendas particulares para uso turístico.

- Decreto Legislativo 1/2017, de 27 de abril, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Gestión de Emergencias de la CAPV.
- Ley 4/2019, de 21 de febrero, de Sostenibilidad Energética de la Comunidad Autónoma Vasca.
- Ley 6/2019, de 9 de mayo, de Patrimonio Cultural Vasco.
- Ley 10/2019, de 27 de junio, de ordenación territorial de grandes establecimientos comerciales.
- Ley 7/2021, de 20 de mayo, de cambio climático y transición energética.
- Decreto 80/2022, de 28 de junio, por el que se regulan las condiciones mínimas de habitabilidad y normas de diseño de las viviendas y alojamientos dotacionales en la CAPV.
- Otras disposiciones vigentes en materia de vivienda, incluidas las reguladoras de las viviendas de protección pública (Orden de 30 de junio de 2022, sobre determinación de los precios y rentas máximas de las viviendas de protección pública y el canon de los alojamientos dotacionales, etc.).
- Disposiciones vigentes en materia de edificación, incluido el Código Técnico de la Edificación.

4.1.3. LURRALDE ANTOLAMENDUA ETA ERAGINA DUTEN HIRIGINTZA TRESNAK

4/1990 Legea, maiatzaren 31koa, Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzkoa, delakoak hiru tresna mota bereziten ditu EAEko lurraldea antolatzeko xedea dutenak:

- Lurralde Antolamendurako Artezpideak LAA (EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak-LAG).
- Lurraldearen Plan Partzialak LPP.
- Lurralde Plangintza Sektoriala LPS.

Ondorengo ataletan aipatu arautegiaren xedapen nagusien laburpena egingo da, Ataungo udalerri dagozkionak nabarmenduz.

4.1.3.1 Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak LAG

Egun indarrean dauden gidalerroak 128/2019 DEKRETUA, uztailaren 30ekoa, zeinaren bidez behin betiko onesten baitira Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak, delakoaren bitartez onartu ziren.

Gainera, kontuan hartu behar da 4/2016 Dekretua, urtarrilaren 19koa, zeinaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak behin betiko onesten dituen Dekretua aldatzen baita, bizitegi-kuantifikazioari dagokionez, delakoa indargabetzen duela, besteren artean.

Lurralde Antolamenduaren Gidalerroek hamabost “eskualde egitura” delakoetan banatzen dute EAEko lurraldea. Ataun Goierriko Eremu Funtzionalan txertatzen da, “Tolosaldea”, “Debagoiena” eta “Araba Erdialdea” eremu funtzionalekin mugakide dena, baita Nafarroako Foru Erkidegoarekin ere.

Eremuaren barne dauden udalerri eta lurralde egiturak ondorengoak dira: Altxaga, Arama, Ataun, Beasain, Ezkio-Itsaso, Gabiria, Gainza, Idiazabal, Itsasondo, Lazkao, Legazpi, Legorreta, Mutiloa, Olaberria, Ordizia, Ormaiztegi, Segura, Urretxu, Zaldibia, Zegama, Zerain eta Zumarraga; eta honako eremu hauek biltzen dira: Araba eta Gipuzkoako Partzuergo Nagusia eta Enirio-Aralar.

Lurraldearen Antolamendurako Gidalerroen I. MEMORIA atalak, hiri-habitatari dagokionean, Urolako eta Oriako Eraldaketa Ardatzen arteko konexio gisa definitzen du Goierriko Eremu Funtzionala, eta gidalerro hauek ezartzen dizkio:

d. Goierriko Eremu Funtzionala. Urolako eta Oriako Eraldaketa Ardatzen arteko konexioa.

Eremu Funtzionala bi ardatzen inguruan egituratzen da, eta ardatz horietan metatzen da biztanleriaren gehiengoa.

Lehenengo ardatza iparraldetik hegoaldera doa Oriaren haranean barrena, eta N-I errepidean oinarritzen den eskala handiagoko korridore batean sartzen da. Korridore hori hiri-continuum batean hedatzen da, Tolosaldeko eta Donostialdeko eremuataraino.

Bigarrena ekialdetik mendebaldera doa, eta Beasain-Ordizia-Lazkao errotulan bat egiten du lehenengoarekin; Urolako Eraldaketa Ardatzarekin konektatzen du, bigarren hirigune garrantzitsuenera (Zumarraga-Urretxu) iristeraino eta, hortik aurrera, Durangorantz luzatzen da.

Proposatutako Eraldaketa Ardatza goian aipatu ditugun bi ardatz horiek zehaztutako hiri-egituraren oinarritzen da. Ardatzean zehar dauden garapenak finkatzea eta kontzentratzea planteatzen da bertan, Beasain-Ordizia-Lazkao nodoaren (Olaberria eta Idiazabal bertan txertatutako liriteke funtzionala) garapenak eta Zumarraga-Urretxuri eta Legazpiko dagozkion artikulatuz, eta hirigune sendoa eratuko du maila handiagoko hiri-eremu batean.

Ardatz hau antolatzeko planteatzen diren gidalerroak honako hauek dira:

d.1 Ordizia-Beasain trenbide-saihesbidea egikaritzea sektoreko administrazioak emandako definizioaren arabera, N-1 errepidearen ondoan, eta Ordiziako geltoki berria ere egikaritzea.

d.2 Hainbat nukleo konektatzen dituzten hiriarteko bideen gainera ekobulebar bat garatzea, funtsean, Zumarragatik Ormaiztegiara doan GI- 2632, Ormaiztegitik Beasainera doan GI-2632 eta Ordiziatik Tolosaldeko eremu funtzionalera doan GI-2131 errepideak oinarri hartuta, aldi berean lotura finkatuz Debako Eraldaketa Ardatzarekin eta AP-1ekin, GI-632 errepidea Zumarragatik Bergararaino luzatuta, eta Zumarraga eta Azkoitia arteko konexioa hobetuta.

d.3 Ardatzean barrena dauden nukleoak artikulatzen dituzten errepideak konfiguratzeko; oinezkoentzako eta bizikletentzako sareekin artikulatuta eta aldiriko trenen sarearekin eta errepidezko garraio publikoarekin konektatuta.

d.4 Oria ibaiaren ibilgua eta haren arro isurlea lehenertzeko prozesua lehenestea, korridore ekologiko eta paisajistiko gisa, uholde-arriskuak aintzat hartuta, jardun ororen irizpide eta helburuen artean bilduta ibaiaren beraren ingurumen- eta ekologia-balioak hobetzea eta berreskuratzea.

d.5 Eremuan dauden naturagune garrantzitsuak babesteko eta indartzeko jarduna bermatzea, batik bat, Aizkorri-Aratzeko eta Aralarreko Parke Naturalak eta haien ingurunea, hirigintza-garapenak definitutako Eraldaketa Ardatzen gainera hirigintza-garapenak kontzentratzearen bidez.

d.6 Ardatzean eraikinik ez duten tarte libreak okupazio berrietatik babestu behar dira, eta egungo kokalekuen finkapena eta artikulazioa lehenetsiz, Lurralde Plan Partzialean definitutako lurralde-ereduari jarraikiz.

Beranduago, lurralde esparru ezberdinen lurralde eta hirigintza-iraunkortasuneko adierazleak eskaintzen ditu, horrela:

Esparrua	Gune irekien S.O.	Babes berezia	Ingurune hobekuntza	Mendi larreak	Basoa	Nek., abel, landazabala	Uren babesa	Lurz. ez urbanizag.	
	%	%	%	%	%	%	%	ha	%
EAE	0,92	22,63	2,49	1,02	29,88	30,71	5,58	674.457	93,22
Gipuzkoa	1,54	24,42	3,57	0,94	32,51	26,76	3,64	184.745	93,38
Goiherri	0,39	22,51	3,93	0,28	43,07	22,94	3,20	41.464	96,31

Esparrua	Egoitza	Jarduera ekonomikoak	Sistema Orokorrak	Kalifikatua guztira	Lurzoru ez urbanizagarria	Guztira
	%	%	%	%	%	ha
EAE	2,61	1,91	2,25	6,78	93,22	723.508
Gipuzkoa	2,60	1,96	2,06	6,62	93,38	197.837
Goiherri	1,21	1,29	1,19	3,69	96,31	43.051

Esparrua	Biztanleria				Dentsitatea		
	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Azalera guztira	Dentsitatea	Kalifikatutako hiritar azalera	Hiritar dentsitatea
	Biz.	Biz.	Biz.	km ²	Biz./km ²	km ²	Biz./km ²
EAE	2.175.819	1.056.378	1.119.441	7.235,08	300,73	490,51	4.435,81
Gipuzkoa	712.801	348.473	364.328	1.978,37	360,30	130,92	5.444,37
Goiherri	69.423	34.946	34.477	430,51	161,26	15,87	4.373,79

Esparrua	Lurzoru urbanizagarria hiri lurzoruarekiko	Egoitzarako luzorur urbanizagarria lurzoru urbanizagarri osoarekiko	Jarduera ekonomikoaterako luzorur urbanizagarria luzorur urbanizagarri osoarekiko
	%	%	%
EAE	20,29	47,78	52,22
Gipuzkoa	19,45	43,64	56,36
Goiherri	21,03	28,22	71,78

<i>Esparrua</i>	<i>Egungo etxebizitzak</i> Etx.	<i>Aurreikusten den etxebizitza gehikuntza</i> Etx. %	<i>Etxebizitza kopurua guztira 100 biztanlekiko</i> Etx./100 biz.
EAE	977.512	193.005 19,74	53,80
Gipuzkoa	321.796	59.879 18,61	53,55
Goierri	29.724	5.823 19,59	51,20

<i>Esparrua</i>	<i>Egoitzarako hiri lurzoruan dauden etxebizitzaren dentsitatea</i> Etx./ha.	<i>Hiri lurzoruan aurreikusten diren etxebizitzaren dentsitatea</i> Etx./ha.	<i>Lurzoru urbanizagarrian aurreikusten diren etxebizitzaren dentsitatea</i> Etx./ha.
EAE	59,90	67,97	26,33
Gipuzkoa	71,22	79,43	41,08
Goierri	63,17	71,39	40,53

Aldiz, II. APLIKATZEKO ARAUAK atalean, Goierriko Eremu Funtzionalari egiten zaizkion aipamenak ondorengoak dira:

5. artikulua. – Eremu Funtzionalen arloko gidalerroak.

1. – Lurraldea antolatzeke honako Eremu Funtzional hauek ezarriko dira:

b) Goierriko Eremu Funtzionala.

6. artikulua. – Lurralde-eskalako hiri-sistemaren arloko gidalerroak.

EAEren lurralde-eskalako hiri-sisteman honako funtsezko hiru elementu hauek bereizten dira:

b) Eremu Funtzionala buru eta azpiburuaren sarea.

4) Goierriko Eremu Funtzionala. Burua: Beasain-Ordizia-Lazkao. Azpiburua: Zumarraga- Urretxu.

c) Eraldaketa-ardatzak.

4) Goierriko Eremu Funtzionala. Urolako eta Oriako eraldaketa-ardatzaren arteko konexioa.

28. artikulua. – Tren-, portu- eta aireportu-arloko mugikortasunaren eta logistikaren arloko gidalerroak.

1. – Tren arloko mugikortasunari eta logistikari dagokienez:

a) Tren-abiadura handia.

6) Honako hauek Abiadura Handiko geltokietarako lehentasunezko kokalekutzat jotzea, lurraldean eta hirian zenbateraino txertatu diren kontuan hartuta eta EAEko garraio-sistemaren gainerakoekiko interakzio-aukerak ikusirik:

d. – Ezkio-Itsasoko geltokia da Nafarroarekiko konexiorako bi aukeretako bat, eta **Goierri** eta Debagoienako hiriguneei Abiadura Handiko Trenaren zerbitzuak eskuratzeko modua emango die. Garrantzitsua da, halaber, geltoki hori eremu horretako aldiriko garraio-sistemekin lotzea.

Eta APLIKATZEKO ARAUEN IV. ERANSKINA: BIZITEGI KUANTIFIKAZIOA atalean zera dio:

1. – Bizitegi-kuantifikazioa.

1.b. Beharrak kalkulatzeko aplikazio-irizpideak.

1.b.1. Biztanleriaren proiektzioa.

1. taula. Biztanleriaren bilakaera lurralde-eremuaren arabera

<i>Lurralde eremua</i>	<i>Biztanleria</i>		<i>%EAE gainean</i>		<i>2016ko indizea</i>
	<i>1996</i>	<i>2016</i>	<i>1996</i>	<i>2016</i>	<i>1996-2016</i>
EAE	2.098.055	2.171.886	100,00	100,00	103,52
Gipuzkoa	676.208	710.699	32,23	32,72	105,10
Goierri	65.986	69.022	3,15	3,18	104,60
Debagoiena	64.907	64.260	3,09	2,96	99,00
Tolosaldea	42.869	46.969	2,04	2,16	109,56
Araba Erdialdea	238.283	276.272	11,36	12,72	115,94

3.— 2018-2026 aldirako kuantifikazio-metodoaren ezarpen argigarria.

3.a. Bizitegi-beharrak (2018-2026).

6. Taula. 2018-2026 epealdirako aurreikusitako bizitegi-beharrak

Lurralde eremua	A1 Biztanle-aldaketa	A2 Familia-tamaina	B1 Bigarren etxebizitza	C1 Jemderik gabeko etxebizitza	Bizitegi-beharrak guztira	% etxebizitza parkearen gainean
EAE	23.767	51.490	3.728	3.921	82.918	7,9
Gipuzkoa	7.801	16.870	1.116	1.285	27.073	8,0
Goierrri	701	1.627	54	139	2.521	7,5

3.b Bizitegi-ahalmena (2018-2026).

7. taula. 2018-2026ko planeamendurako aurreikusitako Bizitegi-ahalmena

Lurralde eremua	2016ko etxe parkea	Bizitegi beharrak		2016ko indizea			
		Bizitegi beharrak	Harrotze-faktorearekin	Jenderik gabeko etxe murriztea	Bizitegi-ahalmena mugarik gabe	Gehieneko ahalmena	Harrotze-faktorea
EAE	1.042.646	82.918	198.558	20.857	177.701	180.872	2,18
Gipuzkoa	339.427	27.073	64.906	6.790	58.116	57.717	2,13
Goierrri	33.417	2.521	6.467	669	5.798	6.016	2,39

Edonola, aipatu xedapen zehatz hauetatik haratago, LAGen berrikuspenaren printzipio gidariak dira, modu orokor batean, Ataungo Plan Orokor berriaren idazketan aintzat hartu behar direnak, Ataungo herritarrek ezbaian jartzen ez dituzten edota berriak eranstean ez dituzten bitartean; hauek dira:

1. Azpiegitura berdea eta ekosistemen zerbitzuen baliozkotzea ingurune fisikoaren antolamenduan txertatzea.
2. Landa-ingurune edo -habitata espezifikoki ageriko egitea lurralde-antolamenduan.
3. Eraldaketa-ardatzen figura hiri-sisteman txertatzea.
4. Jada artifizializatutako lurzoruen erabilera optimizatzea eta horretarako hiri-berroneratzea eta erabileren mistizitatea sustatzea, eta halaber, hazkunde mugagabea saihestea hiri-hazkundeko perimetroa ezarritik.
5. Erantzun arina eta eraginkorra sustatzea lurzoru-premietarako jardura ekonomikoei begira, batez ere egungo lurzoruen berroneratzea, berritzea eta birdentsifikazioa proposatuz.
6. Paisaiaren kudeaketa barnean hartzea lurralde-antolamendurako tresnen bidez.
7. Baliabideen kudeaketa jasangarriaren kontzeptua txertatzea: ura, energia-burujabetza, ekonomia zirkularra eta autosufizientzia konektatua (lehengaien baliabideak).
8. Mugikortasun eta logistika iraunkorra sustatzea, arreta berezia emanez oinezkoen eta bizikleten mugikortasunari, garraio publiko multimodalari eta garraio bideen konbinazioaren optimizazioari, abiadura handiko trenaren zerbitzuak emango dituen denborazko jokaleku batean.
9. Gai berriak sartzeko lurraldearen antolamenduan, zeharkako izaeratzat kontuan hartzen direnak, hala nola irisgarritasun unibertsala, genero-ikuspegia, euskara, klima-aldaketa, osasuna eta lurralde-erlazioa.
10. Lurralde-antolamenduaren politika publikoaren kudeaketan gobernantza ona sustatzea, batez ere planen jarraipenaren eta ebaluazioaren, partaidetzaaren eta administrazio arloko integrazioaren bidez.

4.1.3.2- Lurraldearen Zatiko Plana LZP

1997ko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen (LAG) garapen gisa, **Beasain-Zumarragako (Goierrri) Eremu Funtzionaleko Lurraldearen Zatiko Plana (LZP)** 2009ko irailaren 29an onartu zen behin betiko, 534/2009 Dekretuaren bitartez (2009ko urriaren 29ko EHAA, 208. zenbakia). Nabarmena da 2019an LAGen berrikuspena onartzearekin batera, indarreko LZP behin-behinekotasun aldian sartu dela, 128/2019 DEKRETUA, uztailaren 30ekoa, zeinaren bidez behin betiko onesten baitira Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak, delakoak zera baitio:

LEHENENGO XEDAPEN IRAGANKORRA.— Lurralde-plan partzialen eta lurralde-plan sektorialen doitze-epea.

1.– Egun indarrean dauden **lurralde-plan partzialak** eta lurralde-plan sektorialak Dekretu honetan xedatutakora **moldatuko dira** indarrean sartu eta hurrengo **zortzi urteetako epean**.

2.– Moldaketa horri lantzen duen lurralde-planaren onarpenerako ezarritako prozedura aplikatuko zaio, eta planak lurralde-antolamenduko gidalerroekin gordetzen duen egokitzapenari buruzko berariazko atal bat sartu beharko du bere justifikazio-memorian.

3.– Dekretu hau indarrean jartzen denean hasierako onarpena izapidetan duen lurralde-plangintzak ez du zertan moldaketa egin.

4.– Lurralde-plan partzialak eta lurralde-plan sektorialak indarrean mantenduko dira moldaketarik egiten ez zaien bitartean.

Beraz, LZPak (edo LPPak) egokitzeko epea 8 urteko da, baina egungoak indarrean mantenduko dira egokitzapena burutzen ez den bitartean.

Horrela, Ataungo Plan Orokorren idazketa prozesuari begira, Goierriko Lurraldearen Zatiko Planak udalerriaren lurralde-testuingurua ulertzeko datu baliagarriak eskaintzen ditu, nahiz eta bere onarpenetik testuinguru horrek, gertukoak zein urrunekoak, muturreko aldaketak jasan dituen, eta aurrean berebiziko erronkak dituen garai aldaketa bizi dugun. Edonola, Ataungo udalerriaren indarrean dagoen hirigintza planeamendua ere (orain berrikusi nahi dena) Goierriko LZP onartu baino 4 urte lehenago sartu zen indarrean, eta ondorioz, are zaharkituagoa dagoela baieztatu genezake.

Ondoren beraz, indarreko Lurraldearen Zatiko Planak proposatzen duen lurralde eredua aztertuko da, Ataungo udalerriari egiten zaizkion aipamenak nabarmenduz, hura lantzeko oinarriak zaharkituak geratu direla ulertzen den arren.

2. LURRALDE EREDUA LANTZEKO OINARRIAK

2.7. GOIERRIKO EREMU FUNTZIONALEKO LURRALDE EREDUA OSATZEKO GILTZARRIAK ETA ERREFERENTZIAK

LAAetan azaldutako zehaztapen, irizpide eta orientazioak eta 22. kapituluaren (LAAk aplikatzeko arauak) barne hartutako zehaztapenak, "Lurraldearen zatiko planak (izaera, zehaztapenak eta dokumentazioa" izeneko atalean islatu ditugunak, alde batera utzita, "Kontzeptuzko oinarriak....." izeneko agiriak, LAAk garatzeko testuinguruan eta LZPak idazteko orientazio gisa prestatutakoak, ondorengoak aipatzen ditu Goierriko eremu funtzionaleko lurralde-eredua osatzeari begira:

".....Goierriko Eremu funtzionalak zeregin bikoitza izango du EAeko etorkizuneko lurraldeegituraren. Alde batetik, eremu funtzionalean gehien okupatuta dauden espazioak arintzeko jardunak lehenetsi behar dira. Horrekin batera, ezinbestekoa izango da arintzeko estrategia horrek hutsik utziko dituen hiri-espazioak birkalifikatzeko estrategia gauzatzea. Bestetik, nahitaezkoa da bertako ekonomia dibertsifikatzea, hirugarren sektoreko, bizitegitarako eta turismorako jarduerak, gaur egun arte eremu funtzionalean oso gutxi garatu direnak, sartzearen bidez. Intereseko naturguneek (besteak beste Aralarko Parke Naturalak) funtsezko zeregina izan behar dute dibertsifikatzeko estrategia honetan."

- LAAek hiri-berriztatze eta Beasain-Ordizia-Lazkao eta Zumarraga-Urretxu hiri-eremuetako ehunen morfologia birmoldatzeko ekimenak egitea proposatzen dute.
- Beasain, Ordizia, Zumarraga eta Urretxu udalerrietako hirigintza-politikaren bidez sustatuko da bertako herriguneak berbiztatzea. Horretarako, ahalegina egin beharko da etorkizuneko bizitegi-hazkunderen zati bat eremu funtzionala honetan proposatutako habitat alternatiboetara bideratzeko eta hiri-industriaren zati bat (batez ere eragin handiena duena eta aukera potentzialeko kokalekua duena) aurreikuspenen arabera Zumarraga-Beasain ardatzean garatuko diren kokaleku alternatiboetara lekualdatzeko.
- Beasain-Ordizia-Lazkao eta Zumarraga-Urretxu udalerrietako plangintzak bateragarri izateko mekanismoak aplikatu beharko dira.
- **Ataun udalerriaren Beasain-Ordizia-Lazkaoren habitat alternatiboa sortzea proposatzen da.** Ataun hedatzeko ekimen horren hiri-egitura gaur egungo herrigunean eta udalerri horren herrigune nagusiak kokaleku duen haranaren morfologian oinarrituko da. Gainera, Ezkio-Itsaso eta Gabiria udalerrietan ere habitat alternatiboak sortzea ahalbidetuko da, udalerri horietako herriguneen egiturekin bat etorritik.
- Zumarraga-Beasain ardatza ekonomia-jardueretarako eremu gisa garatzea proposatzen da. Horrek aukera eskainiko du eremu funtzionaleko industria-lurzorua eskariari erantzuteko eta udalerriko kongestionatuenetako hiri-industria lekualdatzeko, baita pixkanaka eremu funtzionalean gehiago integratuko den lan-merkatua osatzeko ere, batez ere Beasain-Ordizia-Lazkao eta Zumarraga-Urretxu udalerrien artean.
- LAAek ez dute lurraldea egituratzeko ekintzarik proposatzen, eremu funtzional honetako udalerrietako bigarren etxebizitzaren tratamenduari dagokionez. **Alabaina, bigarren etxebizitza sustatzea aurreikusi da, Ataun, Segura, Zaldibia eta Zegama udalerriak hartuta oinarri endogenotzat.**
- LAAetan eremu funtzional honetarako proposatutako **aisiarako eremuen artean** ondorengoak ditugu: **Aralar, Aizkorri eta Udana-Brinkola** gaina. Horrez gain, Zaldibia, **Ataun** eta Zegama **udalerriak lurralderako sarreragune gisa egokitzea** proposatzen da.

- LAAek ekipamendu-sistema antolatzeak egindako proposamenei helduz, azpimarratzekoa da eskualdeko zuzkidura-sistemak eremu funtzional bakoitzeko burutzetan edo azpiburutzetan integratzeko asmoa. Kasu honetan, bada, Beasain-Ordizia-Lazkao eta Zumarraga-Urretxu herriguneetan integratzea.
- LAAek babesteko proposamenak direla eta eremu funtzional honetarako egindako proposamenei begira, berriz, **Aralarko Parke Naturala** da azpimarragarri.

Lurralde-antolamenduko eredua osatzeko giltzarriak

Aipatutako erreferentziak kontuan hartuta eta gaikako hainbat ataletan banatu dugun informazioa eskaintzeko eta balorazioa egiteko sintesiaren laburpen gisa, ondoren hautemandako ahultasunak, arazoak eta disfuntzionalitateak gainditzeko eta eremu funtzionalaren lurralde-antolamendurako eredua osatzeko giltzarri diren lurralde-alderdiak adieraziko ditugu:

- Erliebea oro har menditsua eta malda handikoa da, zenbait haran eta muinok osatutakoa. Erliebea horrelakoa eta lurzorua lau urria izateak nabarmen baldintzatzen dute berori erabiltzeko ahalmena. Muga horiek direla eta, hiri-garapeneko prozesuak haranen hondoetan pilatu dira. Horrek erabileren arteko lehia sortu du, eremu horiek nork okupatuko. Baina, aldi berean, lurraldea bereizketarik gabe okupatzeko prozesuak saihestu ditu, naturguneak eta kultura, ingurumen eta paisaiaren inguruko balio handiko eremuak, aisiako eta turismo berdeko jardueretarako potentzial handia dutenak, zainduz.
- Kokaleku estrategikoa du EAE egituratzen eta garatzen duten bi ardatzen gainean.
- Asentamendu-sistema berezia: bertan sei herrigune nagusi daude eta horietan biltzen da biztanleriaren % 80. Horiek gai dira modu orekatuan izateko eremu funtzionala eta dagokien azpieskualdeko buru. Beren arteko harremanak garraio publikoko azpiegitura baten bidez gauzatzen dira eta handiak dira horien zerbitzuak areagotzeko aukerak.
- Beasain-Ordizia-Lazkao hiri-eremuek osatutako aglomerazio bat dago. Ahalmena du dagozkion herriguneak goragoko mailako hiri berri batean integratzeko. Eskualde-izaerako ekipamendu eta zerbitzu berriak garatzeko gai da. Bestalde, eremu funtzionala azpiburutzak gisa diharduen hiri bat du, Zumarraga-Urretxu, jada hiri-errealitate dena, baina hobe daitekeena. Legazpirekin batera, lehena osatzen du, eremu funtzionala berrorekatuz.
- Bizitegi eta ekonomia-jardueretarako garapen berriak hartzeko ahalmena duen lurralde-eremu bat du, Beasain-Zumarraga korridorea (Ormaiztegiko harana adiera zabalean). Gaur egungo eta etorkizuneko egituraren oinarrituta, garapen horiek bi burutzetako herrigune eta ingurune hurbil aseak arintzeko balioko dute eta eremu funtzionala gehiago orekatzen eta barne-kohesioa lortzen lagunduko dute.
- Landa-izaera duten asentamendu ugari daude, hirigintzaren, arkitekturaren eta ingurumenaren inguruko zalantza jarri ezineko balioa dutenak. Horien iraupena bermatu behar da eta horietan zonalderik hiritarren alternatiba izango diren bizitegitarako eskaintzak kokatu behar dira, izan ere, horien ezinbesteko osagarri dira.
- Azpiegituren gaineko hainbat proiektu garrantzitsu daude. Horiek kanpoaldearekin eta barnealdearekin lotzeko aukerak hobetuko dituzte eta EAEko hirien sisteman eremu funtzionalak eta bertako burutzeak duten posizioa indartuko dute. Proposamen horien artean ditugu aurreikusitako trenbide-sare berria eraikitzea. Gainera, Beasain-Durango korridoreak aukera eskainiko du Goierri euskal hirien sistemarekin lotzeko eta horrek indartu egingo du bi burutzen arteko lotura. Horrek Tolosa-Beasain-Idiazabal ardatza, bere barne-mugikortasuna dela eta maila metropolitarretik hurbilago dagoena, konpentsatuko du. Halaber, Ezkio-Itsaso udalerrian bidaiarientzako, salgaietarako nahiz bietarako geltoki bat instalatzeko aukera oso aktibo garrantzitsua da, saihestu ezin dena. Izan ere, horren bidez gune hori eta bere ingurua zentraltasun-nodo garrantzitsu bihurtuko litzateke eta horrek maila eta protagonismo handiagoa emango lioke haranaren zati horri, eta indartu egingo lirateke eremu funtzionala bi burutzen arteko harremanak.

3. GOIERRIKO EREMU FUNTZIONALAREN LURRALDE EREDUA

3.1. ANTOLAMENDURAKO OINARRIZKO IRIZPIDEAK ETA HELBURUAK

- Eskualdeko natur baliabideak eta horien paisaia- eta ingurumen-kalitatea zaintzea, hobetzea eta balioz hornitzea, horiek funtsezko aktibo baitira eskualdearen etorkizuneko garapen jasangarriko.
- Eremu funtzionalaren egituratzea sustatzea, bertako burutzen erlazio eta integrazio funtzionala sustatuz, Oria Garaia – Urola Garaia dikotomia gaindituz.
- Burutzetako guneak sustatzea garapenaren eragile gisa. Horretarako horien eta beren hurbileko ingurunearen arteko egitura- eta forma-integrazio egokia lortzea ahalbidetuko duten jardunak egingo dira eta lortu nahi den maila berriarekin bat datozen hiri-elementu eta -funtzioak eskainiko zaizkie.
- Eskualdeak eta, batez ere, Beasain-Ordizia-Lazkao burutzeak bere kokapena dela eta dituen abantailak aprobetxatzea, izan ere, lurralde historikoko garapen-ardatzik garrantzitsuenetako bi dituzte kokaleku. Gainera, potentziala dute beren maila igotzeko eta Gipuzkoako eta EAEko hirien sistemako erreferente bihurtzeko.

- Landa-herriguneak eremu funtzionaleko lurraldea antolatzeko prozesuan integratzea. Horretarako, landa-herriguneen garapen ekonomikoa erraztuko duten eta herrigune horiek demografikoki finkatzea sustatuko duten proposamenak egingo dira, betiere herrigune horien berezitasunei eta inguruneari eutsiz eta aipatutako herriguneen eta ezaugarri hiritarragoak dituztenen arteko desartikulazio-arriskua saihestuz.
- Eskualdean bizitzeko erakargarritasuna hobetzea, hiri-berriztatzearen eta ingurunearen ahalmena areagotzearen bidez. Horrekin batera, ondo dimentsionatutako eta dibertsifikatutako etxebizitza-politika egokia gauzatzen bada eta ekipamendu eta zerbitzuen eskaintza hobetzen bada, ziurtatu egingo da biztanleria. Modu horretan eten edo mugatu egingo da azkeneko bosturtekoetako biztanleria-galera.
- Eskualde-izaerako ekonomia-jardueretarako lurzoru-baliabideak antolatzea. Horretarako lurraldearen potentzialtasuna hartuko dugu oinarri eta gaur egungo desorekak hobetzen ahaleginduko gara, betiere eskaera motei jarraiki.
- Udalaz gaindiko ekipamenduak, espazio libreak eta zerbitzuen azpiegiturak antolatzea, hartara, lurraldea egituratzeko eta eremu funtzionaleko gizarteongizatea eta ingurumen-kalitatea hobetzeko.

3.2. GOIERRIKO EREMU FUNTZIONALAREN LURRALDE EREDUA

Eredua ondorengo oinarritzko ideien inguruan antolatu da:

- Eremu funtzioanleko ingurumenaren eta paisaiaren kalitatea zaintzea eta hobetzea, etorkizuneko aktibo garrantzitsu izaki.
- EAEko hirien sistemarekiko koherentea, orekatua eta integratua den asentamendusistema bat lortzea, udalerriek betetzen dituzten funtzio desberdinen osagarritasuna eta hiri-esparruaren eta landa-esparruaren arteko erlazio mota berria oinarrian hartuta. Hartara, ekonomiaren eta gizartearen garapena eta kohesioa indartuko da eremuko biztanleen artean.
- Azpiegitura-sistema egokia garatzea, Goierriko eremu funtzionala kanpoko garapenardatzetan integratuko dela ziurtatzeko, inguruko eremu funtzionalekiko loturak garatzeko eta egituratzea indartzeko (ereduko oinarritzko elementuen arteko erlazio funtzionalak hobetuko dituzten konexioen bitartez).

3.3. INGURUNE FISIKOAREN ANTOLAMENDUA

3.3.1. IRIZPIDEAK ETA HELBURUAK

- Eremu funtzionaleko intereseko naturguneen babes eraginkorra bermatzea
- Gaur egun dauden baso autoktonoen masa handiak babestea, horien kalitate ekologikoari eusteko eta, hala badagokio, hobetzeko, horien azalera handitzea ahalbidetuz.
- Fauna eta flora basatiko espezieen kontserbazioa laguntzea, dibertsitate genetiko eta dagokien habitaten babesa bermatuz; arreta berezia jarriko da espezie mehatxatuen gainean.
- Landaredi-estaldurari eutsiko zaiola edo/eta hori hobetu egingo dela bermatzea, materialen desplazamenduak gertatzeko arriskua dagoen zonaldeetan, bertan eragin kaltegarria izan dezaketen jarduerak kokatzea saihestuz.
- Erriberako ekosistemen kalitatea hobetzea eta/edo horri eustea, horietan eragiten duten faktoreei (alterazio, isurketa eta abarri) arreta eskainiz.
- Lur azpiko baliabide akuiferoen kalitateari eustea eta horiek gehiegi ustiatzea eragozte, horretarako hiri-isurketak nahiz nekazaritza eta abeltzaintzakoak kontrolatuz.
- Harrera-ahalmenarekin bateragarri ez diren jarduerak direla eta degradatutako lurzoruak leheneratzea sustatzea (utzitako harrobiak eta hondakindegia, meatzeinguruak eta higadura-arriskua duten zonaldeak).
- Multzo paisajistiko baliotsuak eta kultur ondarea babestea.
- Orain arte erabili ez diren edo nahikoa aprobeitatu ez diren baliabide naturalak aktibatzea sustatzea, landa-ingurunea garatzeko eta baliabide naturalak zentzuz erabiltzeko estrategia orokorraren barruan.
- Atsegin hartzeko eta turismorako erabilera modu antolatuan sustatzea, ekipamendu ludiko eta kulturalen bidez. Ondare naturale eta kulturalen oinarritutako ekipamendu horiek lurraldearen erabilera sustatuko dute.

3.4. EREDUAREN OINARRIZKO AZPIEGITURAK. HARREMANETARAKO SISTEMAK ETA ZERBITZUENAK.

3.4.1. GARRAIO ETA KOMUNIKAZIOARAKO SISTEMA

3.4.1.a. Bide-garraio eta -komunikazioen sistemaren eredu integrala

Errepide-sarea

Honakoa da kategorizazioa:

- Kanpoko sarbide-sare orokorra. (Autobide, autobia eta errepide orokorren sarea)
- Tokiko sarbide-sare nagusia. Aipatutako sarearen barruan daude, halaber, GI 2630, **GI 2120** eta GI 2133 errepideen zatia, Legazpi eta Zumarraga, **Beasain eta Lazkao** eta Ordizia eta Zaldibia artekoak, hurrenez hurren.
- Lurraldeko sarbide-sare osagarria. (Eskualdeko sarea) Azpeitia-Beasain ibilbideak, Mandubiatik (GI 2635), San Prudentzio-Oñati-Legazpi-Urretxu ibilbideak (GI 2630), Ordizia-Zaldibia-Amezketeta-Alegi ibilbideak (GI 2133), Segura-Zegama-Altsasu ibilbideak, Otzaurteko portuaren bitartez, eta **Lazkao-Lizarrusti-Etxarri Aranaz** ibilbideak sartzen dira sarean. Sareari esker inguruko eremu funtzionalekiko elkarrenergina osatzea lortzen da eta, kasu askotan, eskualde-mailako errepide paisajistiko izatera iritsi dira.
Eskualde-mailako izaera dutelarik, oinarritzko elementuak dira ingurune fisikoaren erabilerarako proposatu den estrategian.
- Tokiko sarbide-sare sekundarioa
- Landaguneetarako sarbide-sarea.

Trenbide-sarea

Sistemako hainbat elementu

3.4.1.b. Garraio eta komunikaziorako sistemarako proposamenak

- Euskal hiriburuen sistemarekin, hurbileko eremu funtzionalerako burutzeekin eta inguruko ekonomia-esparrurik dinamikoenekin lotzea.
- Eremu funtzionalaren egitura sendotzea, burutzen arteko eta horien eta tokiko guneen arteko harremanak loturen bidez indartuz.
N-I zaharrak eta gaur egungo G-632 errepideak (biak ere aldatu egin dira trafiko-bide soilen ikuspegi sektoriala gaintzen duen diseinu berri bati jarraiki, inguruko herrigunerik hurbilekoen eta burutzen arteko ibilbide jakin batzuetan) osatzen dute eskualdearen barneko benetako egitura.
Lurraldeko eta tokiko sarbide-sare sekundarioek eta landaguneetarako sarbideekosatzen dute errepide-sarea. Bide horiek, hainbat guneren arteko lotura berrien bidez egoki indartutakoak, aukera eskaintzen dute ereduaren asentamendu-sistema artikulatzeko eta erlazionatzeko.
Sistema ingurune naturaleko landa-bideen eta oinezkoen ibilbideen elkarren hurreneko kapilar-sareen bidez hedatzen denez, bertako puntu guztietarako hurbileraztasuna eta ereduaren oinarritzko elementuen arteko harremana bermatzen dituen sare eraginkorra sortzen da lurraldean.
- Eredua osatzeko sarean integratutako edo inguruan kokatutako beste elementu batzuk ere hartu behar dira aintzat, horiek ere funtsezko baitira garraio eta komunikabideen sistema orokorra ulertzeko. Autobus-geltokiak, truke-zentroak eta garraiorako ekipamenduak dira, hain zuzen ere, elementu horiek.

3.4.2. OINARRIZKO AZPIEGITURAK

3.4.2.a. Saneamendua

Oria ibaiaren arroan, bestalde, honako konponbide hauek aztertu dira:

- Ezkioetik Legorretako HUAr (herrigunetik ibaian behera) doan kolektore orokorra. Ondorengo udalerrietako isurketak jasoko ditu: Ezkio Itsaso, Ormaiztegi, Beasain, Ordizia, Arama, Itsasondo eta Etxezarreta paper-fabrika; bai eta ondorengo ibaien zeharkako arroekin ere: Estanda (Gabiria), Oria (Zegama, Zerain eta Segura), Ursuaran (Idiazabal), Oria (Olaberria), **Agauntza (Ataungo San Martin herrigunea)** eta Lazkao) eta Amondarain (Zaldibia eta Gaintza).

3.4.2.b. Ur-hornidura

Elementu esanguratsuenak **Lareo**, Arriaran eta Barrendiolako urtegiak dira.

3.5. ASENTAMENDU SISTEMA

3.5.2. BIZITEGITARAKO LURZORUAK

3.5.2.a Bizitegitarako lurzorua antolatzeke lurralde-irizpideak

Tamaina ertaineko herriguneak dituzten udalerriak

Kategoria honetan sartu dira Legorreta, Itsasondo, Zaldibia, **Ataun-San Martin**, Idiazabal, Segura eta Ormaiztegi udalerrietako herriguneak. Oro har hiri-kontzentrazio handien inguruan daude.

Epe ertainera, berezko hazkunde endogenoaren aurrean konponbide bat eskaini beharko da. Udalerrri horien herriguneak formalizatuz, egituratuz eta sendotuz eta herrigune horietan garapen txiki berriak integratuz egingo da.

Landaguneetako herriguneak

Kategoria honen barruan sailkatu dira Arama, Alzaga, Gaintza, **Ataun-San Gregorio**, Olaberria (herrigunea), Zerain, Mutiloa, Gabiria eta Ezkio-Itsasoko udalerriak eta udalerrri horietako dentsifikazio handiagoko hainbat landa-auzo.

Biztanleria modu orekatuago batean banatzeko, nahitaezkoa izango litzateke herrigune horietan guztietan bizitegitarako eskaintza alternatiboa egitea, eremu urbanizatuenetatik at. Horrela, herrigune horietarako dentsitate eta intentsitate baxuko hazkundeak proposatu dira, azpiegitura-mailarekin (errepideak, hornidura eta zerbitzuak) bat datozenak.

Hala eta guztiz ere, Ezkio-Itsaso, Gabiria eta **Ataungo udalerriek (San Martin izan ezik)** "eredurako inplikazioak" dituen habitat alternatiborako proposamen bat garatu ahal izango dute, LZPren kuantifikazioak kontuan hartuta.

3.5.2.c. Bizitegitarako lurzoru berriaren eskaintza kuantifikatzea udal-plangintzan

1. Kuantifikazioa LAAen arabera

- Udalerrri bakoitzeko bizitegitarako lurzoruaren eskaintza kuantifikatzeko lau osagai zehaztu dira eta honako hauek dira:

C1 Identifikatutako etxebizitza kopurua, udalerriak lortu nahi duen lurralde-eredu berrirako betetzen duen zeregin bereziaren arabera.

C2 Aurreikusitako "hazkunde demografikoari" dagokion etxebizitza kopurua.

C3 Familia-egituraren aldaketak eta, ondorioz, etxebizitza bakoitzean batez beste bizi den pertsona kopuruaren aldaketak, eragin ditzakeen ondorioei dagozkien etxebizitzaren kopurua.

C4 "Eskaintzaren zurruntasuna zuzentzeko faktorea" aplikatu ondoren lortutako etxebizitzaren kopurua.

Eskaintzaren zurruntasuna zuzentzeko faktorea 0,20koa duten udalerriak: 1.000 biztanletik gorako udalerriak (**Ataun**, Idiazabal, Legorreta, Ormaiztegi, Segura, Zaldibia eta Zegama).

***Kontuan hartu behar da Planak aipatzen duen LAA iraungita dagoela, baita hark jasotzen zuen bizitegi ahalmena kuantifikatzeko eredua ere.**

2. Lurraldea berrerekatzeko irizpideak LZPren ereduaren arabera

- Azpieskualde honetan egin den ereduak eragindako habitat alternatiboen eskaintza, **Ataun** eta Gabiriako udalerrietan proposatu da.

Era berean, honakoak dira habitat alternatiboa eta ereduaren inplikazioak dituzten udalerriak:

- Ataun**.....60 etxebizitza

3. Bizitegi-eskaintzaren guztizko kuantifikazioa

Bizitegitarako lurzoruaren eskaintzaren kuantifikazioa

Udalerrria	Beharrak 8 urtera		Beharrak 16 urtera	
	Etxebizitza kopurua MAX.	Etxebizitza kopurua MIN.	Etxebizitza kopurua MAX.	Etxebizitza kopurua MIN..
ATAUN	215	155	286	206
*Indarrean dagoen 2005eko udal plangintzak (jatorrizkoak + arau aldaketa puntualak) 314 etxebizitzako hazkunde garbia aurreikusten dute; ikusten denez, 2009ko Lurraldearen Zatiko Planak aitortutakoa gaingituz.				

3.5.2.d. Etxebizitza babesturako lurzoru dimentsionatzeko proposamena

Legorreta, Itsasondo, Zaldibia, **Ataun (San Martin)**, Segura eta Zegamako udalerriak **jarduera publikoak garatzeko intereseko** udalerriak dira, eta udalerrri horietan etxebizitza babestuen eragiketak, aurrekoen osagarriak, aurreikusi dira.

3.5.3. EKONOMIA JARDUERETARAKO LURZORUA

Goierriko eremu funtzionalak gaur egun erronka bat gaingitu behar du: industriako jarduera produktiboen garapena eta ekonomi-egituraren dibertsifikazioa bateragarri egin behar ditu. Horretarako, hirugarren sektoreko jarduerak garatuko dira eskuarki eta, bereziki, zerbitzuen sektorekoak, gaur egun eremu funtzionalean gutxiegi garatuta dagoen zerbitzuen sektorekoak.

Bien kasuan, hots, industria mota berriaren kasuan eta zerbitzuen sektorearen kasuan, berariaz diseinatutako espazioak behar dira.

3.5.3.b. Antolamendurako irizpide orokorrak

- Asentamendu berrietan lehentasuna emango zaio tamaina handiko edo ertaineko eragiketa gutxiago egiteari, tamaina handiagoko lurzoru alubialen gaineko esku hartze txikien, natur ingurunean etengabe inpaktuak eragiten dituztenen, kaltetan.
- Hain zuzen ere, haranaren hondoetan dauden zerrenda estu eta lauen gaineko eskuhartzeak deskalifikatu eta eragotzi behar dira. Ez dira ukituko eta ibaien eta errekaen alboan bereizketa-zerrenda, deskongestio-eremu eta ingurumenbabeseko zerrenda gisa utziko dira. Halaber, ibai eta errekaen ibilgu naturala eta ertzetako landaredia mantentzea komeniko litzateke.
- Asentamenduak aukeratzeko aipatutako irizpideez gain, kontuan hartuko dira hiridiseinua komunikazio-egituraren integratzeko irizpidea, oinezkoen eta txirrindularien ibilbideak, espaloiak eta zuhaitziak zainduz, eraikin, urbanizazio zein ertzak diseinatzeko eta ingurumenarekiko erlazioa.

3.5.3.c. Lurzorua antolatze eta sustatzeko esku-hartzeak kokatzeko lurraldea lehenesteko estrategiak eta irizpideak

Hirugarren multzo batean, **garapen txikiko udalerriak** sailkatu dira. Planak egindako proposamenaren arabera, higitza-plangintzak mugatu beharko du ekonomia jardueretarako lurzoruaren kalifikazioa hiri-izaerako jardueretarako izatea.

Kategoria honetan sailkatu dira Altaga, Gaintza, **Ataun**, Zerain eta Mutiloako udalerriak.

3.5.4. UDALAZ GAINDIKO EKIPAMENDUAK ETA ESPAZIO LIBREAK.

3.5.4.a. Lurralde-irizpideak eta -helburuak.

- Tokiko ekipamendu askoren kalitate-maila onargarria edo handia bada ere, horietako askoren kontzepzioa udal-mailako ikuspegira mugatuta dago eta, ondorioz, bikoiztasun-arazoak eta bat-etortzearekin erlazionatutakoak sortzen dira; azken finean, baliabideak erabiltzeko orduan gauzak zentzun egiten ez direla erakusten du egoera horrek. Horrelako egoerak begi-bistan geratzen dira hiri-eremu integratuetan, non, beste alde batetik, dagokien kategoriarekin bat datorren kalitatezko ekipamenduak falta diren.
- Gabeziei dagokienez, eremu funtzionaleko hirugarren sektorearen garapenari dagokionez, funtsezkotzat jo dira ondorengo ekipamenduak: negozio-zentroak, enpresetarako zerbitzuak, merkataritza-ekipamenduak, turismo eta aisiako ekipamenduak, gizarte-ekipamendua (alderdi horrek kontuan hartu behar ditu biztanleriaren zahartze-prozesua eta inmigrazioaren gizarteratzea) eta ekipamendu balioanitzak.
- Landaguneetako eta natur ingurunezko ekipamenduei dagokienez –askotan turismoaren sektorearekin estuki lotuta egoten dira-, gaur egun eremu funtzionalean dauden hornidurak eta azpiegiturak ez dira nahikoa, oro har. Gaur egungo eskaintza hobetzeri aldera, LZPak hainbat alderdi azpimarratzen ditu: hotel-eskaintza zabaltzea eta espezializatzea, oinezkoentzako ibilbide berriak sortzea, gaur egungoak hobetzea eta seinaleztapen jartzea, aisialdirako eremuak eta landaguneetako aisialdirako eremuak ugaritzea, bai eta bertan kokatutako herriguneak eta landaguneak antolatzea eta sustatzea.

3.5.4.b. Hiri-ekipamenduak.

Eremu funtzionaleko zahartze-maila eta, batez ere, landa-biztanleriarena, kontuan hartuta, hirugarren adinerako zuzkidurak indartzeko beharra aztertzen da. Aipatutako zerbitzuen kasuan, LZPak ez du kokapen zehatzik aurreikusten. Gainera, egoitza-plazaz gain, etxeko arretako zerbitzuak ere barne hartzen dira. Guztien kasuan, esku hartzeko irizpideen artean, horrelako politika baten pertsona onuradunak dagokien ingurunean bertan laguntzeak duen garrantzia azpimarratuko da.

Ataunen Joxe Miel Barandiaran Euskal Parke Mitologikoa/Interpretazio Zentroa irekitzeko proiektua martxan da jada.

Ereduak, halaber, Zaldibia, **Ataungo San Martin** eta Zegamako herriguneak **“lurraldera sartzeko gunetzat”** sailkatzen ditu eta, ondorioz, berrekupamenduko eragiketa bereziak hartzeko gune egokiak dira.

Aipatutako udalerririk horien plangintzari esker gauzatu ahal izango dira turismo erabilarekin erlazionatutako ekipamenduak, batez ere hiri-izaerako hotel, aisialdi eta kultura eta ingurumeneko hainbat azpiegitura.

3.5.4.c. Ingurumen-ekipamendu eta –azpiegiturak natur ingurunean

Eremu funtzional honek duen ingurumen-kalitate handia eta ondare-balio handiko hainbat elementu kontuan hartuta, turismo-jarduera aukera bikaina da eskualdeko ekonomiaren dibertsifikazioa sustatzeko.

Planean ondorengo aisialdi- eta atseden-eremuak proposatu dira:

- Arantzamendi eremua.

Sarbide-zonetan edo harrera-zonetan, eremu batek baino gehiagok partekatuta izaten direnetan batzuetan, bisitarien egonaldia erraztuko duten azpiegiturak bildu behar dira: aparkalekuak, mahaiak, eserlekuak, kozinatze elementuak, ura, kanpatzeko zonak, eta abar. Garrantzitsuenen artean daude: **Lizarrusti**, Etxegarate, Otzaurte, Udana eta Mandubia.

Erabilera-intentsitateari dagokionez hirugarren maila batean, Parke naturalak eta Interes naturalistikoko espazioak daude. Kategoria horren barruan daude **Aralar** eta Aizkorri-Aratz parke naturalak, Murumendi eta Gorostiaga Interes naturalistikoko espazioak eta **Aralar-Aizkorri konexioa**, **Lizarrusti eta Otzaurte artean**.

ERANSKINA. Interes zientifiko-kulturaleko eremuak eta guneak

Interes geologikoko guneak

- **Aia eta Ataungo lur azaleko irristatzeak.**
- **Ataungo domo-gailurrak.**

Monumentu megalitikoak eta leizeak

Ataun

- | | |
|--|-------------------------------|
| • 043 Aitxu trikuharria. | • 572 Agaoz kobazuloa. |
| • 052 Argonitz trikuharria. | • 570 Allekoaitze kobazuloa. |
| • 051 Bernoa trikuharria. | • 571 Armontaitze kobazuloa. |
| • 068 Erremedio trikuharria. | • 640 Arrateta kobazuloa. |
| • 049 Igartza E. tumulua. | • 641 Azarikobatze kobazuloa. |
| • 048 Igartza M. trikuharria. | • 648 Intxusaeta kobazuloa. |
| • 050 Intxusburu trikuharria. | • 577 Kobazar kobazuloa. |
| • 047 Larrreluze trikuharria. | • 578 Limurita kobazuloa. |
| • 071 Leizadi I. tumulua. (desagertuta edo aurkitu gabe) | |
| • 072 Leizadi H. trikuharria. (desagertuta edo aurkitu gabe) | |
| • 046 Muñaan trikuharria. | |
| • 209 Txotxeta trikuharria. | |

ATAUNGO UDAL PLANGINTZAREN GAINEKO ERAGINEN AGIRI OSAGARRIA

1. INGURUNE FISIKOAREN ANTOLAMENDUA

- Udalerriko babestu, hobetu eta/edo leheneratu beharreko eremuak antolatzea, LZParen zehaztapenei jarraiki.
- Ingurune fisikoa antolatzeke kategoriak bere baldintza, ezaugarri, potentzialtasun eta harrera-ahalmenaren arabera definitzea eta arautzea, LZPan eta/edo LAGetan ezarritako irizpideei jarraiki.

4. ZERBITZU AZPIEGITUREN ANTOLAMENDUA

- LZP honek barne hartutako arloko planak eta proiektuak gauzatzeko beharrezko erreserbak.

6. BIZITEGITARAKO ASENTAMENDUETARAKO LURZORUAREN ANTOLAMENDUA ETA POLITIKA

- Bizitegitarako lurzorua eskaintza kuantifikatzea LZParen xedapenen arabera.
- Etxebizitza-jardun publikoak egiteko lurzorua antolamendu, sustapen eta hirigintza-kudeaketa aurreikustea, udalerrria horiek egiteko intereseko udalerritzat jo baita.

8. EKIPAMENDU ETA ESPAZIO LIBREETARAKO LURZORUAREN ANTOLAMENDUA ETA POLITIKA

Hiri-ekipamenduak

- Turismo, hotel, aisia edota kulturarekin zerikusia duten ekipamenduak aurreikustea, lurralderako sarrerragune dela kontuan hartuta.

Ekipamenduak eta espazio libreak landa zonetan eta inguruea naturalean

- Arantzamendiko aisialdi- eta atseden-eremua.
- Udalerriri dagokion ingurumen ibilbideen sarea.

2020ko azaroan BEASAIN-ZUMARRAGAKO (GOIERRIKO) LURRALDE PLAN PARTZIALA. JARRAIPEN-MEMORIA argitaratu zen; agiri honek, 2019an onartutako LAGen xedapenak alderatzen dituen heinean, irizpide eguneratuak eskaini ditzake Ataungo Plan Orokorren idazketarua begira, eta utzitako ondorioak ondorengoak dira:

II.- ONDORIOAK

A) Ondorio orokorrak

Gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-ingurunean izandako aldaketak direla eta, 2019ko LAGetan ikuspegi berriak jaso behar izan dira datozen urteetarako lurralde-estrategia prestatzeko, hala nola hiri-berroneratzeari ematen zaion arreta berezia, **lurzorua balioan jartzea baliabide mugatu gisa, klima-aldaketa**, mugikortasun jasangarria, paisaia, azpiegitura berdea, ekosistemen zerbitzuak, baliabideen kudeaketa jasangarria, **genero-ikuspegia, osasuna, irisgarritasuna, euskara, immigrazioa**, parte-hartzea eta gobernantza ona, besteak beste. Horiek guztiek gidalerro berriak sortu dituzte, eta LPPek ikuspegi horiek jaso beharko dituzte, idazteko unean aintzat hartu ez ziren alderdi guztietan.

Beasain-Zumarragako (Goierrri) LPPa bat dator 2019ko LAGekin ingurune fisikoaren tratamenduan eta garapen-irizpide orokorretan, baina, bi kasuetan, sakondu egin behar da **Azpiegitura Berdearen** eta **Hiri Hazkundearen Perimetroaren** kontzeptuetan. Gainera, guztiz bat dator hiri-berroneratzearen printzipioekin. Edozelan ere, orain **eraldaketa ardatz gisa** definitzen denaren gainean hartutako zehaztapenak osatu beharko ditu.

B) Ondorio partikularrak

a) Esku-hartze estrategikoak

1- LPPak egiten dituen proposamen gehienek garapen handia izan dute eta behar bezala erantzun diete eremu funtzionalaren beharrei, **nahiz eta hirigintza-plangintza moldatu gabe izateak esku-hartze estrategikoetako batzuk ez garatzea ekarri duen.**

2- Ingurune fisikoa babesteari, ekipamenduei eta espazio libreari dagozkien proposamenek, eta oinarritzko azpiegiturei dagozkienek, oro har, proposatutako helburuak lortu dituzte.

3- Ezkio-Itsaso esparruan, AHTren plataforma eta Iruñearekiko konexioa garapen-bidean dago. Gogorarazi behar da 2019ko LAGek Gasteiztik konexioaren alternatiba ere jasotzen dutela, Lautadan zehar. Datozen urteetan berretsiko da behin betiko alternatiba eta horrek eragina izan dezake Ezkio-Itsasoko aurreikuspenetako batzuetan.

4- Beasain-Ordizia-Lazkao erpinaren garapenak ez ditu jarraitu LPParen aurreikuspenak, ez baita gauzatu trenbide-trazaduran aurreikusitako aldaketa eta ez delako murriztu eragindako eremuko jarduera ekonomikoa. LPParen berrikuspenean azken esparru horretarako proposamenaren bideragarritasuna berraztertu beharko litzateke, batez ere lurraldea jarduera ekonomikoetarako aprobeztatzeari dagokionez, planteatzen den integrazio-eraketarako.

b) Ingurune fisikoa

1- 2019ko LAGetako planteamendu orokor berriek urrats gehiago egiten dituzte lurralde-antolamenduen jasangarritasunean. Horiek moldatzeko beharra adierazten dute, baina ez dute zalantzan jartzen indarreko LPPan jada zehaztuta dagoena. Ingurune fisikoaren antolamenduari eta babesari dagokionez, klima-aldaketara moldatu behar izateak erantzun egokia eskatzen du.

2- Hobekuntza-elementu gisa, LPPak azpiegitura berdeen kontzeptua jaso beharko du eta hori eremu funtzionalaren mailan osatuko duten korridore ekologikoak definitu beharko ditu, jada babestutako naturaguneen arteko konektagarritasun ekologikoa bermatuz, LAGetako 4.6. artikuluko zehaztapenekin bat.

3- Baldintzatzaile gainjarriak osatu egin beharko dira LAGetan definitzen direnekin (Azpiegitura Berdea, Klima Aldaketari loturikoak), eta Nekazaritza eta Basozaintzako zein KBEetako LPSak definitutako balio estrategiko handiko lurzoruen mugatzea jaso beharko da. Azken eremu horiei dagokienez, nabarmentzekoa da horien gainean babes-figura bat baino gehiago gainjarritz gero, **Aralarren** eta Aizkorri-Aratzen indarrean dauden **Baliabide Naturalak Antolatzeko Planak berrikusi** beharko liratekeela.

c) Landa-habitata

1- Beasain-Zumarragako (Goierri) LPPa bat dator erabat LAGekin, landa-habitatari emandako tratamenduari dagokionez; hain zuzen ere, landa-habitatari behar duen konektagarritasuna eman nahi zaio, hori babesteko eta biztanleria mantentzeko.

2- «Landagune» izendapena Foru Aldundiak inbentariatutako gunetara mugatu beharko litzateke edo, halakorik ezean, 2/2006 Legearen 29. artikuluan adierazitakoa betetzen duten gunetara.

d) Hiri Habitata

1- Hiri-habitatari dagokionez, LPPko zehaztapenak behar bezala erantzuten diete Gidalerro berriei, bai definitutako eraldaketa-ardatzetan tratamenduaren ikuspegitik, bai jada okupatutako lurzoruen optimizazioaren ikuspegitik. Zehazki, LPPak hiri-berroneratzea esku-hartzeko modu esanguratsu gisa planteatzen du.

2- LAGek bizitegi-kuantifikaziorako irizpide berriak jasotzen dituzte eta gidalerro berriak zehazten dituzte hiri-habitaterako, hala nola LPPei eskatzea Hiri Hazkunderako Perimetra definitzeko; **horregatik, berrikuspena egiteko unean, LPPak bizitegi-kuantifikazioa irizpide berrietara doitu beharko du**, kuantifikazio hori murriztuz.

3- LAGek Goierriko eremu funtzionalerako definitutako Eraldaketa Ardatza dagoeneko LPPan islatuta badago ere, egokitzapen batzuk egin beharko dira; esate baterako, horrela definitutako eremuaren doikuntza eta ekobulebarraren kontzeptua erabiltzea bideen diseinuan.

e) Paisaia, Kultura eta Natura Ondarea, eta Baliabide Turistikoak

1- Beasain-Zumarragako (Goierri) LPPak Natura Ondarearen inguruan egiten dituen antolamendu eta zehaztapenak elementu positiboa izan dira, eta dira, eremu funtzionalaren garapen jasangarriak; horiei esker, ekosistemak babestu ahal izan dira eta, ondorioz, horiek natura- zein giza jarduera behar bezala garatzeko eskaintzen dituzten zerbitzuak mantendu ahal izan dira.

2- **Kultura Ondareari dagokionez**, idazteko unean egindako tratamendua egokia izan arren, **6/2019 Legea onartzeak LPPa horretara egokitzea behartzen du**.

3- Paisaiari eta baliabide turistikoiei dagokionez, lurralde-antolamenduko kontzeptu gisa izaera berritzailea duten arloak dira; hori dela eta, LPPak horiei ematen dien erantzuna berrikusi egin beharko da.

4- Paisaiak dihardugula, paisaiari buruzko 90/2014 Dekretuak paisaia integratzeko eta lurralde-antolamenduaren dimentsio espezifiko gisa garatzeko tresnak ezartzen ditu, 2000. urteko Paisaiaren Europako Hitzarmenak aldarrikatzen duenarekin bat. Hortaz, LPPak paisaiaren babesa puntualki tratatu duen arren, arloaren analisia egin beharko luke, Paisaiaren Katalogoak prestatuz eta hortik ondorioztatzen diren zehaztapenak jasoz.

f) Baliabideen kudeaketa jasangarria

1- LPPak eremu funtzionalean eskuragarri dauden baliabideen kudeaketari buruz egiten duen planteamenduak administrazio sektorial bakoitzak aurreikusitako azpiegiturak eta planak jasotzen ditu, eta horrek kudeaketa egokia eskaintzen du, nahiz eta LAGen proposamen berrien ildo nagusiak adierazi **baliabideen kudeaketa integratu, jasangarri eta zirkularra** beharrezkoa dela; horrek planteamendu-ildo berri bat izan beharko luke LPParen etorkizuneko berrikuspen batean.

g) Mugikortasuna eta logistika

1- LPPak mugikortasunaren eta logistikaren arloan egiten duen antolamenduak, oro har, LAGen zehaztapenekin eta indarrean dauden plan sektorialekin bat datozen zehaztapenak ditu; hori dela eta, esan daiteke LPPa egoki aplikatu dela arlo horretan.

2- Hobetzeko elementu gisa, azpiegitura grisaren eta azpiegitura berdearen arteko balizko gatazka-puntuak berrikusi behar dira, eremu funtzionaleko naturaguneen konektagarritasun ekologikoa bermatzeko aldera.

3- Azkenik, uste dugu LPPak Donejakue Bidea eta **Artzaintza Bidea** bereizi eta identifikatu behar dituela, hala izendatuz, bi bideek mugikortasunaren eta kulturaren aldetik duten garrantzia kontuan hartuta.

h) Zeharkako Gaiak

1- Zeharkako gaiak (**irisgarritasun unibertsala, genero-ikuspegia, klima-aldaketa, osasuna, euskara eta lurralde arteko erlazioa**) kontuan hartu beharko dira lurralde-plangintzaren berrikuspenean, hobetzeko.

Esparrua	Egoitza		Jarduera ekonomikoak		Sistema Orokorrak		Kalifikatua guztira		Lurzoru ez urbanizagarria		Guztira	
	2005	2020	2005	2020	2005	2020	2005	2020	2005	2020	2005	2020
EAE	2,61	2,61	1,91	1,91	2,25	2,26	6,78	6,78	93,22	93,22	723.508	723.543
Gipuzkoa	2,60	2,60	1,96	1,95	2,06	2,08	6,62	6,63	93,38	93,37	197.837	197.837
Goierri	1,21	1,21	1,29	1,29	1,19	1,20	3,69	3,70	96,31	96,30	43.051	43.051
Ataun	-	0,39	-	0,06	-	0,26	-	0,71	-	99,29	-	5.837

Eboluzio demografikoari buruzko gogoetak

XX. mendearen erdialdean, Goierriko eremu funtzionaleko biztanleriak asko egin zuen gora, garai hartan gertatu zen industrializazioaren eskutik. 1970eko hamarkadatik aurrera, biztanleak galdu zituen; galera hori egonkortu egin zen mende-aldaketarekin, eta biztanle kopuruak gora egin zuen 2010. urte inguruan. Harrezkero, biztanleria mantendu egiten da, goranzko joera arin batekin.

Esp.	Gune irekien S.O. %	Babes berezia %	Ingurune hobekuntza %	Mendi larreak %	Basoa %	Nek., abel., landazabala %	Gainazaleko Uren babesa %	Lurzoru urbanizaezina %	
	2020	2020	2020	2020	2020	2020	2020	2005	2020
EAE	0,92	22,59	2,51	1,03	29,88	30,70	5,59	93,22	93,22
Gipuzkoa	1,55	24,29	3,64	0,95	32,51	26,74	3,68	93,38	93,37
Goierri	0,40	21,81	3,91	0,33	43,51	23,07	3,26	96,31	96,31
Ataun	0,03	0,75	0,00	0,00	76,96	18,16	3,40	-	99,29

Lurralde-ereduari / lurzoruaren kalifikazioari buruzko gogoetak.

Goierriko eremu funtzionalean kalifikatutako lurzoruaren proportzioa (% 3,70) Gipuzkoako batez bestekoa (% 6,63) eta EAEko batez bestekoa (% 6,78) baino askoz txikiagoa da. Lurzoru urbanizaezinen kategorizazioari dagokionez, baso-lurzoruen proportzio altua nabarmentzen da (% 43,51), Gipuzkoako (% 32,51) eta EAEko (% 29,88) batezbestekoen oso gainetik. Aurreko datuak mendi-orografia oso bereizgarria eta haran estuak dituen lurralde baten oso adierazgarriak dira.

Esp.	Biztanleria			Dentsitatea						
	Guztira	Giz.	Emak.	Azalera guztira	Dentsitatea		Kalifikatutako hiritar azalera		Hiritar dentsitatea	
	Biz.	Biz.	Biz.	km²	Biz./km²		km²		Biz./km²	
	2020	2020	2020	2020	2005	2020	2005	2020	2005	2020
EAE	2.180.449	1.057.944	1.122.505	7.235,43	300,73	301,36	490,51	490,86	4.435,81	4.442,14
Gip.	714.269	348.918	365.351	1.978,37	360,30	361,04	130,92	131,22	5.444,37	5.443,31
Goi.	69.590	34.954	34.636	430,51	161,26	161,65	15,87	15,93	4.373,79	4.368,32
Ata.	1.723	892	831	58,37	-	29,52	-	0,41	-	4.161,84

Biztanleria-dentsitateari buruzko gogoetak (orokorra eta hirikoa).

Goierriko eremu funtzionaleko biztanleria orokorraren dentsitatea oso baxua da (161,65 bizt./km²) Gipuzkoako batez bestekoarekin alderatuta (361,04 bizt./km²); baina hiri-biztanleriaren dentsitatea (4.368,32 bizt./km²) altua da, nahiz eta Gipuzkoakoaren azpitik egon (5.443,31 bizt./km²), eta EAEko batez bestekotik oso gertu dago (4.442,14 bizt./km²). Hiri-dentsitatea oso desberdina da Goierriko udalerrietan; izan ere, landa-esparruko udalerriak daude, hala nola Mutiloa (840 bizt./km²), tarteko udalerriak daude, hala nola Ormaiztegui (1971,35 bizt./km²), eta baita eremu hiritarragoen trinkotasun handia agerian uzten duten udalerriak ere, hala nola Urretxu (8.256,37 bizt./km²).

Esparrua	Lurzoru urbanizagarria hiri lurzoruarekiko		Egoitzarako lurzoru urbanizagarria lurzoru urbanizagarri osoarekiko		Jarduera ekonomikoaterako lurzoru urbanizagarria lurzoru urbanizagarri osoarekiko	
	%		%		%	
	2005	2020	2005	2020	2005	2020
EAE	20,29	20,43	47,78	47,67	52,22	52,33
Gipuzkoa	19,45	19,61	43,64	42,95	56,36	57,05
Goierri	21,03	21,61	28,22	27,53	71,78	72,47
Ataun	-	6,56	-	0,00	-	100,00

Hiri-ereduari buruzko gogoetak

Goierriko eremu funtzionaleko lurzoru urbanizagarrien eta hiri-lurzoruen arteko erlazioa Gipuzkoakoaren edo EAEkoaren antzekoa da, baina berezitasun bat du: garapen-apustu argia egiten da jarduera ekonomikoetarako lurzoruen alde, 2,5-1 erlazioarekin, lurzoru industrialen alde, bizitegitarako lurzoruekiko.

Esparrua	Egungo etxebizitzak		Aurreikusten den etxebizitza gehikuntza				Etxebizitza kopurua guztira 100 biztanlekiko	
	Etx.		Etx.		%		Etx./100 biz.	
	2005	2020	2005	2020	2005	2020	2005	2020
EAE	977.512	988.095	193.005	189.049	19,74	19,13	53,80	53,99
Gipuzkoa	321.796	323.070	59.879	58.628	18,61	18,15	53,55	53,44
Goierri	29.724	29.897	5.823	5.758	19,59	19,26	51,20	51,24
Ataun	-	597	-	204	-	34,17	-	46,49

Bizitegi-garapenari buruzko gogoetak. Plangintzan aurreikusitako etxebizitzak.

Etxebizitza berrien aurreikuspenak, eremu funtzionalerako batezbestekoari dagokionez, Gipuzkoako eta EAEko batezbestekoaren barruan daude. Muturreko datuak agertzen dituzten landa-esparruetako guneetan, alde handiak daude aurreikuspenetan, hala nola Idiazabal, Mutiloa edo Seguran, eta oso handia Araman edo Zerainen. Esparru hiritarragoan, Ordiziako aurreikuspen baxuak nabarmentzen dira, etxebizitza kopuruaren hazkundea % 5,74 izatea aurreikusten baita.

Esparrua	Egoitzarako hiri lurzorian dauden etxebizitzaren dentsitatea		Hiri lurzorian aurreikusten diren etxebizitzaren dentsitatea		Lurzoru urbanizagarrian aurreikusten diren etxebizitzaren dentsitatea	
	Etx./ha.		Etx./ha.		Etx./ha.	
	2005	2020	2005	2020	2005	2020
EAE	59,90	60,72	67,97	68,61	26,33	26,16
Gipuzkoa	71,22	71,37	79,43	79,34	41,08	40,75
Goierri	63,17	63,35	71,39	71,42	40,53	40,53
Ataun	-	26,04	-	34,93	-	-

Etxebizitza-dentsitateari buruzko gogoetak.

Udalerrri landatarrenetan etxebizitza-dentsitatea batezbestekoen azpitik egon arren, hain zuzen ere landa-izaeragatik, Goierriko eremu funtzionaleko esparru hiritarragoetako etxebizitza-dentsitateak trinkotasun-maila egokia eta lurzoruen optimizazioa uzten du agerian.

4.1.3.3- Lurralde Plan Sektorialak LPS

Lurralde Plan Sektorialak, Euskal administrazioak lurralde eraginaren eskumenak garatzen dituzten planak dira, eta Lurralde Antolamenduko Gidalerroak garatzen dituzte. 2023ko izapidetze koadroa ondorengoa da:

Behin betiko onartu direnak:

- EAEko Ibaian eta Erreken Ertzak Antolatzeko LPSaren Aldaketa (isurialde kantauriarra) _ 449/2013 Dekretua (2013/11/19)
- EAEko Ekonomi-Jarduetarako lurzoru publikoa eta merkataritza-ekipamenduak sortzeko Lurralde Plan Sektoriala _ 262/2004 Dekretua (2004/12/21)
- EAEko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektoriala _ 177/2014 Dekretua (2014/09/16)
- EAEko Errepideen Hirugarren Plan Orokorra 2017-2028 _ 63/2020 Dekretua (2020/05/19)
Gipuzkoako Errepide eta Bideen Foru Arauaren testu bateratua _ 1/2006 Foru Dekretu Arau-emalea (2006/06/6)
- EAEko Hezeguneen LPSaren Aldaketa _ 231/12 Dekretua (2012/10/30)
- EAEko Kostaldea Babesteko eta Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala _ 43/07 Dekretua (2007/03/13)
- EAEko Energia Eolikoa Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala _ 104/02 Dekretua (2002/05/14)

- *EAEko Trenbideen Azpiegitura Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala _ 41/01 Dekretua (2001/02/27)*
- *Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurralde Plan Sektoriala _ 2/2013 Foru Araua (2013/06/10)*
- *Gipuzkoako Hiri-Hondakinen Azpiegituretako Lurralde Plan Sektoriala _ 24/2009 Foru Araua (2009/07/21)*

Idazten eta izapidetzen ari direnak:

- *Euskadiko Energia Berriztagarrien LPS*
- *Klima Aldaketaren erronkari egokitzeko EAEko itsasertza Babestu eta Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala.*

Izapidetze-etena dutenak:

- *EAEko Kultura Ondarearen Lurralde Plan Sektoriala*
- *EAEko Etxebizitzaren Sustapen Publikorako Lurzorua Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala*
- *EAEko Portuak Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala*
- *EAEko Garraio Sare Intermodal eta Logistikorako Lurralde Plan Sektoriala*

Ataungo udal plangintzan eragin berezia duten haien xedapenak laburbiltzen dira ondoren.

A. EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko LPSaren Aldaketa (Isurialde kantauriarra)

1998/12/22ko 98/415 Dekretua. Behin betiko onespena.

449/2013 Dekretua, azaroaren 19koa, Kantauriko eta Mediterraneoko isurialdeko LAP-ren aldaketa behin betiko onartzen duena. (EHAO: 2013ko abenduaren 12a) (Hutsen zuzenketa: EHAO 2014ko urtarrilaren 27a).

LPSen artean lehena izanik, zaharkitua geratu den dokumentua da eta ondorioz, eguneratua izan da. Edonola, jatorrizko agiriak aipamen eta hausnarketa interesgarriak uzten dizkigu diagnostiko honen xedeetarako.

3. ORIA IBAIAREN ARROA

3.1. INGURUGIRO-OSAGAIAREN ALDERDIAK

- **Agauntza** goi-ibarraren balio naturalistikoa ere aipa genezake, izan ere, bertan haltzadi menditarra da nagusi Aralar mendizerrako pagadietako lotura estuan.
- Nabarmenezkoa da desman piriniararen presentzia Leizaran eta **Agauntza** ibaietan.
- Oriaren arroak honako naturgune hauek ditu: - **Aralarko Parke Naturala**

3.2. HIDRAULIKA-OSAGAIAREN ALDERDIAK

- Oria ibaiaren arroak 889 Km²-ko guztizko azalera du. Bere adar nagusiak eta horien azpiarroak honako hauek dira:
 - Eskualdeko ertzean: **Agauntza** (84 Km²)
- Oria ibaiaren arroaren ibaibidea ondoren adierazitako ibaitarteetan bana genezake ikuspegi hidraulikoaren arabera:
 - II kategoriako ibaitarteak ($50 < A \leq 100$ Km²): **Agauntza**, 0 (Oriarekiko elkargunea) - 9,6 Km (Lauzi errekaarekiko elkargunea)
 - I kategoriako ibaitarteak ($10 < A \leq 50$ Km²): **Agauntza**, 9,6 - 21,0 Km (Akaitz errekaarekiko elkargunea)
- Oria ibaiaren arroan kultur interesa duten honako zubi hauek daudela adierazi da: Yarza zubia, Oria ibaiaren gainekoa. 57,3 Km (Beasain). B.18. Yarza.

3.3. HIRIGINTZA-OSAGAIAREN ALDERDIAK

Ertzak antolatzeko mapetan, hirigintza-osagaiaren arabera, udaleko hirigintza-plangintzari buruzko honako erreferentziak hartu dira barne: - **Ataungo** Arau Subsidiarioak (Behin betiko onarpenaren agiria: 93.05.3).

2013ko Aldaketak LPSa indarrean sartu den legedi eta araudi berrira eguneratzea du xede, batik bat, E) Berriarazko araudia, osagai hidraulikoaren arabera eta F) Hirigintza osagaiaren arabera berriarazko araudia atalei dagokienez.

B. EAEko Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua Sortzeko eta Saltoki Handiak Antolatzeko LPS

2004/12/21ko 2004/262 Dekretua. Behin betiko onespena.

3.2.13.- GOIERRIKO ESKUALDE-EGITURA

JARDUERA EKONOMIKOETARAKO LURZORUA OKUPATUA, LIBREA ETA GUZTIZKOA AZPIESKUALDE ETA UDALERRIEN ARABERA 2003AN*

Udalerria	Jarduera ekonomikoetarako lurzorua (ha)		
	Okupatua	Librea	Guztira
Ataun	3,40	2,91	6,31

BIZTANLERIA GUZTIRA, BIGARREN SEKTOREAN LAN EGITEN DUEN BIZTANLERIA ETA JARDUERA EKONOMIKOETARAKO LURZORUA BEHAR DUTEN ENPLEGUEN KOPURUA AZPIESKUALDE ETA UDALERRIEN ARABERA 2000N

Udalerria	Biztanleria guztira (kop.)	Biztanle kopurua 2. sektorean lanean	Enplegu kopurua jarduera ekonomikorako lurz.
Ataun	1.574	310	49

LURZORU KALIFIKATUAREN ERRESERBA-INDIZEA, BIGARREN SEKTOREKO AUTOENPLEGUARENA ETA BIGARREN SEKTOREKO ENPLEGU-DENTSIFIKAZIOARENA AZPIESKUALDE ETA UDALERRIEN ARABERA 2003AN

Udalerria	Lurz. librearen erreserba-indizea	2. sektoreko autoenplegu-indizea	2. sektoreko enpleguaren dibertsifikazio-indizea
	lurz. kalif. librea / lurz. kalif. guztira	2. sektoreko enplegua / bizt. okupatuak 2. sektorean	2. sektoreko enplegua / lurz. okupatua 2. sektorean (enplegu/ha)
Ataun	0,54	0,16	28,16

EAE-KO UDALERRIEN KATEGORIZAZIOA, JARDUERA EKONOMIKOETARAKO LURZORUAREN ANTOLAMENDU ETA GARAPENARI DAGOKIONA

Eskualde-egitura	LEHENTASUNEZKO INTERESEKO UDALERRIAK	HAZKUNDE MOTELEKO UDALERRIAK	GARAPEN TXIKIKO UDALERRIAK
GOIERRI	Arama, Beasain, Ezkio-Itxaso, Idiazabal, Itsasondo, Lazkao, Legazpi, Legorreta, Olaberria, Ordizia, Ormaiztegi, Urretxu, Zaldibia, Zumarraga	Gabiria, Segura, Zegama	Altzaga, Ataun , Gaintza, Mutiloa, Zerain

Merkataritza-ekipamendu handien kokapena eta dimentsionamendua arautzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrien sailkapen bat ezartzen da hainbat alderdi kontuan hartuta: komunikabideen sareekiko kokapen estrategikoa, biztanleriaren pisua, espazio-erabilgarritasuna eta mota honetako zentroak hartzeko hirigintza-egokitasuna.

- B kategoria : Eskualde-zentraltasuneko udalerriak

Goierriko eskualde-egitura: Arama, Beasain, Ezkio - Itsaso, Gabiria, Lazkao, Legazpi, Olaberria, Ordizia, Ormaiztegi, Urretxu eta Zumarraga.

27. artikulua.- Goierriko Eskualde Egitura

a) Antolamendu-irizpideak

Azken hamarkadan Goierriko Eskualde Egiturako biztanleria osoa %4,4 murriztu da, Euskal Autonomia Erkidegoko batez bestekoa baino 3 portzentaje-puntu gehiago. Denbora-tarte honetan biztanleria aktiboa %2 hazi den arren, igoera hau Euskal Autonomia Erkidegoko batez bestekoa baino 6 puntu txikiagoa da. Gaur egun, Goierriko Eskualde Egiturak egoera argi eta garbi bereizia du bi azpieskualdeen artean. Oria Garaiak 800 industria-enplegu superabita du bigarren sektorean lanean ari den biztanleriarekiko eta Urola Garaiak, aldiz, 1.600 enplegu defizita du atal horretan bertan. Saldo orokorra negatiboa da eskualde-egitura osorako, 800 industria-enplegu hain zuzen. Industria-lurzu okupatuaren dentsifikazioaren indize orokorra hektareako 37 enplegu da. Lurzu libre kalifikatuaren erreserbei dagokienez, oro har oso txikiak direla adierazi beharra dago. Urola Garaiko azpieskualdean ia erreserbarik ez dagoela esan genezake, aurreikusitako erreserba bakarrek, Elbarrena-Legazpi eta Oiaun-Zumarraga poligonoek, ez baitute hirigintza- eta ekonomia-bideragarritasun handirik. Oria Garaiko hiri-plangintzan aurreikusitako garapen berriak, halaber, aukera aski problematikoak dira, salbuespenak salbuespen. Goierriko Eskualde Egituran, jarduera ekonomikoetarako lurzorua antolatzeko jarraibideak hauek dira:

- Jarduera ekonomikoak hartzeko lurzu egokia urria denez gero, gaur egun dauden industria-lurzu guztien kalifikazioa bere horretan utziko da eta, horrenbestez, bizitegitarako birkalifikazio sistematikorik ez da egingo. Honela, eskualdeko jarduera ekonomikoen oinarriko euskarria suntsi dadin saihestea lortu nahi da.

- Finkatu beharreko jarduera ekonomikoak pixkanaka hautatuko dira, balio erantsi handienekoak mantenduz, hots, teknologia berriei dagozkienak eta enpresentzako hirugarren sektoreko zerbitzuetaoak, eta espazio handia behar duten jarduerak pixkanaka kanporantz bideratuz.
- Urola Garaiko azpieskualderako, bere industria-jarduerak sortutako lurzoru-eskari endogenoa asetzeko espazio-ahalmenik ere ez duenez gero, Beasain-Zumarraga iraganbidearen inguruetan eskualde-mailako poligono berriak sustatuko dira.
- Era berean, Oriako haranean, erabilgarri dauden erreserben garapenaren osagarri gisa, haranaren hondoaz kanpoko puntuetan N-1 errepideari zuzenean lotutako udalaz gaindiko poligonoak sustatzeko aukerak aztertu beharko dira. Baliabide alternatibo gisa, haranaren goi-tartean, Segurako hirigunearen inguruan erabilgarri dauden espazio-erreserben garapen bat egitea kontuan har liteke.
- Garraiorako zerbitzu-plataforma logistikoren bat ere sortuko da.

b) Lurzoruaren kudeaketaren lurralde-egituraketa

Goierriko Eskualde Egituran, jarduera ekonomikoetarako lurzoru kudeatzeko ondoko lurralde-banaketa ezartzen da:

- Oria Garaia: Alzaga, Arama, Ataun, Beasain, Gabiria (Alegiako Santa Lutziko ibarra izan ezik), Gaintza, Idiazabal, Itsasondo, Lazkao, Legorreta, Mutiloa, Olaberria, Ordizia, Ormaiztegi, Segura, Zaldibia, Zegama eta Zerain.
- Urola Garaia: Ezkio-Itsaso, Legazpi, Urretxu, Zumarraga eta Gabiriako udalerriari dagokion Alegiako Santa Lutziko ibarra.

c) Lehentasunezko kokapenerako jarraibideak

5.4.1. epigrafearen irizpideei jarraituz, Goierriko Eskualde Egiturako udalerriak ondoko kategorietan sailkatzen dira:

- Lehentasunezko intereseko udalerriak: Arama, Beasain, Ezkio-Itsaso, Idiazabal, Itsasondo, Lazkao, Legazpi, Legorreta, Olaberria, Ordizia, Ormaiztegi, Urretxu, Zaldibia, Zumarraga
- Hazkunde moteleko udalerriak: Gabiria, Segura, Zegama
- Garapen txikiko udalerriak: Alzaga, **Ataun**, Gaintza, Mutiloa, Zerain

d) Lurzoru publikoa sortzeko eragiketak

Goierriko Eskualde Egituran, jarduera ekonomikoetarako lurzoru publikoa sortzeko ondoko eragiketak gauzatuko dira:

- Beasain-Zumarraga iraganbideko eskualde-mailako poligono berria
Poligono bat garatzeko alternatibak kokatzeko eta bideragarritasuna finkatzeko azterlanak. 25/50 ha.
- Goierriko garraiorako zerbitzu-zentroa
N-1 eta GI-632 errepide-sare nagusiari lotutako eremu logistikorako alternatibak kokatzeko eta bideragarritasuna finkatzeko azterlanak. 5/15 ha.
- Oria Garaia
Oriaren haraneko eskualde-mailako industrialde berria. Alternatibak kokatzeko eta bideragarritasuna finkatzeko azterlanak. 10/25 ha.
- Urola Garaia
Urola Garaiko eskualde-mailako Industrialdea berria. Alternatibak kokatzeko eta bideragarritasuna finkatzeko azterlanak. 5/10 ha. e) Lurzoru publikoa sortzeko eragiketak

e) Lurzorua kuantifikatzeko jarraibideak

A Jarduera ekonomikoetarako uneko instalazioek okupatutako lurzoruen azalera.

Oria Garaia: 269 ha

Urola Garaia: 115 ha

Guztizko partziala A: 384 ha

B. Kalifikatutako eta eskaintza bideragarritzat hartutako lurzoru libreen azalera. Parentesi artean, eskaintza bideragarria ebaluatzeko inbentarioan jasotako lurzoru libre kalifikatuaren gainean azpieskualde bakoitzari aplikatutako minoraziokoefizientea adierazten da.

Oria Garaia: 50 ha

Urola Garaia: 25 ha

Guztizko partziala B: 75 ha

C Planean aurreikusitako sustapen publikoko eragiketa berrien harrera xurgatzeko beharrezkoak diren lurzoruei dagokien azalera; lurzoru hauek indarrean dagoen hiri-plangintzan aintzat hartzen ez direnez gero, birkalifikatu egin behar dira.

Oria Garaia: 25/40 ha

Urola Garaia: 10/15 ha

Guztizko partziala C: 35/55 ha

D Planaren horizontean aurreikus daitekeen eskariari erantzuteko beharrezko lurzoru berrien azalera

Oria Garaia: 30/60 ha

Urola Garaia: 10/20 ha

Guztizko partziala D: 40/80 ha

Kuantifikazio orokorra (A+B+C+D)

Oria Garaia: 375/415 ha

Urola Garaia: 160/175 ha

Goierriko EE guztira: 540/590 ha

f) Saltoki handien arautzea

7.2. epigrafearen argudioaren arabera, Goierriko Eskualde Egiturako udalerriak honela sailkatzen dira:

- Eskualde-zentraltasuneko udalerriak (B kategoria): Arama, Beasain, Ezkio-Itsaso, Gabiria, Lazkao, Legazpi, Olaberria, Ordizia, Ormaiztegi, Urretxu eta Zumarraga.
- Gainerako udalerriak (C kategoria): Altzaga, **Ataun**, Gaintza, Idiazabal, Itsasondo, Legorreta, Mutiloa, Segura, Zaldibia, Zegama eta Zerain.

C. Nekazaritza eta Basozaintzako LPS

2014/09/16ko 177/2014 Dekretua. Behin betiko onespena.

Nekazaritza eta basozaintzako LPSa lurraldea antolatzeke bitartekoa globalizatzailea eta dinamikoa da. Alde batetik, nekazaritza eta basozaintzako erabilerak kudeatzeko eta planeatzeko jarduerak iradoki eta bideratzen ditu, lurraldearen antolaketa globalaren esparruan sartuz. Bestetik, nekazaritza- eta basozaintza-sektorearen interesak defendatzen ditu bestelako erabileren aurrean. Hori guztia Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikako 17/2008 Legearen 12. artikuluan xedatutako helburuarekin: nekazaritzako lurraren erabilera jarraitua eta egokia sustatzea, nekazaritza-jarduerari lotuta, eta gizarteak eskatzen duenaren arabera.

LPSaren helburu nagusiak hauek dira:

- Nekazaritzako lurra definitzea eta babestea, bereziki balio agrologiko handiko lurra, nekazaritza eta basozaintzako jarduna orekatua izateko funtsezko baliabide gisa.
- Gaur egungo landa-egoera zehaztea: Nekazaritza-jarduerak, ustiagunerik produktiboenak, lehentasuna dutenak, bertan behera uzteko arrisku handiena dutenak, mehatxurik larrienak... non dauden jakitera ematea.
- Lurralde-antolamendua sustatzea, plangintza landa-irizpideetatik planteatuta. Ildo horretan, LAG Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetako Ingurune Fisikoaren Gidalerroa oinarri hartuta, gidalerro horrek nekazaritza eta basozaintzako sektorearen beharrak eta optikak jaso behar ditu. Horrela, zenbait erronka daude:
 - Nekazaritza eta basozaintzako jarduerak ingurumenaren kontserbazioa bermatzen duten oinarritzko faktoreen barruan sartzen direla ziurtatzea.
 - Nekazaritza eta basozaintzako jarduerak modu bideragarrian egiteko behar diren lursailak (kalitatea eta kopurua kontuan izanik) bermatzea.
 - Landa-inguruneke eragileak eta herriak antolamendu- eta babes-politiken barruan inplikatzea.

- *Landatarraren papera birdefinitzea, aro industrialaren ondoko fasean sortutako testuinguru sozioekonomikoa: erabilera publikoa, bizi-kalitatea...*
- *Jarduteko bitarteko baliagarriak eta onargarriak planteatzea, haien bidez sektorea eta sektorearen baliabideak defendatzeko nekazaritzarako eta basozaintzarako ez diren beste erabilera batzuen aurrean (batez ere azpiegiturak, eta etxebizitza eta industria-erabilerak), eta bateratasun-zonetan plangintzen arteko koordinazioa bermatzeko.*
- *Aurretiaz egindako dokumentuetan (adibidez, Landa eta Basozaintzako Plan Estrategikoak, LAGak, etab.) lurraldea eta sektoreak antolatzeko eta planifikatzeko jasota dauden irizpideak eta gidalerroak jasotzea.*
- *Udal-plangintzak, lur ez-urbanizagarria zonakatzeko, zenbait irizpide eta kontzeptu beregana ditzan gomendatzea, eta LAGetan proposatutako Ingurune Fisikoaren kategorizazioa garatzea LPSan.*
- *Nekazaritza-babesa eta ingurumen-babesa bateragarri bihurtzea.*
- *LPS honen emaitzak hedatuko direla bermatzea, lurralde-kudeaketako eta -plangintzako beste dokumentu batzuetan kontuan izateko. Bitarteko honek nekazaritza eta basozaintzako politika gainerako politika sektorialekin lurralde-eremu bateratu batean txertatzeko eskaintzen duen aukera aprobetxatzea.*

Ataungo udalerriri dagokionez, LPSk hirigintza plangintzarekiko garrantzia berezia duten ondorengo sailkapena ezartzen du:

Parke Naturalak: Aralarko Parke Naturala. **Udalerriko azalera osoaren 3/4 baino gehiago** hartzen du, mendebaldeko zein hegoaldeko azalera osotasunean.

Udalerriko azaleraren gainontzeko 1/4ean ondorengo kategoriak zehazten dira:

- Nekazaritza-abelzaintza eremua.
Balio estrategiko altua: Agauntza eta Lauzti erreken arroetako eremu ez hiritartuak.
Transiziozko landa paisaia: aipatu bi arroen inguruko eta ekialdeko magaletan kokatutako lurzoru malkartsuagoak bereziki.
- Mendia.
Basoa: Parke Naturaletik kanpo azalera handiena hartzen duen lurzorua.
Basoa-Mendi urria: Idiazabal eta Lazkao mugetan kokatutako azalera txikiko lurzorua.
Larre menditarra: Idiazabalgo mugan, Mugata eta Dorronso-gana inguruko gainak hartzen dituen azalera txikiko lurzorua.

Eta izendatutako baldintzatzaile gainjarriak ondorengoak dira:

- Eremu higagarriak: Agauntza erreken arroko ekialdeko magaleko eremu zabalak.
- Akuiferoen zaurgarritasuna: Agauntza erreken goi arroari atxikitako eremu zabalak.
- Natura 2000 Sarearen barne dauden tokiak: Parke Naturalaz gain, Agauntza ibaiaren arroa, San Martin auzoan hasi eta Lazkakoko mugaraino.
- Onura publikoko mendiak: udalerriko osoan barreiatutako lurralde eremuak, azalera handia, ertaina eta txikia dutenak, Parke Naturalaren barnean zein kanpoan.

D. EAEko Errepideen Hirugarren Plan Orokorra 2017-2028

63/2020 Dekretua, maiatzaren 19koa, 2017-2028 aldirako Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Hirugarren Plan Orokorra onartzen duena.

3 BIDE SAREAREN EGUNGO EGOERAREN ANALISIA

3.2.1 Euskal Autonomia Erkidegoko mugikortasunaren analisia

3.2.1.2 Lurralde-erlazioak

3.2.1.2.1 Lurralde barneko erlazioak

Eremu metropolitarrak kanpoko joan-etorriei dagokienez, nabarmentzen dira eskualde guztietako barneko joan-etorriak, Tolosaldekoa salbuetsita, baita Goierri eta Tolosaldea artekoak eta **Goierri** eta Debagoiena artekoak ere.

Gipuzkoako lurralde historikoko barne-mugikortasuna. Egunekeo bidaiak, 2011

	Debagoiena	Bidasoa	Debabarrena	Donostia	Donostialdea	Goierri	Tolosaldea	Urola K.	Guztira
Goierri	4.886	158	786	5.116	4.246	151.360	9.528	2.439	178.519

Gipuzkoako lurralde historikoko barne-mugikortasuna. Mugikortasun osoarekiko ehunekoa

	Debagoiena	Bidasoa	Debabarrena	Donostia	Donostialdea	Goierri	Tolosaldea	Urola K.	Guztira
Goierri	%0,2	%0,0	%0,0	%0,3	%0,2	%7,7	%0,5	%0,1	%9,0

Gipuzkoako lurralde historikoko barne-mugikortasuna. Eskualdeetako analisia. 2011

	Barnekoak	Sortuak	Erakarriak	Guztira	Barnekoak %	Sortuak %	Erakarriak %
Goierri	151.360	27.159	27.680	206.199	%73,40	%13,17	%13,42

3.2.1.2.2 Lurralde arteko eta kanpoaldearekiko mugikortasuna

Gipuzkoako lurralde historikora sartzeko edo bertatik irteteko mugikortasuna. Eguneko bidaiak. 2011

Helmuga	Jatorria			Guztira
	Araba	Bizkaia	Kanpoaldea	
Goierri	1.756	3.695	1.684	7.135

Jatorria	Helmuga			Guztira
	Araba	Bizkaia	Kanpoaldea	
Goierri	1.393	4.215	1.550	7.158

Gipuzkoako lurralde historikora sartzeko edo bertatik irteteko mugikortasuna. Guztizkoaren gaineko ehunekoa.

Helmuga	Jatorria			Guztira
	Araba	Bizkaia	Kanpoaldea	
Goierri	%2,3	%4,8	%2,2	%9,2

Jatorria	Helmuga			Guztira
	Araba	Bizkaia	Kanpoaldea	
Goierri	%1,8	%5,5	%2,0	%9,4

3.2.4 Garraio publikoa

3.2.4.1 Errepidean zeharreko garraio publikoa

Gipuzkoak 2014an hasi zuen lizitazio-prozesua, eta gaur egun abian da. Prozesu horretan gaur egun dauden emakiden metaketa egin da, eta sei dira egungo emakidak: Debabarrena / Urola Kosta, Urola Erdia, Debagoiena, **Goierri**, Buruntzaldea eta Tolosaldea.

8 JARDUTEKO PROPOSAMENAK

8.1.3 Gipuzkoa

N-636 errepidean gaur egun Antzuola eta Bergara artean eraikitzen ari diren tartea amaituko da.

Azkenik, aurreko jardunen ondorioz, eta trenbide bidezko garraioarekiko intermodalitatearekin lotuta, Ezkio-Itsasoko lotura eraiki beharko da.

Behin ahalmen handiko errepide bihurtuta, Zeharkako Ardatz horrek erakarriko ditu Debagoienetik eta **Goierritik** Durangorantz eta Bilboko Eremu Metropolitarrerantz zuzentzen diren trafiko-fluxuak, baita gaur egun Donostia eta Gasteiz arteko erlazioetan N-I errepidea erabiltzen duten trafikoen zati bat ere —oro har, eta batik bat Debabarreneneko, Debagoieneko eta **Goierriko** bidaia-denborak murriztuz—; nahiz eta Deskargako tartean bidesaria ezartzeak Gipuzkoako Ahalmen Handiko Sare osora banatuko duen trafikoa.

2006ko ekainaren 6ko 1/2006 FORU DEKRETU ARAU-EMAILA, Gipuzkoako Errepide eta Bideen Foru Arauaren testu bateratua onartzekoa.

Foru arau honen xedea Gipuzkoako errepideen eta bideen lege araubidea zehaztea da. Gipuzkoako errepideak eta bideak hiru kontzepturi begira sailkatzen dira: jabetzari begira, funtzionaltasunari begira eta tipologiari eta ezaugarri teknikoari begira. Azterlan honi dagokionez, funtzionaltasunaren arabera sailkapena da esanguratsua:

- 1. Lehenetsuneko Sarea (Sare Gorria). Errepide hauek sartzen dira: Nazioarteko ibilbide direnak, Estatuko mugetara eta interes orokorreko portu eta aireportuetara doazenak, autonomi elkarte arteko bide luzeko trafikoa hartzen dutenak, eta ibilgailu astun ugari edo barneko nahiz kanpoko garraiogai arriskutsuen kantitate nabarmena jasaten dutenak.
- 2. Oinarritzko Sarea (Sare Laranja). Errepide hauek sartzen dira: Lehenetsuneko Sarekoak izan gabe, ibilbide osoak osatuz Herrialde Historikoa egituratzen dutenak eta, zirkulazio handia izanik, beste herrialde historiko edo autonomi erkidego batzuekin komunikatzen direnak.
- 3. Eskualde Sarea (Sare Berdea). Errepide hauek sartzen dira: Eskualdeak ondoko eskualdeekin lotzen dituztenak, zirkulazio handiegirik izan gabe.
- 4. Sare Lokala (Sare Horia eta Sare Grisa): Sare Lokalean, Gipuzkoako gainerako errepide guztiak sartzen dira, honela banatuak:
 - 4.1. Sare Horia: Eskualde sarekoak izan gabe, udalerri desberdinetako biztanle guztiak lotzen dituztenak edo udalerri barruan hirigunera eramaten dutenak.
 - 4.2. Sare Grisean: Aurreko sareetan sartzen ez diren guztiak.

Udal jabetzako errepideak, funtzionaltasunari begira, Sare Lokalekoak dira, hau da, Sare Horikoak edo Sare Grisekoak.

Zentzu horretan, Ataungo udal barrutian aurki genitzakeen errepide nagusiak ondorengoak dira:

- GI-2120 LIZARRA - BEASAIN. Sarea: Eskualdekoa (Berdea) (17,912 km).
- GI-3151 AIA ETA URKILLAGA. Sarea: Lokala (Grisa) (6,723 km).
- GI-3152 LAUTZIERREKA. Sarea: Lokala (Grisa) (2,109 km).
- GI-4151 ARRATETA ETA AITZARTE BASERRIAK ETA ARALEGIKO LUZAPENA. Sarea: Lokala (1,57 km)
- GI-4152 ARRATE-SAN GREGORIOKO HILERRIA. Sarea: Lokala (0,222 km)
- GI-4153 MOTASORO. Sarea: Lokala (1,224 km)

E. Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurralde Plan Sektoriala

2013ko ekainaren 10eko 2/2013 Foru Araua, Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurraldearen Arloko Plana behin betiko onartzen duena.

6/2014 FORU ARAUA, ekainaren 30ekoa, 2013ko ekainaren 10eko 2/2013 Foru Araua, Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurraldearen Arloko Plana behin betiko onartzen duena, aldatzekoa.

Gipuzkoako Batzar Nagusiek, 2013ko ekainaren 10eko 2/2013 Foru Arauaren bidez, behin betiko onartu zuten Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurraldearen Arloko Plana: non, alde batetik, zehazten diren Gipuzkoako Bizikleta Bideen Sarearen helburu nagusiak eta bizikleta bideek izan beharreko ezaugarriak; eta bestetik, aurreikusten den bi laurtekoan egin beharreko jardueren programa, planean adierazitako helburuak lortze arren.

Zehazki, plan horrek proposatzen du Gipuzkoako Bizikleta Bideen Oinarritzko Sarea egitea: gutxi gorabehera 439 km izango dituena; eta Gipuzkoako hirigune nagusiak uztartuko dituena, herrietako eta herriarteko bizikleta bideen azpiegitura multzo baten bidez, bederatzi ardatz nagusitan edo ibilbidetan banatuta.

Egun Beasaindik abiatzen den bizikleta bidea Lazkakoko Zubierreka zubiraino iristen da, eta Ataungo Elbarrena auzuneraino luzatzeko proiektua (asmoa) badagoen arren, ez da hura burutzeko inolako pausorik eman.

F. Gipuzkoako Hiri-Hondakinen Azpiegiturarako Lurralde Plan Sektoriala

6/2019 Foru Araua, martxoaren 20koa, Gipuzkoako Hiri-Hondakinek Kudeatzeko 2019-2030 Plan Orokorra onesten duena.

GIPUZKOAKO HIRI HONDAKINAK KUDEATZEKO PLAN OROKORRA 2019-2030.

Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Azpiegituren Lurraldearen Arloko Planaren (LAP-GHHA) Aldaketa.. 2018ko apirila

Plangintzak udal eskumenekoa den gaikako bilketari buruz ezartzen dituen helburuez eta berauek hirigunearen diseinuan izan dezaketen ondorioez haratago, Arloko Plan honek ez du inolako eraginik Ataungo udalerrriaren lurralde plangintzan.

Hala ere, 2022ko ekainaren 8ko data duen *Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2019-2030 Plan Orokorren jarraipena* izeneko txostenak, 2021. urteari dagokionak, aipatzen du Ataungo udalerrian buruturiko ondorengo ekintza:

Biohondakinak kudeatzea konpostaje komunitarioaren bidez Ataunen: Ataungo Udalak garatutako proiektu pilotua, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntzen deialdiaren esparruan, zeinaren ildoetako bat ekonomia zirkularra baita.

Aipatu ildoak (edo beste) garatzeko **lur-erreserbak aurreikustea** izan daiteke Plan Orokorren irizpideetako bat.

Gainera, egun **izapidetzen** ari diren Lurraldearen Arloko Planak ondorengoak dira:

G. Euskadiko Energia Berriztagarrien LPS

AGINDUA, 2023ko apirilaren 27koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren hasierako onespina ematen baitzaio Euskadiko Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektorialari.

2.1 Helburuak

Energia Berriztagarrien LAP hau Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legearen Laugarren Xedapen Gehigarria betez idatzi da, eta horren helburu nagusia da EAEn jasangarritasun energetikoa lortzea ahalbidetuko duten oinarritzko tresnetako bat izatea.

Mugarri hori lortzeko, Energia Berriztagarrien LAPak lotura estua du energia berriztagarriak hainbat mailatan (Europakoa, Estatukoa eta autonomia-erkidegokoa) garatzeari buruzko beste estrategia eta plan konkurrente batzuetan ezarritako helburuekin. Beraz, esan daiteke Energia Berriztagarrien LAP honen oinarritzko helburuetako bat estrategia eta plan horietan ezarritako helburuekin bat etortzea dela, energia berriztagarrien garapena sustatuz, energia berriztagarriaren eta berotegi-efektuko gasen emisioen murrizketaren arloko helburu eta jomuga guztiak lortzen laguntzeko:

2 taula. Helburuak eta jomugak energia berriztagarrien arloan eta berotegi-efektuko gasak murriztea hainbat eremutan.

Eremua	Esparru estrategikoa	
Euskadi	3E2030 (2030erako Euskal Energia Estrategia)	- Petrolioaren kontsumoa %18 murriztea 2015aren aldean. - Energia berriztagarrien %21.
	2050erako Klima Aldaketaren Euskal Estrategia	- Euskadiko berotegi-efektuko gasen isurketak gutxienez %40 murriztea 2030ean, eta gutxienez %80 2050ean, 2005. urtearekin alderatuta. 2050. urtean azken kontsumoaren %40ko energia berriztagarria kontsumitzea. - Euskal lurraldearen erresilientzia ziurtatzea klima-aldaketari.
	Euskadiko Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Plana 2021–2024	- Berotegi-efektuko gasen isuria %30 murriztea. - Energia berriztagarrien kuota energiaren azken kontsumoaren %20 izan dadin lortzea. - Euskal lurraldearen

Era berean, energia berriztagarriak sustatzeari eta berotegi-efektuko gasak murrizteari buruzko helburu horiek betetzeak beste helburu paralelo batzuk ere baditu, ingurumen-helburuak barne, hala nola:

- Euskadiren independentzia energetikoa sustatzea eta bultzatzea, kanpoko mendekotasun energetiko handia murriztuz.*
- Denboran agortu ezin diren energia autoktonoen erabilera sustatzea.*
- Euskadiko energia-ekoizpena dibertsifikatzea.*
- Industria-garapena bultzatzea eta erraztea, energia-kostua murriztuta.*
- Landaguneetan energiako sarbidea sustatzea**, baliabide berriztagarria baita, eta, beraz, eremu horiei lotutako ustiapen potentziala, landa-ingurunean biztanleria finkatzen lagun dezakeena.*
- Lurraldea egituratzea eta **ekonomia deszentralizatzea**.*
- Euskadiko energia-sektorearen karbono-aztarna murriztea.*
- Instalazio berriztagarriak EAEko **ingurumen- eta lurralde-balioen kontserbazioarekin bateragarria** den moduan hedatzea.*

- Euskadin balio-kate berriztagarriak sustatzea, tokiko enpresek garatutako eta/edo hornitutako teknologiak ezarri.
- Energia berriztagarrien hedapena eta Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen- eta lurralde-balioen kontserbazioa bateragarri egitea.

Hala ere, energia berriztagarriak garatzeko helburuak lortzea azken helburutzat hartu behar da, eta hainbat bidetatik irits daiteke helburu horretara. Bide horiek gauzatu daitezkeen estrategia desberdinak dira, eta azken helburu hori lortzeko ibilbide-orri bat ezartzen dute.

Ildo horretan, hauek dira Euskadin energia berriztagarriak garatzeko estrategia arautuko duten irizpideak eta helburuak, Energia Berriztagarrien LAP honetan ezarritakoaren arabera ibilbide-orria ezartzen dutenak:

- Euskadiko 3E2030 Energia Estrategian ezarritako berriztagarrien helburuak betetzen laguntzea.
- Gaur egun Euskadin dagoen energia banatzeko sare elektrikoa lehenestea, linea elektriko berriak eraikitzeari dagokionez, ahal den neurrian, sare horren erabilera bultzatzeko.
- Hiriguneetan eta **landaguneetan autohorniduraren** aldeko apustua eta bultzada.
- Energia berriztagarria ekoizteko **instalazioak ingurunean integratzea**, ondorio negatibo esanguratsurik ez dagoela bermatuz, instalazioen eragin garbia positiboa izan dadin.
- Teknologia berritzaileak aplikatzea eta I+G bultzatzea.
- Ingurumen-aldagaia lurralde-ereduaren diseinuan txertatzea.
- Garapen berriztagarria, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen- eta lurralde-balioen kontserbazioarekin bateragarria.
- Ekonomia Zirkularren kontzeptua energia berriztagarrien garapenean txertatzea fase guztietan, diseinutik desgiteraino.

Irizpide eta helburu horiek energia berriztagarrien garapen koherentea, integratua eta ordenatua ahalbidetuko dute Euskadin, garapen hori jasangarria izan dadin, energiaren jatorriari dagokionez ez ezik, instalazio berriztagarrien garapenari dagokionez ere, batez ere zonifikazio egoki baten bidez, ingurumeneko eta lurralde-antolamenduko irizpideak kontuan hartuta, eta kontuan hartuta Euskadiko landa-guneen errealitatea, lurralde bakoitzaren bokazioa eta lurzoruen erabilerak, bai eta proiektuen diseinuan materialen bizi-zikloa kontuan hartzeko beharra ere, etorkizunean eraispena aurreikusteko, birziklatzearen arloan eskuragarri dauden teknologia onenek une bakoitzean ezartzen dutenaren arabera osagaiak berreskuratuz.

LPSak Ataungo udalerriri buruzko jarraibide zehatzak ematen ez dituen arren, nabarmena da modu orokorrean ezartzen dituen helburu zein irizpideek eragin zuzena dutela lurralde-erduaren garapenean eta, ondorioz, hirigintza plangintzan.

Gainera, Plan Orokorren arautegiari begira, LPSak jasotzen du Goierriko Lurraldearen Zatik Planak dioena: **LPP honek garapen berriak diseinatzeko orientabide eta jarraibide espezifiko gisa ezartzen du (56. artikulua) eraikinen eraginkortasun energetikoa sustatzea eta energia berriztagarriak aprobeitzeko sistemak erabiltzea.**

Azkenik, **izapidea etenda** duten Lurraldearen Arloko Planak ondorengoak dira:

H. Etxebizitzaren Sustapen Publikoaren LPS

Agiriaren Aurrerapenak, ondoren izapidetzea etenda geratu den arren, etxebizitza publikoaren sustapenerako politiken irizpide nagusiak ezartzen ditu (lurzoruen sorrera, etxebizitza hutsen berrerrabilpena eta alokairu politikak) eta beharra kuantifikatzen du udalerriz zein eremu funtzional bakoitzerako, 16 urteko epean.

Hala ere, espedientearen izapidetzeak izan duen luzapenagatik, erabilitako indikatzaileak guztiz zaharkituak daude, eta onartu berri diren Lurralde Antolamendurako Gidalerroak (128/2019 Dekretua), non egoitza kuantifikaziorako irizpide berriak ezartzen diren, erreferentzia egokiagoa direla deritzogu Ataungo hiri plangintza berria idazteko garaian.

H. Kultura Ondarearen LAP

Kultura Ondare gida izendaturiko ondasun higieziinei eragiten dieten jarduketak arautu behar dituzten irizpide, helburu eta xedapenak ezartzen ditu. Agiriak Ondasun Higiezin Kalifikatuak eta Balizko Arkeologia Guneak berezitzen ditu. Edonola, Planaren izapidetzea etenda dago (Aurrerapena 2001eko uztailaren 6an onartu zen), eta Plan Orokorren baitan Ataungo udal barrutian kokatzen diren elementuen zerrenda eguneratu beharko da.

4.1.4 INDARREKO UDAL PLANGINTZA ETA ERAGINA DUTEN BESTE PROIEKTUAK

4.1.4.1- Ataungo Hiri Antolaketako Arauak

Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak 2005eko urriaren 18an onartu zituen behin betiko egun indarrean dagoen «Ataungo Hiri Antolaketako Arauen Testu Bategina», GAO 2005eko abenduaren 26an argitaratu zena.

Gainera, egungo Arauen indarraldian egin diren Arau Aldaketa Puntualak ondorengoak dira:

- 2006ko urriaren 3an Diputatuen Kontseiluak behin betiko onartutako «Ataungo 7, 8, 20, 21, 23 eta 25. Hirigintzako Esku Hartze Areei, Ergoiena eta Arinberriaga landaguneei eta ekipamendu sistemari dagokien Hiri Antolaketako Arauen Aldaketa», Ergoiena landagunearentzat ezarritako xedapenak etenda geratu ziren arren (2006ko urriaren 26ko GAO, 204. zenbakia).
- 2009ko abenduaren 15ean Diputatuen Kontseiluak behin betiko onartutako «Ergoiena landa herriguneko etenaldia bukatutzat emateko dokumentua (2008ko azarokoa)» (2010eko urtarrilaren 18ko GAO, 10. zenbakia).

Hala ere, Ataungo udal plangintzak baditu aurrekariak, izan ere, indarreko berrikuspina 1993eko maiatzaren 3an behin betiko onartutako Arau Subsidiarioak ordezkatzera baizetorren.

Horrela, indarrean diren Hiri Antolaketako Arauen xedapen nagusiak ondorengoak dira:

CRITERIOS Y OBJETIVOS GENERALES PARA LA REVISION DE LAS NORMAS SUBSIDIARIAS DE PLANEAMIENTO DE ATAUN

El futuro que se puede entrever con claridad para el municipio de Ataun sin que medie una decidida intervención transformadora es la de convertirse en un municipio en paulatina y constante regresión en lo referente a las dinámicas demográficas, sociales, económicas y culturales.

Por ello no cabe otra solución que la decidida intervención de la Corporación Municipal para crear las condiciones que permitan fijar en el municipio a la población e incluso, si ello fuera posible, atraer la del exterior.

El Proyecto que se propone se basa fundamentalmente sobre esa idea, la de un esfuerzo decidido en la construcción de vivienda, en el desarrollo económico a través de la potenciación del sector de la industria, del terciario y del turístico y en la construcción de equipamiento y áreas libres de ocio-equipamiento demandadas hoy en día.

PROBLEMÁTICA Y OBJETIVOS DE INTERVENCIÓN

La estructura urbana

Su proceso de crecimiento fue un proceso de sucesivas repoblaciones. Este tipo de crecimiento, inminentemente rural, ha dado lugar a una gran dispersión de la edificación y a la falta de consolidación de un núcleo centralizado de actividades secundarias o terciarias. Se pueden diferenciar claramente los siguientes asentamientos urbanos:

- La zona **industrial** de Zubikoeta, de reciente implantación entorno al palacio del mismo nombre.
- El casco de San Martín (Elbarrena), estructurado en torno a la GI-120 y junto al río Agauntza, ámbito de gran **densidad** y de vivienda en **bloque**.
- El barrio de Astigarraga, apoyado también en la GI 120 y donde en los años 80 se llevó a cabo la implantación de relevantes equipamientos municipales como lo son el **frontón-polideportivo** y la **Ikastola**.
- El barrio de Arrondo, con una estructura de edificaciones rurales en torno a las vías de comunicación que lo atraviesan.
- El barrio de San Gregorio, dio lugar a la construcción de dos **bloques** de viviendas (32).
- El barrio de Aia, organizada entorno a una plaza de forma rectangular.
- Los núcleos rurales de Arinberriaga y Ergoiena, presentan desarrollos residenciales en base a **vivienda de carácter rural**.

*Se plantea como objetivo **consolidar las características morfotipológicas** de cada uno de ellos y **mantenerlos** claramente **diferenciados** unos respecto de los otros.*

La dimensión demográfica

La tendencia demográfica del municipio de Ataun es claramente descendente.

Año	1900	1930	1960	1990	2000	2023*
Habitantes	2.663	2.446	2.884	1.768	1.556	1.698

* Información adicional a las NN.SS.

Supone una tasa de crecimiento anual de -0,413% durante el último siglo (edo biztanleen %41,7ko galera XX. mendean).

El objetivo es una horquilla demográfica entre 1.500 y 1.800 habitantes:

- *Una oferta tipológica atractiva y variada, en contacto con el medio físico.*
- *Incidencia en el mercado de suelo de la vivienda, con operaciones de vivienda pública que oferten vivienda asequible sobre todo a sectores jóvenes de la población.*
- *Con una oferta de equipamientos y espacios libres completa, atractiva, independiente y a la vez complementaria de los municipios cabecera de comarca.*

El suelo industrial y el sector terciario

Agotada la oferta de suelo industrial, se plantea un nuevo suelo industrial en las cercanías del ya existente.

El sector terciario presenta una actividad muy escasa, se propone revitalizarlo. (???)

El tejido residencial

El tejido residencial se estructura en general a lo largo y a los lados de la vía de comunicación GI-120 (GI-2120).

- *El casco de San Martín presenta un tejido desestructurado, problema de accesibilidad, abunda la vivienda vacía.*
- *El casco de San Gregorio presenta los mismos problemas del casco de San Martín.*
- *El casco del barrio de Aia, presenta edificios en mal estado.*

Ataun tiene en la actualidad (2003) un total de 745 viviendas, de las cuales un total de 174 viviendas, el 23% del total, están vacías.

Se plantean como objetivos los siguientes:

- *Reducir el porcentaje de vivienda vacía.*
- *Propiciar operaciones de rehabilitación y modernización de viviendas.*
- *Sustitución de las viviendas que se encuentren en mal estado.*
- *Ofertar una tipología variada que contemple tanto vivienda colectiva como vivienda aislada y en contacto con la naturaleza.*
- *Recomponer el tejido de los cascos.*

El sistema de espacios libres y de equipamiento

Los únicos espacios que presentan una clara estructura urbana son las plazas de Aia y de San Gregorio.

El barrio de San Martín, a pesar de la importancia de los edificios públicos que se sitúan a su alrededor –Iglesia de San Martín de Tours y el propio Ayuntamiento- no presenta un espacio público debidamente configurado. En este mismo barrio, al otro lado del río, se obtuvo un espacio libre de carácter abierto, que si bien cumple las funciones como tal no resulta ser un espacio estructurante de la trama urbana.

El nivel de equipamiento que presenta Ataun se puede considerar como adecuado a la escala del municipio:

- *Cine-teatro de San Martín.*
- *Consultorio médico de San Martín.*
- *Sala de usos múltiples de San Martín.*
- *Biblioteca de San Martín*
- *Frontón-polideportivo de San Martín*
- *Ikastola*
- *Cementerio de San Martín*
- *Ermita Kalbario-Santo*
- *Albergue Gabillene*
- *Frontón de San Gregorio*
- *San Gregorioko Elkargunea*
- *Cementerio de San Gregorio*
- *Consultorio médico de San Gregorio*

- Cementerio de Aia
- Consultorio médico de Aia
- Frontón de Aia

Se le sumará la **residencia geriátrica y centro de día** a construir en Lazkao mancomunadamente con Ataun y Olaberria.

Se ve necesario completar la oferta cultural con un **centro de interpretación** que canalice las sinergias generadas por D. J.M. Barandiaran en las inmediaciones de la que fue su casa, Sara, y asimismo se detecta la ausencia de un **centro de ocio-deportivo** que se entiende necesario completar.

La red viaria y el sistema de aparcamiento

La red viaria está básicamente constituida por la GI 120, estructura sobre la que se apoya la práctica totalidad del municipio.

El sistema de **aparcamiento**, que no está ni ordenado ni estructurado, sí presenta un **déficit** en cuanto al número de plazas de aparcamiento en superficie.

El sistema de servicios

En lo que al sistema de saneamiento se refiere con la obra realizada se garantiza la recogida de las aguas fecales desde San Gregorio hasta el límite con Lazkao, debiendo contar el resto de núcleos que se alejen de la arteria principal sistemas de depuración propios.

En lo que al sistema de distribución de gas y de telecomunicaciones, deberán de ser implantados y completados en los próximos años.

Objetivos generales de intervención

- Mantener los estándares de población actual e incluso posibilitar la atracción de población exógena, con una horquilla demográfica entre los 1.500 y 1.800 habitantes, a través de los siguientes mecanismos:
 - Una oferta tipológica atractiva y variada, en contacto con el medio físico.
 - Incidir en el mercado de suelo de la vivienda, con operaciones de vivienda pública que oferten vivienda asequible sobre todo a sectores jóvenes de la población.
 - Con una oferta de equipamientos y espacios libres completa, atractiva, independiente y a la vez complementaria de los municipios cabecera de comarca.
- Consolidar las características morfotipológicas de cada uno de los ámbitos urbanos y mantenerlos claramente diferenciados unos respecto de los otros.
- Revitalizar el sector terciario de manera que junto con la industria generen unos índices de actividad de los que actualmente adolece el municipio.
- Reducir el porcentaje de vivienda vacía, propiciar operaciones de rehabilitación y modernización de viviendas y sustituir las viviendas que se encuentren en mal estado.
- Ofertar una tipología variada que abarque desde la vivienda colectiva a la vivienda aislada y en contacto con la naturaleza.
- Recomponer y estructurar el tejido de los cascos.
- Dotar de un carácter urbano propio a la plaza de San Martín y reurbanizar las de San Gregorio y Aia.
- Completar la oferta cultural con un centro de interpretación que canalice las sinergias generadas por D. J.M. Barandiaran en las inmediaciones de la que fue su casa, Sara.
- Completar la oferta de ocio y deporte mediante la implantación de unas piscinas al aire libre en el conjunto de equipamientos formado por la ikastola y el frontón-polideportivo de San Martín, y con una zona de expansión al aire libre en la zona denominada Baztarrika.
- Corregir la dimensión en anchura de la GI-120 tanto por el paso de ámbitos urbanos como por el resto de su trazado desde Lazkao hasta "Kaseta", al inicio de Lizarrusti.
- Ordenar, estructurar y ampliar la oferta de aparcamiento en superficie.
- Completar la red de itinerarios peatonales desde Ubarrieta hasta el límite con el término municipal de Lazkao y hasta Kaseta.

PROPUESTAS DE INTERVENCION DE CARÁCTER SECTORIAL

La vivienda

Las Directrices de Ordenación Territorial (DOT) califican a Ataun como "Hábitat Alternativo". Para ello propone un parque mínimo de **200 viviendas** con esta exclusiva finalidad.

El Documento de asistencia Técnica al Avance con los Criterios, Objetivos y Soluciones Generales del Plan Territorial Parcial del Area Funcional del Goierri indica que de la aplicación de la hoja para el cálculo del número de viviendas de las DOT es de **166 viviendas** para el caso de Ataun, en la que no se tienen en cuenta ni la componente 1 "Implicaciones del Modelo Territorial" ni la componente 4 "Corrección de la Rigidez de la Oferta".

Sin embargo si tuviésemos en cuenta estas dos variables tendríamos que la máxima oferta de suelo residencial que correspondería a Ataun teniendo en cuenta todas las componentes sería de **359 nuevas viviendas**.

La propuesta contemplada en el presente proyecto es la de **construir 317 nuevas viviendas**, para lo cual es necesario derribar 46 viviendas, por lo que el **incremento neto de viviendas sería de 271 viviendas**.

El parque total de viviendas de Ataun, incluyendo viviendas urbanas y caseríos será pues de **1.016 viviendas**.

2006ko Arau Aldaketa Puntualak aurreikusitako bizitegi hazkunde garbia handitu zuen, beste **43 etxebizitza** berri antolatuz; ondorioz, indarreko Arau Subsidiarioek antolatutako **bizitegi hazkunde garbia 314 etxebizitzakoa da**.
Ondorengo koadroan behin betiko bizitegi aurreikuspenak jasotzen dira, 2006ko aldaketa barne, eta Arauen indarraldian gauzatutako etxebizitza kopuruaren datua eranstean zaio.

Eremua	Azalera (m²)	Etxebizitzak	Eraisketak	Berriak	Guztira	Dentsitatea (etxeb/ha)	Hazkunde garbia	Gauzatutakoa
AIU 3	5.805	29	0	0	29	49,96	0	0
AIU 4	11.053	2	0	16	18	16,29	16	13
AIU 5	3.780	0	0	0	0	0,00	0	0
AIU 6	1.211	0	0	0	0	0,00	0	0
AIU 7	11.785	36	6	26	56	46,67	20	0
AIU 8	16.669	17	1	47	63	37,79	46	0
AIU 9	2.526	11	11	33	33	130,64	22	33
AIU 10	20.691	178	0	0	178	86,03	0	0
AIU 11	5.602	24	11	33	46	82,11	22	0
AIU 12	6.855	29	3	16	42	61,27	13	0
AIU 13	17.104	17	0	27	44	25,72	27	0
S. MARTIN	141.026	343	32	198	509	36,09	166	46
AIU 14	2.878	2	0	0	2	6,95	0	0
AIU 16	22.752	33	0	26	59	25,93	26	0
ASTIGARRAGA	40.829	35	0	26	61	14,94	26	0
AIU 17	29.161	33	13	42	62	21,26	29	15
ARRONDO	29.161	33	13	42	62	21,26	29	15
AIU 18	5.402	18	0	2	20	37,02	2	0
AIU 19	6.529	5	0	8	13	19,91	8	6
AIU 20	7.574	35	3	8	40	52,81	5	0
AIU 21	7.057	2	0	18	20	28,34	18	16
AIU 22	5.111	15	0	12	27	52,83	12	0
AIU 23	5.195	7	0	18	25	48,12	18	15

S. GREGORIO	36.868	82	3	66	145	39,33	63	37
AIU 24	4.044	0	0	8	8	19,78	8	0
AIU 25	2.665	6	1	6	11	41.28	5	0
AIA	6.709	6	1	14	19	28.32	13	0
ARINBERRIAGA	16.378	8	1	10	17	10,38	9	0
ERGOIENA	41.096	20	0	8	28	6,81	8	3
ATAUN	312.067	527	50	364	841	26,95	314	101

Beraz, Arau Subsidiarioen indarraldian gauzatu den bizitegi programa **101 etxebizitzakoa** da, hau da, **aurreikusitakoaren herena** baino gutxiago (%32,16).

Aurrediagnotiko tekniko honen baitan burutu den Azterketa Sozio-ekonomikoak (3. atala) antzeko datuak eskaintzen ditu etxebizitzaren egoerari dagokionez, baina badira aldaketa txikiak: **udalerrian 873 etxebizitza daude** orotara, baina horietatik **227 barreiatuan** kokatzen dira, hau da, eremu hiritartuetatik kanpo, eta beste **7 ez daude etxebizitza gisa kalifikatuak**; ondorioz, hiri-eremuan **639 etxebizitza** leudeke, aurreko koadroko **628 etxebizitzen** aldean.

Los usos industriales

Las DOT no establecen determinaciones vinculantes para la ordenación específica de los suelos destinados a actividades económicas (industria, terciario...) aunque sí contienen una serie de criterios y orientaciones en lo referente a política de suelo.

El PTP establece zonas de esponjamiento e intervalos de suelo no urbanizable, verde o agroganadero libre, entre Lazkao y Ataun, y propone que los cursos altos de los ríos y arroyos a partir de Ataun queden liberados de intervenciones urbanizadoras de carácter industrial.

Una vez que el desarrollo del polígono industrial de Zubikoeta ha sido urbanizado y se encuentra en fase de construcción, se propone ampliar la oferta de suelo industrial con dos actuaciones correlativas en el tiempo.

Eremua	Azalera (m ²)	Egunoa m ² (t)	Berria m ² (t)	Guztira (+%25 tarteko sol.)	Eraikigarritasuna m ² (t) / m ² (s)
AIU 1	17.384	10.297	0	10.297	0,59
AIU 2	20.561	0	8.442	10.553	0,51
GUZTIRA	37.495	10.297	8.442	20.850	0,55

Arau Subsidiarioen indarraldian **ez da** industria erabilerako aprobetxamenduaren aurreikuspenik **burutu**.

El sector turístico

El pleno municipal de 26 de Marzo de 1.997 acordó aprobar un plan de desarrollo económico para Ataun en el que se proponía (...) configurar como nuevo eje de desarrollo el sector turístico.

- *La posibilidad de implantación de un **complejo turístico** basado en la construcción de un conjunto de “bordas” de distintas capacidades, a ubicar en el medio rural.*
- *La reutilización del **antiguo balneario** denominado “Remedio” recuperando esta antigua actividad.*

Desde este proyecto no se hace sino recoger y, por lo tanto, ratificar la propuesta.

Los usos terciarios

Desarrollar y revitalizar este sector, tanto de carácter privado como público (equipamiento).

Se trata de añadir y enriquecer el tejido terciario actual mediante nuevos elementos que lo complementen.

*Para ello se propone la localización del techo terciario en las nuevas intervenciones de reestructuración de, sobre todo, el casco urbano de **San Martín**, con una oferta que complemente la actual del sector.*

Los sistemas de comunicaciones y el aparcamiento

*Mejora del trazado de la GI-120 (GI-2120) a su paso tanto por ámbitos urbanos como por zonas rurales y su adecuación a los ámbitos urbanos por los que transcurre. Se propone su **ensanchamiento** en la zona de San Martín y la incorporación de su trazado a las plazas de San Martín y Aia (como) vial de **coexistencia**.*

Respecto del sistema de aparcamiento se propone la diversificación del mismo con la creación de una serie de plazas en superficie por zonas.

Los itinerarios peatonales

Ejecutado el trazado entre San Martín y San Gregorio, se propone **completar** éste con la continuación del mismo hasta **Umarki** por un lado, uniéndolo con la red peatonal de Lazkao y configurando un sistema más amplio, y hasta **Kaseta**, por otro.

Complementariamente se propone recuperar para el peatón las **márgenes de los ríos** en los ámbitos urbanos y así completar y cerrar en anillo los paseos ya existentes.

El sistema de espacios libres

El sistema de espacios libres está compuesto por los siguientes elementos:

Area Urbana

- Plaza de San Martín, con 3.138 m²
- Plaza junto al cine, con 1.273 m²
- Plazas del AIU 8, con 1.513 m²
- Plaza de San Gregorio, de 1.243 m²
- Plaza de Aia, de 971 m².

Suelo No Urbanizable:

- Espacio libre de Astigarraga, de 2.261 m²
- Espacio libre de Iturritza, de 33.055 m²
- **Gutzira: 43.454 m² (/1.800 biztanle = 24 m²/biztanle)**

El equipamiento comunitario

La propuesta de nuevo equipamiento comunitario se centra básicamente en tres (?) elementos:

- La dotación de un equipamiento a definir en el entorno formado por la ikastola, el frontón-polideportivo de San Martín y el albergue de Gabillene.
- La realización de un centro de interpretación en el entorno de Sara, que focalice las sinergias generadas por la figura de J.M. Barandiaran.

Las infraestructuras de servicios urbanos

Se propone la estructuración del sistema de **telecomunicaciones** con la reserva y calificación de suelo para este tipo de instalaciones y con la determinación de abastecer de **gas natural** al menos las entidades urbanas más importantes.

Las infraestructuras fluviales

El río **Agaunza** como un **elemento paisajístico, deportivo y de ocio a proteger y revalorizar**.

Se propone la regeneración de las márgenes de los ríos y regatas mediante la definición de sus correspondientes **zonas de protección** y su **recuperación e integración** como un elemento natural en un entorno urbano.

Las zonas rurales

Preservación y protección de los elementos naturalísticos de interés y en el control del impacto visual de todas las construcciones o edificaciones que se realicen.

Potenciación del disfrute colectivo del medio natural se formula a través de una regulación flexible en cuanto a la amplia variedad de usos a implantar.

La ordenación del territorio rural no afectado por los sistemas generales ni por el Parque de Aralar queda definido con arreglo a la siguiente zonificación:

- Zonas rurales comunes.
- Zonas forestales.
- Zonas de plantaciones forestales.

PROPUESTAS DE INTERVENCION POR BARRIOS

Zona industrial

Idem.

San Martin (Elbarrena)

- Reestructuración del centro urbano.
- Reordenación del ámbito de la plaza de Paskual Iturri.
- Ampliación de la sección de la GI-120 (GI-2120) a su paso por el casco.
- Reordenación del AIU 13.

Astigarraga

En el barrio de Astigarraga se proponen dos intervenciones importantes:

- Implantación de un equipamiento en la zona comprendida entre la Ikastola, el frontón-polideportivo y el albergue de Gabillene.
- Creación de una segunda "calle" residencial.

Arrondo

- Propiciar desarrollos edificatorios acordes con la tipología existente en el barrio.

San Gregorio

Se proponen cuatro (?) actuaciones fundamentales:

- Recuperación de la margen del río.
- Construcción de cuatro edificios bifamiliares en el camino al cementerio de San Gregorio.
- La construcción de dos edificios bifamiliares junto al frontón.

Aia

En el barrio de Aia se propone:

- Posibilitar la construcción de cuatro edificios bifamiliares a lo largo de la carretera.
- Peatonalizar la plaza.

Los núcleos rurales de Arinberriaga y Erqoiena

- Propiciar desarrollos edificatorios acordes con la tipología existente en los barrios.

CUADROS GENERALES

CLASIFICACION DEL SUELO

CLASIFICACIÓN	SUPERFICIE m ²
SUELO URBANO (SU)	246.286
SUELO APTO PARA URBANIZAR (URBANIZABLE) (SAU)	20.561
SUELO NO URBANIZABLE DE NÚCLEO RURAL	57.474
SUELO NO URBANIZABLE (RESTO)	57.982.673
TOTAL SUELO NO URBANIZABLE	58.040.147
TOTAL TÉRMINO MUNICIPAL	58.306.994

AREA URBANA. CLASIFICACION Y CALIFICACION GLOBAL

A. Zonas Residenciales	A.10. Asentamientos Residenciales Antiguos
	A.20. Residencial de Edificación Abierta
	A.30. Residencial de Edificación de Bajo Desarrollo
B. Zonas Industriales	B.10. Zona Industrial Común
	B.20. Zona Industrial Especial
E. Sistema General de Comunicaciones	E.10. Carreteras
	E.20. Vías Urbanas Principales
F. Sistema General de Espacios Libres.	F.10. Espacios Libres
	F.20. Cauce Fluvial
G. Zonas de Equipamiento Comunitario.	G.10. Equipamiento Comunitario

AIU	CLASIFICACIÓN m²	CALIFICACIÓN								TOTAL AIU m²
		A.10 m²	A.20 m²	A.30 m²	B.10 m²	E.10 m²	E.20 m²	F.20 m²	G.10 m²	
AIU 1	SU				17.384					17.384
AIU 2	SAU				18.349	2.212				20.561
AIU 3	SU			5.805						5.805
AIU 4	SU			11.053						11.053
AIU 5	SU						3.780			3.780
AIU 6	SU						1.211			1.211
AIU 7	SU	11.529				256				11.785
AIU 8	SU		15.787			882				16.669
AIU 9	SU		2.305			221				2.526
AIU 10	SU		20.691							20.691
AIU 11	SU		4.368			1.234				5.602
AIU 12	SU	6.855								6.855
AIU 13	SU			14.655		1.784		665		17.104
AIU 14	SU			2.878						2.878
AIU 15	SU								15.199	15.199
AIU 16	SU			22.514		238				22.752
AIU 17	SU			24.574		2.079		2.508		29.161
AIU 18	SU	4.957				445				5.402
AIU 19	SU			5.813		716				6.529
AIU 20	SU		7.243			331				7.574
AIU 21	SU			6.499		866				7.365
AIU 22	SU		4.350			761				5.111
AIU 23	SU	4.024				677				4.701
AIU 24	SU			3.697		347				4.044
AIU 25	SU	2.475				190				2.665
TOTAL		29.840	54.744	97.488	35.733	13.239	4.991	3.173	15.199	254.407
		182.072				18.230				
		254.407								

Azkenik, Hiri Antolaketako Arauek jasotzen duten **Hirigintza Ondarearen Katalogoa** ondorengoa da:

CATALOGO DEL PATRIMONIO URBANISTICO	
ELEMENTOS URBANOS	NIVEL DE PROTECCION
Ferrería y Molino Errota	Bien Cultural. Monumento
Palacio de Zubikoeta	Bien Inventariable
Iglesia de San Martin De Tours	Bien Inventariable
Iglesia de San Gregorio	Bien Inventariable
Casa Zelabear	Bien Inventariable
Caserío Aranburu Enea	Local
Caserío Baztarrika	Local
Caserío Izaate Haundi	Local
Casa Bidarte Haundi	Local
Caserío Garaialde	Local
Casa Intxausti Berri	Local
Casa Intxausti Zaharra	Local
Casa Aierdienea	Local
Casa Bidarte Erdikoa	Local
Casa Urzelaiaetanea (Juanikoenea)	Local
Caserío Okarizti	Local
Paskual Iturri	Local
Casa Tabernaetxeberri (Don Juane Txiki)	Local
Casa Upategi	Local
Caserío Andresenea	Local
Ermita Santakruz	Local
Caserío Zerio Enea (Zaballone)	Local
Casa Gabrielenea	Local
Casa Barriolaenea	Local
Casa Dornainenea	Local
Casa Santiagoenea	Local
Casa Bonea	Local
Astigarretxea	Local
Lopetxea	Local
Casa Uresaundi	Local
Casa Lazkaotegi	Local
Puente de Zubiaurre	Local
Casa Kaminoa	Local
Caserío Eskisabel	Local
Caserío Matxintxu	Local
Calera Olaluzeaga	Local
Casa Semoroa	Local
Caserío Arin Haundia	Local
Caserío Urritsumendi	Local
Conjunto formado por Oleaga, Larruntza y Errotatxo	Local
Presa de Oleaga	Local
Caserío Arratilagakoa	Local
Caserío Iturritza Zaharra	Local
Horno del caserío Teilaetxe	Local
Caserío Arratinenea	Local

Caserío Inzekantzeluz	Local
Iglesia Santa Isabel (Aia)	Local
Casa cural de Aia	Local
Caserío Erraiondo Zahar	Local
Caserío Begiristain (Beiztin)	Local
Caserío Beheko Errota	Local

BIENES CULTURALES CALIFICADOS CON CATEGORIA DE CONJUNTO MONUMENTAL	
ESTACIONES MEGALITICAS ELEMENTO	NIVEL DE PROTECCION
Estacion Megalítica de Aralar	Conjunto Monumental (Resolución 5/02/01)
• Dolmen de Txotxeta	Conjunto Monumental (Resolución 5/02/01)
• Dolmen de Erremedio	Conjunto Monumental (Resolución 5/02/01)
Estacion Megalítica de Ataun-Burunda	Conjunto Monumental (Resolución 5/02/01)
• Dolmen de Aitxu	Conjunto Monumental (Resolución 5/02/01)
• Dolmen de Argoniz	Conjunto Monumental (Resolución 5/02/01)
• Dolmen de Igartza Mendebala	Conjunto Monumental (Resolución 5/02/01)
• Dolmen de Itxusburu	Conjunto Monumental (Resolución 5/02/01)
• Dolmen de Bernoa	Conjunto Monumental (Resolución 5/02/01)
• Dolmen de Muñaan	Conjunto Monumental (Resolución 5/02/01)
• Dolmen de Larreluze	Conjunto Monumental (Resolución 5/02/01)
• Dolmen de Atxurbiko	Conjunto Monumental (Resolución 5/02/01)
• Túmulo de Igartza Ekialde	Conjunto Monumental (Resolución 5/02/01)
• Túmulo de Praalata	Conjunto Monumental (Resolución 5/02/01)
ZONAS DE PRESUNCION ARQUEOLOGICA (Resolución de 14 de octubre de 1997 por la que se emite Declaración de zonas de Presunción Arqueológica de Ataun)	
Caserío Zubikoeta	Resolución 14 de Octubre de 1997
Caserío Arratinea	Resolución 14 de Octubre de 1997
Caserío Arrizabalaga	Resolución 14 de Octubre de 1997
Caserío Etxeberri Haundi	Resolución 14 de Octubre de 1997
Caserío Okarizri	Resolución 14 de Octubre de 1997
Molino Elizalde	Resolución 14 de Octubre de 1997
Iglesia de San Martin	Resolución 14 de Octubre de 1997
Caserío Urdangarin	Resolución 14 de Octubre de 1997
Caserío Lauzti Garakoa	Resolución 14 de Octubre de 1997
Caserío Larratzea	Resolución 14 de Octubre de 1997
Caserío Agirre Txiki	Resolución 14 de Octubre de 1997
Caserío Astigarretxea	Resolución 14 de Octubre de 1997
Caserío Andresenea	Resolución 14 de Octubre de 1997
Caserío Espilla	Resolución 14 de Octubre de 1997
Caserío Bastarrika	Resolución 14 de Octubre de 1997
Caserío Telletxe	Resolución 14 de Octubre de 1997
Caserío Arin Haundia	Resolución 14 de Octubre de 1997
Caserío Arin Etxeberri	Resolución 14 de Octubre de 1997
Caserío Matxintxu	Resolución 14 de Octubre de 1997
Caserío Perune Zaharra	Resolución 14 de Octubre de 1997
Caserío Telleri Erdi	Resolución 14 de Octubre de 1997
Caserío Telleri Azpi	Resolución 14 de Octubre de 1997

Ermitea de San Gregorio	Resolución 14 de Octubre de 1997
Caserío Zelabear	Resolución 14 de Octubre de 1997
Caserío y Ferrería Olea o de Larraunza	Resolución 14 de Octubre de 1997
Tejería Lauzti o Aiesondo	Resolución 14 de Octubre de 1997
Cueva de Arrateta	Resolución 14 de Octubre de 1997
Cueva de Azarikobatxo II	Resolución 14 de Octubre de 1997
Cueva de Intxusaeta II	Resolución 14 de Octubre de 1997
Cueva de Kobazar	Resolución 14 de Octubre de 1997
Cueva de Ubeigaineko Leizea	Resolución 14 de Octubre de 1997
Asentamiento de Maomendi	Resolución 14 de Octubre de 1997
ZONAS Y ELEMENTOS ARQUEOLOGICOS	
Además de los anteriores:	
Castillo de Jentilbaratza	
Cueva de Allekoaitze	
Cueva de Armontaitze	
Cueva de Limurita	
Cueva de Pikandita	
Cueva de Sastarri II	
Cueva de Sastarri IV	
Cueva de Troskaeta	
Cueva de Usategi	
Cueva de Agaoz	
Dolmen de Leizadi Sur (seguramente desaparecido o no descubrible)	
Túmulo de Leizadi Norte (seguramente desaparecido o no descubrible)	

Indarrean dagoen udal plangintzaren azterketa amaitu aurretik, garrantzitsua da aipatzea **2005eko Hiri Antolaketako Arauak ez daudela 2/2006 Legea**, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa, **delakoaren xedapenetara egokituak**. Horrek zailtasun, arazo eta disfunkzio handiak eragin ditu 2005eko Hiri Antolaketako Arauen garapenean, izan ere, udal plangintza eta berau zuzendu beharko lukeen araubide orokorraren arteko kontraesanak etengabeak izan baitira. Are gehiago, udal plangintza 2/2006 Legeak ezartzen duen jasangarritasun marko orokorretik, ingurumenari zein sozio-ekonomiari dagokiona, kanpo geratu denean.

Bestalde, landa-eremu zabaleko Ataun bezalako udalerrietan gaiak duen garrantzia dela eta, lurzoru ez urbanizagarriko ordenantzaren hainbat artikulua laburbiltzen dira; horrela:

CAPITULO 3.5. ORDENANZAS REGULADORAS DE LA IMPLANTACION DE LOS USOS AUTORIZADOS EN EL SNU

Artículo 3.5.2. Explotaciones agrarias comunes.

1. Definición.

Con carácter general, para la **implantación de nuevas construcciones** vinculadas a una explotación agraria común nueva o ya existente, se exigirá la previa certificación de la citada entidad, acreditativa de que sus titulares son productores agrarios, la explotación reúne los requisitos de dimensión y viabilidad productiva mínima exigidos en cada caso, y las instalaciones se adecúan a la normativa vigente y aplicable en cada caso.

5. Usos residenciales auxiliares de las explotaciones agrarias comunes.

A) Explotaciones agrarias comunes, nuevas o ya existentes, en las que exista una edificación ya destinada a uso residencial auxiliar de la misma, o susceptible de ese destino.

Se autoriza la implantación, como máximo, de **dos (2) viviendas** vinculadas a cada una de dichas explotaciones agrarias, con el citado carácter de auxiliares de las mismas, y con una **superficie mínima de 150 m²(u)** (superficie útil). En todo caso, dicha autorización estará supeditada a la cumplimentación de todas y cada una de las siguientes condiciones:

a) Sin perjuicio del mayor o menor alcance de las obras de reforma y rehabilitación, en su caso necesarias, todas esas viviendas deberán ser **habilitadas en edificaciones existentes**, autorizándose su **ampliación hasta un máximo de 60 m²(t)**. Estas ampliaciones deberán adosarse al edificio principal.

c) Sin perjuicio de lo dispuesto en el apartado siguiente, cualquiera que sea el número de viviendas que se pretenda habilitar, no se autorizarán **segregaciones** o divisiones de las fincas afectadas que den como resultado nuevas parcelas o fincas con **superficie inferior a 20.000 m²**, salvo que se garantice su adscripción a otras explotaciones agrarias.

B) Nuevas explotaciones agrarias comunes que no dispongan de edificación destinada a uso residencial auxiliar de la mismas, o susceptible de ese destino.

Se autoriza la implantación de nuevas construcciones destinadas a usos residenciales auxiliares de nuevas explotaciones agrarias, exclusivamente en terrenos incluidos en la zona **"D.10 Rural Común"**. Dicha autorización estará supeditada a la cumplimentación de, además de las establecidas con carácter general en el capítulo 3.4 de estas Normas, las siguientes condiciones:

a) Acreditación de los extremos mencionados en el apartado "1" de este mismo artículo, del modo en él establecido.

b) Sin perjuicio de lo que, en su caso y conforme a lo señalado en el apartado "2" de este artículo, acuerde la DFGen cuanto a la superficie y extensión de los terrenos vinculados a la explotación, la autorización de la citada nueva edificación residencial requerirá la aportación de una parcela con **superficie mínima de 20.000 m²**, a la que aquella deberá quedar vinculada registralmente.

Artículo 3.5.3. Usos agrarios no profesionalizados.

1. Tramitación:

Su implantación requiere la obtención de la correspondiente **licencia municipal**, sin que resulte necesario el informe de la Diputación Foral de Gipuzkoa, previsto en el apartado "2" del artículo 44 del Reglamento de Gestión Urbanística.

2. Parcela mínima: **2.000 m²**.

3. Condiciones de edificación.

— Se autoriza la construcción de una nueva chabola por parcela, destinada a la **guarda de aperos**, exclusivamente en terrenos incluidos en la zona **"D.10 Rural Común"**, debiendo cumplimentarse los requisitos generales exigidos en el capítulo 3.4 de las presentes Normas.

4.1.4.2 Tokiko Iraunkortasunerako Ekintza Plana

2004-2005 urteetan, ATAUNGO IRAUNKORTASUNERAKO TOKIKO EKINTZA PLANA burutu zen, Tokiko Agenda 21 prozesuaren baitan: Iraunkortasun Diagnostikoa lehenik (2004ko irailetik abendura bitartean), eta Iraunkortasunerako Ekintza-Plana ondoren (2005eko abenduan aurkeztu zen).

Agiriak berak dioen bezala, "Iraunkortasunerako Udal Diagnostikoa UDALTALDE 21 GOIERRI Lan Taldeak egin du Udaleko arduradun politiko eta teknikoen zuzendaritzapean eta udalaz gaingiko beste erakunde batzuen teknikarien eta enpresa publiko zein pribatuen elkarlanean. Horretarako, eragile sozial eta ekonomikoen partehartzea eta INGURUNE S.L. eta PROSPEKTIKER S.A. Aholkularitzen Laguntza Teknikoa kontuan hartu da".

Pentsa liteke 2004. urtean egindako Diagnostikoaren emaitzak zaharkituta edo iraungita geratu direla, ia 20 urte igaro direnean, baina agiriak berak jasotzen duen iraukortasun-helburuen taulak iada aurreratu edo iradoki ditzake orain indarrean egon daitezkeen zenbait lan-ildo. Bestalde, indarreko Hiri Antolaketako Arauak 2005ean onartu ziren behin betiko, hau da, Ekintza Planarekin paraleloan landu zirela dirudi, eta ez dago jakiterik zenbateraino jasotzen dituzten azken honen irizpide edota helburuak.

Edonola, ATAUNGO IRAUNKORTASUNERAKO TOKIKO EKINTZA PLANAK jasotzen duen **Diagnostikoko elementuen eta iraukortasun-helburuen taula** ondorengoa da:

BIZTANLERIA ETA ETXEBIZITZA	
DIAGNOSTIKOKO ELEMENTUAK	PROPOSAMEN – EKINTZA HELBURUAK
- Azken urteetako biztanle beherakada (%11 inguru 1991-2004 epean) nabaria izan da. - Herriaren desoreka soziala etorkizuneko garapen urbanistikoa auzo bakarrera mugatzeagatik	Etxebizitza gehiago eraiki (batez ere sozialak) biztanleria mantentzeko etorkizunerako beharrei begira.

ONDARE KULTURALA	
DIAGNOSTIKOKO ELEMENTUAK	PROPOSAMEN – EKINTZA HELBURUAK
Herriko ondare arkitektoniko aberatsa galtzeko arriskua dago (eraikuntzak, baserriak,...).	- Etxe zaharrak eraberritu eta herriko ondarea berreskuratzeko programa bat martxan jarri. - Sentsibilizazioa
EUSKARA	
DIAGNOSTIKOKO ELEMENTUAK	PROPOSAMEN – EKINTZA HELBURUAK
Nahiz eta estatistikek kontrakoa esan, Euskararen erabilera jeisten ari da herrian. Kanpotik bizitzera datorren jendeak ez du Euskara ikasi.	Euskararen udal plangintza bat garatu
MERKATARITZA ETA OSTALARITZA	
DIAGNOSTIKOKO ELEMENTUAK	PROPOSAMEN – EKINTZA HELBURUAK
- Merkataritza eskaintza gero eta eskasagoa da (denda bakarra gelditzen da) eta biztanleriak gero eta gehiago erosten du kanpoan (gune handitan bereziki) - Herri-bizitza eta giroa galdu da merkatal jardueraren beherakadaren ondorioz - Azken urteetako biztanleriaren beherakadak hurrengo urteetan jarraitzeko eta lo egiteko herria bihurtzeko mehatxua dago, herriko jarduera ekonomiko eta merkatalaren beherakadagatik	- Herriko komertzioa eta ostalaritza sustatzeko plan bat diseinatu eta martxan jarri. - Sentsibilizazioa
TURISMOA ETA KULTURA	
DIAGNOSTIKOKO ELEMENTUAK	PROPOSAMEN – EKINTZA HELBURUAK
- Herriko ondarea (Joxe Migel Barandiaranen ingurukoa, baserrien mundukoa,...) oso aberatsa da - Ataun naturgune erakargarri eta aberats baten inguruan aurkitzen da (Aralar) - Turismorako azpiegitura oso urria kontsideratzen da	- Udal turismo plangintza bat garatu. - Azpiegitura turistikoak garatzeko beste erakundeekin elkarlana bultzatu (Goitur,...).
LEHENENGO SEKTOREA ETA INGURUNE NATURALA	
DIAGNOSTIKOKO ELEMENTUAK	PROPOSAMEN – EKINTZA HELBURUAK
- Lehen sektorearen gainbeherak etorkizunean jarraitzeko arriskua du, herriko jardueran eta paisaiaren mantentzean eragingo lukeelarik - Pinua mendietan goitik behera datorrela nabarmentzen da - Lurrak %30-eko hezetasuna galdu du azkeneko 40 urteetan - Baratzetara zuzentzen ziren lurrak gero eta urriagoak dira, etxebizitzara zuzentzen direnak gero eta gehiago direlarik	- Nekazaritzako udal batzordean lehenengo sektorearen egoera eta etorkizuna aztertu - Bertako produktuak (Ataun) kontsumitzeko sentsibilizazio kanpaina bat burutu - Lehenengo sektorean eta baserrietan egiteko obra eta lanetarako laguntza programa bat garatu (diskriminazio positiboa)
HEZKUNTZA	
DIAGNOSTIKOKO ELEMENTUAK	PROPOSAMEN – EKINTZA HELBURUAK

Orokorrean, datu zehatzagoak falta dira adinaren araberrako hezkuntza mailari dagokionean	
SENTSIBILIZAZIOA	
DIAGNOSTIKOKO ELEMENTUAK	PROPOSAMEN – EKINTZA HELBURUAK
Garapen iraunkorraren aldeko jarrerak izateko mentalidade eta kultura falta nabari da biztanleriaren artean	- Sentsibilizazio ekintzak garatzen jarraitu Tokiko Agenda 21 Eskolarraren bidez (gazte eta gurasoentzat) - Gida bat atera, iraunkortasun erizpideak (hondakinak, mugikortasuna,...) eta praktika onak agertzen dituelarik (modu grafikoan eta errez ulertzeko moduan) - Sentsibilizazio kanpainak diseinatu eta martxan jarri
3. ADINA	
DIAGNOSTIKOKO ELEMENTUAK	PROPOSAMEN – EKINTZA HELBURUAK
- Biztanleriaren etengabeko zahartze prozesua eman da. Gazte taldeak bere pisua txikitu duen neurrian 1986-2001 epean (%24,1-etik %14,5-era), zahar taldeak bere pisua nabarmen handitu egin du (%14,4-tik %24,1-era). - Zahar taldeak pisu erlatibo handiagoa du Ataunen (%24,1), Goierri (%18,6), Gipuzkoan (%16,8) eta EAE-n (%17) baino. - Gizarte laguntzetan aurreikusitako gastua Udaleko 2004rako aurrekontu osoaren (1.983.695,40 €) %4 da.	3. adineko biztanleriaren egoeraren azterketa bat garatu, beste erakunde batzuekin elkarlanean (Nagusilan, Esperientziaren Eskola,...).
GAZTEAK	
DIAGNOSTIKOKO ELEMENTUAK	PROPOSAMEN – EKINTZA HELBURUAK
Gazte taldeak bere pisua txikitu duen neurrian 1986-2001 epean (%24,1-etik %14,5-era).	Gazte plan bat diseinatu eta martxan jarri.
MUGIKORTASUNA	
DIAGNOSTIKOKO ELEMENTUAK	PROPOSAMEN – EKINTZA HELBURUAK
- Autoarekiko dependentzia oso handia da, jendea beste herri batzuen zerbitzu eta jardueraren menpe bizi delarik (dendak, lantokiak,...) - Bizikletaren erabilera eta oinezko mugikortasuna galtzen joan da, gero eta arriskutsuagoak direlarik autoen ugaritzeagatik eta bide egokien faltarengatik - Autobus zerbitzua eskasa da; jende gutxi ibiltzen da eta ondorioz zerbitzua ere minimoa da - Irigarritasun oztopo ugari daude herrian zehar, udal eraikinetan besteak beste (kanposantua,...) - Kotxe pribatuak edonon aparkatzeko ohiturak detektatzen dira	- Garapen iraunkorrera jotzen duen mugikortasun bat bultzatzeko Mugikortasun Plangintza bat garatu - Bizikletazko eta oinezko mugikortasuna bultzatzeko (adibidez, San Martinetik - San Gregoriora bide bat eginez), segurtasuna hobetzeko ekintzak martxan jarri (espaloi gehiago,...) - Autobus zerbitzuaren ordutegia moldatu (ikastetxeetara doazen ikasleak, lantegietara doazen langileak,...) eta zerbitzu berriak aztertu (CAF-era,...) - Ataungo irigarritasun plana erabat martxan jarri - Kotxeak ez dagozkien lekutan ez aparkatzeko kontrolak areagotu
URA	

DIAGNOSTIKOKO ELEMENTUAK	PROPOSAMEN – EKINTZA HELBURUAK
• Uraren kalitatea ez da behar bezain ona batzutan (euria egiten duenean batez ere) eta hornidura sistemak galera ugari ditu • Herriaren berezko ezaugarriek (azalera oso luzea,...) ur hornidura, banaketa eta saneamendu sistema on bat izatea zailtzen dute • Kontrolik gabeko isurketak daude baserri batzuetatik	• Uraren hornidura sistemaren kudeaketa ereduazertu (Udala / Ur Kontsortzioa) • Uraren hornidura sistema hobetzeko plan bat diseinatu eta martxan jarri (uraren kalitatea hobetu eta sareko galerak murriztu) • Baserrietako isurketen kontrol handiago bat eraman
HONDAKINAK	
DIAGNOSTIKOKO ELEMENTUAK	PROPOSAMEN – EKINTZA HELBURUAK
• Herriko gune batzutan hondakin ontziak urruti gelditzen dira, gehiago birziklatzeko oztopo bat delarik (kamioien bilketarako muga teknikoak dauden arren ere)	• Hondakin ontzien beharrak azertu herriko eremu desberdinetan • Zaborren inguruko sentsibilizazio eta informazioa hobetu
ENERGIA	
DIAGNOSTIKOKO ELEMENTUAK	PROPOSAMEN – EKINTZA HELBURUAK
• Energia elektrikoaren kontsumoa nabarmen hazi da azkeneko urteetan (2001-2003), batez ere kontsumo industrialak (%15) eta argiteria publikoa (%25)	• Energia elektrikoaren kontsumoaren razionalizazio programa gauzatu

4.2. GARAPEN HISTORIKOA ETA EGITURA MORFOLOGIKOA

4.2.1.- HITZAUURREA

Atal honen helburua ez da inola ere Ataungo historiaren azalpen xehekatua eskaintzea, aldiz, udalerrri zein herrigunearen egungo ezaugarri morfologikoen jatorria finkatzea baizik, beronen sorkuntzan eta garapenean mugarri izan diren aldien azalpen kualitatiboa eskainiz.

Berrito ere nabarmendu behar dugu “hiriaren” eraikuntza prozesu historiko anitz eta konplexuen ondorio dela, ezaugarri geografikoek eta unean uneko eredu ekonomiko zein jendarte harremanek eragindakoa.

Aldagai hauen eta hiriaren antolakuntza fisikoaren arteko harreman estua ulertzea ezinbesteko jotzen dugu, egungo egoeraren diagnostiko egokia burutu nahi badugu.

Horrela, historiako hiru aldi nabarmendu behar ditugu, historikoki izan duten garrantziagatik edota batik bat ekonomia ereduaren eta populazioaren hazkundera antzeman daitekeen jauziagatik.

Gure ustez, hiru aldi garrantzitsuenak, besteren artean, ondorengoak dira:

- XIII. mendea, 1200ean, Gipuzkoa Gaztelako koroari lotu zitzaionekoa.
- XVII. mendea, 1615ean, Ataunek bere hiribildu titulua erosi zueneko; (1619an, Beasain eta Idiazabalekin elkartu zen, 1639an soilik Idiazabalekin eta 1651-1664ko tartean Oria ibaiaren batasunean egon zen).
- XX. Mendea, 1900 urtetik aurrera Goierriko industria garapena hasi zenekoa.

4.2.2.- HIRIBILDUAREN AURREKO GARAIAK

4.2.2.1.- Arkeologia:

Ataunen sorrera ezezaguna da, baina Aralar eta bere ingurunea gizakiaren aspaldiko kokalekua dela uste da; Jose Migel Barandiaranen hitzetan: "Euskal Herriko gizakiaren presentzia bezain zaharra da Enirio-Aralarren bizi izandakoarena".

Hala ematen dute aditzera Aralarren aurkitutako ehorzketa-haitzulo, ehorzketa-monumentu eta beste zenbait aztarnak. Enirio-Aralar partzuergoan 27 monumentu kokatzen dira, triku-harri gehien duen mendia delarik.

Ataungo udalerrian kokatzen diren artean, Aralar eta Ataun-Burundako estazio megalitikoak, hainbat trikuharri (Txotxeta, Erremedio, Aitxu, Argoniz, Igartza, Itxusburu, Bernoa, Muñan, Larreluze, Atxurbi, Leizadi,...), tumulo (Igartza, Praalata, Leizadi,...), kobazulo (Arrateta, Azarikobatxo, Intxusaeta, Kobazar, Ubegain, Allekoaitze, Armontaitze, Limurita, Pikandita, Sastarri, Troskaeta, Usategi, Agaoz,...), Jentilbaratza gaztelua eta Maomendiko asentamendua ditugu.

4.2.2.2.- Mugaldeko lurraldeak eta bideak:

Aralar mendiak Ataun eta Ataundarrengan izandako eraginen artean, muga izaera aipatu beharrean gaude. Izan ere, XIII. mendeko lehen urteetan Aralar bilakatu zen Gaztelako eta Nafarroako erreinuen arteko muga, horrek alde bietan kokatutako komunitateen artean hainbat gatazka eta istilu eragin zituelarik.

Muga izaera horren adierazgarri da, 1200 urtean Gipuzkoa Gaztelako koroaren menpe jarri bazen ere, Jentilbaratzako gaztelua Nafarroako koroarena izaten jarraitu zuen 1390 urte inguruan, alferrikako emanik, Erregeren aginduz suntsitua izan zen arte.

Ataungo udalerrria zeharkatzen duen Agauntza errekarri lotuta Lizarrustitik Nafarroara daraman bideak (Frantziatik Madrilera doan errege-galtzada izango zena) udalerrriaren sorrera eta eraketan izan duen eragina nabarmentzeko da, batzuen ustetan, izena bera emateraino (*Ate=igarotzeko atea, pasadizoa; une=lekua, tokia*).

Nafarroaruntz doan beste bidea Ergoiena ingurutik Berrenoako lepora doana da, 1569 urtean galtzada bilakatzen hasi zirena.

Aipatzekoa da XII. mendetik XIV.era, Lazkaoko jaunak udalerrian zituen eskubideen inguruko liskarrak konpondu asmoz, Ataunen ipar-hego banaketa ezarri zela, Lizarrabe, Agauntza, Agautz eta Aralezik osatutako mugaren baitan. Iparraldekoa zatia, Aizkolisasi deiturikoa, eskusiboki herriarentzat zen bitartean, hegoaldekoa, Agauntza izendaturikoa, Lazkaoko jaunarekin erdibana erabiltzen zen, bertan zeuden mendi, larre, baso, bazka eta barruti guztiak barne.

Gipuzkoa barneko Santiago bidearen adar batek ere igarotzen zuen Ataun, San Martingo elizatik oso gertu izan den Santiagorako Ostatu edo Hospitalak aditzera ematen duenez. Adar honen ibilbidea honakoa omen zen: Ordizia, Lazkao, Ataun San Martin, San Gregorio, Ergoiena, Atxurrene, Berrenoako galtzada, Urdiain, Urbasa, Bakedano, Lizarra.

4.2.2.3.- Etxeak,abizenak:

1200 urteko agiri batetan, lehendabizikoz, aipatzen dira, San Martingo elizaz gain, hainbat etxe izen; zehazki, 14 jasotzen dira, udalerrian sakabanatuta aurkitzen direlarik: Sukia, Otadizelai, Ajarresta, Barandiaran, Urrestarazu, Larraza, Urdangarin, Astigarraga, Arrondo, Baztarrika, Arin, Dorronsoro, Telleriazpikoa eta Arrategibel.

Ez dago zalantzarik Erdi Aroko eta baita ondorengo Ataun hartako biztanleek nekazaritza eta abelzaintza zutela ogibide nagusia. Orohar, nekazari, artzai eta ganaduzale pobreen lurra izan da. Etxeetatik gertuen dauden lurretan landatzen ziren gari, izkiribeltz, olo, garagar edota beranduago sartu ziren babarrun, arto eta patata, gainontzeko lurrak larre eta baso ustiapenera bideratutako herri-lurrak zirelarik.

Ez dugu garai haietako populazioaren informaziorik, baina XVII. mendearen haseran, 1616an, 400 biztanle inguru zituela adierazten du agiri batek (*360 benetako herritar eta 38 zalantzazkoak*), bailarako kokagune nagusietan zein mendian sakabanatutako baserrietan bizi zirelarik. Izan ere, Elbarrena, Arrondo eta Aringo biztanleek euren larre-soroak hedatzen eta bertan txabola eta bordak eraikitzen joan ahala Aitzarte, Aia eta Urrutsumendi aldera, hurrenez hurren, zabaltzen zen biztanleria.

Gehiengoak nekazaritza eta abeltzaintza zuen lanbide nagusia, XVII. mende horretan eskulan, salerosketa, basolan eta bestelako ogibideen hastapenak azaltzen direlarik.

4.2.2.4.- Antolaketa politikoa eta ekonomikoa:

Aralar mendiak eskeintzen zituen erabilera eta aprobetxamenduak kudeatzeko helburuaz, bada, aspalditik, Bozue (Olue, Zozue, Ozkue,... bezala ere ageri izan da) izeneko mendi-komunitate edo elkargoa. Bere lehen aipamena 1027 urteko agiri batetan azaltzen bada ere, sorrera "ofiziala" 1409 urtean kokatzen da, Gaztelako errege Enrike III.ak Joan Amezketari lur horiek eman ondoren (1400) mankomunitateko kideek onartu ez eta akordio bidez Joan Amezketari berrerosi zizkionten.

Halere, partzuergo hauen sorrera historiaurretik ematen den artzain-bizimoduan kokatu beharko genuke, aipatu ekintzen aurrekoa ez ezik, monarkia zein probintzien sorrera baino lehenagokoa ere direlarik.

Enirio-Aralar inguruko mendiak ustiatzeko mankomunitatea bi zatitan banatzen da: Bozue Nagusia edo Amezketakoa (Abaltzisketa, Amezketa, Baliarrain, Ikaztegieta eta Orendainek osatua) eta Bozue Txikia edo Ordiziakoa (Altzaga, Arama, Ataun, Beasain, Gaintza, Itsasondo, Lazkao, Legorreta, Ordizia eta Zaldibiak osatua). Mendeetan zehar arazoak eta tirabirak izan badira ere, gaur egun arte iraun du.

XIV. mendearen azken laurdenean, Gipuzkoako kolazio eta unibertsitate txikiak hainbat arrazoi tarteko ("banderizoei" aurre egiteko, Gipuzkoako Batzar Nagusietan indar handiagoa edukitzeko,...) villa edo herri batek eskeintzen zuen babes bilatu zuten. Honela, 1399ko apirilaren 8an beste herrixka batzuekin batera emandako konkordia-eskrituraren bidez, Villafrancako hiribilduarekin bat egingo du, bere jurisdikzioaren mende jarritz, eta, gainera, hiribilduarekin batera, erregeari ordaindu beharreko banaketetan, harresien kontserbazioan, defentsan eta erabilera komuneko gainerako gastuetan laguntzeko betebeharra hartuz.

Ataungo udalerrria, antzinatik, Lizarrea-Agaunza-Agauz-Aralegui lerroak banatzen zuen; hegoaldea Agaunza deitzen da eta iparraldea Aizkolasia. 1404. urtean jada aipatu zen banaketa hori, Agaunzako eremua Lazkaoko etxearen eta bertako biztanleen artean erdibana gozatu behar zela ebatzi baitzen, Lazkaotarren etengabeko esku-sartzeek kexu baitziren. Ataunek bere mugak, mendiak eta gainerako jabetzak gorde zituen pribatiboki Villafrancak inolako parterik izan gabe, eta ondorioz bere administrazio ekonomiko berezia. Populazioa handituz joan ondoren, bere burua bere kabuz gobernatzeko gai zela uste izanik, Villafrancarekiko lotura eten zuen Ataunek.

4.2.3.- XVII. MENDEA (1615)

1615ean onartu zion Felipe III.ak hiribilduaren pribilegioa Atauni, jurisdikzio zibil eta kriminala barne, diru kopuru handi baten truke. Udal gobernu eta Gipuzkoako batzarretan eserlekuaren jabetza hartu bazituen ere, agintari berriak berehala konturatu ziren Ataunek ezin ziola bere eremuan burututako jarduerak eta bildutako zergen bitartez eskatzen zitzaion diru kopuruari aurre egin, eta hortaz, Idiazabal eta Beasainekin elkartu zen 1619 urtean, dieten zati bat aurreztu eta batzarretan zein gerra-kasuetan ordezkaritza bateratua izateko.

1639an Beasainen banatzearen ondorioz Idiazabalekin bakarrik geratu zen.

1651-1664 bitartean Oria ibaiaren batasunean sartu zen.

Ondoren, 1818an, Beasain eta Zaldibiarekin batera, Atazalbea izeneko batasuna osatu zuen, 1852an desegin zena, eta, orduetik, ordezkaritza propioa izan zuen batzar orokor eta partikular guztietan.

Herrigunearen osaerak izan duen bilakaerari dagokionez, agiritan aipamen zaharrena (1200 urtekoa) duten eraikinak, iparraldetik hegoaldera, honakoak dira:

Sukia, Otadizelai, Barandiaran, Ajarresta, Larraza, Astigarraga, Urdangarin, Urrestarazu, Arrondo, Dorronsoro Baztarrika, Arin, , Telleriazpikoa eta Arrategibel.

Ataundarrek, euren jabetzako lurrez gain, herri lurren bat lantzen zuten, azken hauetan, urruti egonagatik, babesleku gisa erabiliko zituzten txabolak eraikiz. Txabola horiek bizileku bihurtzen hasten dira, XIII, XIV, XV eta XVI mendeetan sortzen diren etxe gehienak horrela sortzen direlarik.

XVII. mendean ematen da jatorrizko auzoen (Elbarrena, Arrondo, Arinberriaga) zabalkundea; honela, Elbarrena Aitzarte aldera hedatzen da Dostollo (1640), Amilleta (1660) eta Aizkorondo (1745) baserriak eraikiz; Arrondotarrek Aia aldera jo zuten Arbilleta (1640), Aiestaran (1659) eta Mendiurkillo (1683) baserriak eraikiz; Arinberriagakoek, aldiz, Urrutsumendi aldera, Itzate (1630), Bordazulo (1640), Iparragirre eta Sorozabal (1660) baserriak eraikiz.

Herri-lurrak: Etxeetatik gertu diren lurrak ez beste herri-lurrak ziren, nahiz larrerako nahiz egurra lortzeko baliatzen zirenak. Herri-basoetan basapartea deritzan eskubidea subastatzen zen, bertako ezkur-bazkara joateko. Halaber, herri-basoko egurra herritarren artean banatzen zen sua egin edota eraikuntzarako. Larreei dagokionez, garai batean, *gorozeta* eskubideak aukera ematen zuen Ataungo etxe batek lursail bat landatzeko herriko mendi edo lurretan. Lurrak herri-lurra izaten jarraitzen du, uza bereganatu eta landatu duenak jasotzen du.

4.2.3.1.- Olak, errota, meatzak:

Agauntza errekek biltzen ditu udalerriko urak, hego-ekialdean Lizarrusti inguruan jaio eta iparraldean Lazkaoko lurretan sartzen deneraino Ataun zeharkatuz. Bertan biltzen dira Enirio-Aralarretik (Aiaturrieta, Maizegi), hegoaldean Nafarroarekin duen mugatik (Osiñaga, Erraztigoiko, Albitz, Egiluze, Idoibeltz, Intuseta, Iberondosoroeta, Lapurbide, Arizkuneta, Kamiñomuturre, Altzuaran, Txurixurieta eta Inbidi), mendebaldeko mugatik (Larrainsoroeta, Urretsumendi, Lauzti, Aierdi, Musaga) eta ekialdetik (Aran, Aitzarte, Atzarte, Kobatxo) datozen erreka eta errekaetoak.

Berebiziko emaria ez duen arren, Agauntza errekek zazpi bat errota (Elizalde errota eta Errotaberri Elbarrenan, Errota eta Errotatxo Ugalde karrikan, Aiaerrota Aian, Errotatxo eta Artezabal errota Aitzarten) eta bizpahiru olari (Olea,...).

Historian zehar Ataunen izan diren meatze nagusiak Artzate (burdina eta berundun kobrea edo burdin gorria), Naparriturri (zilardun galena), Muntxoeta (burdina eta estainua), Aiztondo (beruna), Aitzarte (berundun harri beltza) eta Iñurrieta (zilardun beruna) dira.

4.2.3.2.- Elizak

Elbarrenako Tourseko San Martini eskainitako eliza auzolanean eraiki zen XV. eta XVIII. mendeen artean. Dirudienez santu honekiko zaletasuuna Konpostelako Santiago bideara zihoazen erromes frantsesek ekarri zuten Atauna.

San Gregorioko elizaren jatorria Lazkaoko Jaunaren gotorleku izan zen gaztelua dela uste da, haitz-tontorrean eta Jaun beraren jabetzakoak ziren Olea burdinola (1420) eta Zelabear baserriarekiko gertutasuna dela eta. Ondoren baseliza egon zen, 1535eko agiri batetan aipatzen denaren arabera, eta azkenik, 1794ean Iruñako gotzaitegiaren agindu baten bitartez parrokia edo eliza nagusia eraikitzeko erabakia hartu zen, berritzea 1893 urterarte atzeratu bazen ere.

Ataungo hirugarren eliza 1794 urtean eraikitako Santa Ixabel izenez ezagutzen dugu eta Aiako plaza inguruan kokatzen da.

Baziren, halaber, hiru baseliza Ataunen, gaur egun bakarra mantentzen bada ere, Astigarragan kokatutako eta XVII. mendearen hasieran eraikitako Kalbario Santuko eliza, hain zuzen. Beste biak, Lazkaorekin muga egiten duen Umari deritzan parajea kokatutako San Sebastian baseliza, 1771ean Iruñako Gotzaiaren aginduz xahutu zena, eta Erremedioko Ama Birjinarena, izen bereko ur arseniko-sulfurosoa isurtzen duen iturriaren inguruan, 1884 urtean Gotzaiaren aginduz xahutu eta ondoren baserri bihurtu zena. Iturrisantu honi lotuta bainuetxe bat eraiki zen, 1888 urtean ireki zena eta egun galdurik dagoena.

4.2.3.3.- Demografiaren bilakaera

1616 urteko lehen datu horren arabera, herri titulua jaso zuenetik gutxira, 400 biztanle inguru zituen (*360 benetako herritar eta 38 zalantzazkoak*).

XVII. mende horretan egoera aldatzen hasten da, laborantza garrantzitsuagoa bihurtzen da eta baserri berriak eraikitzeari ekiten zaio, batetik, eta herrigune ezberdinetan (Elbarrena, Astigarraga, Arrondo, Arinberriaga, Arratekale, Ugaldekarrika eta Ergoienan eskulan, salerosketa, basolan eta bestelako ogibideen inguruan (ikazkin, hargin, errementari, errotari, oihalgin, zurgin, gurdizain...) dabilen auzotarren etxeak ugaltzen dira, bestetik (Errementari, Barberoenea, Dornainenea, Pakinanea, Oihalkindegi,...).

XX. mendearen erdialdera arte populazioaren gorakada eman zela uste da, 1860 urtean 2.919 biztanle izatera iritsi zelarik.

4.2.4.- XX. MENDEA

Era berean, XX. Mendearen hasierarekin iraultzen da Ataungo populazioaren hazkundea, biztanleria galtzen hasten bait da, gaurdaino mantentzen den joerari hasiera emanez. Biztanleria galtzearen arrazoi nagusia Beasain, Ordizia, Lazkao edota Olaberrian irekitako industri-lantegiak dira, Ataundar askok bertako lana utzi eta aipatu herrietara joaten hasten bait dira, eguneroko joan-etorrietan hasieran, udalerriz aldatuz amaieran.

Ataungo biztanleriak 1860 urte inguruan goia jo ondoren, hortik aurrera, Oria ibaiaren ardatzean kokatutako goierritar udalerrietan eman zen industrializazio garapena tarteko, gorabehera batzuk izan ziren; 1860-1880 tartean, trenbidearen eraikuntzak eragindako lehen goraldiaren ondorioz, lehenik, eta 1900-1960 tartean ondoren, aipatu herrien industrializazioak, eta beroni lotutako etxebizitza kopuruaren hazkundea, goia jo zuenean.

1900etik (2.663 biztanle) hamarkadaz hamarkada populazioa jeisten joan zen; 1910 urteko 2.658 biztanletatik 1940raino (2.448), nahiz eta hortik aurrera errekupeazio tarte txiki bat ematen den, 1960an 2.884 biztanle izatera iritsiz.

1960tik 2000 urtera gainbehera nabarmena da, 2.807 biztanle izatetik 1.514ra pasa bait zen Ataun 2003an, 43 urtetan populazioa %46 inguruan murriztu zelarik.

4.2.5.- GARAPEN MORFOLOGIARI BURUZKO GOGOETAK:

01* Bere kokapenak, eta bereziki orografiak eragin zuzena izan du Ataungo bilakaeran. Batetik, Gaztela eta Nafarroako erreinuen mugan egoteak, bi aldean arteko gatazka gune bilakatzearekin batera (*gaizkileen muga* zeritzaion Gorriti, Ausa, Ataun, Irurita eta Orzorrozeko gazteluek osatutako lerroari) igarobide izaera eman dio, Santiago bideak edo Errege Kaltzadan egonagatik. Bestetik, udalerria alderik alde zeharkatzen duen Agauntza errekek sortutako bailara malda handiko magalek inguratzen dute, inguruko udalerriri eta parajeekiko loturak ia erabat galaraziz, eta ondorioz, bailararen igarobide izaera indartuz.

XVI. mendean, larre eta basoen ustiapenari lotutako eta mendi magaletan eraikitako baserri, saletxe edo borde gain, ibarrean babes-eraikin gutxi batzu besterik ez zeudela uste da, hala nola, Jentilbaratza gaztelua edo San Gregorioko elizaren aurreko gotorlekua. Ondoren, teknologia hidraulikoa garatzen joan zen heinean, Agauntza erreken ibilbidean kokatzen ziren eraikinak (errotak, olak, ...) ugaltzen hasi ziren.

Herrigunea deritzoguna ibarraren gune lauetan garatzen da, ezagutzen diren lehen bizitokiak Agauntza eta beste erreken arteko elkarguneetan edo gune lau eta argitsuak kokatu zirelarik. Horietatik gehienak Elbarrena aldean eraiki baziren ere ez dirudi luzetako egitura batetan antolatutako etxe eta baserri barreiatuen artean, XVIII. menderarte bederen, udalerriko beste kokalekuekiko (Arrondo, San Gregorio,...) bereiz zitekeen gune populatua osatu zuenik.

Halaber, Ataun bitan banatu izana izan liteke bi herrigune sortzearen jatorria, bakoitzak bere gotorleku, eliza eta autoritatea izan zituelarik. Honela, Elbarrena garai batetako Aizkolisasi eremuaren nukleoa zen bezala San Gregorio Agauntza eremuarena izan zela pentsa daiteke, Ataunen banaketa horri erantzuten zion egitura bikoitz gisa, uste hau hipotesi hutsa bada ere.

Garaiotan, eliza, erretoretxe eta kontzejua ezik, gainerakoak nekazaritza eta abeltzantza jarduerari lotutako eraikinak zirela uste da, baita gaur egungo herrigunean kokatzen zirenak ere.

Agauntza erreken eskuin ibarrean Bidarteauditik Orbitartera zabaltzen den guneak osatuko luke Elbarrenako bizkarrezurra, barreiatutako baserri eta etxeen artean kokatu izanagatik, ziurrenik. Eliza XVIII. mendean eraikitako udaletxe edo kontzeju berriak, eta honen ondoan altxatutako pilotalekuak, osatu zuten handik aurrera herriaren bihotz edo erdigune bilakatuko zen eremua.

Azkenik, XX. mendearen erdialdean eman zen etxebizitza eraikinen garapenik nabarmenena, bizitegi eremua San Martin elizaren hegoaldera Agauntza erreken ezker aldeko eremura luzatu zelarik.

02* Ataungo herrigunea, beraz, ibarrean kokatutako asentamendu eta hutsarteak tartekatzen zituen luzetako egitura baten baitan antolatu zen, nukleo gisa Elbarrena eta San Gregorio nabarmenduz, gainontzeko guneak (Astigarraga, Arrondo eta Ergoiena bereziki) bidearen ertzean kokatutako asentamendu lineala gisa gorpuztu zirelarik. Gainontzean eraikin gutxi batzuek osatutako guneak (Suki, Ajarresta, Arinberriaga, Murkondo) dira hiritartu gabeko jarraitutasuna urratzen duten eremuak.

Egitura hori hein handi batetan mantendu egin da, nahiz eta bizitegi eremuek batik bat, baita zerbitzu eta ekipamenduek ere, hutsarteak txikitu dituzten.

Bizitegi eremuek bereziki San Martin eta San Gregorion izan dute hazkundera, baita Arrondon ere, neurri txikiagoan eta familia bakarreko edo biko tipologian oinarrituta bada ere.

Bestetik, Elbarrenak hegoalderuntz Astigarraga auzora izan duen luzapenak biztanleriaren behar berriak asetzeko garapenari erantzuten dio, udal ekipamendu nagusienak bertan eraiki zirelarik.

Gune populatuenean arteko loturari dagokionez, Elbarrenatik San Gregoriora doan 3,6 kilometro inguruko tarteak ez du egun oinezko edo bizikletek segurtasun eta erosotasun baldintzetan erabil dezaketen azpiegiturarik, nahiz eta Arrondorarte espalo estuak gauzatuta dauden.

Azkenik, ekipamendu, zerbitzu, saltoki eta gune publiko nabarmenenak San Martingo herriguneko Elbarrena eta Astigarraga auzuneetan kontzentratu dira, San Gregoriok eta Aiak eliza, pilotaleku eta lokal publikoez osatutako gutxieneko zuzkidura bat badute ere. Gainerako asentamenduetan bizitegi zein nekazal-abeltzantza jardueratara bideratutako eraikinak besterik ez dira kokatzen, salbuespen bakarra Zubikoetan kokatutako industrialdea delarik.

***Bibliografia:

*Ataun. Joxantonio Imaz, Joanjoxe Goikoetxea, Jexux Aizpurua, Begoña Azpiroz, Benito Munduate, Tomas Auzmendi.

*Ataun. Auñamendi Eusko Entziklopedia. Eusko Ikaskuntza.

4.3. EGUNGO HIRIGINTZA EREDUAREN AZTERKETA

4.3.1.- ESPAZIO PUBLIKOA ETA EKIPAMENDUAK

4.3.1.1.- Gune libre publikoak

Sistema Orokor gisa (F.10) sailkatutako gune libre publiko nagusiak Astigarraga auzunean (Santiagoenetxiki eraikinaren parean, errearen bestaldean, 2.261 m²) eta San Gregoriotik hegoaldera (Iturritza izeneko parajea, errearen ezkerrean, 33.055 m²) kokatzen dira. Bi gune hauek, udalerriko Arauetan aurreikusitako bizitegi hazkundearen arabera, Legeak xedatutako gune berdeen zuzkidura justifikatzea beste helbururik ez dute, eta ez dute inolako funtziorik betetzen hiri-ereduan.

Badira izaera lokalagoa eta F.10 sailkapena duten beste 3 eremu, herrigune bakoitzean plaza funtzioa betetzen dutenak; elizaren eta herri antzokiaren inguruan zabaltzen den gune bana Elbarrenan, pilotaleku aurreko gunea San Gregorion eta eliza eta udal lokalen artean zedarritutakoa Aian.

Azkenik, bada Ergoienan plaza funtzioa betetzen duen espazio librea, F.10 sailkapena ez duena. Ondorengo taulan biltzen da Ataungo espazio publiko ororen inguruko informazio nagusia:

1. taula: ATAUNGO ESPAZIO PUBLIKOAK						
Espazio publikoa*	Azal. (m ²)	Haur-parkea (m ²)	Esp. estalia (m ²)	Berdeg.	Hiri hornidura**	Inguruko nodo nagusiak
Herri antzokia (1) (2) (3)	1.180	200	0	340	Eserlekuak	Herri antzokia
					Instalazioak ***	Udal liburutegia
					Zuhaiztia	Osasun kontsultategia Adinekoen lokala KZ gunea
San Martin eliza (1) (2) (3)	2.040	0	0	0	Eserlekuak	Udaletxea
					Instalazioak	Gazteen lokala
					Arkupea****	
San Gregorio (1) (2) (3)	850	160	0	0	Eserlekuak	Pilotalekua
					Instalazioak	Osasun kontsultategia Elkargunea
Aia (1) (2) (3)	360	130	0	0	Eserlekuak	Elkargunea
					Instalazioak	Pilotalekua
					Arkupea****	
Astigarraga (1) (2) (3)	2.261	0	0	0	-	-
Iturritza (1) (2) (3)	33.055	0	0	0	-	-
Ergoiena	500	90	0	0	Eserlekuak	
					Zuhaiztia	

*Espazio publikoaren kokapena Ataungo udalerrian:

- (1) Elbarrenan
- (2) San Gregorion
- (3) Aian

**Hiri horniduraren eskaintza:

- ☐ Oparoa
- ☐ Nahikoa
- ☐ Eskasa

***Instalazioak: argiteria, ur hornidura...

**** Elizaren arkupea.

Indarreko Arauetan Lizarrustin 25.000 m² inguruko F.10 sailkapena duen gune librea grafiatzen bada ere, ez zaio inolako aipamenik egiten testuan.

Legeak xedatutako zuzkidura betetzera murrizten direnak alde batera utzita, espazio publiko nagusiak herriguneetan txertatzen dira (ikus B.03. INDARREKO PLANGINTZA. EKIPAMENDUA ETA ESPAZIO PUBLIKOA planoak).

Elbarrenakoek, plaza funtzioa betetzeaz gain, Ataungo ekipamendu garrantzitsuenekin lotura zuzena dute, baita maila lokalagoan San Gregoriokoak ere.

Aipatzekoa da Elbarrenako plazak lurrazpiko garajea duela azpian, bertan eman daitezkeen erabilera edota eskuhartzeak baldintzatzen dituelarik.

Elbarrenan, Paxkual iturri inguruko espazio libreak ez du inolako hiri hornidurarik.

Astigarragan, kiroldegia eta eskolari lotutako espazio libre zabala badago ere, beronen erabilera hezkuntza jarduerara murrizten da oro har, nahiz eta puntualki bestelako ekitaldi publikoak ere hartu izan dituen.

Aldiz, Arrondo eta Arinen ez dago zerbitzu eta eremu publikoen arrastorik.

Etorkizunera begira, planeamenduak apenas aurreikusten du f.10 kalifikaziodun espazio libre esanguratsurik; Elbarrena hegoaldean aurreikusitako bizitegi garapenari (HJA 13) lotutakoak, adibidez, ez du elkargune edota aisialdirako eremu izaerarik, ibilgailu motordunen aparkaleku eta errepide erabilera murrizten den heinean. San Gregorion Barandiaran museoaren inguruan aurreikusitako ekipamenduari lotutako espazio librea proposatzen da, 420 m² ingurukoa. Arrondon eremu txiki bat aurreikusten da (160 m²) Rafaelene etxearen iparraldean.

Edonola, Agauntza erreka ertzean ere badira espazio libreak, Elbarrenan eta San Gregorion bereziki, oinezko ibilbideekin batera eserlekuak, iturriak eta zuhaitziak dituztenak eta herritarren aisialdi eta egonaldirako funtzioa betetzen dutenak.

Ezin ahaztu, azkenik, Kaxio bideari lotutako aisialdirako gune txikiak, lur urbanizaezinean kokatzen direnak eta bestelako funtzioa betetzen dutenak.

4.3.1.2. - EKIPAMENDUAK

a.- Eskualdeko ekipamenduen sarea

Arestian esan bezala, Ataun Gipuzkoako hego-ekialdean kokatzen da, Goierri eskualdean, BOL delakoa osatzen duten Beasain, Ordizia eta Lazkao dira eskualdeko herrien erreferentzia; baita Ataunena ere, gertutasunagatik Lazkao nabarmentzen delarik.

Ataungo ekipamendu sarea udalerrri txiki baten eskalakoa da, BOL delakoak eskualdeko zuzkidura nagusiak biltzen dituelarik.

2. *taulan* eskualdeko ekipamendu sarearen inguruko zertzelada nagusiak ematen dira:

2. taula: EKIPAMENDUAK. ATAUN GOIERRI ESKUALDEAN		
ARLOA: HEZKUNTZA		
Eskaintza mota	Ataunen	Eskualdean
Haur eskola	✓	Beasain, Ordizia, Lazkao
Haur Hezkuntza/Lehen Hezkuntza	✓	Beasain, Ordizia, Lazkao
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza	x	Beasain, Ordizia, Lazkao
Batxilergoa	x	Beasain, Ordizia, Lazkao
Lanbide Heziketa	x	Ordizia
ARLOA: KIROLA		
Eskaintza mota	Ataunen	Eskualdean
Pilotalekuak	✓	Beasain, Ordizia, Lazkao
Kiroldegia	✓	Beasain, Ordizia, Lazkao
Igerilekuak	x	Beasain, Ordizia, Lazkao
ARLOA: KULTURA		
Eskaintza mota	Ataunen	Eskualdean
Liburutegia	✓	Beasain, Ordizia, Lazkao
Gaztelekua	✓	Beasain, Ordizia, Lazkao
Zaharren lokala	✓	Beasain, Ordizia, Lazkao
Kultur etxea	✓	Beasain, Ordizia, Lazkao
Areto handia	✓	Beasain, Ordizia, Lazkao
Musika irakaskuntza	x	Beasain, Ordizia, Lazkao
ARLOA: OSASUN-ASISTENTZIALA		

Eskaintza mota	Ataunen	Eskualdean
Kontsultategia	✓	Beasain, Ordizia, Lazkao
Etengabeko Arreta Gunea	x	Beasain
Osasun zentroa	x	Beasain*, Ordizia, Lazkao
Erietxea	x	Zumarraga
Zaharren egoitza	x	Beasain, Ordizia, Lazkao

*Anbulatorioa.

b.- Ataungo ekipamenduen sarea

3. taula: ATAUNGO EKIPAMENDUEN ZERREDA				
Ekipamendua		Arloa	Kokapena*	
01.A	UDALETXEA	Zibiko-Administra.	Elbarrena, 44	(1) (2) (3)
01.B	GAZTEEN LOKALA	Kultura	Elbarrena, 14	
01.C	ADINEKOEN LOKALA	Osas.-Asistent.	Elbarrena, 16	
01.D	MEDIKU KONTSULTA	Osas.-Asistent.	Elbarrena, 15	
01.E	ZINEMA-ANTZOKIA	Kultura	Elbarrena, 15	
01.F	KZ GUNEA	Kultura	Elbarrena, 15	
01.G	LIBURUTEGIA	Kultura	Elbarrena, 15	
01.H	ERABILERA ANITZEKO ARETOA	Kultura	Elbarrena, 15	
01.J	SAN MARTIN ELIZA	Erlijosoa	Elbarrena, 14	
02.A	AUZOETA KIROLDEGIA	Kirola	Astigarraga, 3	
02.B	JM BARANDIARAN LHI IKASTETXEA	Hezkuntza	Astigarraga, 3	
02.C	HAUR ESKOLA	Hezkuntza	Astigarraga, 4	
03.A	ELKARGUNEA	Kultura	San Gregorio, 12	(1) (2) (3)
03.B	ZELAI PILOTALEKUA	Kirola	San Gregorio, 12	
03.C	MEDIKU KONTSULTA	Osas.-Asistent.	San Gregorio, 12	
03.D	BIKARIO ETXEA	Kultura	San Gregorio, 3	
03.E	BARANDIARAN MUSEOA	Kultura	San Gregorio, 24	
03.F	SAN GREGORIO PARROKIA	Erlijosoa	San Gregorio, 2	
04.A	ELKARGUNEA	Kultura	San Gregorio, 12	(1) (2) (3)
04.B	PILOTALEKUA	Kirola	San Gregorio, 12	
04.C	MEDIKU KONTSULTA	Osas.-Asistent.	San Gregorio, 12	
04.D	SANTA IXABEL ELIZA	Erlijosoa	San Gregorio, 2	

*Espazio publikoaren kokapena Ataungo udalerrian:

- (1) Elbarrena
- (2) San Gregorion
- (3) Aian

Taulan ikus daitekeen ekipamendu nagusiak Elbarrenan kokatzen dira, udaletxeko plazan, herri antzoki inguruan eta Astigarragan banatzen direlarik eta funtzio edo erabilera konbinazio bereziak gertatuz; honela, herri antzokiaren inguruan kultur erabilera nagusi diren bitartean, Astigarraga auzoan hezkuntza eta kirol ekipamenduak kontzentratzen dira. Halaber, administrazio jardura udaletxera mugatzen dela esan dezakegu.

Eraikin berezia den antzokia ez bezala, inguruan biltzen diren ekipamenduak (liburutegia, kontsultategia, adinekoen lokala,...) bizitegi erabilera nagusia duten eraikinen behe solairuko lokaletan garatzen dira.

San Gregorio eta Aian gutxieneko zuzkidura osatzen duten mediku kontsultategia (Aiakoa ezabatu da, auzotarrek San Gregoriora jeitsi behar dutelarik), pilotalekua, elkargunea eta eliza bana kokatzen da.

Joxe Miel Barandiaran ikastetxea, aldiz, Astigarraga auzoan dago, Elbarrenako nukleotik gertu. Haur hezkuntzako jardura duen Gabrielenea eraikina eta Zelai kiroldegia batekin batera zuzkidura multzo interesgarria osatzen du, horien arteko espazio libreakin batera, eskola-ordutegiaz kanpo aktibo jarraitzen duen nodo irekia delarik.

Bestalde, egungo Arauek hiru ekipamendu publikoen zuzkidurak aurreikusten dituzte; erabilera zehatzik gabeko bat eskola eta kiroldegiak osatzen duten inguruan (ondoren igerileku gisa definitu zena baina gauzatzera iritsi ez zena), interpretazio zentro bat Joxe Miel Barandiaranen bizileku izan zen Murkondo auzoko Sara etxea eta honen ingurua hartuz eta erabilera zehatzik gabeko bat San Gregorioko Barandiaran museoaren inguruan.

4.3.2.- MUGIKORTASUNA ETA GARRAIOA

4.3.2.1.- Ibilgailu motordunen sarea

Bide sareari dagokionez, Atauna iristeko bi bide nagusi daude, Lazkao eta Etxarri-Aranatzekin muga egiten duen Lizarrustiko mendatetik, udalerria zeharkatzen duen GI-2120 errepidearen bitartez; errepide honetatik beste bost ateratzen dira: GI-3151, Lizarrustiko igoera hasten den Kaxeta gunetik iparralderuntz abiatuz Aia auzora heltzen dena, GI-3152, San Gregorio auzotik mendebalderuntz abiatu eta Lauztierreka zeharkatuz Urretsu mendialdera zuzentzen dena, GI-4151 errepidea, San Martin auzotik ekialderuntz abiatuz Arratetako mehatzeak zeharkatu eta Ataungo domoan barneratzen dena, GI-4152 San Gregorioko hilerria doana eta GI-4153 Arinberriagatik Motasoro auzora doana.

a.- Ataunen enkoadraketa

Irun eta Gasteiz lotzen dituen A-1 autobidetik 6 km-ra aurkitzen da Ataungo herrigunea (udaletxeko plaza); sare orokorrarekin lotura zuzena, beraz, Lazkao bidean du, udalerriaren iparraldean.

Hego Euskal Herrian duen kokapenari dagokionean, Donostia da hiribururik gertukoena:

4. taula: ATAUNGO HERRIGUNEA ETA HEGO EUSKAL HERRIKO HIRIBURUEN ARTEKO LOTURA				
	Donostia	Iruña	Gasteiz	Bilbo
Km	47	60	67	86
Denbora	42 min	59 min	59 min	1 ordu 11 min

Eskualde mailan, Lazkao da Ataunen erreferentzia nagusia.

5. taula: ATAUN ETA INGURUKO UDALERRIEN ARTEKO LOTURA							
	Lazkao	Beasain	Ordizia	Olaberria	Etxarri	Arbizu	Lakuntza
Km	3,6	6	7,5	5,4	22	21	23
Denbora	5 min	8 min	12 min	8 min	27 min	26 min	28 min

b.- Udalerrri barruko loturak

Arestian esan bezala, udalerrri mailako joan-etorriek, GI-2120 errepidea dute ardatz. Herrigunetik kanpo dauden auzoetarako bideak bertatik irteten dira. Herrigune gisa udaletxeko plaza hartu da erreferentziazat.

6. taula: HERRIGUNEA ETA UDALERRIAN SAKABANATUTAKO AUZOEN ARTEKO LOTURAK			
Auzoak	Km	Denbora (min)	Bidea
<i>Zubikoeta</i>	1,0	2	GI-2120
<i>Astigarraga</i>	0,75	1,5	GI-2120
<i>Arrondo</i>	1,5	3	GI-2120
<i>Arinberriaga</i>	2,2	4,25	GI-2120
<i>San Gregorio</i>	3,6	7	GI-2120
<i>Ergoiena</i>	5,2	10,5	GI-2120
<i>Aia</i>	6,8	13,5	GI-2120 + GI-3151
<i>Sukialdea</i>	2,2	4,25	GI-2120 + Hilerriko bidea
<i>Otamotx</i>	2,5	4,5	GI-2120 + Kalakas bidea
<i>Aitzartealdea</i>	2,0	4	GI-2120 + GI-4151
<i>Lauztierreka</i>	5,7	11,5	GI-2120 + GI-3152

Auzo gisa hartu daitezkeen gunek guztiak GI-2120 errepidean zehar kokatzen dira Aia izan ezik, bertara iristeko ezinbestean Arrondo eta Kaxeta lotzen dituen GI-3151 errepidea hartu behar delarik. Barreiatuan kokatzen diren etxe-multzo ezberdinetara iristeko, aldiz, GI-2120 ardatza utzi eta alboetara barneratzen diren bide ezberdinak erabiliz iristen da.

GI-2120 errepideak hiru estugune ditu bere ibilbidean, trafikoa txandaka pasatzera behartzen dutenak; Elbarrenan, Astigarragan eta San Gregorion. Halaber, saihebidetzat har daitekeen adarra ere bada Elbarrena auzoan, herrigunearen erditiik trafikoa ekidin edota murriztu dezakeenak, nahiz eta ibilgailu luzeentzako moldaketa puntualen bat beharko duen. Edonola adar hau dentsitate handiko bizitegi eremuetatik igarotzen da.

Ibilgailu astunei dagokionez, GI-2120 errepidean ez da landa eremuko ohiko jarduerak eskatzen dutenaz gaindiko kamioien trafiko esanguratsurik.

c.- Ibilgailu parkea eta aparkalekuak

Ataungo ibilgailu parkea, 2021eko datuen arabera, eskualdeko batezbestekoaren inguruan kokatzen da, probintziako zein autonomi erkidegoko balioen gainetik.

7. taula: IBILGAILU PARKEA (ibilgailu/bizt) Udalmap			
Ataun	Gorri	Gipuzkoa	EAE
0,71	0,70	0,67	0,63

Inguruko udalerriekin alderatuz gero, nabarmena da Oria bailaran konzentratzen diren garraio publiko sareetatik, trenaren bidez, kanpo dauden herrietako ibilgailu parkea handiagoa dela.

8. taula: IBILGAILU PARKEAREN BILAKAERA (ibilgailu/bizt) Udalmap					
Udalerrria	2005	2009	2013	2017	2021
Ataun	0,63	0,67	0,68	0,69	0,71
Beasain	0,57	0,59	0,61	0,64	0,66
Idiazabal	0,79	0,84	0,82	0,85	0,91
Lazkao	0,69	0,75	0,67	0,70	0,69
Olaberria	1,05	1,18	1,26	1,62	1,56
Ordizia	0,54	0,57	0,58	0,58	0,58
Tolosa	0,53	0,57	0,56	0,57	0,58
Zumarraga	0,53	0,56	0,56	0,59	0,63

Aparkalekuei dagokionez, udalerriko auzo ezberdinetako beharrei erantzuten dien zuzkidura betetzen dela esan daiteke oro har. Elbarrenan 2010 urtean berrantolatutako eliza eta udaletxe arteko plazak, lurrazpiko aparkalekua jasotzen duenak, aisea setzen du auzoak eta bertan kokatutako zerbitzu orokorrekin sortutako eskaria, nahiz eta urbanizatu gabeko gune batzuk ere baliatzen diren behin-behineko aparkaleku gisa.

Beste hainbeste esan daiteke Astigarraga auzoko ekipamenduek sortzen duten ibilgailuen aparkaleku eskaerari dagokionez, 2010 urtean kiroldegiaren iparraldean kokatutako aparkalekuaren handitzeak asetzen duen delarik.

Aldiz, San Gregorio da aparkaleku zuzkidurari dagokionez eskaintza urriena duen auzoa, ekipamendu eta zerbitzu nagusiak biltzen diren Azauntza errekako eskuin arroan bereziki.

Ataunen autoak duen garrantzia ukaezina da. Udalerrian sakabanatuta bizi diren bizilagunek ezinbestekoa dute autoa eguneroko bizitzan. Herrigunean bizi direnak ere, autoa erabiltzen dute udalerrira barruko joan etorriak osatu eta inguruko beste herrietara iristeko.

4.3.2.2.- Garraio publikoa

a.- Autobusa

Autobus linea bakarra igarotzen da Ataundik; GO04, Ordizia, Beasain, Lazkao, Ataun ibilbidea egiten duena hain zuzen (baita Legorreta eta Itsasondo orduetegi konkretu batzuetan ere). Oro har 20-40 minuturo lotzen ditu San Martin eta San Gregorio Lazkaoarekin goizeko 7etatik gaueko 21:30tara asteen zehar eta antzeko orduetegiak baina maiztasun urriagoak (ordubetero g.g.b.) asteburuetan.

Aldiz, San Gregoriotik haratago joan nahi izanez gero, Kaxeta eta Aia eskaripeko gurelaku dira, zerbitzua jatorritik irten baino orduerdi lehenago deituz galdagin behar delarik.

9. taula: AUTOBUS ZERBITZUA ATAUNEN			
Linea	Ibilbidea	Maiztasuna	Geldiuneak
G004	(Legorreta > Itsasondo >)* Ordizia > Beasain > Lazkao > Ataun (San Martin / San Gregorio)	30-40 minuturo astegunetan; (7:00 – 21:30) - 30 zerbitzu Orduro asteburu eta jaiegunetan; (7:00 – 21:30) - 19 zerbitzu	San Martin plaza (Elbarrena)
			Bittor jatetxea (Elbarrena)
			Astigarraga
			Arrondo
			Motasoro (San Gregorio)
			San Gregorio
	Ordizia > Beasain > Lazkao > Ataun (Ergoena-Kaseta/Aia)**	Eskaripeko zerbitzua Astegunetan 13 zerbitzu Kasetara eta 7 Aiara Jaiegunetan 11 zerbitzu Kasetara eta 4 Aiara	Ergoiena
			Atxurrena
			Kaxeta
			Aia

*8etatik 21etara g.g.b. orduro ematen den zerbitzua.

** Eskaripeko galekuak.

Inguruko udalerriekin lotura eskaini arren, autobusaren erabilera maila ez da oso altua. Denbora aurreztu eta erosotasunagatik autoa erabili ohi dute ataundarrek joan-etorriak egiteko.

b- Bestelakoak

Garraio publikoari dagokionez, autobusa da Ataungo bizilagunek eskura duten baliabide bakarra, Renfe-Adif trenbide sareak ez baitu Ataunen geltokirik. Beasain edo Ordizia dira gertuko estazioak (ikus 11. taula).

10. taula: TREN GELTOKIETARAKO DISTANTZIA ATAUNDIK				
Tren geltokia	Distantzia*	Kotxez	Autobus linea	Oinezko ibilbidea
BEASAIN	6,1 km	9 min	G004	Ez dago oinezko ibilbiderik
ORDIZIA	7 km	10 min	G004	Ez dago oinezko ibilbiderik

*Distantzia Elbarrenatik

Bestalde, bada Ataungo udalerrian zerbitzua ematen duen taxia, nahiz eta ez duen geldione propiorik. Hura erabili nahi izanez gero, telefonoz jarri behar dira harremanetan Ataungo bizilagunak, edo bestela, Lazako edo Beasaingo taxi zerbitzuak eskatu.

4.3.2.3.- Bizikleta eta oinezko bideen sarea

a.- Bizikleta bideak

Egun Ataunen ez dago bizikleta biderik. Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurraldearen Arloko Planak, egun berrikuspen prozesuan dagoenak, *I-3.9 Beasain – Ataun* adarra planifikatuta du Gipuzkoako Bizikleta Bideen Oinarritzko Sareko *I-3 DONOSTIA – BEASAIN* 3. Ibilbidearen adar gisa.

Aipatu adarra Lazkaotik barneratzen da udalerriko mugetan, Agauntza errekaaren eskuinaldetik, Zubikoeta industrialdearen parean ezkeraldera igaro eta egungo Kaxio bidearen ibilbidea hartzen duelarik. *I-3.9 Beasain – Ataun* ibilbidea Elbarrena mendebaldetik saihesten duen bidetik GI-2120 errepidearekin bat egiten duen puntuan amaitzen da, Ubarri zubian.

Egitasmoari dagokionean aurrera pausorik eman ez bada ere, interesgarria da proposamena. Orografia eta morfologia aztertuta, eskualdeko bizikleta sarea osatzeko Lazkao da lotune posible bakarra. Hala ere, hiri-ehundurak hainbat arazo planteatzen ditu proposamena aurrera eraman ahal izateko:

- Saihesbidea hiri barneko motordunen trafikoa baretzeko erabiliko bada, bizikleta bidea GI-2120 errepidetik bideratzea litzateke zentzuzkoena, oinezko eta bizikleta erabiltzaileen arteko bizikidetzat sustatuz.
- Garrantzitsua da bizikleta bideari jarraipena ematea, bai Astigarraga auzoan kokatutako ekipamenduetara (LHI Joxemiel Barandiaran eskola, Gabrielenea haurreskola eta Auzoeta kiroldegia) iristeko, baita Arrondo zein San Gregorio auzuneak Elbarrenarekin lotzeko ere. Horretarako egungo GI-2120 errepidea zabaldu beharko da, tarte gutxi bait dago bizikleta erraia bertan txertatu ahal izateko.

Laburbilduz, udalerriko luzetarako ardatza, GI-2120 errepidea, iparraldean Elbarrena auzotik hasi eta hegoaldean Kaxetan bukatzen dena, egun errepide bidez soilik lotzen da. Mugikortasun eredu berrien arabera, Ataungo ekipamendu eta biztanleriaren banaketa aintzat hartuz, Lazkaorekiko loturaz gain, gutxienez Elbarrena eta San Gregorio bitarteko tartean oinezko zein bizikletak modu eroso eta seguruan igarotzeko bidea egokitu beharko litzateke.

b- Oinezko bideak

Beste horrenbeste esan dezakegu oinezkoen bideen inguruan; Ataungo hiri egiturak izaera lineala du. Biztanleria gehien biltzen duten auzoak egituratzen dituen ardatza Elbarrenatik San Gregoriaz luzatzen da iparraldera haren inguruan Astigarraga, Arrondo eta Arin auzoak eratzen direlarik.

Udalerriko egiturari erreparatuz gero, ezaugarri nagusia jarraitutasun eza da. Udalerria iparraldetik hego-ekialdera zeharkatzen duen GI-2120 errepideaz gain Agauntza erreka ezkerrean kokatzen den Kaxio bidea deituriko herri-bidea da egun auzo ezberdinen artean existitzen den lotura bakarra. Bide honek, baina, bestelako izaera bat du, landa lurretik igarotzen den heinean, eta ibilbideak ez ditu gutxienezko irisgarritasun baldintzak betetzen, ez zabalerari dagokionean, ezta zoladuraren ezaugarri edota gainditu beharreko oztopo eta maldeei dagokionean ere. Irismenari dagokionez, Lazkaoekin duen mugatik Kaxetara luzatzeko asmoa badago ere, egun tarte batzuk (Ergoetik Kasetara bereziki) egokitzeke daude, eta beraz, ibilbidea ezin da erabat osatu.

Hortaz, Kaxio bideak ezin du oinezkoen mugikortasuna modu eroso eta seguruan ahalbidetuko duen ardatza osatu, aisialdirako eta izaera landatarra duen herri-bidetzat hartu beharko litzatekeelarik.

Egungo espaloiei dagokionez, iparraldetik, Bidebieta zubiaren ondoren hasi eta Arrondo auzoaren amaieraraino luzatzen da GI-2120 errepide ondoko espaloia, nahiz eta etendura eta estuguneak badiren. Tarte batzuetan ez dago espaloirik; beste hainbat ataletan, aldiz, diseinu arazo larriak hauteman dira: espaloitarte estuegiak, hiri-altzarien eta zuhaitzen kokapen desegokia, mantenu eza, zeharkako malda handiak... Espaloirik gabeko tarteak erabiltzen dituzte bizilagunek herriguneko joan etorriak oinez egiteko; ez dute beste irtenbiderik. Irtenbide konplexua dute Ataungo herriguneko hainbat kalek. Gehiegizko estutasunak, espaloitarte duin baten eraikuntza oztokatzen du.

Aipatzekoa da, halaber, GI-2120 errepidean galtzadaren altxatze eta zoladuraren tratamendu bidez Elbarrena, Astigarraga eta Ergoiena auzoetan egokitu diren koexistentzia guztiak ez dutela motordun ibilgailuen trafikoa baretzeko helburua erdietsi.

Arrondotik San Gregorio bitartean ez da inolako espaloirik, ezta San Gregoriotik aurrera ere.

Bestalde, 2003ko Ataungo Irisgarritasun Planak berak arestian aipatutako gabeziak nabarmentzen zituen (oinezkoen pasabiderik eza, horien diseinu okerra, zabaleria eskasa, oztopoak eta zeharkako zein luzetako gehiegizko maldak). Plana idatzi zenetik igarotako 20 urtetan oinezkoen pasabide asko zuzendu badira ere, badira irisgarritasuna bermatzen ez dutenak oraindik, oztopo handiena espaloitarte batzuen zabaleria eskasak izaten jarraitzen duelarik.

4.3.3.- ETXEBIZITZA

4.3.3.1.- Etxebizitza aurreikuspenak eta egungo egoera

Arau Subsidiarioen arabera 2005. urtean Ataunen 745 etxebizitza zeuden guztira, hiriguneak zein barreiatuan kokatutakoak barne. Egun, aldiz, 873 etxebizitza (ikus 3. AZTERKETA SOZIO-EKONOMIKOA ataleko 3.5. ETXEBIZITZA PARKEA puntua). Aurretik esan bezala, egungo Arau Subsidiarioen indarraldian gauzatutako etxebizitza berriak 101 inguru izan dira, hau da, guztira aurreikusitako 314 etxebizitzaren %32 inguru.

Arestian esan bezala, biztanleriaren bilakaera arrazoi sozio-ekonomikoen ondorio dela deritzogu, etxebizitza parkearen eskaintzarena baino gehiago, izan ere, etxebizitza parkea gehien hazi den garaia (2015-2020) ez dator bat biztanleriaren hazkunde handienekoarekin. Halaber, etxebizitza hutsak batez bestekoaren gainetik daude nabarmen, nahiz eta apenas merkaturatzen diren. Gainera, egungo Arauek oraindik eraiki gabeko 213 etxebizitza berri inguru arautzen dituzte, eta hauei etxebizitza hutsak (230) batu behar zaizkie. Hau da, 443 etxebizitza horietan 1.196 biztanle inguruk aurki dezake bizitegia, edozein arrazoizko aurreikuspenetik oso urruti, zalantzarik gabe. Edonola, egungo Arauek aurreikusitako bizitegi garapen nagusiak (HJA 8 eta HJA 13 Elbarrenan, HJA 16 Astigarragan eta HJA 17 Arrondon) arreta handiz aztertu beharko dira, *Plan Hidrológico de la Demarcación Hidrográfica del Cantábrico Oriental* (R.D. 35/2023) delakoaren arabera, uholde arriskuko guneak kokatzen baitira.

3 SOZIO-EKONOMIA ataleko 3.5. ETXEBIZITZA PARKEA puntuan etxebizitzaren inguruko datu gehiago xehatzen dira.

4.3.3.2.- Etxebizitza hutsak

11. taula: ETXEBIZITZA HUTSAK							
Herrigunea	Auzunea	Egonkorra	Ez egonkorra	Urte bat hutsik	Bi urte edo gehiago hutsik	Beste erabilerak	Orotara
Aia	Aia	6	0	0	1	0	7
	Aia (bar.)	19	3	2	16	0	40
San Gregorio	Ergoiena	11	1	1	16	0	29
	S. Gregorio	82	9	3	31	2	127

	S.G. (bar.)	37	5	2	30	0	74
San Martin	Arinberriaga	5	1	2	2	0	10
	Arrondo	23	2	0	15	0	40
	Astigarraga	24	4	1	8	1	38
	Elbarrena	306	24	6	58	1	395
	S.M. (bar.)	48	6	3	53	3	113
Ataun	-	561	55	20	230	7	873

3.5.3 ERABILERA atalean adierazi bezala, etxebizitza parkearen %28,64a hutsik dago (%26,3ak hutsik darama bi urtez edo gehiago), katastroa, etxebizitza errolda, errolda eta Gipuzkoako Urak erakundeak emandako datuen arabera.

12. taulako datuak aztertuta hainbat irakurketa egin daitezke:

- Elbarrenan udalerriko etxebizitza ororen %45,2a aurkitzen dugu. Ataungo biztanleria gehientsuena beraz, %50,5a zehazki, bertan bizi da. Etxebizitza hutsen portzentaia udalerriko baxuenetakoa da Elbarrenan (%16,2), parkearen gaineko presioa gainerako eremuetakoa baino handiagoa denaren seinale.
- Aia auzoaren salbuespenezko kasua alde batera utziz (etxebizitza parkearen %5 inguru izanik hutsen portzentai baxuena du; %14,29), Elbarrenaz gain Astigarraga auzoa da etxebizitza hutsen portzentai baxuena duena (%23,68).
- Etxebizitza hutsen portzentai altuenak Ergoienan (%58,62) eta barreiatu ezberdinetan ematen dira (%49,56 San Martin barreiatuan, %45 Aia barreiatuan eta %43,24 San Gregorio barreiatuan).

4.3.3.3- Ataun eta inguruko udalerrien arteko alderaketa

12. taula: 50 URTETIK GORAKO ANTZINATASUNA DAUKATEN FAMILIA-ETXEBIZITZAK (%)					
Udalmap					
Udalerria	1991	2006	2011	2016	2021
Ataun	18,70	22,76	27,48	28,36	37,25
Beasain	14,28	15,36	20,50	23,74	34,81
Idiazabal	21,56	27,76	27,45	30,00	38,83
Lazkao	11,07	9,51	16,20	15,67	35,34
Olaberria	8,91	16,25	42,95	45,65	70,36
Ordizia	21,92	18,00	22,42	30,74	43,69
Tolosa	27,53	25,66	28,45	30,42	38,62
Zumarraga	9,01	9,27	20,47	33,44	52,00

Antzinatasun datuak aztertuz gero, 2021eko datuen arabera, Ataungo etxebizitzaren %37,25a 1971. urtearen aurretik eraiki zirela ikus dezakegu. Inguruko udalerriekin alderatuta indize altuen artean kokatzen da Ataun, nahiz eta handiagoa dutenak badiren. Ohikoa denez, landa eremuan aurkitzen ditugu antzinatasun indize handieneko eraikinak; 3.5.2 EZAUGARRIAK atalean bildutako datuek, landa eremuko etxebizitzaren %67a 1925. urtea baino lehen eraiki zirela erakusten dute. Herriguneetan, bizitegi garapen berrienak Elbarrenan (113), San Gregorion (37) eta Arrondon (15) topa ditzakegu, azken 20 urteotan Astigarraga, Arinberriaga, Ergoiena eta Aian apenas eraiki delarik (6 guztira).

13. taula: FAMILIA ETXEBIZITZAK - BATEZ BESTEKO AZALERA (m ²)					
Udalmap					
Udalerria	1991	2006	2011	2016	2021
Ataun	33,60	44,04	45,90	52,10	54,30
Beasain	28,66	36,57	38,50	42,80	45,70
Idiazabal	39,05	42,80	43,90	52,70	51,50
Lazkao	59,63	34,49	36,40	51,60	40,50
Olaberria	34,92	44,81	47,60	47,10	53,80
Ordizia	35,84	37,93	41,80	40,40	48,40
Tolosa	38,77	45,46	45,90	42,40	51,90
Zumarraga	28,92	36,81	39,10	43,60	47,70

Azaleraren datuei erreparatuz gero, Ataunen etxebizitzek 54 m² inguruko batez besteko azalera dutela ikus dezakegu. Inguruko udalerriekin alderatuz, azalera indize handiena du Ataunek.

3.5.2 EZAUGARRIAK atalaren arabera, Ataungo etxebizitza kopuru handiena (%35 inguru) 75-100 m² bitarteko azalera du eta %34ak 150 m²tik gorakoa, horietatik gehienak (%53 inguru) landa eremuan kokatzen direlarik.

4.3.4.- JARDUERA EKONOMIKOA

Ataungo ekonomiaren %70,6a zerbitzuetan oinarritzen bada ere, azalerari dagokionez, nekazaritza, abeltzaintza eta basogintza dira nabarmen udalerriko jardura ekonomiko garrantzitsuenak, lurzoruaren erabileraren arabera 2.553 Ha inguru hartzen baitute, hau da, azalera osoaren %44 inguru. Beraz, lehen sektorearen balio erantsia Ataunen 7,2 ingurukoa den arren, udalerraren sorkuntzan eta izaeran, eta ingurumenaren zein paisaiaren kontserbazioan duen garrantzia bere pisu ekonomikoa baino askoz haratago doa.

Zentzu horretan, azken hamarkadetan baserria jasaten ari den hustea eta errelebo eza oso kezagarriak dira. Bide batez, esan beharra dago bizitegiek eta industriak ibai ertzeko lurak okupatzen dituztenean lur estrategiko eta emankorrenak ebasten dizkiotela nekazaritzari. Alor honetan garrantzia berezia hartzen du egungo Arauek antolatutako HJA 2 eremuak, non ibai ertzeko 2 Ha inguru industria jarduerara bideratzen diren, bailararen ingurumen zein paisaia balioei kalte handia eraginez.

Nabarmentzekoa da, halaber, Ataungo aberastasunaren sorreran industriak duen pisu txikia (%9,4), eskualdeko (%54,6) zein probintziako (%27,6) batezbestekotik oso azpitik.

14. taula: INDUSTRIA ESTABLEZIMENDUEN BATEZ BESTEKO TAMAINA (langile kopurua)					
Udalmap					
Udalerrria	2003	2007	2012	2017	2022
Ataun	3,80	5,50	9,00	4,00	4,75
Beasain	38,24	44,67	49,78	53,34	62,94
Idiazabal	24,83	25,90	22,49	31,04	33,07
Lazkao	11,89	12,63	8,79	10,30	10,95
Olaberria	25,62	33,44	34,71	51,11	44,00
Ordizia	16,10	26,97	22,81	18,23	21,97
Tolosa	13,43	10,54	10,92	9,30	9,98
Zumarraga	15,60	16,57	19,54	10,15	10,78

Aipatu industria establezimenduen batez besteko langile kopuruari dagokionean, inguruko beste udalerriekin alderatuta, indize baxuena du Ataunek nabarmen; establezimenduen %84,3ak bi enplegatu edo gutxiago ditu eta %66,7a pertsona fisikoak dira, hau da, autonomoak. Horiek horrela, Ataunen udalerriko ekonomiaren traktore izateko establezimendurik ez dagoela ondorioztatu daiteke.

Establezimenduen kokapenari dagokionez, establezimenduen gehiengoa Elbarrena (37 establezimendu) eta San Gregorio auzuneetan (13 establezimendu) kontzentratzen dira, zerbitzu sektorekoak nagusiki. Eremu barreiatuetan ere establezimendu kopuru handia dago, hala nola, 21 establezimendu San Martineko barreiatuan, 10 San Gregorioko barreiatuan eta 13 Aiako barreiatuan. Establezimendu hauek, ordea, oso sakabanatuta daude eta lehen sektorekoak dira, nagusiki.

4.3.5.- AZPIEGITURAK ETA ENERGIA

Foru Aldundiaren eskumeneko GI-2120 errepidea da udalerriko bide azpiegitura nagusia, udalerrria iparraldetik (Lazkao) hego-ekialdera (Nafarroa) zeharkatzen duena, Zubikoeta, Elbarrena, Astigarraga, Arrondo, Arinberriaga, San Gregorio eta Ergoiena igaro ondoren. Aipagarria da egungo Arauak indarrean sartu aurretik Elbarrenan Agauntzaren ezker aldean eraiki zen errepidea (HJA 5), saihasbide izaera izan dezakeena, errepidea herriguneko plazatik kanporatzeko gaitasuna duen heinean.

Udalerrri barnean hasi eta bukatzen diren Foru Aldundiaren eskumenekoak diren beste bost errepide daude; Urkillagako gaina eta Aia zeharkatuz Arrondon hasi eta Kaxetan amaitzen den GI-3151, eta zaku-hondo izaera duten GI-4151 (Aitzarte aldera), GI-4153 (Motasorora), GI-3152 (Lauttierreka auzora) eta GI-4152 (San Gregorioko hilerria).

Gainontzean, udalaren eskumenekoa den eta barreiatuko hainbat eraikin eta lursaileri sarbide ematen dien landa-bide sare zabala du Ataunek, guztira 35 km inguruko luzera hartzen duelarik.

Aralar mendilerrotik jeisten diren ibai eta erreka ugariei esker ur hornikuntza guztiz bermatua badago ere, ur-biltegietan ematen den arazketa tratamenduak eta zaharkitutako hoditeria sareak ez du urte osoan zehar edateko uraren gutxieneko osasungarritasuna bermatzen.

Saneamendu sareko kolektorea San Gregorio auzoraino luzatzen da, eta beraz, udalerriko herrigune nagusietako ur zikinak behar bezala biltzen dira. Edonola, San Gregoriotik goragoko auzoetan ez dago kolektore nagusi ez bestelako arazketarako instalakuntzarik, herrigune horietako (Ergoiena eta Aia bereziki) ur zikinak zuzenean Agauntza errekarara isurtzen direlarik.

Energiaren alorra estrategikoa da etorkizuneko eredu sozio-ekonomikoa aurreikusteko orduan. Zentzu horretan, 2005 urtean garatutako Tokiko Agenda 21 agiriko ekintza-planean jasotako neurriak hein batetan bete direla esan dezakegu, hala nola, eraikin eta azpiegitura publikoen energia elektrikoaren kontsumoaren razionalizazioa edota eguzki-energia sustatzea, adibidez.

15. taula: INSTALATUTAKO POTENTZIA FOTOVOLTAIKOA (kW 10.000 biztanleko)					
Udalmap					
2005	2010	2015	2020	2021	2022
6,47	48,11	79,60	103,10	127,09	127,09

2022an Ataungo udalerriaren urteko kontsumo elektrikoa 2.113,10 Kwh/biztanleko izan da, inguruko udalerrietakoa baino dezente baxuagoa, batez ere, kontsumo elektriko industrialaren pisu txikiagatik.

16. taula: UDALERRIKO 2022 URTEKO KONTSUMO ELEKTRIKOA (Kwh/biztanle)			
Udalmap			
Udalerria	Udalerriko urteko kontsumo elektriko ez-industrialak (Kwh/biztanle)	Udalerriko urteko kontsumo elektriko industrialak (Kwh/biztanle)	Udalerriko urteko kontsumo elektriko guztira (Kwh/biztanle)
Ataun	1.822,62	290,49	2.113,10
Beasain	1.998,15	3.845,28	5.843,44
Idiazabal	2.560,15	6.903,07	9.463,23
Lazkao	1.803,70	2.512,39	4.316,08
Olaberria	8.195,92	722.550,46	730.746,38
Ordizia	2.452,20	2.464,27	4.916,47
Tolosa	1.112,89	380,68	1.493,57
Zumarraga	2.293,92	955,55	3.249,47

Udalerrian instalatutako potentzia fotovoltaikoa (2021a. urtea) 127,09 Kw-koa da 10.000 biztanleko; potentzia eolikoa 0 Kw 10.000 biztanleko; potentzia hidraulikoa 107,40 Kw 10.000 biztanleko; eta eguzki-azalera termikoa 131,26 m²-koa 10.000 biztanleko.

4.3.6.- ONDAREA

Ataunek biltzen duen ondare kulturala aberatsa, anitza eta balio handikoa da. Eraikitakoari dagokionez, udalerriko kultura ondarearen intereseko elementuak eta gune ezberdinak 2.1.6 KULTURA ONDAREA atalean jaso dira, bai elementu arkitektonikoei dagokionez (22. taula) zein babestutako elementu arkeologikoei dagokionez ere (23. taula). Halaber, egungo Arauen baitan katalogatutako ondare arkeologiko eta arkitektonikoaren zerrenda 4.1.4 INDARREKO UDAL PLANGINTZA ETA ERAGINA DUTEN BESTE PROIEKTUAK atalean jaso da. Zerrenda zabala da, mugarri nagusiak biltzen dituena; elementu berrien txertaketak azterketa sakonago bat eskatuko luke.

Eraikuntza eta aztarna arkeologikoak alde batera utzita, elementu naturalak azpimarratu nahiko genituzke, ingurumen eta paisaia balio handikoak diren heinean. 2. INGURUMEN AZTERKETA atalean egiten da ondare sorta aberatsaren deskribapena eta laburpena (2.1.12. INGURUMEN ALDERDI GARRANTZITSUEN LABURPEN). Arestian aipatu bezala, ingurumen baldintza pribilegiatuak dituen udalerria da, Lizarrustiko aterpetxearen inguruko azpiegitura esanguratsuz gain, inguruneak eskaintzen dituen baliabide naturalez gozatzeko aukera ematen duen ibilbide sare (Bernoako galtzada, Domoa, Jentilbaratza, Sarastarri...) etengabe garatzen ari delarik. Bide horretan aipatzekoa da berriki jarduera abiatu duen Aiako Erroipe interpretazio zentroa.

Azkenik, kultur ondare inmaterialari dagokionean, ezaguna da Ataunek duen aberastasuna mitologia esparruan (Jentilen etorrera, Gau ibilaldi mitologikoak, Mitologia guneak eta kondairak...), baita jestuari (ezagutzak, teknikak, eguneroko lanak) edo hitzari (hizkuntza, mitoak, kondairak, toponimia eta beste ahozko ohiturak), praktika sozialari (joko eta kirolak, festak, sukaldaritza) eta ekoizpen artistikoari (kantua, antzerkia, dantza, arte plastikoak, literatura) lotutakoak ere, Joxe Miel Barandiaran, Juan Arin Dorronsoro eta beste ataudarrek eginiko ikerketek erakusten duten moduan. San Gregorioko Barandiaran museoa eta berriki zabaldutako Murkondo auzoko Sara etxea dira, besteak beste, alor honetako balioak ezagutzera emateko gune nagusiak.

Ataunen, 2023ko abuztuaren. Lantalde idazlea:

